



Informazioa eskuratzea, parte-hartzea eta epaitegietara jotzea ingurumen arloan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Informazioa eskuratzea, parte-hartzea eta epaitegietara jotzea ingurumen arloan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: 1.a, 2009ko abuztua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Egileak: José Ignacio Cubero Marcos, Marta Ituribarria Ruiz, Iñaki Lasagabaster Herrarte

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Fotokomposizioa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10, 7.^a - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S. A.
Carretera Lutzana-Asua, 24-A
48950 Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2989-2

Lege-gordailua: BI 2249-2009

Aurkibidea

SARRERA	7
LEHEN KAPITULUA. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEA	11
1. Informazioa funtzio publiko gisa	13
2. Informatzeko betebeharraren ezaugarriak eta zenbaterainokoa	16
3. Informazioari eta administrazio-jarduerari buruzkoak	23
BIGARREN KAPITULUA. INGURUMEN ALORREKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA	29
1. Ingurumen alorreko informazioa jasotzeko eskubidea arautzen duten arauak	31
2. Partikularrek eskatutako informazioa emateko betebeharra duten agintari publikoak	34
3. Ingurumenaren alorrean agintari publikoek dituzten betebeharraren nagusien edukia	38
4. Informazioa eskuratzeko eskubidea	48
5. Informazioa eskatzeko legitimazioa	52
6. Informazioa eskatzeko prozedura	54
7. Informazioa emateko modu edo formatua	60
8. Eskaerak ukatzea	64
HIRUGARREN KAPITULUA. PARTE-HARTZEA	73
1. Parte-hartzearen ezaugarriak	75
2. Informazioa bidaltzeko modua eta bitartekoak	82
3. Parte-hartzea bere baitan hartzen duten planak eta programak	87
4. Parte-hartzea, ingurumenarekin zerikusia duten arauak egiteko prozeduretan	91
5. Parte hartzea administrazio-jarduera betearazleetan	100
LAUGARREN KAPITULUA. EPAITEGIETARA JOTZEARI BURUZKOA	105
1. Epaitegietara jotzeko eskubidearen arautze juridikoa	107
2. Epaitegietara jotzeko eskubidea, eskubide orokorra nazioarteko arauetan eta ingurumen-arauetan	108
3. Egungo araubide juridikoa eta mugak	110
4. Administrazioaren aurreko erreklamazioa ingurumen gaietan informazioa eskuratzeko edo parte hartzeko eskubideak errazten ez direnean	111
5. Kautela-neurriak hartzeko aukera	114
6. Ingurumen-prozesuak eta horien kostua finantzatu	116
7. Ingurumenarekin loturiko eskubideak defendatzeko bide ez-jurisdikzionalak	117
ERANSKINA. LEGE ERREFERENTZIAK	119
1. Marko orokorra	121
2. Ingurumen-informazioa	122
3. Parte hartze publikoa ingurumeneko gaietan	124

SARRERA

Informazioa zabaltzea, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, parte hartzeko eskubidea eta tutoretza judizial eraginkorra izateko eskubidea ingurumenari buruzko araudi berriaren osagarriak dira, garrantzi handikoak, halaber. Aarhuseko Hitzarmena Europar Batasuneko eta Estatuetako arau ugariaren jatorria da, izan ere, administrazio-jardueraren oinarrizko alderdi eta eskubideak arautzen ditu.

Arau berri hau, ingurumenaren arloan ez ezik, orokorrean Administrazioaren funtzionamendurako ere, oso garrantzitsua da. Administrazioa informazioa zabaltzera behartuta egoteak badu inportantziarik ikuspegi desberdinetik. Ingurumenaren aldetik herritarrek euren eguneroko bizitzan eragina duten ingurumen-aldagaiak zeintzuk diren jakingo dutelako, horretarako galderarik egin barik. Informazio honek eragingo duena da herritarrak aktiboagoak izatea ingurumenarekin loturiko jarduera politiko-administratiboetan. Informazioa zabaldu behar horrek Administrazioari jardute-modua aldaraziko dio, izan ere, jarduerak eta bere eskuetan dauden informazioek gero eta publikoagoak izan beharko dute.

Ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeak eta informazio hori eskuratzeko eskubideak oso aukera garrantzitsuak aitortzen dizkiete herritarrei teknologia berrien garapenera esker. Bitarteko elektronikoei herritarrei informazioa eskaintzeko modu erraz, arin eta osoa ahalbidetu dute. Bitarteko horiek gabe informazio hori eskaintzea oso lan nekeza litzateke. Administrazio publikoek ez dute aitzakiarik informazioa zabaltzeko beharra betetzeko, horrela pertsonak dituzten eskubideak bermatzen dira eta.

Dokumentu hau Aarhuseko Hitzarmenak jatorrian sortu zituen beharrak bete behar dituztenentzat da, arlo publikoentzat zein pribatukoentzat. Hain zuzen ere, Hitzarmeneko ulertzeko gaitzak izan daitezkeen zenbait alderdiaren edukia argitze aldera. Informazioa zabaltzeak, informazioa eskuratzeko eta parte hartzeak Administrazio Publikoen jardueran sor ditzaketan arazoaren analisia da lan honen asmoa.

Aurkibidean bertan islatzen dira aztertutako arazo mordoak eta horietako batzuk norainokoak diren zehazteko zailtasuna. Esperientzia praktikoak eta, muturrera jota, Auzitegiek erakutsiko dute Administrazioak, bere jardueran, segitu behar dituen funtsezko ildoak.

Lana hainbatetan berridatzi da arauen edukia aditua ez den publikoari helarazte aldera. Ez pentsa, dena den, dibulgazio lana denik. Alderantziz, lan doi eta zehatza da, araudiaren alderdi guztiak urkuldu nahi dituen. Modu horretan, zenbait puntutan berri-berriak diren arauak aplikatu behar dituzten pertsonen laguntza emango zaie. Egileak José Ignacio Cubero eta Marta Iturribarria izan dira eta ikuskatze lana Iñaki Lasagabasterrena izan da. Eskerrik asko beraiei artaz eta arduraz egindako lanagatik, izan ere, euren asmoa ekarpena egitea zen Administrazioaren jarduerarako eta, aldi berean, herritarren eskubideak bermatzeko tresna erabilgarria sortuz.

LEHEN KAPITULUA

**INGURUMENARI BURUZKO
INFORMAZIOA ZABALTZEA**

AURKIBIDEA

1. INFORMAZIOA FUNTZIO PUBLIKO GISA	13	3. INFORMAZIOARI ETA ADMINISTRAZIO-JARDUERARI BURUZKOAK	23
1.1. Administrazioak informatzeko betebeharra du	13	3.1. Agintari publikoek ingurumenari buruzko egoerari buruz etengabe informatzeko betebeharra dute, eta informazio hori ahalik eta modu zabalenean eta sistematikoenean jarri behar dute herritarren eskura	23
1.2. Informazioa eskuragarri jarri behar da	13	3.2. Informazioaren eta telematikaren teknologien erabilera, informazioa zabaltzeko	23
1.3. Informazioa emateko ardura duten funtzionarioen prestakuntza	14	3.3. Emandako informazioaren egiazkotasun-bermea. Beste helbide batzuen bidez informazioa ematearen arazoa ..	25
1.4. Ingurumenari buruzko informazio-alarrean ardura berezia duten agintari publikoak eta administrazio-organok	14	3.4. Ingurumenari buruzko informazioa zabaltzea bestelako eskubideekin lotuta	26
1.5. Ingurumenari buruzko informazioa emateko sistemak gaitzea, sistema telematikoak, batik bat	14	3.5. Une oro kontsultak egiteko bitartekoak ezartzea	27
1.6. Informazioa emateko prozedura eraginkorrak ezartzea ..	15		
2. INFORMATZEKO BETEBEHARRAREN EZAUGARRIAK ETA ZENBATERAINOKOA	16		
2.1. Informatzeko betebeharraren ezaugarriak eta zenbaterainokoa, orokorrean	16		
2.2. Gutxienez zabaldu beharreko informazioa	17		

1. INFORMAZIOA FUNTZIO PUBLIKO GISA

1.1. Administrazioak informatzeko betebeharra du

Botere publikoei dagokien informatzeko funtzioa ez da aztertu «funtzio publikoaren» ikuspuntua oinarri hartuta. Askotan aztertu da informazioa jasotzeko eskubidea, bai eta informazioa komunikatzeko eskubidea ere, baina pertsonen dagokien eskubide subjektibo gisa baino ez. Baina informazioaren gaia «funtzio publiko» gisa lantzen denean, ez dugu informatzeko jardueraz pentsatzen pertsonen duten eskubidearen ikuspuntutik, baizik eta botere publikoen ikuspuntutik, eta zehatzago esanda, agintari publikoen ikuspuntutik.

Ordenamendu juridikoaren bidez ematen zaizkie zenbait botere Administrazio publikoei. Botere horiek gai batzuei eragiten die eta horien bidez zenbait funtzio betetzen dituzte. Funtzio publiko horiek mota askotakoak dira. Horietako batzuek politika publiko jakinak gauzatzen diren sektoreetan esku-hartzea eskatzen dute. Esate baterako, hirigintzaren sektorean, funtzio publiko gisa. Hirigintzan eskumena duten administrazioek, dagokien boterea erabiltzen dutenean, hirigintza-politika funtzio publiko egin behar dute; hau da, botere publikoek funtzio publikoa jarri behar dute abian herritar guztien ongizaterako. Informatzea, funtzio publikotzat hartuta, desberdina da.

Informatzea ez da helburu jakin batzuk lortze aldera bideratutako eskumena edo politika. Informatzea funtzio publiko bat da, eta demokrazia batean, agintari publikoek duten betebeharretakoa bat. Demokraziaren hasierako urteetan, funtzio publiko hori gauzatzea zaila bazen ere, gaur egungo egoera oso bestelakoa da. Informatzea, funtzio publiko gisa, betebeharra da kultura-estatuan. Informaziorik gabe ezinezkoa da kulturaren garapen orokorrik izatea. Errealitatean zer gertatzen den jakiteko elitismorik, desberdintasunik ez egotea dakar informatzeak, eta iritzi publiko askea garatzeko aukera ematen du.

Ingurumenari buruzko gaietan, informazio-funtzio hori modu berezian gauzatzen ari da. Nazioarteko zenbait ekimen oinarri hartuta —Aarhus-eko Hitzarmena, batik bat—, botere publikoek, eta batez ere agintari publikoek, informatzeko betebeharra dutelako iritzia berresten ari da. «Agintari publikoak» terminoarekin Administrazio publikotik haratago diren subjektuez ari gara. Zenbait arauk zalantzarako bide ematen badute ere, informatzeko funtzio publikoa betebeharrak publiko gisa ageri da, eta horrek, funtzio publiko izateak, ez du esan nahi bakarrik, eta ez dakar bakarrik, herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea erabiltzea. Izan ere, botere publikoek informatzeko betebeharra dute, Legeak zuzenean hala agintzen duelako, eta ez da ezinbestekoa herritarrek informazioa eskatzea agintariak beren betebeharra betetzeko.

1.2. Informazioa eskuragarri jarri behar da

Agintari publikoek informazioa eskuragarri jartzeko betebeharra dute. Horrek esan nahi du informazioak zenbait baldintza bete behar dituela, formari zein edukiari dagokionez, ulergarria izan dadin. Horrez gain, informazioa erraz lortzeko moduan jarri behar da, betebeharrak edo karga bereziak alde batera utzita.

Informatzeko funtzio publikoa betebeharrak bat da, baina ez da bakarrik edo ezinbestekoa herritarrek informazioa jasotzeko eskubidea baliatzea betebeharrak hori izan dadin.

Ingurumen sailak ez ezik, agintari publiko guztiak ere behartuta daude duten ingurumen-informazioa ematera, jarduera-esparrua edozein delarik.

1.3. Informazioa emateko ardura duten funtzionarioen prestakuntza

Hain garrantzitsua den jarduera horri buruzko aipamenak egiten ditu legeak; hau da, informatzeko ardura duten pertsonen prestakuntzari buruzkoak. Gerta daiteke langile publikoek ez jakitea Legeak ingurumenari buruz ezarri dituen arau berriak, eta, hortaz, nekez beteko dituzte dagozkien betebeharrak eta lege-aginduak ez dituzte behar bezala beteko. Ingurumenari buruzko Zuzenbidea izugarri garatu da, bai arautzen dituen gaiak gehiago direlako, bai arauketa horretan erabiltzen dituen tresna juridikoak berriak direlako. Ingurumenari buruzko zuzenbidea izugarri garatu da, bai arautzen dituen gaiak zabaldu egin direlako, bai hori gauzatzeko erabiltzen dituen tresnengatik. Horregatik, funtzionario publikoen prestakuntza gero eta garrantzitsuagoa da.

1.4. Ingurumenari buruzko informazio-alarrean ardura berezia duten agintari publikoak eta administrazio-organismoak

Informazioa eskuratzea ez da erraza herritarrarentzat —siplea dirudi baina zaila da informazioa lortzea—, ingurumenari buruzko informazioa emateaz zein administrazio eta zein administrazio-organo arduratzen den jakin behar baitu. Administrazio asko daude, administrazio horiek egoitza asko dituzte eta informatzeko ardura duten zerbitzuak leku askotan kokatuta egoten direnez, informazioa eskuratzea kalbario bihurtzen da maiz herritarrarentzat; are gehiago, hainbeste oztoporen aurrean, informazioa eskuratzeko eskubideari uko egiten diote. Horrenbestez, berebiziko garrantzia du administrazio horiek eta ingurumenari buruzko informazioa emateko erantzukizuna duten administrazio-organo horiek zein diren argi eta garbi zehaztea eta, ahal den neurrian, gainerakoetatik garbi bereiztea. Behar bezala bereizita egotea ez da posible izango askotan, administrazio txikiak badira, batez ere; beste kasu batzuetan, posible izateaz gain, gomendagarria ere bada.

Legeak Administrazio publikoei ez ezik, agintari publikoei ere ezartzen die informatzeko betebeharra. Termino honen barruan Administrazioak sartzen dira eta baita pertsona fisiko zein juridikoak ere erantzukizun publikoak bere gain hartzen dituztenean, funtzio publikoak gauzaten dituztenean edo ingurumenarekin erlazionatutako zerbitzu publikoak ematen dituztenean —kasu horietan guztietan Administrazioaren edo Legeari jarraituz funtzio publikoak gauzaten dituzten pertsona fisiko edo juridikoen agindupean daudelarik. Zenbait kasutan ez da erraza izango agintari publikoa zein den zehaztea. Hori dela eta, Administrazio publikoek agintari publikoen zerrenda sortu behar dute. Zerrenda horretakoak ingurumenari buruzko informazioa ematera behartuta daude eta ingurumenaren arloko araudia aplikatu dakieke eskuratze, informatze eta parte hartzeari dagokionez.

Ingurumenari buruzko informazioa ahalik eta modu eskuragarrienean jarri behar zaie herritarrei.

Sistema telematikoei esker informazioa jaso eta ematea oso erraza eta eroso da, batetik bestera mugitu behar barik.

1.5. Ingurumenari buruzko informazioa emateko sistemak gaitzea, sistema telematikoak, batik bat

Ingurumenari buruzko informazioa ahalik eta modu eskuragarrienean jarri behar zaie herritarrei. Egun, nahitaezkoa da sistema telematikoak gaitzea, informazioa eskuragarri jartzeko eta informazioa ematea eroso eta erraza izateko, eta batetik bestera mugitu behar ez izateko; baina, jakina, administrazio-sistemak horretarako aukera ematen duen heinean. Azken horri dagokionez, administrazio-sistemak berak mekanismo jakin batzuk izan behar ditu; hau da, behar bezala egituratutako mekanismoak, ingurumenari buruzko informazioa telematika bidez zuzenean eman ahal izateko eta, hala, informatzeaz arduratzen den pertsonak kasik automatikoki emateko informazioa. Informazio-sistema horiek ezartzen ez badira, agintari publikoarentzat ez da gomendatzen den bezain erraza izango dagozkion betebeharrak betetzea.

Informazio-teknologietako elkarreraginak aukera ematen die herritarrei agintari publikoekin harremanetan jartzeko moduak gehiago izan daitezen, egunean 24 orduko zerbitzu etengabea emateaz gain. Adibidez, kontsulta-postontzi bat jartzeak izugarri arinduko lizkioke herritarrari tramiteak, izan ere, zalantzak argi diezazkiokete agintari publikora

zuzenean joan barik. Egun, agintari publikoek telematikaren bidez tramitatzen dituzten prozeduretan horrelako bide zuzenak ezarri dira, herritarrek eskariak egin ahala egiten dituzten akatsak zuzentzeko aukera emanaz.

1.6. Informazioa emateko prozedura eraginkorrak ezartzea

Agintari publikoak ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri jarri behar badu, zenbait prozedura ezarri beharko ditu informatzeko; hau da, administrazio-zerbitzuen funtzionamendua argi eta garbi azalduko da, administrazio-jarduera hori pausoz pauso zehaztuta egon dadin. Alde horretatik, garrantzitsua izango litzateke zenbait funtzionamendu-protokolo sortzea, agintari publikoaren jarduera —informatzeko duen funtzioa— eraginkorra izan dadin.

Ingurumenari buruzko informazioak mota askotako datuak hartzen ditu barne: ingurumenaren egoerari buruzkoak, horretan eragina duten jardueri buruzkoak eta babesteko hartzen diren neurriak buruzkoak

Ingurumena babesteko dakarren kostu ekonomikoa eta horretatik ateratzen ditugun onurak ere ingurumen-informazioa da.

Halaber, barne hartzen ditu ingurumena aldatzeak pertsonen osasunean eta segurtasunean dituen eraginak.

2. INFORMATZEKO BETEBEHARRAREN EZAUGARRIAK ETA ZENBATERAINOKOA

2.1. Informatzeko betebeharraren ezaugarriak eta zenbaterainokoa, orokorrean

2.1.1. Informazioaren edukia

2003/4 Zuzentarauak ingurumenari buruzko gaietan herritarren eskura jarri beharreko informazioaren definizioa ematen du. Hain zuzen ere, ingurumeneko elementuen egoerari buruzko informazio oro, izan idatzia, ikusizkoa, entzutezkoa, elektronikoa edo beste edozein moduren batean jaso; hauek dira ingurumeneko elementu horiek: airea eta atmosfera, ura, lurzorua, lurra, paisaiak eta gune naturalak, bai eta hezeguneak eta itsasoko eta kostaldeko zonaldeak ere, biodibertsitatea eta haren osagaiak, genetikoki eraldatutako organismoak barne, eta elementu horien arteko elkarreragina ere bai. Agintari publikoak eskura jarri behar dituen datuak, halaber, beste faktore batzuei buruzkoak ere izan daitezke; esate baterako, lehen aipatu ditugun ingurumeneko elementuei kalteak eragiten dizkieten edo eragin diezazkieketen substantziak, energia, zarata, erradiazioak edo hondakinak —hondakin erradiaktiboak barne—, emisioak, isurketak eta beste edozein jario (2.1. artikulua).

Horrezaz guztiaz gain, ingurumenari buruzko informazioak honako hauek ere hartzen ditu bere baitan: ingurumenaren alorreko politikak, arauak, planak, programak, hitzarmenak eta lehen aipatutako elementuei eta faktoreei eragiten dieten edo eragin diezaioketen jarduerak, bai eta elementu horiek babeste aldera gauzatutako jarduerak edo ezarritako neurriak ere. Ingurumenari buruzko informazioa oso zabala da, kontzeptu horrek hauek ere hartzen baititu: ingurumenari buruzko araudiaren betetze-mailari buruzko txostenak; kostu/onura erlazioari buruzko azterketak, eta ekonomiari buruzko beste azterketa eta suposamendu batzuk, ingurune fisikoaren elementuei eragiten dieten neurrien eta jardueren esparrukoak; eta, azkenik, pertsonen osasun-egoera eta segurtasunari buruzko informazioa —halakorik gertatuz gero, elikagai-katearen kutsadura, barne— edo gizakien bizi-baldintzei, eta kokapen kulturaleri eta eraikinei buruzko informazioa, baldin eta lehen aipatu ditugun ingurumeneko elementuen egoerak kalteak eragiten badizkie edo eragin badiezazkieke.

Ingurumenarekin zerikusia duten alderdi horiek guztiak sakonago landuko baditugu ere, gaien araberako sailkapena egin daiteke: lehenik, ingurune fisikoari eragiten dioten edo eragin diezaioketen maila faktikoko gaiak; bigarrenik, aipatutako edozein elementuri eragiten dioten edo eragin diezaioketen neurriak, planak, arauak edo politikak; eta azkenik, agintari publikoak herritarren eskura jarri beharreko informazioa gai horiei buruzko alderdiak jasotzen dituzten beste zenbait txostenekin osatu behar da, eta txostenok erakunde publikoek edo pertsona fisiko edo juridiko pribatuek sortutakoak izan daitezke.

27/2006 Legearen testuari jarraiki, kasuan kasuko agintari publikoari dagokio informazioaren berri ematea. Dena dela, horrek ez du esan nahi, arauaren arabera, gaien zerrenda itxia denik, «gutxienez» hitza eranstean baita; hortaz, agintari publikoek ingurumenari eragiten dioten gai gehiagoren berri —kasualitatez zein zeharka eragiten dieten gaiak ere bai— eman ahalko dute. Gutxienekoen zerrenda dela ulertzen da, eta, beraz, agintari publikoek ezin izango dute horietako gai bakar bat ere alde batera utzi.

Gerta daiteke zenbait agintari publiko behar bezalako azpiegitura ez izatea herritarrei informazio eguneratua emateko, horretarako nahikoa material edo giza baliabide ez dutelako.

Ingurumenari buruzko informazioa zer den definitzean, ñabardura teknikoak eta zientifikoak asko eta asko dira, eta alor horretan aditu direnen artean ere eztabaidak eragin ditzakete kontu horiek. Hori hala izanik, bi jarrera har daitezke: bata, ingurumenari buruzko informazioaren kontzeptua zentzu zabalean interpretatzea eta, hartara, «ingurune fisikoaren elementuei eragin diezaioketen alderdiak» espresio legalak agintari publikoak behar dezake politika publikoekin zerikusia duten dokumentu asko herritarren eskura jartzera, ekonomia-aren, hezkuntzaren zein gizarteko alderdien eremukoak. Eta bestea, ingurumenari buruzko informazioa zorrotzago mugatzea eta, hartara, agintari publikoak ez litzateke behartuta

egongo bere administrazio-jarduera guztien berri ematera, gastu eta logistika handia behar baita horretarako.

Agintari publikoek, informatzaile lanetan ari direnean, bere zerbitzuen bidez, zuzenean, lortutako informazioa eta partikular batek emandakoa bereizi beharko dituzte. Protokoloak sortu beharko dituzte hartara jakin dadin partikularrek emandako informazioetatik zein den eskuragarri eta zein ez den izango eskuragarri sekretuak edo intimitateak —norberaren intimitatea, hala denean— babestuta egoteagatik.

2.1.2. Informazioa eta informazio hori beste errealitate batzuekin alderatzeko aukera

Eguneratuaz gain, ingurumenari buruzko datuek, 27/2006 Legearen 5.2. artikulua adierazten duenaren arabera, beste datu batzuekin alderatzeko modukoak izan behar dute; hau da, beste agintari publiko batzuetako datuekin alderatzeko modukoak, edo aurretik izandako beste errealitatearen bat aztertzeko aukera emateko modukoak. Alderagarriak izateko beharra, batetik, informazio-xedean oinarritzen da: alda daitezkeen ingurune fisikoaren elementuak. Bi urteko epealdian egindako bi txosten alderatuz gero —esate baterako, ibai baten ur-kalitateari buruzkoak—, etorkizunean ezarri beharreko neurriei buruzko erabakiak hartzeko lagungarria izan daiteke.

Bestalde, agintari publikoak ingurumena babesteko abian jarritako ekintzak ebaluatzeke ere baliagarria da. Esate baterako, ingurumen-politikaren bat eraginkorra izan den aztertzeke antzeko irizpideak erabiltzea oso baliagarria da administrazioaren jardueraren ondorioz ingurune horren egoera hobetu den edo okerrera egin duen aztertzeke. Horrezaz gain, txostenak edo azterketak alderatzeke aukera ematen du neurriak edo ordezkio bideak hartu ahal izateko eta, hartara, agintari publikoak, gerora, dagozkion neurriak ezartzeko. Horrenbestez, ingurumenaren elementuei buruzko informazio osatua emateak zenbait irizpide definitzea dakar, eta, horiei esker, epe jakin bateko egoerak edo Administrazioaren politikak aldera daitezke.

Lurralde jakin baten iraunkortasunari buruzko irizpide komunak ezartzea nahitaezkoa da, txostenak alderatu ahal izateko. Esate baterako, zonalde bateko airearen kalitatea neurtzeko parametro desberdinak erabiliz gero, lortutako informazioa ez litzateke eraginkorra izango, garrantziko elementu fisiko baten errealitatea ebaluatzeke; hau da, lurraldearen eremu horretako atmosfera nolakoa den neurtzeko. Horrenbestez, datuak alderatu ahal izateko, nahitaezkoa da irizpide eta muga uniformeak erabiltzea, ingurumenaren elementu baten ingurumen-egoera aztertzeke, neurtzeko edo baloratzeke. Horren guztiaren inguruan, 2003/4 Zuzentarauak ezartzen du informazioa lortzeko erabilitako neurketa-metodoak buruzko informazio-eskaerak —azterketa-metodoak, laginak ateratzeko eta laginen aurreko tratamendu-metodoak barne— erantzun egin behar dituztela agintari publikoek, bai eta erabilitako prozedura arautuari buruzkoak ere (8.2 artikulua).

2.2. Gutxienez zabaldu beharreko informazioa

2.2.1. Araudiari buruzko informazioa

Informazio oro zabaltzeko abiapuntua hau da: ingurumenaren alorra arautzen duten oinarritzko xedapenak aipatzea. Eta bigarrenik, herritarrek jakin dezaten prozedura horiek nola gauzatzen diren, agintari publikoari dagozkion betebeharrak eta arauak buruz egiten diren interpretazioak; izan ere, horiek elementu giltzarriak dira herritarraren segurtasun juridikorako. Horiek guztiak arau juridikoetan jasotakoak daude, eta administrazioaren jarduerara baldintzatzen dute, legezketasun printzipioari jarraiki.

Zein arauen berri eman behar den erabakitzea, arazo-iturri izan daiteke. Legearen arabera, jakitera eman beharreko araudia honako testu hauetan biltzen da: ingurumenari buruz edo gaiarekin lotura duten nazioarteko itunak, hitzarmenak eta akordioak, eta Europako, estatuak, autonomietako eta tokian tokiko araudiak. Baina, lehen esan dugun be-

Ingurumenari buruzko datuak eguneratuak eta konparatzeko modukoak izan behar dira.

Agintari publikoek ingurumenari buruzko informazioa emateko duten betebeharrak gain, zabaldu egin behar dute informazio hori aurretik inolako eskaririk egon gabe.

zala, ez dirudi erraza denik ingurumenaren kontzeptua edo harekin lotura duten alderdiak zehaztea; izan ere, lotura asko daude ingurumenari eragiten dioten mota guztietako alderdi ekonomiko zein sektorialekin. agintari publikoak erabaki behar du zein testu eman jakitera eta zein ez, betiere herritarrek, zentzuzko arrazoiak direla medio, ingurumenari zeharka eragiten dioten beste batzuk erants daitezzen eskatzeko duen eskubideari kalterik egin gabe.

2.2.2. Ingurumenarekin lotura duten politikei, programei eta planei buruzko informazioa

Legegileak, agindu horren bidez, bereizi egiten ditu, alde batetik, xedapenak eta arauak, eta bestetik, ingurumenari buruzko planetan edo programetan, alor jakin baterako, aurreikusten diren agintari publikoaren jarduerak. Zein planek eragiten dion edo eragin diezaiokeen ingurumenari zehaztea arazotsua izan badaiteke ere, garrantzitsua honako hau da: lurraldea antolatzeke modua edo ingurune fisikoaren natura-baliabideak edo elementuak kudeatzeko modua erakusten duten testuak eta dokumentuak agintari publikoak berak herritarren eskura jartzea. Orain, arazoa sor daiteke «planei edo programei buruzko informazioa» zer den zehaztean; izan ere, plana behin betiko onartu aurretik egiten diren aurretiazko dokumentuak, txostenak edo proposamenak ere erantsi baitaitezke planei edo programei buruzko informazioan.

Administrazioak gobernu-kontseilu edo batzordeen bileretan erabakitako proiektuen berri emango duela pentsatzea ausartegia da. Hala ere, zabaldu beharreko ingurumenari buruzko «politika» bat identifikatzea ez litzateke erraza izango. Legeak ezarritakoaren arabera, informazioa «politikei» buruzkoa izan daiteke eta, hortaz, ez dirudi proposamenaren testu formala haren barruan sartzen denik. Izan ere, gauza bat da jarduera bati buruzko ildo orokorren berri ematea —planen bidez zehaztuta gerora—, eta beste gauza bat, oso desberdina, proposamen jakin bat bere baitan hartzen duen dokumentu bat formalizatzea.

Ildo estrategikoei buruzko informazioa bakarrik eman beharko luke jakitera Administrazioak. Hari beretik jarraituz, arlo jakin baten inguruko plan bat onartzeko asmoa duelako berri eman lezake Administrazioak —komunikabideen bidez—, lurralde-eremua zehazteko eta eragina izango duen ingurumen-elementua zehazteko (urak, lurzorua), baina planaren inguruko oinarriak edo gai giltzarriak jakitera eman gabe. Legeak berariaz ezartzen du politikei, planei edo programei buruzko informazioa eman behar dela jakitera. Hona hemen, hortaz, ondorioa: Administrazioak behin betiko onartutako planei eta programei buruzko informazioa bakar-bakarrik jarriko du herritarren eskura, bai eta gaiari buruzko ildo estrategiko nagusizat hartzen diren ingurumen-politikak ere.

2.2.3. Ingurumen-eraginari buruzko azterketak eta ingurumeneko elementuen gaineko arrisku-ebaluazioak

9/2006 Legeak eta Eusko Jaurlaritzak onartutako 183/2003 Dekretuak arautzen dute, hurrenez hurren, Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetako planen eta programen ingurumen-ebaluazioa. Arauotan planen eta programen ingurumen-eraginaren azterketa egitea aurreikusten da. Ebaluazio-prozeduran adierazten denez planaren edo programaren aurreko bertsioa eta ingurumen-eraginaren azterketa (estatuko legerian jasangarritasun-txostena deitzen da) jendaurrean jarri behar dira.

Azterketa horiek, bada, ebaluazio-prozeduran zehar jendaurrean jartzeko izapidean zabaldu behar dira, baina, gainera, 27/2006 Legeak dio Administrazioak jendaurrean jarri behar dituela plan edo programa horien ingurumen-eraginaren azterketak, nahiz eta ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozedura amaituta egon. Beraz, informazioa zabaltzea ez da mugatzen jendaurrean jartzeko epera, geroagoko edozein unera ere luzatzen da.

Ingurumenean eragina duten proiektuen ingurumen-ebaluazioari dagokionez, organo erabakitzaileak jendaurrean jarriko ditu ingurumen-eraginaren azterketak proiektua baimentzeko edo egiteko prozeduraren barruan. Administrazioak ordutik aurrera zabaldu

Jarduera batek edo elementu kutsatzaile batek ingurune fisikoaren elementuetan edo pertsonen osasunean duen eragina ebaluatzeko diren azterketak zabaldu egin behar dira.

behar du informazioa, nahiz eta ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legeriak xedatutako jendaurrean jartzeko izapidea amaitu den.

27/2006 Legeak xedatzen duenari jarraituta, agintari publikoek, ingurumen-eraginaren azterketak ez ezik, ingurumeneko elementuen gaineko arrisku-ebaluazioari buruzko azterketak ere zabaldu behar dituzte. Ezin izango balira zabaldu, behinik behin, informazio hori non aurki daitekeen adierazi behar du. Azterketa horien helburua honakoa da: jarduera batek edo elementu kutsatzaile batek ingurune fisikoaren elementuetan edo pertsonen osasunean duen eragina ebaluatu.

Adibide gisa ondorengoak aipatuko dira:

- Kutsatzaileen dispersio atmosferikoari buruzko azterketak.
- Atmosfera-kutsadura edo uholdeak gertatzeko arriskuen analisia.
- Zenbait faktorek –landaredi-geruza galtzea, aldatetak erregimen plubiometrikotan, etab.- eragindako higadura potentzialari buruzko azterketak.
- Klima-aldaketaren balizko eraginen analisia.
- Kutsadurak zenbait espezie eta ekosistematant dituen eraginei buruzko azterketak.
- Genetikoki eraldatutako laboreek biodibertsitatean duten eraginari buruzko azterketak.
- Espezie inbaditzaileek duten eraginari buruzko azterketak.
- Kutsatutako lurzoruen arrisku-analisiak.

2.2.4. Ingurumenaren egoerari buruzko txostena

Administrazio publikoek urtean behin, gutxienez, ingurumenaren egoerari buruzko txosten bat egin behar dute eta hori argitaratu behar dute; eta, halaber, lau urtean behin, txosten osatu bat ere bai. Txosten horiek eremu nazionalakoak eta autonomikoak izango dira, eta, hala badagokio, tokiko eremukoak. Dokumentu horietan honako datu hauek bildu behar dira: ingurumenaren kalitateari buruzko datuak eta ingurumenak jasaten dituen presioak, eta jende guztiak ulertzeko moduko laburpen ez-tekniko bat (27/2006 Legea, 8. artikulua). Txosten hori argitaratzeko, Administrazioak zenbait alderdi hartu behar ditu kontuan.

Lehenik, ingurumenaren egoerari buruzko ebaluazioa neurrien, laginen, mugen eta iraunkortasunaren inguruko irizpide uniformeak oinarri hartuta egin behar da. Hori hala egiteak berebiziko garrantzia du, txostenak urtez urte alderatzeko aukera ematen baitu, eta, nolabait, Administrazioari neurriak exijitzeko aukera ematen duelako. Hala ere, modu horretan egiteak eztabaida zientifikoak eta interpretaziozkoak eragiten ditu; hortaz, komenigarria izango litzateke ingurumenaren egoera ebaluatzeko parametro horien guztien definitzioari buruzko formula adostuak proposatzea Administrazioak.

Bigarrenik, eremu autonomikoan edo tokiko eremuan txostenak egiteak badu alde onik: herritarrek hobeto ezagutzen du bizi den tokiko errealitatea. Hala ere, kontuan hartu behar da, eremu horretan egiten diren ebaluazio guztiak, eta, batik bat, udalerrietan egiten direnak, beste lurralde batzuetako elementuek baldintzatzen dituztela. Esate baterako, ibaie-tako urak batetik bestera eramateak, Estatuko Administrazioak planifikatuak, ura ateratzen den lurralde autonomikoetan eragin handiko ingurumen-ondorioak ekartzen ditu. Horiek guztiak kontuan hartu behar dira dagozkien txostenak egin behar direnean. Bestalde, autonomia-erkidegoetako azterlanak alderatzeko, nahitaezkoa da neurtzeko metodo berdinak eta iraunkortasun-printzipio berdinak erabiltzea lurralde guztietan. Bestela, herritarrek informazio eta datu desberdinak jasoko litzukete, eskaria zein autonomia-erkidegotan egin duten kontuan hartuta. Horrek guztiak, lankidetzan eskatzen du, baita protokoloak eta arau teknikoak gauzatzea ere, ingurumen-datuak homologatze aldera.

Eta hirugarrenik, herritar guztiek ulertzeko moduan idatzitako laburpen bat erantsi behar da. Informazio zientifikoaren edukia leuntzen eta arintzen saia daiteke Administrazioa, herritarrek politikarekiko konfiantza gal ez dezaten. Beraz, txosten orokorra denez, balorazio eta datu objektiboz josia, erakunde independenteen, auditorien edo aurretiazko informa-

Ingurumen-eraginaren azterketak zabaltea ez da muga-tzen jendaurrean jartzen diren epera bakarrik, geroagoko edozein unetara ere luzatzen da.

Urtean behin, gutxienez, ingurumenaren egoerari buruzko txosten bat egin behar da eta lau urtean behin, txosten osatu bat ere bai.

zio publikoko tramitearen bidez kontrolatu beharko litzateke. Zenbaitetan, eskuragarri dagoen informazioa aztertu ondoren iritziak edo epaiak —esate baterako, kalitatearen inguruan— ematen dituen erakunde independente baten bermeak nahitaezkoak dira gardentasun printzipioa betetzeko.

«Jardueren jarraipenari buruzko datuak eta txostenak» espresioa zenbait egoeratarako bakarrik erabili behar da; hau da, planek eta programek eta proiektuek ingurumenari eragiten dizkioten ondorioak ebaluatzeakoetan; eta abian jarritako zehapen-prozedurei buruzko informazioari, edo enpresen edo partikularren datu pertsonalei eragiten ez dietenetan.

2.2.5. Ingurumenari eragiten dioten edo eragin diezaieketen jardueren jarraipenari buruzko datuak eta datuen laburpenak

Planak, programak eta proiektuak betetzen direla eta eraginkortasunez gauzatzen direla zaintzeko mekanismoak ezartzen ditu araudiak, eta horiek onartzen dituzten agintari publikoak behartuta daude jarraipena egitera denbora-epe jakin batean.

Planek eta programek ingurumenean ondorioak eragiten dituzten kasuetarako, 9/2006 Legeak honako hau ezartzen du: planak eta programak aplikatzeak edo abian jartzeak ingurumenean eragiten dituen ondorioen jarraipena egin behar dute organo sustatzaileek, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak lehenbailehen hautemateko eta, horrela, horiei aurre egite aldera, neurri egokiak hartu ahal izateko. Ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten proiektuen kasuetarako 1/2008 Legegintzako Errege-Dekretuak ingurumen-eraginaren adierazpena betetzen delako segimendua eta zaintza aurreikusten ditu. Kasu bietan dagokion ingurumen-organismoak segimenduan hartu behar du parte.

Jarraipen eta zaintza horri buruzko azterlanak eta txostenak egin ondoren, herritarren eskura jarri behar dira, herritarrek egiaztatu ahal dezaten ingurumenari buruzko ebaluazioak edo parte-hartzearen emaitzak bat datozela une horretan gertatzen ari denarekin. Bete-behar horrek lotura zuzena du datuak alderatzeko behararekin eta informazioa errealitateari egokitzeko behararekin. Baina, bestalde, ingurumenari buruzko araudiak agintari publikoaren ahalak ere hartzen ditu bere baitan, eta hau da horien xedea: baimenduta dauden jarduerak aurretik ezarritako baldintzei eta indarrean dauden arauetara jarraiki gauzatzen direla egiaztatzea eta baieztatzea. Horrenbestez, ikuskapen-aktak irekitzeaz gain, homologazio-prozedurak, neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurak eta informazioa eskatzeko prozedurak ere ireki daitezke.

Arazoa da, ordea, jarraipena egiteari dagokionez, legegileak erabiltzen duen «jarduerak» terminoa oso zabala dela. Ingurumenean eragina duen jarduera oro dela uler daiteke; hau da, jarduera-baimena edo ingurumen-baimena behar dituzten jarduera guztiak. Jarduera horien guztien jarraipena egin dezake agintari publikoak, ikuskapenak eginez. Baina, jarduera jakin horiei buruzko datuen eta txostenen inguruko datuak bakarrik biltzen dituzten akten edukia herritarren eskura jarri behar direla esan nahi du horrek? Dokumentazio hori herritarren eskura jartzea eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia ez datoz bat; izan ere, informazio gehiena partikularren eremu pribatuko gaiei buruzkoa da.

Datuen babesari buruzko legeria pertsona fisiko identifikatuen edo identifikagarrien¹ gaineko informazioari aplikatu dakioke. Arau honetatik kanpo geratzen dira pertsona juridikoei buruzko datuen tratamendua eta horietan zerbitzuak ematen dituztenen datu-fitxategien tratamendua. Halaber, araudi horretatik at geratzen dira banakako enpresariei buruzko datuak².

Horrezaz gain, ikuskapen-aktek edo neurri zuzentzaileek eragiten dituzten administrazio-txostenak herritarren eskura jarriz gero, pertsona fisiko edo juridiko horren aurkako zehapen-prozedura oztopa daiteke. Gauzatutako administrazio-jarduerari buruzko informazio garrantzitsua emango litzateke jakitera; horrek, epaiketa paraleloak abiaraztea eragingo luke edo inputatuak defentsa-bitarteko gehiago izatea eta, ondorioz, ikerketa ez litzateke hain eraginkorra izango. Faktore horiek guztiek izugarritzko eragina dute ebazpenean. Hortaz, baieztatu daiteke «jardueren jarraipenari buruzko datuak eta txostenak» espresioa zenbait egoeratarako bakarrik erabili behar dela; hau da, planek, programek eta proiektuek

¹ 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesteari buruzkoa (3.a artikulua)

² 1720/2007 Errege Dekretua, datu pertsonalen babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena (2.2 eta 2.3 artikulua)

tuek ingurumenari eragiten dizkieten ondorioak ebaluatzeoetarako; eta abian jarritako zehapen-prozedurei buruzko informazioari, edo enpresen edo partikularren datu pertsonalei eragiten ez diotenetarako.

2.2.6. Ingurumenaren alorreko hitzarmenak

Hitzarmenek izaera juridikoa dute, eta Administrazio Zuzenbidearen baitan, bi figura juridiko hauen bidez gauzatzen dira: batetik, gobernu autonomikoen kontseiluaren edo Estatuko Gobernuako Ministro Kontseiluaren baitan hartutako erabakiak; eta bestetik, agintari publikoen arteko laguntza- eta lankidetzak-hitzarmenen sinadura —hitzarmen horiek alderdi sektorialeki buruzkoak izan daitezke—. Biak desberdinak dira, jatorriari eta ondorio juridikoei dagokienez. Lehena Gobernuak berak bakarrik berrikus dezake eta arau juridikoen baitan isla daitezke; agintari publikoen arteko hitzarmenak, berriz, kontratu baten ondorio direnez eta alderdien arteko konpromisoa dutenez oinarritzat, guztien baimena behar da aldatzeko.

Gobernuaren hitzarmenen kasuan, egokia da erabakien emaitzak herritarren eskura jartzea, gutxi gorabehera egituratutako testu baten bidez. Aginte-organo horien baitan ematen diren iritziak sekretutzat hartzen dira, eta horiek jakitera ematea legez debekatuta dago. Kontuan izan behar da mota horretako neurriak herritarren eskura jartzea ez dela oso zaila; izan ere, ia agintari publiko guztietan sortu dira Internet atariak, eta horietan jar daitezke neurri horien testuak. Tokian tokiko hitzarmenei dagokienez, gobernu-batzordeen baitan erabakitzen dira. Ingurumenari buruzko hitzarmenak direnez, erabakitzeko zer hitzarmen-mota jarri behar den herritarren eskura, udaletxez udaletxe aztertu beharko litzateke barne-antolaketa.

Aginte-organoek hartutako izaera sektorialeko erabakiek ingurumenari eragiten dioten edo ez erabakitzea zaila da, baina nahikoa da legearen baldintzak betetzeko, ingurumenean ondorioak eragin ditzaketela, alegia. Esate baterako, kutsakorra izan daitekeen industria-motako ekonomia-jardueraren bat sustatzeko hitzarmenak sina ditzake gobernuak. Halakoetan, sustatzen den jarduerak nabarmen eragin dezake ingurune fisikoaren elementuen bilakaeran —esaterako, atmosferaren edo uraren elementuetan—. Teknikaren ikuspuntutik zalantza gehiago eragin ditzaketen antzeko kasu gehiago gerta daitezke.

Bigarren hitzarmen-motari dagokionez, beste organismo edo erakunderen bat sortzea eragin dezakete agintari publikoen arteko hitzarmenek —esate baterako, mankomunitateak edo partzuergoak—, eta barne-araudirako estatutuak onar ditzakete. Alde horretatik, agintari publikoen arteko komunikaziorako mekanismo gisa, arloko batzarrak edo batzar sektorialak aipa daitezke; ingurune fisikoaren elementuen —kostaldea, ura eta lurzorua, esaterako— antolamendua eta arauak erabakitzeko eskumena dutenak. Estatutuak zein akordioak argitaratu egin behar dira, ohiko bideak erabilia; esaterako, aldizkari ofizialak, estatukoa, probintziakoa edota autonomia-erkidegokoa. Horietakoren bat berrikusteko proposamenen bat eginez gero, horren berri ere eman behar da aldizkari horietan, herritarrek jakin dezaten aldaketaren bat izan dezaketela gerora, edo onespenerako prozeduran parte hartzeko.

Hitzarmenak partikularrekin ere —enpresak zein produkzio arlo bateko ordezkari jakinak— egin daitezke. Kasu horietan guztietan hitzarmenaren erregimena edukiaren araberakoa izango da.

2.2.7. Ingurumenean eragin garrantzitsua duten baimenak

16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoak, nola-baiteko baimena ematea aurreikusten du, ingurune fisikoarentzako bereziki kutsakorrek diren jarduerak gauzatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoentzat; esate baterako, jarduerak hauek gauzatzen dituztenentzako baimenak: gas kutsakorrek atmosferara igortzen dituztenak, substantzia kimikoen hondakinak uretara husten dituztenak eta hondakin-biltegiak. Baimen horren abantaila hau da: administrazio-ebazpen bakar batean biltzen dira jarduerak

2003ko otsailaren 14aren osteko datuak zabaldu behar dira.

Data hori baino lehenagoko datuak formatu elektronikoan daudenean soilik zabalduko dira.

Ingurumen-baimen bateratuz gain, badira ingurumenean eragina izan dezaketen bestelako baimenak, adibidez: hondakinen inguruko baimenak (zaborte-gi-instalazioak jartzeko, hondakin arriskutsuak ekoitzi eta kudeatzeko, betelanak egiteko baimenak), atmosfera kutsatu lezaketan jardueretarako baimenak, jabari publiko hidrauliko eta itsasaldeko jabari publikoaren esparruetan emandako baimen garrantzitsuak, lurzorua kalitate-adierazpenak, etab.

horiek guztiak gauzatzeko baimena, titularrei zenbait baldintza eta neurri zuzentzaile ezarriaz, ingurumenaren aldetik baimenduta dauden mugak ez gainditzeko.

Baimen horiek emateko prozedurari dagokionez, bi hilabeteko informazio publikoko epea aurreikusten du legeak, ingurumenean ondorio kaltegarriren bat egitea eragotziko duten oharrak edo alternatibak aurkez ditzaten herritarrek. Baina bereizi egin behar dira tramite hori eta emandako baimen horren berri herritarren eskura jartzeko betebeharra —Administrazioak baimena eman ondoren—. Informazio horren berri eman egin behar da; izan ere, horrela, herritarrak jakinaren gainean egongo dira araudiari jarraiki gauzatzen ari dela mota horretako jarduera.

Lege-testuaren arabera (16/2002 Legea), autonomia-erkidegoek administrazio-ebazpenak, ingurumen-baimen bateratuak ematekoak edo horiek aldatzekoak, argitaratu egin behar dituzte; eta ondoko informazioa jarri behar dute herritarren eskura (23.4. artikulua):

- a) Erabakiaren edukia, Ingurumen Baimen Bateratuaren kopia bat, eta gerora egingadako baldintza guztien eta aldaketa guztien kopia bana barne.
- b) Administrazio-ebazpena emateko aintzat hartutako arrazoi nagusiak eta oharrak bere baitan biltzen dituen memoria bat, herritarren parte-hartze prozesuari buruzko informazioa barne.

Horrek guztiak berarekin dakar titular gisa ageri den pertsona fisikoaren edo juridikokoaren datuak argitaratzea, eta horrez gain, jarduerari buruzko datuak, bai eta ezarri zaizkion baldintza zehatzak argitaratzea ere, eta, horrelakorik balego, baimena eman duen Administrazioak propio ezarritako neurri zuzentzaileak ere bai. Izan ere, hala, herritarrek eraginkortasunez kontrolatu ahal izango dute isuritako substantziei dagozkien mugak betetzen diren ala ez. Horrezaz gain, jarduerak ingurumenean eragiten dituen ondorioak herritarrek eraginkortasunez kontrolatzeko ere baliagarria da. Kontuan hartu behar da partikularrek jartzen dituzten salaketak Administrazioari laguntzeko modutzat hartzen direla. Salaketan adierazitako arrazoiak benetakoak direla egiaztatuz gero, ikuskapen-akta irekitzeko aukera legoke. Hortaz, ez da nahikoa baimenari buruzko oinarritzko datuak bakarrik argitaratzea dagokion autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean. Ebazpena oso-osorik eman behar da jakitera, baldintzak barne.

Gizakien osasunerako edo ingurumenerako berehalako arriskua egonez gero, aurreikusita dago agintari publikoek duten informazio guztia segituan eta berandutu barik zabaltzea. Horren helburua da arrisku horren eraginpean dagoen publikoak arrisku horretatik etor litezkeen kalteak mugatzeko eta aurreikusteko beharrezko neurriak hartzea.

2.2.8. Giza-osasunari buruzko informazioa

Giza-osasunari buruzko informazioaren zabalkundea berariazko erregulazioa du indarrean dagoen araudian. Gizakien osasunerako edo ingurumenerako berehalako arriskua egonez gero, aurreikusita dago agintari publikoek duten informazio guztia segituan eta berandutu barik zabaltzea. Horren helburua da arrisku horren eraginpean dagoen publikoak arrisku horretatik etor litezkeen kalteak mugatzeko eta aurreikusteko beharrezko neurriak hartzea.

Informatzeko betebeharrak hori arazo honi aurre egiteko berariazko arauak —bereziki osasun arauak— apartekoa da. Gainera, informazioa ematean, giza-osasunarentzako faktore garrantzitsua bada, sexuaren arabera bereizi behar litzatekeela adierazten da. Informatzeko betebeharrak horrek badu salbuespenik: defentsa nazionalako edo segurtasun publikoko arazoak gertatzen direnean (27/2006 Legearen 9. artikulua). Giza-osasuna bada arriskupean dagoena harrigarria da defentsa nazionala delakoarekin duen erlazioa.

2.2.9. Zabalkunde betebeharra ingurumenari buruzko bestelako arauetan

Zabalkunde betebeharrari erreferentzia egiten dioten berariazko arauak mota askotakoak dira. Besteak beste, ondoko gaietan aurki ditzakegu: kutsaduraren prebentzio eta kontrola, produktu kimikoak, uren kalitatea, kimikaren arloko arriskuen ebaluazioa, larrialdi egoerak, hondakinak, zarata. Horrek esan nahi du legegileak arreta handiago jartzen diola zabalkundeari, funtzio publikotzat hartuta.

3. INFORMAZIOARI ETA ADMINISTRAZIO-JARDUERARI BURUZKOAK

3.1. Agintari publikoek ingurumenari buruzko egoerari buruz etengabe informatzeko betebeharra dute, eta informazio hori ahalik eta modu zabalenean eta sistematikoenean jarri behar dute herritarren eskura.

Aarhus-eko Hitzarmenaren arabera, agintari publikoek ahalik eta modurik argienean jarri behar dute herritarren eskura ingurumenari buruzko informazioa, eta informazio horrek benetan egon behar du eskuragarri; agintari publiko eskudunek ingurumenari buruz duten informazio-motari eta horiek duten garrantziari buruzko nahikoa datu eman behar dizkiete herritarrei, eta horrezaz gain, zer formatutan dauden eskuratzeko edo zer prozedura jarraitu behar den hura lortzeko ere adierazi behar dute.

Horrek guztiak zera esan nahi du: batetik, agintariak behar adina informazio eman behar dute argitara, herritarrek jakin dezaten zer prozedura jarraitu behar duten informazioa lortzeko eta nora joan behar duten horretarako; eta, bestetik, herritarren eskura jarri behar dute ingurumenari buruz duten informazio garrantzitsu guztia. Azken horri dago-kionez, Aarhus-eko Hitzarmeneko aipamen orokor horiek zehaztu egin ditu 27/2006 Le-geak, eta zer alderdi eman behar diren jakitera adierazten du. Bestalde, Legeak bi ñabar-dura erantsi ditu informazioa jakitera emateko betebeharrari buruz: une oroko informazioa, eta informazio hori lortzeko mekanismo etengabeak eta sistematikoak ezartzea.

Lehenengo ñabardurari dagokionez, erabat lotuta dago zerbitzu publikoek berezkoa duten jarraipen-printzipioarekin eta informazioa eguneratzeko betebeharrarekin. Horren inguruan, zerbitzu espezifikoko bat edo administrazio-unitate bat sortzeaz gain, herritarrek une oro eskura izango duten datu-base bat sortu eta kudeatu behar du agintari publikoak. Horrek berarekin dakar ingurumenari buruzko informazioa eguneratuta izatea eta eginkizun hori beteko duten langileak trebatuta egotea, ingurumenari buruzko dokumentazioa gainerako dokumentazioetatik bereiz dezaten —27/2006 Legearen 6. artikulua xedatutakoaren arabera—. Beste modu batera esanda, jarraitutasunak datuak eguneratuta izatea eskatzen du, bai eta herritarrek une oro informazioa eskuragarri izan dezaten bitartekoak sortzea ere, ematen den informazioaren kalitateari kalterik egin gabe. Bestalde, kontuan izan behar da agintari publikoak ahalegin ekonomikoa egin behar duela legeak ezartzen dituen baldintzei aurre egiteko.

Informazio osatuagoa eman ahal izateko metodo sistematikoei dagokienez, ingurumenari buruzko informazioa pixkanaka-pixkanaka datu-base elektronikoetan eranstea aurrerikusten du Aarhus-eko Hitzarmenak, telekomunikazioko sare-publiko erabilerrazak jarri herritarren eskura (5.3. artikulua). Gaia aurrerago aztertuko badugu ere, mota horretako tresna elektronikoak, egun, datuak une oro eskuragarri edukitzeko eta sistematikoki edukitzeko aukera ematen dute.

Horrek esan nahi du, halaber, aurretik zehaztutako irizpide batzuei eta irizpide koherente batzuei jarraiki bildu behar direla datuak. Esate baterako, gaiaren arabera —ingurumenari buruzkoa, jakina— artxiba daitezke datuak: hondakinak, parke naturalak, airea, ura... Edo sistema administratiboagoa aukera daiteke; hau da, baimenei buruzko espedienteak, ingurumenaren alorreko planei edo proposamenei buruzko espedienteak... Komunikazio-sare elektronikoak birtualak dira, eta abantaila ugari eskaintzen dituzte; esate baterako, informazio asko gorde daiteke. Hala ere, agintari publikoak paper-formatu tradizionalan kontsultatu ahal izateko artxibategiak ere jarri behar ditu herritarren eskura. Izan ere, herritar guztiak ez dute Internet konexioa.

3.2. Informazioaren eta telematikaren teknologien erabilera, informazioa zabaltzeko

Aarhus-eko Hitzarmenaren arabera, nazio mailako sistema koherente bat pixkanaka-pixkanaka ezartzeko neurriak hartu behar dituzte agintari publikoak. Hau da, kutsadurari

Agintari publikoek ingurumen-informazioa zabaltzeko egin behar dute eta ahalik eta modurik zabalenean eta sistematikoenean jarri behar dute herritarren eskura.

Sarbide birtuala izan ezean, herritarrak aurrez aurreko bideak eta presentziazkoak baino ez ditu dokumentazioa eskuratzeko, horretarako zehazki non dagoen jakin behar du.

buruzko datuak datu-base informatizatu batean zerrendatu edo erregistratu behar ditu, behar bezala egituratuta eta herritarren eskura jarri, adierazpen-eredu normalizatuen bidez lortu ondoren datu horiek. Sistema horrek datu asko hartu ahal izango ditu bere baitan. Esate baterako, jarduera jakin batzuen ondorioz produktuak tratatu eta ezabatzeko —*in situ* edo beste lekuren batean—, batetik bestera eraman, deskargatu eta transferitzen diren beste produktu batzuei buruzko datuak —bereziki, ura, energia eta bestelako baliabideak (5.9. artikulua)—.

27/2006 Legeak bermeak ematen ditu, halaber, informazioa kontsultatzeko eta hedatzeko erabiltzen diren bitarteko elektronikoak herritar guztiak izan ditzaten; bestalde, agerian uzten du oso garrantzitsua dela informazio-zerbitzu horiek unibertsalak izatea eta ez izatea herritarrek duten egoera ekonomiko, sozial edo kulturalen baitakoak. Gai hori erabakigarria da informazioa eskuragarri edukitzeko herritarrek dituzten eskubideak eraginkorrak izan daitezen eta herritar guztiak eskatzeko modukoak izan daitezen. Telekomunikazioei buruzko egungo legeak Internet analogikoko zerbitzua ematea bakarrik bermatzen du; oso abiadura eskasekoa da zerbitzu hori, eta tramite asko atzeratzea eragiteaz gain, beharrezkoa den informazio asko biltzea oztopatuko du. Abiadura handiko Internet zonalde errentagarrienera bakarrik zabaltzeko asmoa dute enpresek; hau da, biztanle-kopuru handiko zonaldeetara bakarrik. Hortaz, biztanle gutxiko nukleoak —10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, esaterako— ezin izango dira behar bezala egokitu legeak teknologia berrietara egokitzeke ezarritako premisetara. Baldin eta udalerrri horiek ez duten ordeztoko sareak ezartzea sustatzen —esate baterako, *Wi-Fi* sistema—.

Ingurumenari buruzko informazioa telekomunikazioaren eta informazioaren teknologien bidez hedatu beharrak, bestalde, helbide elektronikoak sortzea eragin dezake, horien bidez informazioa eskuragarri izateko. Atari bat sortuz gero, domeinu propioarekin, helbide elektroniko bat edukitzea nahikoa da ordenagailutik informazioa zuzenean eskuratu ahal izateko herritarrek. Web gune horretan, ingurumenari buruzko informazioa biltzen duten artxiboak erants daitezke, eta datu-base sistematikoa ere sor daiteke, informazioa kontsultatzea errazagoa izan dadin. Gainera, tresna teknologiko honen bidez, ingurumenari buruzko informazioa duten agintari publikoak eta informazio hori lortzeko eskari-prozedura publikak daitezke.

Sarean dagoen informazioa bi motakoa izan behar da: Web gunean egon behar duen informazio eguneratua, azken kualitate hau bereziki azpimarratuta; eta bi, prestatze-egintzak eta informazio historikoa, euskarri informatikoko dokumentazio-biltze sistema batean gordea eta sarbide libre duena.

Agintari publikoek euren eginkizunetarako garrantzitsua den ingurumenari buruzko informazioa antolatu eta eguneratu egin behar dute herritarrek erraz erabiltzeko moduko datu base elektronikoetan, Internet bidez, esaterako.

Informazioa hedatzeari dagokionez, oso lagungarria izango litzateke herritarrek esango balute ingurumenari buruzko zer informazio nahiko luketen agintari publikoak zabaltzea. Beste ikuspuntu bat hartuz gero, agintari publikoari ere ondo datorkio mekanismo elektroniko horiek ezartzea, langile-kostuak eta herritarrei eskaini beharreko denbora murriztu egiten baitira; izan ere, sagua pare bat aldiz mugitzea nahikoa da informazioa eskuragarri izateko.

Datu-base elektronikoak sortzeak edo atariak sortzeak ez du esan nahi herritarrek eskatzen duten informazioa horietan lortuko dutenik; hortaz, eskatzen dituzten datu guztiak non eskura ditzaketen adierazteko betebeharra ezartzen dio araudiak Administrazioari. Hain zuzen ere, herritarrak eskatutako informazioa fisikoki zein tokitan dagoen edo dauden adieraztean datza betebeharra. Jendeari arreta egitearekin sortutako auzi berbera sor daiteke hemen ere; hau da, herritarrari kalitatezko informazioa emateri buruzko auzia.

Mota horretako betebeharra ez litzateke eraginkorra izango, informazioa non aurki daitekeen esango ez balitz edo informazioa non dagoen oker esango balitz. Horren haritik, adierazi behar da halako kasuetan garrantzitsua dela Administrazio publikoen artean koordinazioa egotea, denek zerrenda batean adierazteko aukera izan dezaten zer informazio-mota den, zer agintari publikori dagokion, eta agintaritza horren barruan zein organori dagokion. Oztupo horiek guztiak eragin dute, agian, legegileek informazioaren kokapena adieraztea betebeharrak gisa ezarri ez izana, informazioaren hedapenaren alorrean. Horrek ez du esan nahi, ordea, agintariek zerrenda publikoak osa ezin ditzaketenenik eta horiek datu-base elektronikoetan edo buletinetan erantsi ezin dituztenik.

Lege-hutsune horrek agerian uzten du paradoxa bat informazioa etengabe emateko printzipioari dagokionez; eta nahitaezko eta gutxienekoa den gainerako dokumentazioa —txostenak edo planak— jakitera emateko betebeharrari dagokionez. Izan ere, informazio hori guztia datu-basean edo sarean ezin izan bada erantsi arazo teknikoengatik edo informazioa konplexua edo zabalegia delako, herritarrek jakin beharko lukete non kontsulta daitekeen informazioa. Beste modu batera esanda, informazioa ezin izan badu ordenagailuaren bidez lortu, dokumentazio hori eskuratzeko herritarrak dituen mekanismo bakarrak aurrez aurrekoa eta presentziakoa dira. Une horretan, administrazio langileari galdetu beharko lioke informazio hori zehatz-mehatz non dagoen.

3.3. Emandako informazioaren egiazkotasun-bermea. Beste helbide batzuen bidez informazioa ematearen arazoa

Agintari publikoak Interneteko beste helbide batera bideratzen duenean herritarra, informazio-edukiak hedatzeko beharra bete dela ulertzen du legeak. Legez nahitaezkoak diren datuak argitaratu beharrez, agintari publikoak beste helbide batera bideratzen du herritarra, han daudelako agintari publikoak argitaratu ez dituen gai guztiak. Horrek bi arazo eragiten ditu: batetik, zalantzarria da agintari publikoak zenbateraino bete duen herritarra laguntzeko duen betebeharra, arauak ezarritakoari jarraiki; eta bestetik, zalantzan jar daiteke zenbateraino den egiazkoa gomendatutako atarian emandako informazioa eta legeak adierazitako bermeak betetzen dituen.

Lehendabiziko arazoari dagokionez, baliteke herritarra erabat gustura ez geratzea beste helbide batera bideratzen denean, baliteke-eta behar duen informazioa eskuratzea hain erraza ez izatea. Gogoan izan behar da Interneteko zenbait ataririk atzerriko hizkuntzak erabiltzen dituztela edo ez dituztela datuak sailkatzen irizpide sistematikoei jarraiki. Halako kasuetan, agintari publikoa ez da egokitzen aurreko ataletan aztertu ditugun hedapenaren printzipioetara. Eta bestetik, agintari publikoak ez du bere mendekoak ez diren web-orrien funtzionamenduaren jarraipena egiten; hortaz, gerta daiteke gomendatutako orrialdea desagertuta egotea, beste helbide elektronikoa bat izatea edo orrialdea erabat osatu gabe egotea; eta horrek guztiak informazioaren eskuragarritasuna oztopatzen du. Araudiak argi eta garbi debekatzen du hori.

Web-orrietan eta Interneteko atarietan adierazten diren datuen egiazkotasunari dagokionez, herritarrei gomendatzen zaizkien lotune eta helbideen fidagarritasunari eta egiazkotasunari buruzko baldintzak ez ditu ezarri legegileak, mekanismo elektronikoei eransteko. Zenbaitetan, ez da zaila nolabaiteko fidagarritasuna izan ditzaketen atariak identifikatzea; esate baterako, gobernu autonomikoen edo Estatuaren web-orriak. Dena den, baliteke gauza bera ez gertatzea zenbait atarirekin; esate baterako, enpresa-entitate publikoek eta merkataritza-sozietateek dituztenekin, ez eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten emakidadunen atariek ere, informazioa emateko betebeharra izan arren. Komenigarria izango litzateke horiek guztiak legez behartzea web-orriak eta Interneteko atariak kudeatzeaz arduratzen diren enpresen egiazkotasun-ziurtagiriak edukitzera.

Sarean agertzen diren datuen egiazkotasunaren haritik, kontuan hartu behar da informazioa Internet bidez hedatzea arriskutsua dela, baimenduta ez dauden pertsonak edukia alda baitezakete. Hona hemen arazoa: zenbait kolektiborentzat konprometigarriak diren datuak biltzen dituzten sarean eta datu-base elektronikoen segurtasuna. Pirateria-mota asko dago sarean, eta, bestalde, informatika-birus asko sartzen dituzte sarean; hortaz, web-orrietako edukia benetan da zalantzarria. Horrenbestez, Informazio Gizartearen zerbitzuak bultzatzen saiatzeaz gain, informazioaren egiazkotasuna bermatuko duten mekanismo teknologikoak ere ezarri beharko lituzke agintari publikoak. Agintari publikoarekin harreman birtuala izateak berarekin dakar nahitaez erabakitzea zein langile dagoen trebatuta informazioa aztertzeko, ezabatzeko, bai eta herritarrarekin harremanetan jartzeko ere. Bestela, herritarrak ez du inolako babesik nortasun faltsua erabiltzen dutenen aurrean edo informazio faltsuaren aurrean.

**Informazio
Gizartearen
zerbitzuak
bultzatzen
saiatzeaz gain,
informazioaren
egiazkotasuna
bermatuko
duten
mekanismo
teknologikoak
ere ezarri
beharko lirateke.**

Informazioa jasotzeko eskubideak ezin die kalterik eragin intimitaterako eskubideari, segurtasun nazionalari, pertsonen ohoreari eta delituen prebentzioari

Eskubide horiei kalterik eragiten ez dien dokumentazio guztia argitara dezake agintari publikoak eta, bestalde, aipatutako eskubideak urratzen eta interesen aurka egiten duten dokumentazioa alde batera utzi.

Informazioa jasotzeko eskubideak berarekin dakar bermeetako bat aplikatzea, hain zuzen, honako hau: informazio horrek zenbaterainoko garrantzia duen eta egokia den erabakitzea komunikabideen bidez herritarrei jakinarazteko informazio horren edukia.

3.4. Ingurumenari buruzko informazioa zabaltzea bestelako eskubideekin lotuta

Konstituzioak bere baitan hartzen du edozein hedabidetatik informazio egiazkoa libreki komunikatzeko edo jasotzeko oinarrizko eskubidea. Bestalde, Legeetan aurreikusitakoez gain, zenbait muga ere ezartzen ditu, beste eskubide batzuei eragiten dietenak, hain zuzen; esate baterako, intimitaterako eskubidea, ohorerako eskubidea eta gazteen eta haurren babes-eskubidea. Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenak, halaber, ideiak edo informazioak komunikatzeko edo jasotzeko askatasuna hartzen du bere baitan, agintari publikoek esku hartu ezin dutela eta mugaldea kontuan hartzen ez direla. Baldintzak eta mugak jar daitezke eta isunak ezar daitezke, gizarte demokratiko batean honako hauetarako nahitaezkoak diren neurriak hartzea eragiten dituzten kasuetan: segurtasun nazionala, lurralde-osotasuna, defentsa eta ordena publikoa, delituaren prebentzioa, osasunaren babesa eta beste eskubide batzuen babesa —pertsonen izen ona— (10. artikulua). Legeak agintari publikoaren prestazio-jardueratarako eskubide subjektiboa ematen du eta azken horrek eskubide horri erantzuteko tresnak aurreikusi behar ditu.

Horrenbestez, gizakien bizitzak salbatzeko, pertsonen osotasun fisikorako eskubidea babesteko, ingurumeneko elementuen hondamendi itzulezina prebenitzeko edo beste mota bateko interesak eta ondasun juridikoak babesteko informazioa ematea nahitaezkoa den kasuetan, zenbait informazio argitaratzea beharrezkotzat har daiteke, eta, hala egin ezean, erantzukizun penala edo ondare-erantzukizuna eragin dezake huts egite horrek. Halakoetan, informazioa argitaratzearen ondorioz kaltetzen diren eskubideen gaintik daude babesgarriagotzat hartzen diren eskubideak. Informazioa argitara ematen duen erakundeak erabaki behar du tartean dauden eskubideen garrantziari buruz. Beste modu batera esanda, ez dago inolako oztoporik lehen mailako interes publikoak zaintze aldera informazioa jakitera emateko; esate baterako, lehen aipatu ditugun interes publikoak babesteko. Eginkizun hori ez da batere erraza, eta behin baino gehiagotan izango da beharrezkoa pertsona adituek ere parte hartzea; hau da, haien laguntza beharrezkoa izango da, kasuz kasu erabakitzeke zenbait datu argitaratzeak pertsonen bizitza edo osasuna arriskuan jartzea eragotziko duen.

Informazioa jasotzeko eskubidea justifikatuta dago, halaber, informazio horrek ez badie kalterik eragiten edo balioa kentzen intimitaterako eskubideari, segurtasun nazionalari, pertsonen ohoreari eta delituen prebentzioari. Horrek esan nahi du eskubide horiei kalterik eragiten ez dien dokumentazio guztia argitara dezakeela agintari publikoak eta, bestalde, aipatutako eskubideak urratzen eta interesen aurka egiten duten dokumentazioa eskuragarri jartzea debeka dezakeela.

Zenbait datu jakitera ematen direnean —esate baterako, ingurumen-baimenei buruzkoak edo txostenei buruzko datuak—, gerta liteke datu jakin batzuk emateko arriskua egotea, alegia, datuak babesteari buruzko legerian ezarritakoa errespetatzea exijitzen duen tratamendua behar dutenak. Horren inguruan arazo bat sor daiteke; herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidearen eta tartean dauden herritarrek edo entitateek intimitaterako duten eskubidearen arteko arazoa, datu pertsonalak babesteko eskubidea, hain zuzen. Gai horri dagokionez, Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenaren arabera, agintari publikoek, bakar-bakarrik, hartuko dute esku bizitza pribatua edo familia-bizitzan, nahitaezko neurria denean gizarte demokratiko batean eta helburu legitimo batez justifikatuta dagonean (8.1 eta 2 artikulua).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak proportzionaltasun-printzipioa aplikatu du halako kasuetarako, Administrazioak bizitza pribatua eta familia-bizitza izateko eskubidea urratu ote duten erabakitzeke. Hain zuzen ere, horretarako egin behar diren esku-hartzeak ez dira izango, inondik inora, eta ahal dela, prozedurak berez derrigorrean eskatzen dituenak baino handiagoak, batetik, eta auzia erabakitzeke datuak eskatzen dituenak baino gehiago, bestetik³.

Baina arazoaren muina hau da: behar bezala interpretatzea enpresa baten kudeaketan edo eremu pribatua zer alderdik ez dien eragiten ingurune fisikoaren elementuei. Datu jakin batzuen berri emateak zer helburu duen garbi definitzea dakar horrek. Merkataritzako

³ GEEAE 2006-10-10. Gaia: 7508/2002, L.L. vs Frantzia, 45. paragrafoa.

estrategiekin zerikusia duten alderdiak ezin dira jakitera eman, merkataritza-sekretupekoak direlako. Baina makinaren edo produkzio-sistemen funtzionamenduari zerikusia duten alderdien berri —edozein jarduera-motaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan eragina izan dezakete— herritarren esku jarri behar da, ingurune fisikoko elementuen egoeran eragina baitute.

Gogoan izan behar da, halaber, babestu beharreko beste eskubide batzuk ere badirela; esate baterako, jabetza intelektual eta industria-jabetza. Halako kasuetan, merkataritza-alarreko sekretuak edo patenteak egoeretan bakar-bakarrik argitaratuko dira; hau da, eskubide horiek aplikatzeak pertsonen osasunari eta osotasun fisikoari kalteak eta galarak eragiten badizkie. Interes orokorreko eskubideak eta gaiak dira, eta botere publikoek gehiago babestu beharko lituzkete. Edonola ere, ez da erraza enpresek horren inguruko informazio guztia ematea agintari publikoari, gerora erantzukizunik ez izateko.

Konfidentzialtasun-itunek eta merkataritza alorreko sekretuek ez lukete lekurik izan behar informazio hori erabakigarria bada pertsonen osasun fisikoa eta osotasun fisikoa babesteko. Izan ere, 27/2006 Legearen 9.1. artikulua arabera, giza jardueren edo natura-jardueren eraginez gizakien osasuna edo ingurumenarena arriskuan badaude, agintari publikoek berehala eta lehenbailehen emango dute jakitera eskura duten informazio guztia edo haien izenenean beste batzuek duten informazio guztia; horrela, kaltetuta egon daitezkeen herritarrek neurriak hartu ahal izango dituzte arrisku horiek eragin ditzaketan kalteei aurrea hartzeko edo horiek murrizteko.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi duenez, agintariak bizitza pribatua eta datu pertsonaletan izango duten esku-hartzea tramitatzen ari den prozeduraren arabera izango da. Adibidez, zehapen-prozeduratan, jarraipen-txostenaren bidez egintzei buruzko ikerketaren berri emateak instrukzioaren eraginkortasuna kalte dezake; izan ere, zehapen-prozedura abian jarriko zaien aldez aurretik jakingo lukete zerbaiti buruzko erantzukizuna izan dezaketela eta, beraz, probak desegin ditzakete. Horrezaz gain, komunikabideetan epaiketa paraleloak abian jartzea ere ez da komenigarria, azken ebazpenean eragin baitzakete. Oinarrizko beste eskubide bat ere urra daiteke; hau da, inputatuek babes judizial eraginkorra izateko eskubidea. Hortaz, informazio hori jakitera emateko ardura duen agintari publikoak eskubide horiek haztatu eta aztertu egin behar ditu.

Azkenik, informazioa jasotzeko eskubideak berarekin dakar bermeetako bat aplikatzea, hain zuzen honako hau: informazio horrek zenbaterainoko garrantzia duen eta egokia den erabakitzea komunikabideen bidez herritarrei jakinarazteko informazio horren edukia. Horrenbestez, kasuz kasu aztertu beharko lituzkete agintari publikoak datuen berri eman ahal dien edo ez komunikabideei, eta, horretarako, kontuan hartu behar da informazio hori garrantzitsua den iritzi publikoa sortzeko, edo babesteko moduko interes orokorreari eragiten dielako. Beste modu batera esanda, enpresa baten ikuskapena egingo dela edo haren kontrako zehapen-prozedura bat irekiko dela jakinaraz daiteke, pertsonen intimitatea edo, zenbaitetan, defentsarako eskubidea kalte dezaketean administrazio-jarduera horri buruzko xehetasunak eman gabe.

Informazioa zabalten duen erakundeak haztatu egin behar ditu tartean diren eskubideak eta interesak.

3.5. Une oro kontsultak egiteko bitartekoak ezartzea

Informazioaren berri ematea ez da posible izango, ez badira une oro informatzeko mekanismoak ezartzen; hau da, herritarrek edozein unetan ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri izan dezaten mekanismoak ezartzen ez badira. Betebehar horrek eta agintari publikoaren esku dauden datuak eguneratzeko betebeharrak osagarriak izan behar dute; izan ere, kontsultak etengabe egiteko bitartekoak egonda ere, informazioa ez bada etengabe eguneratzen, ezin izango da araudi berriaren helburua bete. Honetan datza helburua: errealitatean gertatzen diren arazoaren berri ematea herritarrei.

Betebehar horren benetako eraginkortasuna jarraitutasunaren printzipioa —zerbitzu publikoen berezko printzipioa— errealitate bihurtzeko nahia da. Beste modu batera esanda, herritarrek une oro izan behar dituzte informazioa eskuratzeko bitartekoak, eta agintariak dute horren erantzukizuna, horien funtzionamendua eten egiten bada. Legearen zein Zuzentzarauaren arabera, teknologia berriak ezarri behar dira ingurumenari buruzko informazioaren

Teknologia berriak erabiliz gero —Internet, esaterako—, gastu materialak murrizten dira eta, horrezaz gain, herritarrek bitarteko erosoa dute behar duten edozein informazio lortzeko.

Halaber, agintari publikoek aurrez aurreko arreta-zerbitzua ere izan behar dute.

berri emateko eta hura kontsultatzeko, mekanismo eraginkorrak direlako informazioa etengabe eta sistematikoki izateko eskura.

Administrazioaren eraginkortasunaren ikuspuntutik, teknologia berriak erabiliz gero —Internet, esaterako—, gastu materialak murrizten dira eta, horrezaz gain, herritarrek bitarteko erosoa dute behar duten edozein informazio lortzeko. Izan ere, herritarrek ez du zertan administrazioaren bulegoetara joan, eta Administrazioak, bestalde, ez du zertan horretarako propio zerbitzu bat sortu eta hura zaindu gai horietarako. Baina bitarteko horiek denboran zehar irauteak ez du esan nahi eguneratzeko beharrik ez dagoenik; beraz, nahitaezkoa da sarean dagoen informazioa berrikusteko eta osatzeko zerbitzuren bat ezartzea. Gogoan izan behar da, halaber, etxe askok ez dutela sare-konexiorik. Agintaritza publiko birtuala behin betiko ezarriko badugu, neurri asko ezarri behar dira nahitaez, herritar guztiek sarean sartzeko aukera dutela bermatzeko. Beraz, lehen ere esan badugu ere, ezinbestekoa da irauteko betebeharra eta zerbitzu publiko baten kudeaketa erabat lotuta egotea.

Azken batean, alor honen inguruko arauen helburuaren oinarria ingurumenari buruzko informazioa etengabe lortzeko eta hura eskura izateko mekanismoak erabiltzea —Internet— bada ere, bidea luzea da oraindik ere, administrazio-prozedura telematikoak behin betiko ezartzeko edo zerbitzua mundu guztira zabaltzeko. Beraz, hona hemen horren guztiaren ondorioa: legearen arabera agintari publikoak sortu behar dituen ingurumenari buruzko informazio-unitateek aurrez aurreko arreta-zerbitzua ere izan behar dute.

BIGARREN KAPITULUA

**INGURUMEN ALORREKO INFORMAZIOA
JASOTZEKO ESKUBIDEA**

AURKIBIDEA

1. INGURUMEN ALORREKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUTEN ARAUAK	31
1.1. Nazioarteko Zuzenbidea	31
1.2. Europako Zuzenbidea	32
1.3. Estatuko zuzenbidea	32
1.4. Zuzenbide autonomikoa	32
1.5. Foru Zuzenbidea	33
1.6. Tokian tokiko arauak	33
2. PARTIKULARREK ESKATUTAKO INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA DUTEN AGINTARI PUBLIKOAK	34
2.1. Europako erakundeak	34
2.2. Gobernu Zentrala eta Estatuko Administrazio Orokorra	34
2.3. Eusko Jaurilaritzaren Kontseilua eta erkidegoko administrazioa	35
2.4. Tokian tokiko administrazioa eta foru-organismoak	35
2.5. Estatuari, Autonomia Erkidegoei edo Toki-erakundeei loturiko Zuzenbide Publikoko Erakundeak	35
2.6. Aholku-organismo publikoak	35
2.7. Zuzenbide publikoko korporazioak	36
2.8. Izaera pribatuko pertsona fisiko eta juridikoak	36
3. INGURUMENAREN ALORREAN AGINTARI PUBLIKOEN DITUZTEN BETEBEHAR NAGUSIEN EDUKIA	38
3.1. Pertsonen dituzten eskubideei buruz informatzeko betebeharrak	38
3.2. Eskubidea erabiltzeko modurik egokienari buruz informatzea, aholkatzea eta gomendatzea	38
3.3. Ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharrak duten agintari publikoen zerrenda	39
3.4. Aurreko atalean adierazitako agintari publikoen zerrendak osatzeko betebeharrak duten administrazioak	40
3.5. Administrazio publikoko langileen laguntza, herritarrek ingurumenari buruzko informazioa lortu nahi dutenean	41
3.6. Informazio-teknologiak ahalik eta gehienetan erabiltzea, informazioa eskuratzea errazagoa izan dadin	42
3.7. Telekomunikazioen erabilera sustatzea, informazioa eskuragarri izateko modu operatibo gisa	43
3.8. Ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskaerak erantzuteko nahitaezkoak diren tramite guztiak arintzea	43
3.9. Agintari publikoak ingurumenari buruz duen informazioa ahalik eta eguneratuen ematea	44
3.10. Emango den informazioa alderatzeko modukoa izan dadila	44
3.11. Informazioa eskuratzeko eskubidearen baliatzea betetzeko beharrezko neurriak	45
4. INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA	48
4.1. Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, interesduna izan barik	48
4.2. Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukari buruz informatua izateko eskubidea	48
4.3. Informazio hori lortze aldera, laguntza jasotzeko eskubidea	48
4.4. Informazioa epe jakin batean jasotzeko eskubidea	49
4.5. Informazioa aukeratutako moduan edo formatuan jasotzeko eskubidea	50
4.6. Informazioa, zati bat edo osorik, ez emateko arrazoiak zein diren jakiteko eskubidea	51
4.7. Informazioa jasotzeagatik eskatu ahal diren tasak eta prezioak jakiteko eskubidea	51
5. INFORMAZIOA ESKATZEKO LEGITIMAZIOA	52
5.1. Atzerritarrak	52
5.2. Europarrak	52
5.3. Auzotarrak	52
5.4. Interesdunak	52
5.5. Gobernu Kanpoko Erakundeak	53
5.6. Pertsona juridikoak, fisikoak, zuzenbide publikoko pertsonak	53
6. INFORMAZIOA ESKATZEKO PROZEDURA	54
6.1. Nori zuzendu informazio-eskaera	54
6.2. Agintari publikoek gain, ba al da beste pertsonarik informazioa emateko betebeharrak duena eta, beraz, informazio-eskaera hari egin?	54
6.3. Informazio-eskaera behar bezala egiten laguntzeko betebeharrak	55
6.4. Informazio-eskaera eskumena duen agintari publikoari bidaltzeko betebeharrak duen agintari publikoak, eta eskaeria egin duenari hala egin duela jakinaraziko dio	55
6.5. Hala dagokionean, eskatzailea informatu, informazioa emango dion agintari publiko eskudunari buruz	55
6.6. Informazioa emateko epea	56
6.7. Epe orokorra: hilabete bat	57
6.8. Salbuespen modura, epea bi hilabetekoa izan daiteke ..	57
6.9. Informazioa ematea ukatu egin dela jakinarazten bada ..	58
7. INFORMAZIOA EMATEKO MODU EDO FORMATUA	60
7.1. Informazioa modu edo formatu jakin batean eskatzea ..	60
7.2. Informazioa denon eskura dagoenean	61
7.3. Eskatu ez den beste modu edo formatu batean erantzutea: justifikazioa	61
7.4. Informazioa emateko modua edo formatua eta agintari publikoaren betebeharrak	62
7.5. Eskatutako modua edo formatua eta agintari publikoak hautatutako ordezkia	63
8. ESKAERAK UKATzea	64
8.1. Eskatutako informazioa ez badago agintari publikoaren esku	64
8.2. Eskaera arrazoizkoa ez bada	64
8.3. Eskaera orokorregia bada	65
8.4. Prestatze-bidean dagoen materialari edota bukatu gabe dauden dokumentu eta datuei buruzkoa bada ..	65
8.5. Eskaera barne-komunikazioei buruzkoa bada	67
8.6. Prozedurak konfidentzialak direla ezarri bada	67
8.7. Nazioarteko harremanei, defentsa nazionalari edota segurtasun publikoari eragiten badiote	68
8.8. Prozedura judizial bati lotuta dauden auziei edo kausei, edota epaitegietan tramite-bidean daudenei ondorio negatiboa eragiten badie	68
8.9. Babes judizial eraginkorra izateko eskubideari ondorio negatiboa eragiten badi	69
8.10. Ikerketa penalarik edo diziplinazkoari ondorio negatiboak eragiten badizkio	69
8.11. Agintari publikoaren betebeharrak gatazka Auzitegietan badago	69
8.12. Merkataritzako eta industriako izaera duten datuak konfidentzialak badira eta legean hala xedatuta bada ..	69
8.13. Jabetza intelektual eta industrialeko eskubidearekiko errespetua	70
8.14. Datu pertsonalen konfidentzialtasuna	70
8.15. Informazioa borondatez eman duten beste pertsona batzuen interesak babestea	71
8.16. Ingurumenaren babesa eta, bereziki, mehatxupean dauden espezieen kokalekuari edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzko informazioa	71
8.17. Uko egitea modu murriztailean interpretatu behar da beti	71
8.18. Ingurumenari eragiten diren emisioei buruzko informazioa ezin izango da ukatu	72
8.19. Eskatutako informazioa ukatzen bada, erabakia hartu duen administrazioak berariaz adierazi behar du	72
8.20. Kasu berezia: informazioaren zati bat jakinaraztea	72

1. INGURUMEN ALORREKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUTEN ARAUAK

Ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidearen araubide juridikoko arau erregulatuak iturri ugari dituzte. Batetik, nazioarteko arauak daude. Horien artean, nabarmentzeko modukoak dira informazioa jasotzeko eskubidea zuzenean arautzen duten nazioarteko arauak, eta, araubide zabalago baten barruan, zeharka edo hain zuzenean arautzen ez duten nazioarteko arauak.

Nazioarteko arau batzuk zenbait estatu kidek berretsi dituzte eta haien balioa ez da berbera ordenamendu guztietan; jarraian, sakonago landuko dugu gaia. Nazioarteko arau horietako batzuk Europar Batasunak berretsi ditu. Horren eremuan, beste zenbait arau ere ezarri dira; horietako batzuek zenbait betebeharrak ezartzen dizkiete erakunde europarrei, eta beste batzuek estatu kideei. Arau-motaren arabera, ondorio desberdinak eragiten dituzte Europako arau horiek.

Nazioarteko eta Europako arau horiez gain, barne-arauak ere badira. Horiek estatukoak, autonomikoak, foralak edo tokian tokikoak izan daitezke. Botere publikoek arauak emateko duten eskumenaren arabera ezarriko dituzte arau horiek.

Horrenbestez, egokia da arau horien edukari eta arau horien bidez pertsonen dagozkien eskubideei buruz hausnartzea, bai eta arau horiek nola lotesten dituzten botere publikoak ere.

1.1. Nazioarteko Zuzenbidea

Nazioarteko arauak partzialki arautzen zuten, beste araubide batzuen barruan, ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Hala gertatu zen, besteak beste, Rioko Adierazpenean edo Espooko edo Luganoko Hitzarmenetan. Nazioarteko Hitzarmen horien balioari dagokienez, bakarrik horietako bakoitzaren barruan arautzen ziren alorretarako baino ez ziren aplikatzen. Esate baterako, urak edo ingurumenari buruzko ebaluazioa arautzen bazuten, hitzarmen horiek alor horietan bakarrik aplikatzen ziren.

Aarhus-eko Hitzarmenak arautu zuen, azkenean, informazioa jasotzeko eskubidea, modu orokorrean. Itun hori, ingurumen gaitako informazioa jasotzeari, jendeak erabakietan parte hartzeari eta epaitegietara jotzeari buruzko Hitzarmena izenez ezagutzen da, eta oinarrian eta orokorrean arautzen du ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

Aarhus-eko Hitzarmena zenbait estatuk eta Europar Batasunak berretsi dute. Nazioarteko hitzarmenen balio juridikoaren arabera, Aarhus-eko Hitzarmenak bere baitan hartzen dituen aurreikuspenak estatuetako agintariak zein Europar Batasuneko agintariak bete behar dituzte.

Gogoan izan behar da nazioarteko hitzarmenetan jasotzen diren arauak agintari publikoak ere lotzen dituztela, bai eta lehentasunez aplikatzen direla ere barne-araudiaren aldean. Horrek esan nahi du nazioarteko arauen edukien eta barne-arauden edukien artean kontraesanik gertatzen bada —Europako arauak ere barne-arautzat hartzen dira—, Nazioarteko itunak duela lehentasuna. Horrenbestez, eskubide jakin batek bere baitan hartzen duena zehaztu behar denean, informazioa jasotzeko eskubidea, esaterako, nazioarteko

Ingurumen alorreko informazioa jasotzeko eskubidea nazioarteko arauak, Europakoek, estatuetakoei, autonomia erkidegoetakoek, foralek eta tokikoek arautzen dute.

Aarhus-eko Hitzarmenak bere baitan hartzen duen eskubidearen, informazioa eskuratzeko eskubidea, edukia gutxienezko edukia da. Europako, estatuetakoko eta autonomietako arauak zuzenbide hori zabaldu ahal izango dute, baina ez murriztu.

**2003/4
Zuzentaraua
ingurumen-
informazioa
jasotzeko
eskubidea
arautzen duen
araua da.**

1.2. Europako Zuzenbidea

Zuzenbide europarrak bi arau-mota jasotzen ditu alor horretan. Batetik, Hitzarmena berretsi duten erakunde europarrek berek bete behar dituzten arauak, Aarhus-eko Hitzarmeneko kideak diren aldetik. Eta bestetik, Europar Batasunak ezarritako arauak; horiek informazioa jasotzeko eskubideari buruzkoak dira, nork bere estatuan garatu beharrekoak dira, eta barne-administrazioek bete beharrekoak. Hainbat dira bi arau-mota horietatik eratorritako arazoak eta ondorioak.

Europako erakundeei dagokienez, 2005/370/EE Erabakiaren bidez sinatu zen Aarhus-eko Hitzarmena. Gero, Hitzarmena sinatu ondoren, 1367/2006 zenbakidun Erregelamendua eman zen, 2006ko irailaren 6koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, ingurumen gaietako informazioa jasotzeari, jendeak erabakietan parte hartzeari eta epaitegietara jotzeari buruzko Aarhus-eko Hitzarmeneko xedapenak erakundeetan eta erkidegoko organismoetan aplikatzeari buruzkoa. Erregelamendu hori oso garrantzitsua da, Hitzarmenaren baitan hartutako betebeharrak Europar Batasunaren barruan garatzeko eta, horrezaz gain, konpromiso horiek betetze aldera mekanismo egokiak aurreikusten dituelako.

2003/4 Zuzentaraua jendeak ingurumen gaietako informazioa jasotzeko duen eskubideari buruzkoa da, eta estatuetako barne-agintariak bete beharrekoa da. Zuzentarau hori 90/313 Zuzentaraua aldatzekoa zen. Zuzentaraua izateak badu garrantzirik, arau-mota horretakoa denez, araubide juridiko espezifikoa duelako. Dagoeneko aipatu dugu Erkidegoko arauak lehentasuna dutela barne-arauen aldean, edozein motatakoak direla horiek; duela gutxi agerian geratu da hori Erkidegoko jurisprudentzian. Zuzentarauak emaitzak lortzea du helburu. Zuzentarauek, normalean, agindu bat ematen dute, barne-agintariak garapen-arauak eman ditzaten, legeek araututakoa betetzeko. Epea igaro ondoren barne-araua ezarri ez bada, Erkidegoko zuzenbidea ez dela bete esan nahi du, eta hala adieraz dezakete erkidegoko agintariak zein Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berak. Izan ere, Erkidegoko Zuzentaruaren transposizioa epez kanpo gauzatzen da.

1.3. Estatuko zuzenbidea

27/2006 Legearen bidez gauzatu da Europako Zuzentaruaren transposizioa. Lege horrek aurretik zegoen araudia aldatu zuen, 38/1995 Legean jasotakoa. 27/2006 Legeak informazioa jasotzeko eskubidea zabal arautzen du, eta oinarrizko edukizat ezarrita dago. Oinarrizko araua denez, tarte bat uzten du, agintari autonomikoen hura garatzeko arauak ezar ditzaten. Horrek esan nahi du, autonomia-erkidegoek alor hori arautzeko nahitaezkozat hartzen dituzten arauak eman ditzaketela, nork bere arauak. Arau autonomiko horiez gaiz, foru-arauak eta tokian tokiko arauak ere eman daitezke, aurreko arauak osatze aldera; jarraian, horiek landuko ditugu.

1.4. Zuzenbide autonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko Legearen 17. eta 18. artikuluek ingurugiroari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen dute. Erkidegoko Zuzentaraua eta aurreko atalean adierazitako Estatuko araua baino lehen onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lege hori. Horrek esan nahi du euskal lege horrek gerora onartutako arau horien edukia errespetatu behar duela, eta Europako eta Estatuko —azken hori aurrekoa garatzekoa— arau berriagoko horiekin kontraesanean dauden arauak ezin izango dituela aplikatu.

1.5. Foru Zuzenbidea

Ez dago alor hori arautzen duen inolako foru-araurik, eta Lurralde Historikoen Legean ez dago foru-agintariei alor horretan jarduteko eskumena ematen dien araurik.

1.6. Tokian tokiko arauak

Tokian tokiko ordenantzek zeregin handia dute ingurumenaren alorrean. Alor horretan esku hartzeko eskumena dutenez, ingurumena babesteko ordenantza orokorrak eman dira. Bestalde, tokian tokiko erakundeek alor horretan duten zeregina oso garrantzitsua da; izan ere, gogoratu besterik ez dago jarduera-baimenak emateko duten eskumena —besteak beste, hondakinen ingurukoak, ur-hornidurari, araztegiei eta zaratari buruzkoak—. Eta, oro har, zenbait eskumen dagozkie subsidiariotasunaren printzipioaren ondorioz; printzipio horren arabera, pertsona guztiek duten ingurumenerako eskubidea bermatzeko nahitaezkoak diren erabaki-mota guztiak har ditzakete tokian tokiko agintariek.

Ingurumenaren gaia arautzen duen tokiko ordenantzak Europako, Estatuko eta Autonomiako arauen edukia errespetatu behar du. Dena dela, zuzenbidea osatze aldera eman ditzake arauak; baina horrek esan nahi du zuzenbidearen edukia osatzeko ematen diren arauak ezin izango dutela intimitaterako eskubideari buruzko xedapenen aurkakoak izan, ez eta beste ondasun juridikoak babesteko emandako xedapenen aurkakoak ere —esaterako, komunikazioen sekreturako eskubidea babestekoak—.

Tokiko ordenantzek Europako, Estatuko eta Autonomietako arauen edukia errespetatu behar dute. Dena dela, zuzenbide hori osatu ahal dute.

**Europar
Erkidegoaren
esparruan
1367/2006 (EE)
erregelamenduak
Aarhus-eko
Hitzarmenetik
eratorritako
betebeharrak
gauzatu ditu.**

2. PARTIKULARREK ESKATUTAKO INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA DUTEN AGINTARI PUBLIKOAK

2.1. Europako erakundeak

1367/2006 (EE) Erregelamenduaren bidez betearazten dira Europar Erkidegoan Aarhus-eko Hitzarmenaren ondorioz sortutako betebeharrak. Ingurumenari buruz herritarrek egiten dituzten informazio-eskaerak erantzuteko betebeharra duten agintari publikoaren kontzeptua definitzerakoan, Hitzarmenean aipatzen den agintari publiko kontzeptua oso zabala da; hortaz, funtzio publikoren bat betetzen den eremuetan, gizabanakoei eta erakundeei dagozkien eskubideak ezarri behar dira. Horrek, halaber, Erkidegoan informazio hori emateko betebeharra duten erakundeen eta organismoen definizio zabala egitea eskatzen du. Aarhus-eko Hitzarmenaren arabera, botere judizialak edo legegileak dituzten erakundeak edo organoak salbuetsita daude Hitzarmeneko betebeharrak betetzetik. Erkidegoko Erregelamenduaren arabera, ordea, ez dira halabeharrez salbuetsi behar organo legegileak betebeharrorik betetzetik eta, hari jarraiki, informazioa eskuratzeko eskubideari buruzko araudia Erkidegoko erakundeei eta organismoei ere aplikatu beharrekoa da, nahiz eta horiek botere legegilea betetzen ari. Arauaren irismena zabaltze hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko maiatzaren 31ko 1049/2001 (EE) Erregelamendurekiko koherentez hartzen da; Erregelamendu hori, Europako Parlamentuko, Kontseiluko eta Batzordeko dokumentuak herritarren eskura jartzeari buruzkoa da.

1367/2006 Erregelamenduak, Europako beste arau askok bezala, erabiltzen dituen terminoei eta kategoriei buruzko zenbait definizio biltzen ditu bere baitan. Definizio horietako bat da, hain zuzen, Erkidegoko erakundea eta organismoa zer den. Erregelamendu horren arabera, Erkidegoko erakundetzat eta organismotzat hauek hartu behar dira: Tratuaren ondorioz edo bere baitan sortutako erakunde, organismo, bulego edo agentzi publikoak. Ondoren, botere judizialekin edo legegileekin jarduten dutenak salbuesten dira; hala ere, azken horiekin ere salbuespenik egiten du. Haren bigarren tituluak informazioa jasotzeko eskubidea arautzen du, eta dio Erkidegoko erakundeei edo organismoei ere aplikatu behar zaiela betebeharra, nahiz botere legegilekoak izan horiek.

Informazioa emateko betebeharra duten agintari publikoak esaten denean, ez dira ingurumenaren alorrean eskumena duten agintari publikoetara mugatzen. Arauaren arabera, izaera orokorrekoa da betebeharra; horrek esan nahi du edozein erakunderi edo organismori eska diezaiokeela informazioa herritarrek, ingurumenaren alorrean eskumena izan edo ez izan. Ingurumenari buruzko informazioa baldin badu organismo horrek, nahitaez eman behar du horren berri, informazioa jasotzeko eskubidea beteko bada, betiere, jakina, arauaren gainerako edukietan jasotzen diren baldintzak betetzen badira. Erkidegoko arauak erabat betetzen ditu Aarhus-eko Hitzarmenean ezarrita dauden betebeharrak.

Informazioa jasotzeko eskubideari buruzko mugak, funtzio legegileak dituzten erakundeen eta organoen inguruan Hitzarmenean ezarritakoak, ezabatu egiten dira. Arauaren hitzaurrean adierazten denari jarraiki, aurretik emandako erregelamendu batek herritarrei ematen bazien Parlamentuari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, ez du zentzurik ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea arautzen duen araudi batek salbuestea funtzio legegilea duten instituzioak eta organoak. Horrezaz gain, funtzio legegileak baditu zenbait berezitasun Erkidegoko ordenamendu juridikoan; izan ere, Kontseiluak eta Batzordeak zeregin garrantzitsua dute, Parlamentuarekin batera, haiei dagozkien eginkizunetan. Askotan, zaila izaten da bereiztea noiz betetzen dituzten funtzio legegileak eta noiz funtzio betearazleak Kontseiluak eta Batzordeak; bai eta informazio bat ahalmen legegileak edo betearazleak gauzatzetik sortzen den ala ez.

2.2. Gobernu Zentrala eta Estatuko Administrazio Orokorra

27/2006 Legeak agintari publikotzat hartu behar diren organo eta erakundeak zehaztu ditu. Gobernua eta Estatuko Administrazio Orokorra agintari publikotzat hartu behar direla dio. Beraz, honakoak izango dira agintari publikoak: Gobernua eta Ministro Kon-

tseilua, Gobernu Batzorde Delegatuak, Ministerioak, Estatu Idazkarien eta Idazkariordeen Batzorde Nagusia, Ministerio arteko Batzordeak, Autonomia Erkidegoetako Gobernuaren Ordezkaritzak eta enbaxadak eta kontsulatuak.

2.3. Eusko Jaurlaritzaren Kontseilua eta erkidegoko administrazioa

27/2006 Legeak dio Autonomia Erkidegoetako Gobernu eta Administrazioa agintari publikoak direla. Beraz, Eusko Jaurlaritza eta euskal administrazioiko Sailak agintari publikoak dira, ingurumenari buruzko eskumenak eduki ala ez.

2.4. Tokian tokiko administrazioa eta foru-organoak

Tokian tokiko eremuaren barruan, ohiko udal-egiturako erakundeak ditugu. Horiez gain, kontuan hartzeko modukoak dira tokiko izaera berezia duten beste egitura batzuk ere; esate baterako, Araban, Kuadrillak eta Ermandadeak. Erakunde mota horietakoak ere bada dira mankomunitateak, partzuergoak eta tokiko izaerako beste talde batzuk ere. Horietako batzuk agintari publikotzat —zentzu zorrotzean— hartu ezin badira ere, haien araubide juridikoaren arabera, bai sartuko lirateke nolabaiteko erantzukizun publikoa beren gain hartzen duten pertsona juridikoen taldean (27/2006 Legearen 4.2. artikulua).

Indarrean dagoen araudiak ez du foru-erakundeei buruzko aipamenik egiten. (Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak). Estatuko, autonomietako eta tokian tokiko agintariez hitz egiten da, baina ez ditu foru-erakundeak aipatzen. Foru-erakundeen izaera juridikoa kontuan hartuz gero, eta erakunde autonomiadun edo tokian tokiko erakundeen izaerakoak direnez, argi eta garbi dago arauak bere baitan hartuko lituzkeela horiek ere. Horrezaz gain, ez luke zentzurik betebeharra duten tokian tokiko erakundeetatik kanpo uztea foru-erakundeak; izan ere, ez dago inolako arrazoirik horretarako, eta, bestalde, foru-erakundeek ere badituztelako garrantzi handiko eskumenak ingurumenaren alorrean. Aurreko horretatik ondorioztatzen da partikularrek eskatzen duten informazioa emateko betebeharra izango balute foru-erakundeek, foru-erakundeen mendeko zuzenbide publikoko erakundeek ere ingurumenari buruz eskatutako informazioa emateko betebeharra izango luketela.

2.5. Estatuari, Autonomia Erkidegoei edo Toki-erakundeei loturiko Zuzenbide Publikoko Erakundeak

Arau honen eraginpean daude erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak —euskal legerian zuzenbide pribatuko erakunde publikoak izenez deitzen direnak— eta estatuko agentziak. Autonomia Erkidegoekin lotutako zuzenbide publikoko erakundeen artean sartu behar ditugu autonomiako ordenamendu juridikoari jarraituta sor daitezkeen guztiak. Horien artean honakoak aurkitu ahal ditugu: Eusko Jaurlaritzaren menpean dauden kudeaketa-tresna modura erabilitako erakundeak; edo, lege baten bitartez sortuta, independenteago edo legebiltzarraren kontrolpean ari daitezkeenak, telebista publikoak, esaterako.

Erakunde autonomoen artean ondorengo hauek aipatu ahal dira: Arroko Erakundeak (Estatuko Administrazio Orokorrera lotuak), EUSTAT eta OSALAN (erkidegoko administrazioa lotuak), Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua (foru-erakunde autonomoa) eta Gasteizko Ingurugiro Galetarako Ikastegia. AENA (Aeropuertos Españoles y Navegación Aérea) Estatuko Administrazio Orokorrarekin lotutako enpresa-erakunde publikoa da eta Uraren Euskal Agentzia euskal administrazioarekin loturiko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.

2.6. Aholku-organo publikoak

Aholku-organo publikoak, Estatuko Administrazio Orokorraren mendekoa izan, erkidegoko administrazioarena, foralarena edo tokikoarena izan, agintari publikoak dira.

Agintari publikoaren kontzeptuak
Sektore Publikoa, zentzu zabalean, hartzen du bere baitan; baina baita pertsona fisiko eta juridikoak ere ingurumenarekin loturiko erantzukizun publikoak bere gain hartzen dituztenean, eginkizun publikoak betetzen dituztenean edo zerbitzu publikoak ematen dituztenean, betiere izaera publikodun edozein erakunde, organo edo instituzioren pean.

Zuzenbide publikoko korporazioek funtzio publikoak betetzen dituztenean, agintari publikoaren izaera dute, eta agintaritza hori ez da ingurumenaren alorrean gauzatu behar.

Izaera pribatuko pertsona fisiko eta juridikoak bakar-bakarrik jo daitezke agintari publikotzat betetzen dituzten erantzukizun, funtzio edo zerbitzuak ingurumenarekin lotuta daudenean.

Horien artean honako hauek: Ingurumenerako Aholku Batzordea, Euskal Autonomia Erki-degoko Uraren Kontseilua, Naturzaintza, Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua, Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea eta Lurraldearen Antolamendurako Batzordea.

2.7. Zuzenbide publikoko korporazioak

Eskura duten ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharra dute, halaber, zuzenbide publikoko korporazioek, eta funtzio publikoak betetzen dituzten —indarrean dagoen araudiari jarraiki— gainerako pertsona fisiko edo juridikoek, notarioek eta jabetza-eta merkataritza-erregistroetako langileek eta ondasun higiezin erregistroetakoek barne. Betebeharra duten zuzenbide publikoko korporazioak zein diren zehazteak ez du aparteko arazorik eragiten. Konplexuagoa da zehaztea zein pertsona fisikok edo juridikok betetzen dituzten «funtzio publikoak». Halakoetan, funtzio publikoak betetzen direnean, agintari publikoaren izaera duela esan nahi du, eta agintaritza hori ez da ingurumenaren alorrean gauzatu behar.

Zuzenbide publikoko korporazioen artean hauek ditugu: nekazari-ganberak; kofradia; kontseilu arautzaileak; profesionalen elkargoak; merkataritza, industria eta nabigazioko ganberak eta ureztatzaile-elkarteak.

2.8. Izaera pribatuko pertsona fisiko eta juridikoak

Legearen arabera, ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharra dute, halaber, izaera pribatuko pertsona fisikoek eta juridikoek, agintari publikoen baldintzak betetzen badituzte; hau da, ingurumenarekin loturiko erantzukizun publikoak bere gain hartzen dituztenean, eginkizun publikoak betetzen dituztenean edo zerbitzu publikoak ematen dituztenean, aurreko ataletan aipatutako entitate, organo edo erakunderen baten agindupean (27/2006 Legearen 2.2 artikulua). Agindu hori oinarri hartuta, badira aztertzea merezi duten zenbait alderdi.

Lehenik eta behin, informazioa emateko betebeharra izan dezaten, nahitaezkoa da izaera pribatuko pertsona juridiko horiek ingurumenarekin lotura duten erantzukizun publikoak izatea, funtzio publikoak betetzea edo zerbitzu publikoak ematea. Erantzukizun publikoak beren gain hartzen dituzten, funtzio publikoak betetzen dituzten eta zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen artean berezi behar izateak, badirudi, egoera horien ahalik eta interpretazio zabalenerako tartea uztea duela helburu, nahiz eta hiru termino horiek bereiztea ez izan beti erraza. Partikularren esku-hartzeari dagokionez, eremu gutxik dute araubide juridiko espezifikoren bat, eta horrenbestez, zalantza bat sortzen da: ingurumenari buruz duten informazioa emateko betebeharra al dute? Pertsona juridiko horietako batzuk, besteak beste, hauek ere izan daitezke: garraioaren eta energiaren kudeatzaileak edo emakidadunak; meategiak edo ura ustiatzeko emakiden titularrak, ur horiek mineral medizinalak izan, mineral industrialak izan edo ur arruntak izan. Badirudi araudiaren asmoa dela, hasiera batean, bertan ezarritako aginduek ahalik eta interpretazio zabalena hartzea; izan ere, horrela, pertsona juridiko horiek eskatutako informazioa emateko betebeharra izango dute. Arazoa, beharbada, funtzio edo zerbitzu publikoa noiz den erabakitzea izango da, bai eta funtzio edo zerbitzu publiko horrek ingurumenarekiko lotura noiz duen erabakitzea ere.

Hauen artean industria-baimenen titularrak aipa daitezke, adibidez, energia-ekoizleak edo jatorriko administrazioentzako eta fundazioentzako jarduten duten enpresa publikoak. Ingurumenarekin lotura izan behar duelako aipamen horrek esan nahi du jarduerak ez dela zertan izan ingurumenari buruzkoa soilik, baizik eta izan daitezkeela ingurumenean eragina duten ekoizte-jarduerak; ingurumenari buruzko arlo batean aritzen diren jarduerak, edo zaintze-jarduerak, baldin eta horien bitartez ingurumenari buruzko informazioa eduki ahal bada, etab. Ingurumen kontzeptuaren edo ideiaaren interpretazio zabala egin behar da, beraz.

Erantzukizun publikoak izatea, funtzio publikoak betetzea edo zerbitzu publikoak ematea esaten denean ere, interpretazio asko egin daitezke. Ingurumenaren alorreko zerbitzua izan gabe ere, ingurumenean ondorioak eragin ditzake zerbitzu horrek, eta, hortaz, kategoria horien barruan sar daiteke eta informazioa emateko betebeharra izatea eragin diezaioke.

Agintari publikoen betebeharra da publikoari egoki informatzea legeek ematen dizkieten eskubideez eta horiek baliatzeko bideez.

3. INGURUMENAREN ALORREAN AGINTARI PUBLIKOEN BETEBEHARRAREN BEREIZIA

Ingurumenaren alorrean agintari publikoek dituzten betebeharren eduki orokorra zein den zehazten du araudiak. Araudiak bere baitan hartzen dituen espezifikazioei erreparatzeak badu garrantzirik; izan ere, eskatzen den informazioari buruzko xehetasunak emateaz gain, beste zenbait xehetasun ere aipatzen dira: informazioa eskatzen duten pertsonen dagozkien eskubideei, informazioa emateko moduari, agintari eta langile publikoek eskaera horien aurrean izan behar duten jarrerari eta bestelako gai batzuei buruzkoak; horiek guztiak informazioa eskuratzeko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izan dadin emanak dira. Bestalde, zenbait betebeharrak ezarri ditu, agintari publikoen jardueran aldaketaren bat eragite aldera. Ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko pertsonen dute eskubidea gauzatzeko lagundu behar dute agintari publikoek, informazioa eskatzen duen pertsonak administrazio-jarduera eragozteko edo oztopatzeko asmoa ez duela gogoan hartuta. Aarhus-eko Hitzarmenak, barne-araudiaren bidez, eragin du ikuspegi aldaketa hori, eta politikaren eta administrazioaren kultura aldatzea du helburu.

3.1. Pertsonen dute eskubideei buruz informatzeko betebeharra

Ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri izateko pertsonen dute eskubideei buruz informatzeko betebeharrak bi ikuspuntutik du garrantzia. Batetik, informazioa eskatzen duten herritarren ikuspegitik, dagokien eskubidea gauzatzeko edo erabiltzeko lagunduko dien langile bat izango dute agintari publikoan, eta hark esango die, hain zuzen, zertan datzan. Agintari publikoak zenbaitetan izaten duen jarrera aldatu behar duela esan nahi du horrek, eta ahalegina egin behar duela langileak trebatzen eta, horrela, pertsonen dute eskubide horri behar bezala erantzuteko.

Eta bestetik, herritarra ez da agintari publikora joango oztopo egiten duen informazio-eskatzaile gisa, baizik eta behar bezalako harrera egingo dioten eta mota guztietako azalpenak jasoko dituen herritar gisa, horretarako eskubidea baitu. Agintari publikoak pentsatzeko modua aldatu behar duela esan nahi du horrek, eta aldaketa hori agintari publikoak berak egin behar du.

3.2. Eskubidea erabiltzeko modurik egokienari buruz informatzea, aholkatzea eta gomendatzea

Betebeharrak bi ekintza-motatan bana daitezke: batetik, informazioa ematea; eta bestetik, informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko laguntzea. Hasteko, legegileak ere ez du zehaztu zertan datzan informatzea. Herritarren egindako galderei erantzutea izan daiteke, eta hori, dagoeneko, 30/1992 Legeak arautzen du; izan ere, honela dio Legeak: «Argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak, jardunak eta eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko». Horrenbestez, horrek ez dakar inolako berrikuntzarik, herritarren eta Administrazioaren arteko harremanari dagokionez.

Baina informazioa jasotzeko eskubideak badu beste alderdi bat ere: herritarren informazioa eskuratzeko duen eskubidea erabiltzeko nahitaezkoa edo baliagarria den informazio guzti-guztia emateko betebeharra izan dezake agintari publikoak. Horrenbestez, Legearen 10. artikuluan arabera, agintari publikoek edo informazio-zentroek ingurumenari buruz duten informazio guztiaren erregistroak edo zerrendak egiteko betebeharra du agintari publikoak, eta, horrezaz gain, argi eta garbi adierazi behar du non aurki daitezkeen informazio hori. Aarhus-eko Hitzarmenaren 5.2. artikuluan, berriz ere adierazten da agintari publikoek ingurumenari buruz duten informazio-motari eta horren garrantziari buruzko behar adina informazio jarri behar dela herritarren esku.

Agintari publikoek laguntza eman behar diete pertsonen ingurumenari buruzko informazioa jaso nahi dutenean, eta baita aholkatu ere.

Bestalde, aholkularitza emateko betebeharrak ere hartzen du bere baitan araudiak. Lehenik, herritarrei, legearen arabera, informazioaren alorrean dagozkien eskubideen berri eman behar die agintari publikoak. Bigarrenik, eskaera egiteko jarraitu beharreko tramiteei buruzko argibideak eman behar dizkie, ulertzeko moduan eta horiek eskura jarri behar dizkie; hori egiteak eragiten dituen ondorio juridikoen berri ere —administrazio-prozeduraren ikuspuntutik— eman behar die; eta, horrezaz gain, informazioa ez emateko arrazoiei eta informazio hori emateko agintari publikoak duen epeari buruzko azalpenak ere eman behar dizkie. Eta azkenik, ikuspegi teknikoago batetik, idatzia aurkezteko moduaren inguruan laguntzea ere nahitaezkoa da, eskuratu nahi diren ingurumenari buruzko datuak eta gaiak zehazteari garrantzi berezia ematen zaiola.

Laguntza eta aholkua eman behar da, legearen arabera, ahal den guztietan; horrek zalantzan jartzen du legea behar bezala aplikatzen den ala ez, herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidearen alorrean. Agintari publiko askok nahikoa baliabide ekonomiko ez dutenez, legea praktikan ezartzea zaila da, eta, agian, legegileak horregatik erantsi zuen ñabardura hori. Normala den bezala, agintari publikoek ez badute nahikoa aurrekontu beren jardunerako, ezin izango dute behar bezala bete dagozkien betebeharrak; hortaz, legegileak edo tokiko erakundeetako batzarrek zehaztu beharrekoa da. Horrenbestez, politika publikoen alorrean legea behar bezala betetzeak badu baldintzarik; hau da, beste lehentasun batzuk egotea. Autonomia-erkidegoetako gobernuak eta parlamentuek, tokian tokikoek bai eta estatukoak ere, gastuak erabaki egin behar dituzte aurrekontuen arabera, eta, baliteke ingurumenari buruzko informazioa lehentasunen zerrendako azkena izatea. Lurralde-erakunde bakoitzari dagozkion gobernu-funtzioaren arabera da hori guztia.

Alor horretako aholkularitza teknikoak —hala eskatzen duten herritarrei— nahitaez eskatzen du bitarteko tekniko ugari eta baliabide ekonomikoak izatea. Agintari publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileak trebatu behar izateaz gain, zenbaitetan, konplexuegia izan daiteke nahikoa funtzionario eta bestelako agintari publikoko langile edukitzea, eta, ondorioz, beharrezkoa izan daiteke partikularren zerbitzuak kontratatzea, kasu berezietarako zein denbora-mugarik gabe aritzeko. Ikusi besterik ez dago, azken urteotako eraikuntza-jardueraren erritmo frenetikoa nolakoa izan den eta zabaldu diren establezimendu guztietarako behar izan diren aurretiazko jarduerak baimen anitzak. Finantza-baliabide nahikorik ez duten udalentsat, eskubidea erabiltzeko moduari buruzko informazioa ematea eta aholkularitza-zerbitzua ematea ezinezkoa izan daiteke.

3.3. Ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharrak duten agintari publikoen zerrenda

27/2006 Legeak ezarritakoari jarraiki, eskura duten ingurumenari buruzko informazioa ematera behartuta dauden agintari publikoen zerrendak egin behar dituzte Administrazioek. Autonomia-erkidego bakoitzeko, gutxienez, agintari publikoen zerrenda bateratu bat egon behar du [5.c) artikulua]. Betebeharrak horrek agerian uzten du beharrezkoa dela agintari publikoa herritarrengana hurbiltzea, herritarrek alde aurretik jakin dezan zein erakunde izan dezakeen eskuratu nahi duen informazioa. Horren ondorioz, informazio-eskaera aurkezteko denbora gutxiago behar izango da eta, halaber, eskatutako datuak zein organok eman behar dituen jakiteari dagokionez, segurtasun juridikoa handiagoa izango da. Informazioa eskuratzeko eskubidearen baliagarritasuna nabarmen hobetzea dakar horrek.

Zerrenda horietan, agintari publikoak adierazi besterik ez dira egiten; hau da, zerrendatu bakarrik egiten dira, eta, hortaz, eskaera beste edozein organoren batean aurkez daiteke, betiere agintari publikoa bada; dena dela, zenbaitetan, eragile pribatu bat ere izan daiteke, zerbitzu publikoren bat ematen ari denean edo kontratu-bidezko lotura duenean agintari publikoarekin —esaterako, emakidadunen bat izan daiteke—. 27/2006 Legearen 2.4.2. artikulua arabera, pertsona fisiko edo juridikoen agintari publikoen izatera izango dute agintari publikoko edozein entitate, organo edo erakunderen agindupean ingurumenarekin lotura duten erantzukizun publikoak beren gain hartzen dituztenean, funtzio publikoak betetzen dituztenean edo zerbitzu publikoak ematen dituztenean. Zerrenda —horretarako ardura duen agintari publikoak egina— ez da zerrenda hertsia; hortaz, lehen aipatutako edozein erakunde izan dezake herritarrek eskatutako informazioa.

Agintari publikoen zerrendak duen helburua da herritarrei ingurumen-informazioa jasotzeko eskubidea erraztea, alde aurretik jakin dezan zein erakunde izan dezakeen eskuratu nahi duten informazioa.

Agintari publikoari buruzko definizioa, 27/2006 Legearen 2. artikuluan xedatutakoa, baliagarria izan daiteke zerrendak egiteaz arduratuko diren agintari publikoentzat, zehatz-mehatz jakiteko zein erakunde dagoen dokumentazioa eskuragarri jartzetik salbuetsita. Hain zuzen ere, funtzio legegileak edo judizialak betetzen ari direnean entitateak, organoak edo erakundeak ez dira agintari publikotzat hartzen. Nolanahi ere, funtzio legegileak edo judizialak betetzen ari direnean, legearen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira honako hauek: Gorte Nagusiak, autonomia-erkidegoetako batzar legegileak, Konstituzio Auzitegia, Botere Judizialeko epaitegiak eta auzitegiak eta autonomia-erkidegoetako kontu-auzitegiak edo kanpo-fiskalizazioko organoak.

Eta azkenik, zerrendak herritarren eskura jarri behar dira, baina legeak ez du zerrenda horiek ezagutzera emateko berariazko mekanismorik ezartzen. Ohikoena egunkari ofizialetan argitaratzea izango litzateke, baina agian ez litzateke oso bide aproposa izango herritarrek zerrenda horien berri izateko. Alde horretatik, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak udaletxeak direnez, ahalegin handiagoa egin beharko lukete zerrenda horiek udaletxeetako iragarki-tauletan jartzeko eta horiek etengabe eguneratzeko. Dena dela, legetestuak adierazitakoari jarraiki, herritarrak administrazioen batean informazioa eskatzen badu eta administrazio horrek ez badu informazio hori, agintari publikoak jakinaraziko dio zein agintari publikotan dagoen eskuratu nahi duen informazioa [10.2 b) artikulua] eta, gaur egun, zerrenda hori instituzioen web gunean egon beharko litzateke.

Autonomia-erkidego bakoitzeko agintari publikoek zerrenda bateratu bat osatu behar da.

Agintari publikoek zerrendak horietako bakoitzak duen ingurumen-informazioa zein den adierazi behar dute eta herritarrek jasotzeko moduan egon behar dute.

3.4. Aurreko atalean adierazitako agintari publikoen zerrendak osatzeko betebeharra duten administrazioak

Autonomia-erkidegoei dagokie zerrenda bateratu bat egiteko betebeharra, norik bere lurralde-eremuko administrazio guztientzako. Horrela, legegilearen asmoa zerrenda desberdinak ez egitea zen; izan ere, zerrenda bat baino gehiago osatuz gero, benetan nahas daiteke herritarra eta informazioa eskuratzea oztopatuko litzateke. Hala ere, bada arazorik agintari publikoen arteko koordinazioan, bai eta autonomia-erkidegoaren beraren baitan ere. Zailtasun horrek, hala ere, ez du eragozten zerrenda egitea oso neurri positiboa dela esatea.

Zerrenda egitea aldrebesa izan daiteke zerbitzu edo lan publiko jakin batzuk kudeatzeko tokiko erakunde autonomoak edo enpresa publikoak sortzen badira. Udalerrri batean, ingurumenen eragin nabarmena izango duen obra publikoa egiteko asmoa badago, informazio publikoko epea irekiko da nahitaez. Informazioko epeak iraun bitartean, lehenago aipatutako erakunderen batek dituen zenbait datu behar litzake herritarrak, eta, hortaz, udalak ezin du erakunde hori zerrenda horretatik kanpo utzi. Azpiegiturak edo lanak udalerrri bati baino gehiagori eragiten badio, zailagoa izan daiteke, udal guztiek zerrenda berri-tua ez izatea gerta baitaiteke. Hortaz, lanarekin zerikusia duten guztiei zerrenda berri-tuaren berri eman beharko lieke udalerrriak, eta, horrezaz gain, autonomia-erkidegokoaren Administrazioari ere bidali beharko lieke lehenbailehen. Kasu konplexuagoak ere gerta daitezke; esate baterako, Estatuko Administrazioak beste erakunde batzuk erantsi eta horietako organoek ingurumenarekin zerikusia duten sektore jakinetan jarduteko eskumena izatea —kostak eta itsasbazterra, adibidez—. Halakorik gertatuz gero, autonomia-erkidego guztiei komunikatzea beharrezkoa izango litzateke edo, gutxienez, Estatuko Aldizkari Ofizialean ebazpena argitaratu beharko litzateke. Autonomia-erkidego horrek ere jarri beharko luke herritarren eskura Estatuko Administrazioak eguneratutako zerrenda. Hortaz, halako egoeratarako, administrazioen artean koordinazioa edo lankidetzaren egon dadin ahalegin berezia egitea sustatu behar da.

Ez dirudi erraza denik zerrenda horiek egitea. Administrazio askotako sailetan izan dezakete ingurumenaren egoerari buruzko datuak ezagutzera ematen duten informazioa —zuzenean zein zeharka—. Hortaz, ingurumenari buruzko intereseko informazioa Estatuko edo autonomia-erkidegoko Industria, Ingurumen edo Lurralde Antolamendurako sailek edukitzeaz gain —ohikoena horiek baitira— beste sail batzuek ere eduki dezakete intereseko informazioa; besteak beste, Ekonomia, Osasun eta Kontsumo sailek. Zerrenda horiek une oro berritze aldera, komenigarria izango litzateke administrazioek definitzea —gutxienez, barne-funtzionamendurako— zein irizpide jarraitu behar diren informazioaren bat ingurumen-izaerakoa den ala ez erabakitzeko. Horrela, eguneratzea errazagoa izango litzateke eta fun-

tzionarioek zalantza gutxiago izango lituzkete herritarrek eskatutako informazioa eman dezaketen ala ez erabakitzeko.

3.5. Administrazio publikoko langileen laguntza, herritarrek ingurumenari buruzko informazioa lortu nahi dutenean

Informazioa aurkitzeko laguntzari dagokionez, betebeharrak hori berariazkoa da. 27/2006 Legearen 10. artikuluan antzeko betebeharrak dutela berresten da. Ingurumenari buruzko informazio-eskaera ez bada behar bezala egiten, ez bada behar bezain zehatza, agintari publikoak laguntza emango dio, hartara, bere eskubidea baliatu dezan.

Aarhus-eko Hitzarmeneko konpromisoekin lotura zuzena du betebeharrak horrek; izan ere, haren arabera, funtzionario eta agintari publikoek herritarrei laguntza eta aholkuak eman behar dizkiete, ingurumenaren inguruko eskubideak behar bezala erabiltzeko herritarrek (3.3. artikulua). 2003/4 Zuzentarauaren transposizioari dagokionez ere, hala gertatzen da; izan ere, haren arabera, informazioa eskuragarri izateko eskubidea eraginkortasunez gauzatzen lagundu behar diete agintariak herritarrei, eta, hortaz, eskatutako informazioa dagoen erregistro publikoari buruzko datuak eman behar dizkiete.

Administrazio-informazio horrezaz gain, kontuan izan behar da herritar gehienak ez daudela ohituta administrazio-prozedurarekin, ez eta horretarako bete behar diren tramiteekin ere. Legeak ezarritako beste betebeharrak bat ere kontuan izan behar da; hain zuzen ere, legeak dio informazio-eskaerak zehatza izan behar duela; izan ere, agintari publikoak informazio-eskaera bat ez onartzeko duen arrazoietako bat hura behar bezain zehatza ez izatea da. Alde horretatik, informazioa eskuratzea errazagoa izan dadin, agintari publikoak behar beste bitarteko jarri behar ditu herritarren eskura. Horrenbestez, informazio-eskaeraren bat atzera botatzen bada, eskaera egiteko idatziak zer akats zituen eta eskaera hori nola zuzen daitekeen galde diezaioke herritarrek horretarako ardura duen administrazio-organismoari.

Laguntza-mota horren bitartez —zalantzak argitzen une oro laguntzea eskatzen du horrek—, agintari publikoaren zerbitzura aritzen diren langileek beteko lukete 27/2006 Legean xedatutako betebeharrak. Galderaren eta erantzunaren artean justifikatu gabeko atzerapena gertatuz gero edo informazioa eskura izateko eskubideari oztopoak jarri gero, Administrazio-erantzukizuna sortzen da. Arazoak tramitzeko eta horiei aurre egiteko Administrazioak duen erantzukizunari buruz 30/1992 Legeak xedatutakoa ere kontuan izan behar da; hau da, neurri egokiak ezarri behar dira eskubideak behar bezala erabiltzea eragotzen, oztopatzen edo atzeratzea eragiten duten arazoei aurre egiteko (41.1. artikulua).

Agintari publikoari dagozkio betebeharrak horiek, eta praktikan gauzatu behar dira. Horretarako, nahitaezkoa da erakunde publikoek diru-kopuru handi samarra inbertitzea, ez bakarrik bertako langileak trebatzeko, baizik eta informazio-eskaera gehiago egingo direla aurreikusten diren egoeretan, herritarrei une oro laguntzen eta horretan bakarrik arituko diren langileak kontratatuz. Esate baterako, udalerriri bati baino gehiagori eragingo dion azpiegitura handiren bat eraiki behar badute (errepideak edo erraustegiak) edo hirigintza-planen bat onartu behar badute, normalagoa da herritarrek kontsulta gehiago egitea proiektu horien ondorioen berri izateko.

IVAPek arreta berezia jarri behar du funtzionarioak gai honetan trebatzeko ikastaroak antolatzen. Prestakuntza plan horrek ingurumenaren alorrean sortzen diren arazo teknikoari buruzko gaiak ere hartu behar ditu kontuan; esate baterako, zer den ingurumenari buruzko informazioa argitzea, zein administrazioak duen eskumena alor horretan, bai eta administrazio-prozedurari buruzko alderdiak ere. Legea eraginkortasunez ezartzeko denbora gehiago behar izatea eragiten du horrek guztiak, baina, horrezaz gain, inbertsioa egin behar izatea ere bai, eta halako inbertsioak ezin ditzakete, seguru asko, udal edo agintari publiko guztiak egin. Hortaz, zenbait laguntza ematea ere aurreikusi behar luke plan horrek, eta legeak ezarritakoak betetzeko eginkizunak behar bezala finantzatu ahal izateko, Estatuko Administrazioak berak eman ditzake laguntzak, edo agintari publikoen arteko lankidetzak-hitzarmenak eratuz auzerak eman behar luke planak. Kontuan izan behar da ingurumenarekin zerikusia duen informazioa agintari publikoetako ia sail guztiak dutela

Agintari publikoek laguntza eman behar diote eskatzaileari, horrek egindako eskaria oker edo modu ez zehatzean eginda badago.

**Informazio-
teknologiek
informazioa
errazago eta
azkarrago
emateko aukera
eskaintzen dute,
eta, gainera,
administrazio-
prozedurekin
loturiko tramite
formalak ez dira
egin behar.**

—batzuek beste batzuek baino gehiago— eta, beraz, alor horretako gastu publikoa handi samarra izan daitekeela.

3.6. Informazio-teknologiak ahalik eta gehienetan erabiltzea, informazioa eskuratzea errazagoa izan dadin

Gai horri dagokionez, Aarhus-eko Hitzarmenak ezarritakoari jarraiki, «ingurumenari buruzko informazioa pixkanaka-pixkanaka datu-base elektronikoetan erantsi behar da, telekomunikazioko sare publiko erabilerrazak jarrita herritarren eskura» (5.3. artikulua). Administrazio-espedituekin zerikusia duten gaietarako teknologia berriak oso lagungarriak direlako ezarri da betebeharrak. Informazioa errazago eta azkarrago emateko aukera eskaintzen dute mekanismo horiek, eta, gainera, mota horretako prozedurekin zerikusia duten tramite formalak ez dira egin behar. Beste modu batera esanda, ez da beharrezkoa informazio-eskaera egitea, informazio hori lehendik eman bada Interneteko atari baten bidez edo datu-base elektronikoaren bidez. Agintari publikoaren gastuak nabarmen murriztuko lirateke, ez bailitzateke nahitaezkoa izango eskaera hori erregistroan sartzea, ez eta eskatutako informazioa zein bulegotan dagoen adieraztea ere.

Lehen aipatu ditugun kasuetan adierazi dugun bezala, informazioa hedatzeak agintari publikoak gastuak bere gain hartzea dakar, eta horregatik ezartzen du legeak ahalik eta gehien erabili behar direla teknologia berriak. 2003/4 Zuzentarauak, bestalde, honako hau ere xedatzen du: agintari publikoek zentzuzko ahalegina egin behar dute ingurumenari buruzko informazioa erraz erreproduzitzea eta eskuratzea ahalbidetuko duten modu edo formatuetan gordetzeko, telekomunikazio informatikoak edo beste bitarteko elektroniko batzuk erabilia. Hortaz, kasuz kasu aztertu beharko litzateke zer den zentzuzko ahalegina egitea eta, horrezaz gain, ahalegin hori nahikoa izan den ingurumenari buruzko informazioa eskuratzea nabarmen errazteko.

Baliteke udalerrri txikietan, ingurumenari buruzko informazioa eskatzeak eskubide horren baliatzea ez eragozteko edo murrizte urria izatea. Gainera, horrelako lurralde-eremuetan beharrezkoagoa da bitarteko teknologikoak garatzea eta hedatzea. Jakin badakigu, telekomunikazioko konpainiek ez dutela banda zabaleko zerbitzua eskaini nahi izaten halako zonaldeetan, zaila delako egindako inbertsioa amortizatzea. Dena dela, teknologia berriei esker —*Wi-Fia*, esaterako—, udal asko jo eta ke ari dira Informazio Gizartera egokitzen, mota horretako sareak instalatzen dituzten enpresak kontratatuta edo sortuta.

Informazioa eskuragarri izateko eskubidearen alderdi aktiboari dagokionez, hona hemen sor daitekeen arazoa: herritarrek Internet nolabaiteko bermeaz erabiltzeko duten aukera. Alde batetik, etxe guztiek ez dute nahikoa abiaduran nabigatzeko moduko sare-konexiorik. Eta bestetik, halako konexio-modurik ez dutenez, herritar askok ez daki askorik teknologia berriak aplikatzeaz eta erabiltzeaz. Horregatik lehen aipatu dugun Zuzentarauak adierazten du teknologia berriak ezartzean, nahitaezko baldintza dela horiek erabiltzea eta horien bidez informazioa erreproduzitzea eta eskuratzea erraza izan behar duela.

Ikuspegi juridikoari dagokionez, gogoan izan behar da 27/2006 Legeak berak behartzen duela Estatuko Administrazio Orokorra erregistro telematikoak ezartzera, ingurumenari buruzko informazio-eskaeren inguruan sortzen diren prozedurei aurre egiteko. 25/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoak jasotzeko modu elektronikoei buruzkoak, sarbide elektronikoko guneak sortzera behartzen du Administrazioa; hau da, departamendu eta organismo publikoek sortu eta kudeatuko dituzten gune elektronikoak, komunikazio-sareen bidez herritarren eskura jarriko direnak.

Hain zuzen ere, sarbide elektronikorako gune orokorra sortzea bultzatzen da, haren bidez herritarrek, Estatuko Administrazio Orokorreko eta haren Organismo Publikoekiko harremanetan, eskuragarri dagoen informazioa eta horiek eskaintzen dituzten zerbitzuetara jo ahal izateko [8.2b) artikulua]. Bestalde, Jaurlaritzaren 232/2007 Dekretua ere hartu behar da kontuan, Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoaren erabilera arautzen baitu. Arau horien bidez ezarritako sarbide elektronikoko guneari eta jakinarazteko berariazko sistemari esker, ingurumenari buruzko informazio-eskaerak bitarteko telematikoaren bidez egin daitezke.

**Administrazioak
herritarrek
dituen
harremanetan
bitarteko
elektroniko,
informatiko eta
telematikoak
erabiltzeak
honako prin-
tzipioetan du
bere funtsa:
diskriminazio
eza,
doakotasuna,
borondatezkoa
izatea eta datu
pertsonalen
babesa.**

Eskubide horiek erabiltzeko moduei buruz informatzeko betebeharrak xedatzen du araudiak. Erabiltzeko modu desberdinak daude, eskatzen den informazioaren arabera. Eskubide horiek erabiltzeko, egoeraren arabera nola erabil daitezkeen jakin behar da, eta, hortaz, horri buruzko informazioa ere eman behar da; horretarako, besteak beste, honako hauek hartu behar dira kontuan: eskatutako informazio-mota, informazioaren konplexutasun teknikoa, informazioa non lor daitezkeen, erantzuteko epeak eta informazioa zuzenean eskuratzeko dauden aukerak —Administrazioak noiz erantzungo zain egon gabe—.

3.7. Telekomunikazioen erabilera sustatzea, informazioa eskuragarri izateko modu operatibo gisa

Web-orrietarako lotuneak sortzeaz gain eta aurreko atalarekin lotuta, merezi du aipatzea lortu nahi den informazioa lortzeko mekanismoetako bat prozedura telematikoak dela. Alor horretan aplikagarri diren xedapenak zein diren dagoeneko adierazi dugu, eta, bestalde, esan dugu garrantzitsua dela legeak berak behartzea Estatuaren Administrazioa erregistro telematiko bat ezartzera, ingurumenari buruzko informazio-eskaerak erantzuteko. «Telekomunikazioen erabilera sustatzea» espresioa erabiltzen du 27/2006 Legeak, besteak beste, plataforma informatikoak sortzea eskatzen duelako; izan ere, horien bidez, herritarren eta agintari publikoaren arteko elkarrekintza posible da, eta eskaerak aurkezten dituzten pertsonen autentikotasuna bermatzen da.

Hala, Eusko Jaurlaritzaren 232/2007 Dekretuaren erregimen iragankorrak zenbait luzamendu-epe ezarri ditu administrazio-prozedurak baldintza telematikoetara egokitzeko eta, horrela, Administrazioarekiko harremanetan, bitarteko horiek erabiltzeko herritarrek duten eskubidea gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du prozedura guztiak ezin direla, oraingoz, bitarteko telematikoak erabilita gauzatu, baizik eta horiek abian jartzeko nahitaezkoak diren zenbait berme izan behar dituela agintari publikoak.

Mota horretako prozedura elektronikoen abantaila ugari eskaintzen badituzte ere —prozedura-denbora eta -malgutasuna—, oraindik ere badira zenbait arazo horiek erabat erabiltzeko; esate baterako, herritarren sentsibilizazioa, behar adina fidagarriak izango diren plataforma informatikoak sortzea eta, batez ere, komunikazioen segurtasuna. Eta azkenik, artxibo informatikoak datuak eta informazioa biltzeko mekanismo birtualak dira, eta birus informatikoen bidez horiek kaltetzeko arriskua dago, nahiz eta behar baino gutxiagotan zigortu halako ekintzak.

3.8. Ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskaerak erantzuteko nahitaezkoak diren tramite guztiak arintzea

Ingurumenean eragina duten datuak lortzeko prozedura beste mota bateko prozeduratan esku hartzeko *prius* edo bitarteko gisa ageri da; esate baterako, planak egiteko aurreikusten diren entzunaldi-epeetan alegazioak aurkezteko prozedura eta ingurumen-baimenak lortzeko informazio publikoko tramiteak betetzeko prozedura. Hortaz, legeetan jasotzen diren beste eskubideekiko tresna izaera duen eskubide gisa ageri da. Horrek guztiak eskatzen du informazio jakin bat eskatzeko jarraitu beharreko ibilbidea, nolabait, bizkorra izatea.

30/1992 Legeak inplizituki ezartzen du, zenbait arautan, bizkortasunaren betebeharrak. Horrenbestez, egintza bakar batean erabakiko dira, izaera dela-eta batera bultza daitezkeen eta bata bestearen ondoren bete beharrekoak ez diren izapide guztiak (75.1. artikulua). Bestalde, prozesuaren azkartasuna eta ekonomiaren printzipioa erabat lotuta daude, eta agerian uzten da beste betebeharrak honetan ere: bateratu egingo dira prozedura hori eta oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuk (73. artikulua). Halakoak askotan gerta daitezke parte hartzea tramite bakar batean abian jarritako prozeduratan; izan ere, oso normala da dokumentazio berbera pertsona batek baino gehiagok eskatzea.

Betebeharrak horrek erabateko zentzua du arau batek aurreikusitako informazio publikoko epea laburra denean, prozedura horietan herritarrek denbora gutxiago izaten baitu-

Prozedura elektronikoen abantaila ugari eskaintzen badituzte ere —prozedura-denbora eta malgutasuna—, oraindik ere badira zenbait arazo horiek erabat erabiltzeko; esate baterako, herritarren sentsibilizazioa, behar adina fidagarriak izango diren plataforma informatikoak sortzea eta, batez ere, komunikazioen segurtasuna.

Agintari publikoek azkartasun printzipioa bermatu behar dute ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskariak izapidetu eta ebatzi behar dituztenean.

te alegazioak egiteko; esate baterako, lizentziak edo baimenak emateko edo planak onartzeko. *Interin* edo denbora-tarte horretan, herritarrek informazioa eskuratu edo aztertu beha dute, eta, horrezaz gain, egokitzen hartzen dituzten alegazioak egin behar dituzte; hortaz, agintari publikoak ezin du gehiegi atzeratu. Nolanahi ere, legeak hilabeteko epea ematen du, oro har, dokumentazioak entregatzeko eta bi hileko epea horiek lortzea teknikoki konplexua bada.

Aurrekoaren harira, oso aproposa da lehen deskribatu ditugun prozedura telematikoak aipatzea. Prozeduraren bizkortasuna esaten denean, ez da bakarrik eskaerak aurkezteko; izan ere, bizkortasunak bere baitan hartzen du behar bezala erantzutea eskaerari eta eskatutakoa emateko betebeharra ahalik eta azkarren betetzea. Hala ere, herritarrak ez du jakiterik noiz hartu edo jaso duen funtzionarioak hark egindako eskaera. Tramite guztietan bizkortasuna aplikatuko dela esaten denean, esan nahi du legean aurreikusitako epearen barruan aurkeztuko dela dokumentazioa, eta, horrezaz gain, prozedurak bere baitan hartzen dituen tramite guztiak atzeratu gabe jarriko direla abian; esate baterako, herritarrak egindako kontsultei erantzutea, eskaerak erregistroan eranstea eta herritarrari aholkuak ematea lortu nahi duen informazioa behar bezala zehazteko.

Agintari publikoak ematen duten ingurumen-informazioak kalitate nahikoa izan behar du, izan ere, publikoak erabili behar du.

3.9. Agintari publikoak ingurumenari buruz duen informazioa ahalik eta eguneratuen ematea

Betebehar hori edukiarentzat baino gehiago kalitatearentzat da; hau da, dokumentuak entregatzen diren unean indarrean dauden irizpideen eta dokumentuen arabera erabili ahal izango dituzte dagozkien eskubideak herritarrek. Agintari publikoak, hortaz, herritarrak egindako eskaera aztertu behar du eta zaharkituta ez dauden datuak eman behar ditu. Izan ere, datuak eguneratuta ez badaude, ezin dira behar bezala erabili beste eskubide batzuk; esate baterako, alegazioak aurkezteko eskubidea edo errekurtsioak jartzeko eskubidea. Aarhus-eko Hitzarmenaren arabera, sinatu zuten estatuek nahitaez mekanismo batzuk ezartzeko betebeharra dute, agintari publikoak behar bezala informatuta egon daitezen proposatutako eta abian jarrita dauden jardueraz, horiek ingurumenari nabarmen eragiteko arriskua badago (Aarhus-eko Hitzarmenaren 5.1. artikulua).

Horregatik guztiagatik, 2003/4 Zuzentarauak bereziki erreparatzen dio informazioaren kalitateari, herritarrentzat baliagarria izan behar baitu. Hona hemen informazioaren kalitateari buruzko zenbait elementu: substantziak badiren ala ez aztertzeko edo neurtzeko metodoak, laginak egiteko metodoak —agintari publikoak informazioa lortzeko erabiltzen dituenak—. Kalitateari buruzko betebeharra osatzeko, halaber, ematen den informazioak zehatza, xehea eta herritarrek eskuratzeko modukoa izatea eskatzen da, horrela, guztiek aparteko eragozpenik gabe uler dezaten informazioa.

3.10. Emango den informazioa alderatzeko modukoa izan dadila

Unean ematen den informazioa eta historian gertatutako gorabeherak ezin dira bereizi, unean ematen den informazioari bete-betean eragiten baitiote. Horrela, denboraren joanean izandako aldaketak konparatu ahal izango lituzke herritarrak; esate baterako, paisaia batean, uren kalitatean eta ekosistema jakin batean bizi den espezie-kopuruan gertatutako aldaketak. Datu horiek berebiziko garrantzia dute, proiektuek edo jarduera-baimenek lurralde-eremu bateko ingurumenean eragin dezaketenari buruzko oharren bat aurkezteko.

Bestalde, ingurumenaren zenbait egoera alderatuz gero, agintari publikoak emandako datuen fidagarritasun-maila handiagoa izango da.

Nolanahi ere, jarduera edo plan batek ingurumenari eragindakoaren proba bat gehiago izan daiteke alderaketa, jardueron arteko aldeak aztertu baitaitezke, eta, batez ere, egoera aldatzea eragin duten kausak zehazteko baliagarria izan daiteke. Kausak zehaztuz gero, halaber, neurri zuzentzaileak har daitezke gerora begira, bai eta ordura arte zegoen planifikazioa baino bideragarriagoak izan daitezkeen —teknikoki eta ekonomikoki— beste planifikazio batzuk proposatzeko ere. Datuak alderatzeko aukera, hortaz, herritarrek esku-

ra duten beste mekanismo bat da, administrazioen jarduerak ingurumenaren izango duten eragina ebaluatzeko. Hori guztia oso baliagarria da iradokizunak eta oharrak egiteko.

3.11. Informazioa eskuratzeko eskubidearen baliatzea betetzeko beharrezko neurriak

27/2006 Legeak esaten du agintari publikoek behar beste neurri hartu behar dituztela ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidearen baliatzea betetzeko. Horien artean, behinik behin, hiru neurri hautetako bat egotea xedatzen du: ingurumen-informazioaren arduradun unitateak, eskatutako informazioa kontsultatzeko bitartekoak, eta ingurumen-informazioaren erregistroak edo zerrendak.

3.11.1. Ingurumenari buruzko informazioaz arduratuko diren unitateak

Administrazioari dagokionez, neurri hori deskontzentrazioaren eta eraginkortasunaren printzipioaren adierazle bat da. Aurreko ataletan dagoeneko aipatu dugu tokian tokiko erakundeek, aurrekontu txikikoek, arazoak izango dituztela unitate horiek eratzeko eta nahikoa bitarteko material eta nahikoa langile izateko, ingurumenaren alorreko datuak une oro eguneratu ahal izateko. Ingurumen-informazioaren ardura duten unitate horien funtzioak ez ditu definitzen 27/2006 Legeak, baina ondoriozta daiteke haien eskumenak herritarrei laguntzera bideratuta daudela, (ingurumenari buruzko informazioa lor dezaten), eta horrezaz gain, herritarrek aurkezten dituzten eskaerak tramitatzen.

Neurri hori hartuta eskaeren tramitazioan eraginkortasun handiagoa lortuko litzateke, bai eta ingurumenaren alorrean herritarrei laguntzeko jardunbide hobeak diseinatzea ere. Azken batean, administrazioaren jardura alor horretan modu eraginkorragoan kudeatzeko saiakera bat da. Unitate horiek beste aukera baten gisan eratzten ditu 27/2006 Legeak, hurrengo ataletan adieraziko diren aukerekin batera, betiere gainerako neurriak beharrezkoak badira informazioa eskuragarri izateko eskubidea eraginkortasunez erabiltzeko.

«Ingurumen-informazioaren ardura duten unitateak» deitutakoak eratzea agintari publikoari dagokio, autoantolaketarako duten ahalmenari jarraiki; hortaz, ezin da erabat zehaztu unitate horiek zein izaera juridiko hartuko duten. Sail baten zati izan daitezke, beste organo baten edo administrazio-unitate baten gisa, zuzendari orokor baten mendekoak, esate baterako. Dena dela, bada beste aukera bat ere: informazioa eskuragarri izatearekin lotura duten eginkizunak beteko dituen organo autonomiaduna edo beste ente instituzional bat sor dezake agintari publikoak. Baina funtzioen deskontzentrazio eta banaketa horrek berekin dakar behar bezalako koordinazioa izatea gainerako sailekin edo, tokian tokiko erakundeen kasuan, gainerako gobernu-batzordeekin. Nolanahi ere, eskatutako informazioa emango den edo eskaera ukatuko den erabakitzea administrazio-ahalmenak dituen erakunderen bati dagokio, Zuzenbide Administrazioaren alorrean inolako hutsik egin gabe.

Aurretik esandakoak ez du esan nahi informazioaren kudeaketa (artxibatu eta sailkatu), web-orrien diseinua edo kontsultei erantzuna ematea beste erakunde pribaturen batek —agintari publikoak aurretik kontratatutakoak— egin ezin dezakeenik. Dena dela, datu-eskaera ukatzeko edo agintari publikoaren esku dauden datu horiek emateko administrazio-egintza ez da eragile pribatuen esku utziko. Agintari publikoek autoantolaketarako dituzten arauen bidez aurretik bereizi behar dituzte kudeaketaz arduratuko diren ente edo organoak, eta erabakiak hartzeaz edo informazioa emateko betebeharrak arduratuko diren organoak.

3.11.2. Informazioa eskatzeko kontsulta-bitartekoak sortzea eta horiek egoki edukitzea

Aarhus-eko Hitzarmenaren arabera, hona hemen estatuek herritarrei eman beharrekoa: agintari publiko eskudunek ingurumenari buruz duten informazio-motari eta horiek

Ingurumen-informazioaren ardura duten unitateen helburuak honakoak dira: eskariak izapidetzeko eraginkortasun handiagoa eta herritarrentzako arretaren hobekuntza praktikoak diseinatzea.

Kontsulta-bitartekoak laguntza teknikoak emateko edo datu jakin batzuk nork dituen jakinarazteko balio dezakete. Herritarrentzako arreta aurrez aurrekoa edo birtuala izan daiteke.

duzen garrantziari buruzko nahikoa datu, eta, horrezaz gain, informazio hori guztia non lor daitekeen, zer baldintza dauden eskuratzeko edo zer prozedura jarraitu behar den hura lortzeko ere adierazi behar dute (5.2. artikulua). Testu horretan adierazten den neurri praktikotako bat harremanetarako gune batzuk sortzea eta herritarren esku jarriko diren fitxak, erregistroak eta zerrendak egitea da.

Lehen, komunikazio elektronikoen bidez informazioa hedatzeko bitartekoak aipatu dira; hau da, Internet. Dena dela, mekanismo teknologiko hori erabat hedatzeko dauden mugak direla eta, agintari publikoak informazioa antolatzeke, prestatzeko, gordetzeko eta sailkatzeko bestelako modu batzuk ere izan behar ditu, eta horiek, halaber, herritarren esku jarri behar ditu. Ez dirudi agintari publikoak jakinarazten duen informazioa bakar-bakarrik hartzen duela kontuan legegileak. Aldez aurretik eskatuta eskura dezakeen informazioa bada ere, legegileak kontuan hartu du herritarren esku ez dauden bitarteko bidez artxibatuta edo erregistratuta dagoen informazioa. Eskatutako informazioa aipatzen duenean 27/2006 Legeak, zuzenean eskura daitekeen informazioa eta aldez aurretik eskatuta lortzen den informazioa izan daiteke.

Berez, agintari publikoak eskura duen informazioa antolatzerakoan, herritarrek zuzenean eskuratzeko moduan jar dezake agintari publikoak, tresna elektronikoen bidez, paper formatuan edo disko trinko baten formatuan. Legegileak erabilitako formulatik ateratako ondorioa da; izan ere, aukera bat baino gehiago ematen dio agintari publikoari ingurumenari buruzko informazio-sistema antolatzeke. Kontsulta-bitarteko horiek aholkularitza teknikorako eta datu jakin batzuk zein erakundetan dauden jakiteko balio dezakete. Laguntza aurrez aurrekoa edo birtuala izan daiteke. Azken horri dagokionez, herritarrek Internet bidez egin dezake kontsulta edo zuzenean sar daiteke datu-base elektronikoetan jasota dauden artxiboetan.

Kontsultarako bitarteko horiek sortzean eta horiek egoki edukitzean datza betebeharra; hau da, kontsultak egiteko moduren bat sortu ondoren, hori ezin da desagertu, baizik eta eutsi egin behar zaio horri, eta datuak eguneratu beharra ere esan nahi du horrek. Edonola ere, bitarteko horiek herritarren esku jarri behar dira, eta horrek berekin dakar herritarrek horiek erabiltzen eta aplikatzen jakin behar dutela. Horrezaz gain, eskaerak ahalik eta denbora-tarte laburrenean tramitatzeko eta informazioa ahalik eta azkarren emateko, bitarteko horiek ahalik eta modu eraginkorrean prestatu behar ditu agintari publikoak.

3.11.3. Agintari publikoak eskura duen ingurumenari buruzko informazioaren erregistroak edo zerrendak sortzea

Zerrenda horiek egitea ez dirudi eginkizun erraza denik; izan ere, horretarako, Ingurumenari buruzko Zuzenbideak bere baitan hartzen dituen alorren inguruan jakitea eskatzen du, azaletik bada ere. Bestalde, kontuan hartu behar da, dena delako prozedurei dagozkien espedienteak —ingurumenarekin zerikusia ere badutenak— zenbait erregistrotan artxibatzen dituela agintari publikoak. Gainera, agintari publikoek bestelako datu eta informazio-baliabideak izaten dituzte unitate desberdinetan eta, sarritan, ez dute trukutzen informazio hori. Dokumentu horiek guztiak modu desberdinetan tratatzen dira eta baldintza anitzen bidez eskura daiteke.

Agintari publikoen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko lege-eskubidea ezin da praktikan bermatu baldin eta herritarrek ez badakite zer informazio duten agintari publikoek, ezta non kontsulta daitekeen. Erakunde jakin batek duen ingurumen-informazioaren erregistroak edo zerrendak sortzeak informazio sakabanatu hori bilatzen lagundu ahal du, baita informazio-eskariei eman beharreko erantzuna azkar ematen ere. Ingurumeneko datu iturrien katalogoak herritarrek erabiltzeko datu-baseak dira eta agintari publikoek duten informazio garrantzitsuena biltzen dute: zer informazio dagoen eta non eta nola kontsulta daitekeen. Euskal Autonomia Erkidegoko katalogo bateratua egiteak agintari publiko guztien lankidetzeta eta etengabe eguneratzea dakar eta, horretarako, baliabide ekonomiko eta giza-baliabide ugari behar dira. Alabaina, baliabide honek ingurumen-informazioa benetan eskuratzen izugarri laguntzen du, bai herritarrei orokorrean, bai agintari publikoei, izan ere azken horiek ez dute jakiten zer informazio duten beste erakundeek. Katalogo horiek sortzeak bestelako onurak ere ekarriko lituzke:ingurumen-datuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Datu Iturrien Katalogoa:
www.euskadi.net/cfda

modu eraginkorrean sortzea eta kudeatzea, era horretara informazio errepikapenak saihestuko bailirateke eta erakundeen arteko lankidetzak sustatuko bailitzateke.

3.11.4. Informazio-guneak sortzea, eskatutako informazioa non aurki daitekeen argi adierazten dela

208/1996 Errege Dekretuak administrazio-informazioa eta herritarrari arreta emateko zerbitzuak arautzen ditu. Araudi horretan bi informazio-mota bereizten dira: bata orokorra da, administrazioko organismoak eta unitateak identifikatzeari, horien helburuei, eskumenei, egiturei, funtzionamenduari eta kokapenari buruzkoa, bai eta xedapenei eta proiektuei buruzkoa ere. Bestea berezia da, eta, besteak beste, prozedura jakin baten egoerari buruzkoa eta eskariak bideratzen edo erantzuten duen funtzionarioaren identitateari buruzkoa da. Kasu horietan guztietan, herritarrari arreta emateko funtzio batzuk bete behar ditu Administrazioak, eta, horien artean, laguntzeko eta informatzeko funtzioak.

Azken horren helburua hau da: prozedurei, tramiteei, baldintzei eta dokumentazioei buruz herritarrek dituzten zalantzak argitzea eta praktikan laguntzea; izan ere, horiek nahitaezkoak dira proiektuak, ekintzak edo eskaerak egiteko, bai eta zenbait zerbitzu publiko erabiltzeko ere. Hortaz, informazioko eta herritarrari arreta emateko bulegoek buruz lehen aipatutako Dekretuak emandako definiziora egoki daitezke informazio-guneak.

Informatzeko eta laguntzeko funtzio horiez gain, herritarrari arreta emateko guneek badute ahalmena espediente baten hasierako dokumentazioa jasotzeko —araudiak hala ezartzen duenean—, bai eta tramiteak abian jartzeko eta arazoei aurre egiteko ere —presa dutelako eta konponbide erraza dutelako, berehala erantzun beharrekoak—. Horrez gain, herritarren eta funtzionarioen ekimenak edo haiek egindako iradokizunak abian jar ditzakete, zerbitzuen kalitatea hobetze aldera edo tramiteak errazte aldera. Eta azkenik, 208/1996 Errege Dekretuan ezarritako prozedurei jarraiki tramitatzen diren kexak eta erreklamazioak jasotzeaz arduratzen dira.

Arreta emateko guneetan, herritarrek eskura dezaketen informazioa zein tokitan dagoen argi eta garbi informatu behar dute, eta horrek lehen aipatu dugun arazoa dakar berekin; hau da, ingurumenari buruzko informazioa duten organoen eta agintari publikoen zerrenda sortzeari buruzko arazoa. Zerrenda hori zehatza eta xehea ez bada, beste arazo bat sortzen da: herritarrari arreta emateko zerbitzuak ezin izango die herritarren eskaerei eta kontsultei erantzun.

Arreta-guneek argi jakinarazi behar dute non eskuratu ahal duten herritarrek informazioa.

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko ez da beharrezkoa inolako baldintza betetzea eta ez da nahitaezkoa argumentatzea edo justifikatzea informazio hori zergatik eskatu den.

4. INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

4.1. Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, interesduna izan barik

Informazioa eskuratzeko eskubideak esanahi berezia du, pertsona orok baitu horretarako eskubidea. Normalean, eskubidea erabili ahal izateko, horretarako nolabaiteko interesa izatea edo zenbait baldintza betetzea eskatzen da. Esate baterako, erroldatuta egotea eskatzen da, edo informazio hori eskuratzeko interesa duela behar bezala justifikatzea eskatzen da. Agintari publikoari informazioa eskatzen zaioenean, normalean, behar bezala justifikatu behar da eskaera, eta zenbait baldintza bete behar izaten dira.

Ingurumenaren alorrean aurrerapen juridiko-demokratiko handia eman da; izan ere, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko, ez da beharrezkoa inolako baldintza betetzea eta ez da nahitaezkoa argumentatzea edo justifikatzea informazio hori zergatik eskatu den. Ez da ezinbestekoa, hortaz, inolako interes berezirik izatea, ez eta ahalmen bereziko baldintzarik bete behar izatea ere; dena dela, aurrerago, pertsonen egoera edo estatus batzuei buruz zenbait aipamen egingo ditugu (5. atala ikusi).

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea pertsona orok izatea, eta hori erabiltzeko nahitaez interesduna izan behar ez izatea garrantzi handiko lorpena da; ingurumenari buruzko politika publikoetan, demokraziak duen garrantziaren ikuspegitik da lorpen handia, hain zuzen. Hala, ingurumenaren, hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren alorreko legediek abian jarritakoaren ildoari jarraitzen zaio; izan ere, horietan akzio publikorako eskubidea onartzen da.

4.2. Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiari buruz informatua izateko eskubidea

Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiari buruz informatua izateko eskubideak berebiziko garrantzia du, eta hainbat ikuspuntutik, gainera. Herritarrek agintari publikoengana jo dezakete, informazioa eskuratzeko eskubidea zenbaterainokoa den zehatz diezaioten. Informazio hori funtsezkoa da pertsona guztientzat, horrek esan nahi baitu informazioa emateko betebeharra duten agintari publikoek eskubide horrek bere baitan hartzen duena zehaztu dutela. Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiari buruzko informazioa eman behar dute agintari publikoek, edozein dela eskatzen den informazioa. Informazioa eskuratzeko eskubidea izan daiteke, beste barik, eskubide horren edukiari buruz informazioa eskatzea.

Eskubidearen edukiari buruz informatzeko betebeharra dutenez agintari publikoek, eskubidea dugula berresten da administrazio-jarduera baten bidez, eta horrek, halaber, eskubidea erabiltzen laguntzen du. Eskubidea pertsona guztiek dute eta agintari publiko guztien aurrean erabil daiteke; hortaz, informazioa eskuratzeko eskubidearen edukia ez badute modu berean ulertzen agintari publiko guztiek, horiek aldera daitezke.

Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiari buruz informatzeko betebeharra dutenez agintari publikoek, langileak trebatu egin beharko dituzte, gai horri behar bezala erantzun diezaioten, eskubide hori betetze aldera hezten direla. Informazioa eskuratzeko eskubidearen edukiari buruz informatzeak berekin dakar eskubide horrek bere baitan hartzen duenari buruzko erantzuna arrazoitua, esplizitua eta zehatza izatea.

4.3. Informazio hori lortze aldera, laguntza jasotzeko eskubidea

Informazioa eskuratzeko eskubidea ez da eskatzaileak duen gaitasunaren baitan bakarrik utzi behar, hark lortu nahi duen informazioa aurkitu ahal izateko. Agintari publikoak ez dira jarrera pasiboa dutela jarriko herritarraren aurrean, eta informazioa eskatzen dutenei

Agintari publikoek informazioa ematen dutenean eta informazioa lortzen laguntzen dutenean interes publiko bat betetze aldera zuzendutako jarduera egiten ari dira.

ez diote erantzun hertsia eta mugatua emango. Informazioa eskatzen duten pertsonen aurrean, agintari publikoek jarrera aktiboa izatea eskatzen du informazioa eskuratzeko eskubideak.

Informazioa lortze aldera laguntza jasotzeko dugun eskubideak berekin dakar, nahitaez, agintari publikoek jarrera ona izatea informazio hori lortzen laguntzeko. Agintari publikoak ez ditu aurkarizat hartu behar informazio jakin bat eskatzen duten pertsonak, eta ez du pentsatu behar interes publikoak kontuan hartu gabe edo haien aurka ari direla. Guztiz kontrakoa gertatzen baita; hau da, agintari publikoek informazioa ematen dutenean eta informazioa lortzen laguntzen dutenean, funtzio publiko bat, interes publiko bat betetze aldera zuzendutako jarduerara egiten ari dira, pertsonak duten eskubideari erantzuten ari baitira, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubideari erantzuten, hain zuzen.

Agintaritzaren publikoetako funtzionarioak eta langileak behar bezala trebatuta egongo dira, eta laguntzeko betebeharra egoki bete dezaten jarraibideak izan behar dituzte. Batez ere, funtzionarioen eta langileen jarduteko moduari dagokionez, informazioaren bat lortzea ezinezkoa izan bada, arrazoa ez da inoiz haien axolagabekeria izango, ez eta haiek behar adinako ahalegina egin ez izana ere.

4.4. Informazioa epe jakin batean jasotzeko eskubidea

Eskubide horren araubideak berariaz zehazten du zein modutan erantzun behar diren informazio-eskaerak. Hona hemen legegileak oinarritzat hartu duen printzipioa: eskaera «lehenbailehen» erantzuteko betebeharra du agintari publikoak. Horrek esan nahi du agintari publikoak, ahal bada, berehala erantzun behar duela. Informazio-eskaera baten erantzuna ezin da atzeratu, agintari publikoak unean bertan erantzuteko aukera baldin badu.

Eskaerak berak baldintza dezake erantzuna. Eskaeran erantzuteko egutegia adierazten bada, egutegi hori, jakina, kontuan hartu behar da, betiere aipatutako epe horien barruan erantzutea bideragarria bada.

«Lehenbailehen» erantzuteko betebeharra duenez, arauan adierazten diren epeak subsidiarioak dira, eta, hortaz, agintari publikoak ez du zertan denbora pasatzen utzi. Erantzuteko betebeharra denboran luza daiteke, berez ez badago beste aukerarik. Gainerako kasuen abiapuntua agintari publikoen ardura da.

Eskatutako informazioa hilabeteko epean, gehienez, eman behar da, 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera kontatzen dela epe hori. Epearen lehendabiziko eguna, beraz, eskumena duen agintari publikoaren erregistroan eskaera jasotzen den eguna da [27/2006 Legearen 10. c) 1 artikulua]. Datu hori oso garrantzitsua da, informazio-eskaera postaz bidaltzen den kasuetan, edo alor horretan eskumena ez duen agintari publikoan edo organoren batean aurkezten den kasuetan.

Datatik datara zenbatzen da epea. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egunean amaituko da epea. Muga-eguneko hilean hasierako egunaren baliokiderik ez bada, hilaren azken egunean bukatuko da epea (30/1992 Legearen 48.2. artikulua).

Epea bi hilabetera luzatzeko aukera aurreikusten du arauak, nahiz eta horretarako arrazoi jakinak ezartzen dituen; hortaz, agintari publikoak ezin ditu beste arrazoi edo justifikazio batzuk eman epea luzatzeko. Epea luza daiteke eskatutako informazioa lehen aipatutako hilabeteko epean ematerik ez bada, «informazioaren bolumena eta konplexutasuna» handia delako. Ez dago beste inolako argudiorik informazioa emateko betebeharra atzeratzea justifika dezakeenik.

Ezarrita dagoen moduan bakar-bakarrik luza daiteke erantzuna emateko epea; horrek esan nahi du ezin direla araudi orokorrean ezarrita dauden epeak luzatzeko aukerak erabili, ez eta araudi horrek epeak luzatzeko ezartzen dituen arrazoiak ere (30/1992 Legearen 49. artikulua). Informazioa eskuratzeko eskubidearen araubideak berariaz zehazten duenaren arabera, araubide orokorreko aurreikuspenak ez dira aplikatuko.

Aurkezten diren eskaerak erantzuteko betebeharra du agintari publikoak, eta araudi orokorrak eta 27/2006 Legearen berariazko araubideak ezarritako betebeharra da. Aurkez-

Informazio-eskaera baten erantzuna ezin da atzeratu, agintari publikoak unean bertan erantzuteko aukera baldin badu.

Agintari publikoa behartuta dago aurkeztutako eskari bati erantzuna ematera. Erantzuna ez ematea agintari publikoaren ekintza ilegala da.

tutako eskaera erantzuten ez badu agintari publikoak, legearen aurkako ekintzat hartuko da. Legearen aurkako ekintza horren ondorioak mota eta garrantzi askotakoak izan daitezke. Batetik, agintari publikoari berari egotzi dakizkiokeen ondorioak izan ditzake; eta bestetik, informatzeko betebeharra duen langileari egotzi dakizkiokeenak eta, azken kasu horretan, diziplinazkoak lirateke.

Informazioa emateari uko egin diezaioke agintari publikoak. Halakoetan, informazioa ukatu egin dela jakinarazi behar zaio informazio-eskatzaileari, idatziz edo posta elektronikoz. Araudiak ez du zehazten noiz eman daitekeen erantzuna modu batean edo bestean. Berez, kontuan hartu beharko litzateke eskaera nola egin den; hau da, idatziz egin bada, modu berean erantzun beharko litzateke, baldin eta eskaera egin duen pertsonak ez badu esaten hurrengo jakinarazpenak elektronikaren bidez egin daitezkeela. Informazioa ematea ukatu duen jakinarazpenarekin batera, errekurtsioak jartzeko prozedurari buruzko informazioa ere zehaztu behar da [27/2006 Legearen 10. 2 c), 2 *in fine* artikulua eta 20. artikulua]. Agerian geratu da agintari publikoak erantzuteko betebeharra duela beti, informazioa emateko zein eskatutako informazioa ukatu dela esateko.

4.5. Informazioa aukeratutako moduan edo formatuan jasotzeko eskubidea

Informazioa aukeratutako formatuan jasotzeko eskubideak garrantzi handia du, informazio-motaren arabera. Ingurumenari buruzko datuak mota askotakoak izan daitezke; besteak beste, planoak, araudiak, datu-serieak eta edozein edukiri buruzko monografiak izan daitezke. Informazioa bitarteko erosoan erabilia jasotzea aukera dezakete pertsonak, ikuspuntu fisikotik —demagun, fotokopia asko direla edo planoen edo beste dokumentu-mota batzuen erreproduzioak direla— zein ikuspuntu ekonomikotik. Dokumentuen fotokopiak edo erreproduzioak egitea garestia izan daiteke, eta, hortaz, informazioa eskuratzea merkeagoa den euskarrietan bidaltzeko eska dezakete pertsonak. Halako kasuak nabarmenagoak dira informatika erabilia eskatzen denean informazioa.

Araudiak ezarritakoari jarraiki, eskatzaileak aukeratutako formatuan bidali behar dute, nahitaez, informazioa agintari publikoek. Horrek esan nahi du eskaria egin duen pertsonak eskubidea duela aukeratutako formatuan jasotzeko informazioa (27/2006 Legearen 11.1. artikulua). Badira, hala ere, legeak berak ezarritako zenbait muga:

- a) Informazioa lehen ere eman bada informazio-eskatzaileak erraz eskura dezakeen bitarteko edo formaturen batez; kasu horretan, agintari publikoak erraz lor daitezkeen bitarteko edo formatu horretara bideratu behar du eskatzailea.

Salbuespen hori behar bezala interpretatu behar da, informazioa eskuratzeko eskubideari kalterik egin nahi ez badiogu. Eskatutako informazioa dagoeneko Aldizkari Ofizialean argitaratua izana ez da nahikoa arrazoi. Batik bat, eskatzailearen ezaugarriak hartu behar dira kontuan. Ez da gauza bera eskatzailea abokatua izatea edo informatikaren bidez Aldizkari Ofiziala eskuratzeko bitartekorik ez duen edo horiek erabiltzen ez dakien pertsona bat; edo, besterik gabe, Aldizkari Ofiziala paper-formatuan aurkitzea ez delako behar bezain erraza.

Salbuespen hori modu murriztailean interpretatu behar da, eskubidea bermatzeko. Horrez gain, bereziki hartu behar da kontuan informazio-eskaria egin duen pertsonaren egoera eta ezaugarriak.

Salbuespenaren xedea gehiegikeriarik ez gertatzea da, edo agintari publikoen eginkizuna nabarmen oztopatzen duten jarduerak ez sortzea. Araudiak, dena dela, argi eta garbi ezartzen du eskura dauden formatuetan eman behar dela informazioa. Horrek esan nahi du agintari publikoak informazioa eduki behar duela eta eman egin behar duela, eta, gainera, ezin dela mugatu lehendik emanda dagoen informazioa bideratzera.

- b) Agintari Publikoak bidezkotzat har dezake eskatutako formatuan ez bidaltzea informazioa eta beste modu edo formatu bat aukeratzea. Halakoak egiteko aukera badu agintari publikoak, baina nahitaezkoa da behar bezala justifikatzea. Horrenbestez, «behar bezala justifikatu» behar du zergatik iruditu zaion «bi-

dezkoa» informazio-eskatzaileak eskatutako moduan edo formatuan bidali beharrez, agintari publikoak erabakitako moduan bidaltzea.

Behar bezalako justifikazio hori eta bidezkotzat hartzearen arrazoia adierazterakoan, azalpena ez da abstraktua izango, eta ez dira agintari publikoaren interesak bakar-bakarrik kontuan hartuko. Lehen ere esan dugun bezala, nahitaezkoa da pertsona eskatzailearen egoera kontuan hartzea. Hortaz, adina eta beste ezauzgarri pertsonal batzuk aztertuko ditugu, bai eta beste alderdi batzuk ere; esate baterako, pertsona hori non bizi den eta agintari publikoaren egoitza dagoen lekutik hurbil edo urrun bizi den.

Informazioa ukatzea arrazoitu egin behar da eta eskatzaileari jakinarazi behar zaio.

4.6. Informazioa, zati bat edo osorik, ez emateko arrazoiak zein diren jakiteko eskubidea

Informazio-eskaera ukatu egiten bada, ukatzeko arrazoiak zein diren jakinarazi behar dira. Ukatu egin delako komunikazioa legeak ezarritako epeen barruan egin behar da. Lehen ere esan dugu, aurreko atalean, epea hilabete batekoa edo bi hilabetekoa izan daitekeela [27/2006 Legearen 10.2.c).2 artikulua]. Uko egin dela berriaz jakinarazteko betebeharra pertsona eskatzaileari dagokion eskubidea da. Horren berri ez emateak hainbat ondorio ekar ditzake.

4.7. Informazioa jasotzeagatik eskatu ahal diren tasak eta prezioak jakiteko eskubidea

Ingurumen-dokumentazioa eskuratzearren pertsona eskatzaileei exijitu dakizkiekeen tasek eta prezioek betekizun edo baldintza batzuk bete behar dituzte. Lehenengo eta behin jakinarazi beharra dago informazioa emateko zenbait jarduerak ezin dutela ordain ekonomikorik eskatu. Eskatutako informazioa emateari agintari publikoak uko egiten dionean edo agintari publikoak berak zabaldu beharreko informazioak eskatzen direnean ezin da inolako ordainik eskatu. Informazioa eman ahal duten agintari publikoen zerrenda eskuratzegatik ordain ekonomikoa izateak ez luke zentzurik izango.

Baliteke pertsonak diru kopuru bat ordaindu behar izatea eskatu duten informazioa eskuratzegatik. Bete behar duen baldintza da ordain ekonomiko hori arrazoizkoa izatea. Arrazoizko izateak esan nahi du kobratzeak informazioa ematean sortutako gastua ordaindu behar duela. Horrek balizko kostua mugatzen du eskatzaileari emandako materiala ekoiztearen benetako kostuetara. Hala ere, gogoratu behar da agintari publikoak informazio hori zabaltzeko beharra badu, hiritarrek informazioa eskuratu nahi dutenean diru kopuru jakin bat ordaindu beharrak ez lukeela inolako zentzurik.

Bada kontuan hartu beharreko beste betekizun bat tasa eta prezio publiko hauekin lotuta: ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzea ez galaraztea edo oztopatzea. Prezioak ezin du disuasio-eraginik izan informazioa eskatzen duenarengan. Tasak zerbitzu publikoa emateagatik ordaintzen direnez, horiek zehaztea zerga-sistema arautzen duten xedapenei jarraituz egin beharko da, legalitate printzipioa eduki beharko da kontuan bereziki.

**Ingurumen-
informazioa
eskatzen duena
edozein per-
sona fisiko edo
juridikoa izan
daiteke, baita
horiek biltzen
dituzten elkarte,
erakunde eta
taldeak ere.**

**Eskatzaile
izateak
interesdun
bihurtzen du
pertsona.**

**Pertsona guztiek
eska dezakete
informazioa, ez
da beharrezkoa
aparteko
interesa
erakustea
informazio hori
eskatzeko.**

5. INFORMAZIOA ESKATZEKO LEGITIMAZIOA

Legitimazioa ordenamendu juridikoak betidanik eskatu izan duen ezaugarria da, herritarrak administrazio publikoetara joan ahal izateko eta haiei jarrera jakin bat eskatu ahal izateko. Legitimazioak esan nahi du ordenamendu juridikoak ahalmena ematen diela pertsoneri agintari publikora jotzeko. Ordenamendu juridikoak zenbait baldintza ezartzen ditu agintari publikora jo ahal izateko. Baldintza horiek, zenbaitetan, funtsezko osagaitzat izaten dute estatuko nazionalitatea izatea. Beste batzuetan, berriz, titulu juridikoren bat izatea. Horrenbestez, pertsona batek agintari publikoari informazioa eska diezaioke, ordenamendu juridikoak horretarako eskubidea ematen badio. Eskubide horren jabe izan ondoren, legitimazioa izan behar da; hau da, eskubide horren titularra izan behar da, edo gaiarekiko nolabaiteko interesa izan behar da. Ikuskizunak ematen dituzten lokal baten ondoan bizi den herritarrak ez du eskubiderik lokal hori irekitzeko edo ixteko, lokalaren jabeari dagokion eskubidea baita. Badu, ordea, nolabaiteko interesa; hau da, lokala dagokion ordutegian ixteko interesa du, bestela, bizilagunari dagokion atsedenerako eskubidea kaltetuko litzateke. Horrelako arazoak sortzen dira eskubide baten norainokotasuna subjektiboki zehaztu behar denean. Hori dela eta, zehaztu egin behar da aztertzen ari garen arloko eskubideak nazionalitatearen baitan dauden eta interes jakinik izan behar den, ingurumena babes-teko interes orokorra edukitzeaz gain.

Arauek argi zehazten dute ingurumen-informazioa eskatzen duena edozein pertsona fisiko edo juridikoa izan daitekeela, baita horiek biltzen dituzten elkarte, erakunde eta taldeak ere. Eskatzaile izateak interesdun bihurtzen du pertsona.

5.1. Atzerritarrak

Atzerritarrei ez zaie ukatzen informazioa eskuragarri izateko eskubidea; guztiak dira eskubide horren erabateko titularrak. Legearen arabera ezarritako bizitokia izatea ere ez zaie eskatzen. Atzerritarrak eskubide horren titularrak dira, legeak hala ezartzen duelako. Pertsona orok du eskubidea; hortaz, ez da inolako mugarik jartzen, ez nazionalitatea ezta legezko bizitokia ere. Atzerritarrek eska ezin dezaketena da beren ama-hizkuntzan ematea informazioa, eskaria egiten duten lurraldeko hizkuntza ofizialetako batean eskatu behar dute. Alde horretatik, arauak balio bera ematen dio atzerritarra izateari eta nazionalitatea izateari.

5.2. Europarrak

Europako herritarrak zein Europako Esparru Ekonomikoko herritarrak dira eskubide horien titular osoak. Bereizita aipatu ditugu, arauak askotan eskubide berberak ematen dizkietelako Europako estatuetakoa pertsoneri eta Europako Esparru Ekonomikoko pertsoneri, baina ez jatorriz beste estatu batzuetakoak direnei. Indarrean dagoen araudiak, Erkidegoaren Zuzentarauak berak ezarritakoari jarraiki, informazioa eskuragarri izateko eskubidea pertsona guztiei ematen die, lehen esan bezala.

5.3. Auzotarrak

Ordenamenduaren zenbait alorretan, administrazio-egoitza edukitzea eskatzen zaie pertsoneri eskubide batzuen titular izateko. Toki horretako auzotarra ez bada, ez du informazioa eskatzeko eskubiderik. Gure kasuan, baldintza hori betetzea ere ez da beharrezkoa. Kontuan izan behar da administrazio-egoitza edukitzea atzerritarrei ere eska dakiekeela, ez baitu zerikusirik nazionalitatearekin.

5.4. Interesdunak

Legeak ez du aparteko interesik edukitzea eskatzen, informazioa eskatu ahal izateko. Pertsona guztiek eska dezakete informazioa, ez da beharrezkoa aparteko interesa erakustea

informazio hori eskatzeko, eskaera egiteak berak agerian uzten baitu eskubideren bat edo berezko onuraren bat duela.

5.5. Gobernu Kanpoko Erakundeak

Erakunde horiek, zenbait arauen bidez, legitimazio berezia dute esku hartzeko. Zenbaitetan, ingurumena babesteko interes zehatzik ez dagoenez, errekurtsioa jartzeko legitimazioa duen erakunde interesdunik ez da izaten, eta horregatik dute berezitasun hori. Interesa dutelako ezaugarria ordenamendu juridikoak berak aitortzen die Gobernu Kanpoko Erakundeek, ingurumenaren defentsan jarduteko ahalmena izan dezaten. Zenbait adibide ematearren bakarrik aipatu dugu Gobernu Kanpoko Erakundeen kasua, pertsona juridiko orok baitu legitimazioa.

5.6. Pertsona juridikoak, fisikoak, zuzenbide publikoko pertsonak

Legitimazioa aitortzen zaie pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei, eta zalantzan dago pertsona juridiko publikoei aitortzen zaien. Pertsona juridikoei dagokienez, arauak ez du bereizketarik ezartzen zuzenbide publikokoan eta zuzenbide pribatukoan artean; hortaz, uler daiteke —hasieran, behintzat— informazioa eskuragarri izateko eskubidea guztiek dutela. Ordenamenduak ez baditu kanpoan uzten zuzenbide publikoko pertsona juridikoak, ez dago arrazoirik haiek kanpo uzteko. Ordenamendu juridikoak ez badu bereizketarik egiten, interpreteak ez du zertan bereizketarik egin. Argudio horrek harridura eragin dezake zuzenbide publikoko zenbait pertsona ekartzen baditugu gogora, baina ez da hala gertatzen beste batzuk ekarri gero. Telebistak, esate baterako, zuzenbide pribatupeko erakunde publiko gisa era daitezke; hau da, zuzenbide publikoko pertsonak dira, legeak ezarritakoari jarraiki sortuak, nahiz eta jardueraren alde zabaletan zuzenbide pribatupekoak izan gerora. Ez luke zentzu handirik horiei informazioa eskuragarri izateko eskubidea ez aitortzeak.

Arauk ezarritakoaren arabera, agintari publikoak informazioa eman behar du eskatutakoa haren esku badago, ez alor horretan eskumena duelako.

6. INFORMAZIOA ESKATZEKO PROZEDURA

6.1. Nori zuzendu informazio-eskaera

Informazio-eskaerak agintari eskudunari zuzendu behar zaizkio, eta tokian tokiko agintari publikoak horretarako propio ezarritako prozedurari jarraiki egin behar dira. Propio ezarritako prozedura horrek ez du eragozten Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak, 30/1993 Legeak jasoak, aplikatzea. Agintari publiko eskuduna aipatzen duenean Legeak, ulertu behar da horrekin ez duela esan nahi ingurumenaren alorrean eskumena duen agintaria denik. Agintari publiko eskudunaren esanahia ez dago ingurumenaren alorrean duen eskumenaren baitan, baizik eta eskatutako informazioa haren esku dagoen edo ez adierazi nahi da. Horrenbestez, bada, edozein agintari publikori zuzendu dakiok informazio-eskaera, kontuan hartzen dela eskatutako informazioa ingurumenari buruzkoa dela eta agintari horren esku dagoela informazio hori. Informazioa haren esku egoteak esan nahi du zuzenean zein zeharka izan dezakeela. Zuzenak esan nahi du agintari horren berezko organoek dutela ingurumenari buruzko informazio jakin hori. Baina eskatutako informazioa agintari publiko horren izenean beste subjektoren batek badu ere, agintari publikoaren betebeharra da ingurumenari buruzko informazioa ematea. Halako kasuetan, hauek izango lirateke: bai zuzenbide pribatupeko erakunde publikoak —erakunde autonomoak, esaterako—, bai legeak ezarritakoari jarraiki eraturako gainerako erakunde guztiak. Horrezaz gain, enpresa publikoen, emakidadunen, hainbat zerbitzu kudeatzen dituztenen eta informazioa eskatu zaion agintari publiko horren zerbitzura aritzen diren enpresa edo erakundeen esku dagoen informazioa ere eman behar du informazioa eskatu zaion agintari publiko horrek. Horri dagokionez, bada zalantza bat: ingurumenari buruzko informazioa agintari publikoari bakarrik eska dakiok, edo agintari publiko horren izenean informazio publikoa duten beste subjektu horiei ere bai? Batetik, informazioa eskuragarri izateko eskubidearen aldeko interpretazioa eginez gero, pentsa daiteke ingurumenari buruzko informazioa duten horiek informazioa ematera behartuta daudela. Eta bestetik, legeak hitzez hitz dioena kontuan hartuta eta informazioa lortzeko jarduera publikoaren nahitaezko arrazionalizazioa kontuan hartuta, beste proposamen hau defendatu beharko genuke: egokiagoa litzateke agintari publiko eskudunari eskatzea informazioa. Agintari publikoaren zerrendak lan hau errazten du.

Informazioa eskatu zaion agintari publikoak informazio hori ez badu, informazio hori duen agintari publikoari bidali behar da eskaera, eta hori jakinarazi egin behar zaio eskatzaileari [27/2006 Legearen 10.2.b) artikulua]. Halakoetan, Administrazio Prozedurako Lege Orokorrak ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio, nahiz eta zenbait arazo eragiten dituen bidali behar izate horrek, prozedurari dagokionez. Lehenik eta behin, agintari publikoak beste agintari publiko eskudun horri bidaltzen dionean eskaria, gerta daiteke eskaria egin duen pertsonak ez jakitea azken horrek noiz jaso duen zehatz-mehatz eskaria, eta, ondorioz, ez du jakingo noiztik kontatzen hasi epea, informazioa eskuragarri izateko eskubidea erabiltzeko. Bestalde, agintari publikoak eskatutako informazio hori ez badu ere, ez da aitzakia dagokion betebeharra ez betetzeko, informazioa eskuragarri izateko eskubideari erantzuteko, alegia. Arauk ezarritakoaren arabera, agintari publikoak informazioa eman behar du eskatutakoa haren esku badago, ez alor horretan eskumena duelako. Agintari publikoak, edozein dela agintari hori, informazioa eduki dezake, alor horretan eskumena izan edo ez izan; eta bestalde, pertsona orok du legitimazioa haren esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa herritarren eskura jar dezaten eskatzeko.

6.2. Agintari publikoek gain, ba al da beste pertsonarik informazioa emateko betebeharra duena eta, beraz, informazio-eskaera hari egin?

Agintari publikoaren kontzeptuari berari dagokionez, 27/2006 Legeak kategoria horri buruz egiten duen definizioa jo behar da. Hau da, agintari publikoaren izaera pertsona fisiko edo juridiko orok izan dezake, funtzio publikoa betetzen ari denean, indarrean dagoen araudiaren arabera. Hona hemen, hortaz, arazoa: ingurumenari buruz eskatutako informazio hori pertsona fisiko edo juridiko horrek duen, hain zuzen ere, funtzio publikoren bat bete-

tzearen ondorioz. Halako kasuetan, funtzio publikoaren kontzeptua zentzu zabalean ulertu behar da; informazio publiko hori duela esan nahi du, eta informazio horrek zerikusia duela pertsona fisiko-juridiko horren eta hari dagokion agintari publikoaren artean juridikoki eratutako edozein motatako jarduerarekin.

6.3. Informazio-eskaera behar bezala egiten laguntzeko betebeharra

Gerta daiteke ingurumenari buruzko informazio-eskaera behar bezala ez egitea, eskaera egiten duen pertsonak ez baitu zertan gaitasun edo trebetasun teknikoak izan eskaera behar bezala egiteko. Hori dela eta, arauak ezarritakoari jarraiki, ingurumenari buruzko informazio-eskaera behar bezala egiten ez denean, zehazteko eskatuko dio agintari publikoak eskatzaileari; horrezaz gain, informazio-eskaera zehazteko behar adina laguntza emango dio eta, agintari publikoaren laguntza informazioa zehazteko ahalik eta lasterren bideratuko da, eta, halaber, beti, indarrean dagoen araudian ezarritako epea amaitu baino lehen [27/2006 Legearen 10.2.c) artikulua]. Agintari publiko eskudunak ez badu behar bezala betetzen dagokion jarduera, arauak ezarritakoaren arabera, ezin izango zaio herritarri leporatu ez duela behar bezala egin eskaria edo herritarra ez da hartuko eskaera behar bezala egin ez duen pertsonatzat.

6.4. Informazio-eskaera eskumena duen agintari publikoari bidaltzeko betebeharra du agintari publikoak, eta eskaria egin duenari hala egin duela jakinaraziko dio

Agintari publiko eskudunari bidaltzeari dagokionez, lehen ere aipatu ditugu horrek eragin ditzakeen arazoak (ikusi 6.1 atala). Agintari publikoek elkarri lagundu behar diote, administrazioen arteko lankidetzaren printzipioari jarraiki. Legeak berak definitu du printzipio hori, eta ez modu orokorrean, gainera. Izan ere, legearen arabera, agintari publikoek ahalik eta mekanismoarik eraginkorrenak ezarri behar dituzte, 27/2006 Legearen baitako eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko. Horrek guztiak esan nahi du agintari publikoek egiteko betebeharra dutela; hala ere, araua praktikan jarri arte egon beharko da, administrazioen arteko lankidetzarako mekanismo horiek —legeak ezartzen du horiek sortu behar direla— zein diren ikusteko.

Horrezaz gain, nahiz eta betebeharra hain zehatza ez izan, legeak adierazten du agintari publikoen jarduerak elkarren arteko informazioaren printzipiora eta laguntza- eta lankidetzaren printzipiora egokitu behar direla.

6.5. Hala dagokionean, eskatzailea informatu, informazioa emango dion agintari publiko eskudunari buruz

Badirudi nolabaiteko nahasketa dagoela eskaerak aurkezteko araubide orokorraren inguruan, Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legean ezarria. Testu horretan jasotakoaren arabera, herritarrek agintari publikoen organoetara zuzendutako eskaerak, idatziak eta komunikazioak aurkezteko tokiak hauek izan daitezke:

- a) Eskabidea zuzendu zaion administrazio-organoko erregistroa.
- b) Edozein administrazio-organotako erregistroa, dela estatuko administrazio orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administrazioakoa, dela, honi buruzko hiztarmena izenpetuz gero, tokiko administrazioako erakunderen batekoa.
- c) Posta-bulegoak, erregelamenduz ezarritako moduan.
- d) Espainiak atzerrian dituen diplomaziazko ordezkariak edo kontsuletxeetako bulegoak.
- e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako gainerako tokiak.

Ingurumenari buruzko informazio-eskaera behar bezala egiten ez denean, agintari publikoak, ahalik eta lasterren eta, beranduenez, hilabeteko epea amaitu baino lehen, zehazteko eskatuko dio eskatzaileari; horrezaz gain, informazio-eskaera zehazteko behar adina laguntza emango dio.

Erakunderen batek eskumena duen erakundea zein den jakinarazten badu bakarrik, eta, ondorioz, ez badu eskaera bidaltzen eskumena duen organora, justifikatu egin beharko du, arrazoi objektiboak emanda, zergatik ezin izan duen bidali eskaera zegoen erakundera.

Herri-administrazioek elkarri laguntzeko hitzarmenak izenpetuko dituzte, erregistroen arteko komunikazio eta koordinaziorako sistemak ezartzeko; sistema horiek, beti ere, erregistroek bateragarritasun informatikoa izan dezaten bermatzeaz batera, erregistro-idazpenak era telematikoa igortzeko modua bermatu behar dute. (38.4. artikulua). Arau berberaren arabera, agintari publikoak eskaera guztiak onartuko ditu, baldin eta lehen aipatutako erakunderen batean aurkeztu badira. 27/2006 Legearen arabera, badirudi ez dela nahikoa eskaera erakunde horietan aurkeztearekin, baizik eta nahitaezkoa dela agintari publikora eta informazioa duen erakundera zuzentzea eskaera. Izan ere, legearen arabera, aukera badago eskaera jaso duen agintari publikoak eskumena duen erakundera bidali beharrik ez izateko, hark erantzun dezan.

Legearen akatsetako bat da —aldeztatik egindako eskaeraren bidez eskuratzeari dagokionez—, hain zuzen ere, ez zaiela administrazioei ezartzen lankidetzan aritzeko betebeharririk, herritarrek informazioa eskuragarri izateko duten eskubidea gauzatzen laguntzeko. Bestalde, ez da inolako arrazoirik aurreikusten eskaera jaso duen agintari publikoak edo erakundeak ezin izateko bidali eskaria informazioa duen beste erakunderen bati. 30/1992 Legeak ezarritakoaren arabera, administrazioek eskaerak onartzeko betebeharra dute, eta, horrezaz gain, erantzuna emateko eskumena duten erakundeetara bidaltzeko ere bai. 27/2006 Legeak, berriz, agintari publikoek horretarako betebeharririk ez dutela ezartzen du, eta ez ditu berariazko arrazoiak adierazten ezin egite hori justifikatzeko. Ez da erraza ulertzea bi horien arteko aldea. Horrek guztiak badu zerikusirik informazioa duten erakunde eta agintari publikoen zerrendak egiteko sortutako arazoekin.

Azken batean, agintari publikoaren betebeharra da jakinaraztea zein agintari publiko edo organok duen informazioa; dena dela, betebeharrak horrek bigarren mailakoa izan behar du, eskaera hori erakunde eskudunari bidaltzeko betebeharrak orokorrarekiko, 30/1992 Legean ezarritakoari jarraiki. Horrenbestez, erakunderen batek eskumena duen erakunde zein den jakinarazten badu bakarrik, eta, ondorioz, ez badu eskaera bidaltzen eskumena duen organo, justifikatu egin behar du, arrazoi objektiboak emanda, zergatik ezin izan duen bidali eskaera zegokion erakundera. Arrazoietako bat izan daiteke, besteak beste, ingurumenari buruzko informazioa duten erakundeen zerrenda eguneratuta ez egotea, edo, hala badago ere, behar bezala osatuta ez egotea edo baten batzuk falta izatea. Azken kontu hori lehen ere adierazi dugu garrantzitsua dela, hain zuzen ere eskumena duten agintariei buruzko atalean, eta haien artean koordinatuta egotea oso garrantzitsua dela ere esan da⁴.

Erantzuna emateko epea eskumena duen agintari publikoaren erregistroan eskaria jasotzen denetik hasten da zenbatzen.

Informazioa ahalik eta lasterren eman behar da eta, beranduenez, hilabeteko epean.

6.6. Informazioa emateko epea

Hona hemen arau orokorra: eskumena duen agintariak ahalik eta lasterren erantzun behar du, eskaerak tramitatzeko Legearen 4.1. artikuluan ezarritako bizkortasun-printzipioari jarraiki. Justizia Auzitegiaren doktrinaren arabera, nahitaez betebeharreko epeak dira, gehienezkoak, eta agintari publikoak ezin izango da epe horietatik kanpo atera. Horrezaz gain, araudiak beste betebeharrak ezartzen du: ahalik eta lasterren eman behar du informazioa edo ukatu behar du eskaera⁵.

Atal honetan dago jasota aldeztatik egindako eskari baten bidezko eskuratzearen inguruko prozeduraren oinarrietako bat, 27/2006 Legeak ezarritakoa. Izan ere, agerian dago arauak nahitaez betebeharreko epea ezartzen diola Administrazioari, ebazpena emateko baino gehiago, eskatutako informazioa eskatzailearen eskura jartzeko. Beste modu batean esanda, egiteko betebeharra ezartzen zaio, eta horretarako gehienez duen epea ere ezartzen zaio. Horren guztiaren ondorioz, baieztatu daiteke legeak eskubidea ematen diela herritarrei informazioa eskuragarri izateko, eta eskubidea zuzenean erabiltzeko, baldin eta legeak ezarritako salbuespen-egoerak ez badira gertatzen; esate baterako, intimitatea eta informazioaren konfidentziasuna.

Intereseko datu jakin batzuk jasotzeko gehiegi berandutzeak bestelako eskubideak baliatzea hutsaldu lezake, datuok kontsultatzetik eta jasotzetik eratortzen direnak, hain

⁴ Agintarien zerrendan horiek zeintzuk gaitan diren eskudunak adierazi behar litzateke.

⁵ Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren C-186/04 epaia, 2005-4-21eko, *Hosieaux*, 25.paragrafoa.

zuzen ere. Adibidez, planak egin eta onartzeko prozesuetan edo proiektuak baimentzekoetan izaten diren jendaurrean jartzeko edo kontsultak egiteko epeak ez dira izaten bi hilabetekoak baino luzeagoak.

6.7. Epe orokorra: hilabete bat.

Agintari publikoak hilabeteko epea du, orokorrean, informazioa emateko edo, hala badagokio, eskaera ukatu duela jakinarazteko; agintari publikoak eskaeraren idatzia erre-gistroan jasotzen duenetik hasiko da zenbatzen epea (30/1992 Legearen 48.4. artikulua). Prozedura telematikoak erabiltzen direnean eskaera-mota horri erantzuteko, normalean, aplikazio informatikoak zenbakia jartzen dio eskaerari eta zuzenean jasotzen du beste batzuekin batera, eskaera jaso den data eta ordua adierazten duela. Epea datatik datara zenbatzen da, 30/1992 Legearen 48.2. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hilabeteetako egunak ez badatoz bat, hileko azken egun baliodunera luzatuko da epea. Bestalde, epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatu dela epea ulertuko da (30/1992 Legearen 48.3. artikulua).

Eskaera erregistroan sartzen den data jaso egin behar da, eta horretarako zigilua ezarri behar zaio, bertan adierazten baita jasotako data, tokia eta ordua. Gaur egun, agintari publiko guztiek dituzte aplikazio informatikoak, eta horiei esker, erregistroan betiko paper-euskarrian jasotzeaz gain, beste euskarriren batean ere jaso daiteke. Nolanahi ere, komenigarria da beti eskaeraren kopia bat egitea zigilu eta guzti; horrela, eskaera erregistroan jaso dela eta zein egunetan jaso den egiaztatzeke beste proba bat izateko. Azken horrek berebiziko garrantzia du, agintari publikoak epeak bete dituen ala ez egiaztatzeke.

Indarrean dagoen epe hori murriztu egin da —erdira, hain zuzen— 1995eko aurreko legediko epearekin alderatuz gero; horrek prozeduraren tramitea bizkortzea eragin du, kontuan hartu behar baita beste prozedura batzuetako parte-hartze aldiek azkartasuna eskatzen dutela. Aarhus-eko Hitzarmenak ere gehieneko hilabeteko epea ezarria zuen, agintari publikoak eskaerari aurre egiteko duen epeari dagokionez.

27/2006 Legeak, 30/1992 Legearen arauk bezala, eskaerari erantzuteko eskumena duen agintariak eskaera hori jasotzen den eguna ezartzen du *dies a quo* data (10.1. artikulua). Eskaera aurkezten denetik eskaera hori eskumena duen agintariak jasotzen duen arte igarotako denbora-tartea ez da kontuan hartzen epe orokorra zenbatzeko. Legeak ezarritakoa aplikatuz gero, eskaera aurkeztu deneko data atzeratu egiten da. Horrela, informazioa eskuragarri izateko herritarrek duten eskubidea oztopatu egingo litzateke, batik bat zenbait egoeratan; esate baterako, lehen aipatu ditugunetan. Hau da, herritarrek beste prozedura batzuetan parte hartu nahi izanarekin zerikusia dutenetan, horiek epe motzagoak izaten dituzte eta. Herritarrek egin nahi duen eskaera hori eskumena duen organoan aurkezteko igarotzen den denbora-epe horrek aurretiko eskaerari dagokion prozedura gehiegi luzatzea eragin dezake. Kontuan hartu behar da informazioa zein tokitan dagoen zehatz-mehatz jakiteak arazo bat baino gehiago ekar ditzakeela.

6.8. Salbuespen modura, epea bi hilabetekoa izan daiteke

Eskatutako informazioa emateari buruz edo eskaera ukatzeari buruz erabaki bat hartzeko agintari publikoak bi hilabeteko epea izango du —horri erantzuteko eskumena duen agintari publikoaren erregistroan jasotzen den egunetik zenbatzen hasita—. Epea hilabetez luzatzeko aukera ematen du legeak, betiere horretarako izandako arrazoiak epea luzatzea justifikatzeko modukoak badira. Hain zuzen ere, informazioaren bolumenak eta konplexutasunak eragin dezake epea luzatzea.

27/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, agintari publikoak informazioaren zati bat bakarrik eman dezake, baldin eta eman beharreko informazioa bereizteko moduan badago; hau da, beste oinarritzko eskubide batzuk urra ditzakeen informazioa eta gainerakoa bereiz badaiteke (27/2006 Legearen 14. artikulua). Esate baterako, eztabaidagarria ez den eta teknikoki konplexua ez den informazioa ere eska daiteke eskaera berean. Halakoetan, eskumena duen agintariak gai horiei buruzko informazioa eman egin beharko luke, baina gainerakoaz

Baldin eta eskatutako informazioaren bolumen eta konplexutasuna dela-eta lehenago adierazitako hilabeteko epe hori errespetatzea ezinezkoa bada, epea bi hilabetera luzatuko da.

Epea luzatu egin dela jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, eta luzapen horren arrazoiak ere bai.

erabakitzeko epea luza dezake, baldin eta horretarako arrazoi nabarmenak baditu eta hori hala dela egiaztatzeko zentzuzko argudioak erabiltzen baditu. Horrela, eskatzaileak nahikoa denbora izango du eskura duen materiala kontsultatzeko.

6.9. Informazioa ematea ukatu egin dela jakinarazten bada

Lehen ere aipatu dugun bezala, Legeak ezarritakoaren arabera, agintari publikoak informazioa eskatu duenari jakinarazteko betebeharra kasu bakar batean du, hain zuzen, informazioa ematea ukatzen duenean, eta jakinarazpen horretan, halaber, uko horren arrazoiak ere eman behar ditu. Agintari publikoak informazioa ematea erabaki dezake —beste tramiterik gabe—, edo eskaera ukatzea erabaki dezake; azken horren kasuan, idatziz justifikatu behar du hartutako erabakia. Justizia Auzitegiak nahitaezkozat hartu du agintari publikoak duen betebeharra, uko hori arrazoitzeko; horrenbestez, informazioa, zati batez edo osorik, ez emateko arrazoiak zein diren jakinarazi behar du agintari publikoak, hala egingo duelako erabakia hartzen duen guztietan⁶.

Ez dirudi batere erraza denik ezaugarri horiek dituen erabaki bat arrazoitzea, agintari publikoak arrazoizko argudioak erabili behar baititu, tartean dauden eskubide guztiak aztertzen dituela. Kontuan hartu behar da 27/2006 Legearen 13. artikuluan biltzen diren arrazoiengatik bakar-bakarrik uka daitezkeela eskaerak. Dena dela, garrantzitsuagoa balitz beste eskubide batzuk babestea eta interes publikoa nagusitzen bada, arrazoi horien gainetik leudeke. Bestalde, ukazina da eskatutako informazioaren batek agerian utz dezakeela jarduera jakin batzuk pertsonen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeela. Horrelakorik arrazoitu behar bada, oso garrantzitsua da proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartzea; horrela, ahal den neurrian, beste pertsona batzuen eskubideak babestea beharrezkoa denean bakar-bakarrik ukatuko da informazioa. Horregatik adierazi dugu behin baino gehiagotan, informazioa eskuragarri izateko eskubidearen salbuespenak modu murriztailean interpretatu behar direla.

Horrezaz gain, agintari publikoak formatu elektronikoa erabil dezake, erabakia jakinarazteko informazioa eskatu duenari. Azpimarratu beharrezkoa da, halaber, agintari publikoak aplikazio edo plataforma informatiko bat ezarri behar duela —mota horretako prozeduretarako dauden berariazko arauetara jarraiki— tramite guztiak bideratzeko. Bestalde, autentikotasun-ziurtagiria duten eta debekatuta dauden esku-sartzeak edo atzemateak gerta ez daitezen behar adina neurri ezarri dituzten web guneak edo *hosting* izenekoak kontratatu behar ditu agintari publikoak.

Eskaera ukatzeko egindako administrazio-egintza aurkaratu egin daiteke; Europako Justizia Auzitegiak ez du inolako zalantzarik izan horren inguruan. Auzitegi horrek, halaber, adierazi zuen beharrezkoa dela estatu kideek ahalmena ematea herritarrei ebazpenaren aurka errekurtsua jartzeko, nahiz eta hura ustezkoa izan; izan ere, bestela, eskaria egin duenaren babes judizial eraginkorra urratuko litzateke⁷. Nolanahi ere, kontuan izan behar da mota horretako prozedurak 30/1992 Legeak ere hartzen dituela bere baitan; Lege horren arabera, egintza-administratiboak jakinarazten direnean, nahitaezkoa da jakinarazpen horietan, errekurtsua jartzeko prozedurari buruzko informazioa ere ematea, bai eta zein organoren aurrean jarri behar den eta horiek aurkezteko herritarrak duen epea ere (58.2. artikulua).

27/2006 Legeak ere xedatzen du beharrezkoa dela jakinarazpenaren errekurtsua jartzeko prozedurari buruzko informazioa jasotzea —legearen 20. artikuluan dago ezarrita—. Pertsonaren batek uste badu agintari publikoari egintza bat edo, halakorik bada, ez-egitea egotz dakiokela, informazioaren alorrean legeak ematen dizkion eskubideak urratu direlako, 30/1992 Legean araututako administrazio-errekurtsuak jar ditzake, gainerako araudi aplikagarrietan xedatzen direnak eta, hala badagokio, 29/1998 Legean xedatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsua —administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa arautzen duen legea da hori—. Horrenbestez, jakinarazpenaren bidez, eskatzaile informatu egin behar da erabil ditzakeen errekurtsuoi buruz, bai administrazioaren bidetik, bai administrazioarekiko auzi-jurisdikziotik.

6 Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren C-186/04 epaia, 2005-4-21ekoa, Hosieaux, 36.paragrafoa.

7 *Idem*, 39. paragrafoa.

Jakinarazpenaren bidez, eskatzailea informatu egin behar da erabil ditzakeen errekurtsuoi buruz, bai administrazioaren bidetik, bai administrazioarekiko auzi-jurisdikziotik.

Jakinarazpenaren araudi juridikoari dagokionez, 30/1992 Legearen 58. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakora egokitu behar da, kontzeptuari, edukiari eta, batik bat, praktikari dagokionez. Gogoan izan behar da, halaber, Jaurlaritzaren 283/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan tramitatzen diren prozedura telematikoak arautzen dituen.

Herritarrak eskatutako moduan edo formatuan eman behar dute informazioa agintari publikoek.

7. INFORMAZIOA EMATEKO MODU EDO FORMATUA

7.1. Informazioa modu edo formatu jakin batean eskatzea

27/2006 Legeak ezarritakoaren arabera, herritarrak eskatutako moduan edo formatuan eman behar du informazioa agintari publikoak nahitaez, non eta hala ez emateko justifikatzeko moduko arrazoiak gertatzen ez diren. Informazioaren kalitateak berezko duen izaera edo baldintzat hartzen da. Gaur egun, teknologia berriei esker, datu gehiago ditugu eskura, horiek azkarrago lor daitezke eta sistematikoki. Horren adibide dira, esate baterako, aplikazio informatikoen bidez lor daitezkeen kartografiak. Horietan ez dira ingurune fisikoko elementuen kokapenari buruzko alderdiak bakarrik adierazten, baizik eta ingurumenaren ikuspuntutik egungo egoerari buruzko datu eguneratuak ere adierazten dira. Eta, hala, besteak beste, espezie autoktonoei, demografiari, ekonomiari eta natura-baliabideei buruzko kontsultak egin daitezke.

Kontuan hartu behar da legeak «modu edo formatuak» hitzak erabiltzen dituela, eta, beraz, badirudi bi kontzeptu horien arteko bereizketa egin daitekeela inplizituki. Batetik, eskaera egiten duenak agintari publikoari adieraz diezaiokie zein modutan nahi duen bidaltzea eskatutako dokumentazioa. Definizioen atalean, ingurumenari buruzko informazioa honela definitzen da: idatziz, ikusizko euskarrian, entzunezko euskarrian, elektronikoki edo beste edozein modutan emandako informazioa (2.3. artikulua). Esate baterako, txosten osoa eskatu beharrean, txostenaren amaieran adierazten den laburpena edo ondorioak eska ditzake herritarrak. Horrezaz gain, dokumentuen bidez deskribatutako eremuei buruzko argazkiak, bideoak edo grafikoak bildu badira artxiboetan, agintari publikoak horiek ere emateko betebeharra du. Beraz, modua esaten denean, informazioa emateko dauden moduak esan nahi du, bere baitan hartzen dituela dokumentu fotografikoak, ikus-entzunezkoak, entzunezkoak edo, besterik gabe, dokumentu idatziak.

Bestalde, eskatutako informazioa emateko erabiltzen den euskarria da formatua. Teknologiararen alorrean aurrerapen nabarmenak eman direnez, bitarteko digitalek eta elektronikoek gero eta presentzia handiagoa dute, horietan informazio ugari gorde baitateke eta horiek erabiltzea erraza baita. Irudi digitalak egin eta gorde aldi berean egin daiteke, dokumentu ugari sor daitezke eta, ondoren, ordenagailu pertsonaletan sortutako artxibo elektronikoetan gorde daitezke; horrezaz gain, ordenagailu horiek oso memoria-sistema kualifikatuak izaten dituzte. Eta horrela, datu-base handiak sor daitezke. Halaber, sailkapen-sistemak ere badituzte, eta, horiei esker, ingurumenari buruzko informazioa erraz eskura daiteke, eta definizio eta kontzeptu asko hartzen dituzten beren baitan, hasiberrientzat oso lagungarria da alor horretako oinarriak ulertzeko eta ikasteko. ISG (Informazio Sistema Geografikoa) izeneko datu-base kartografikoak dira informazioaren paradigma, formatu elektronikoari dagokionez.

Eskaria egiten duen pertsonak hautatu behar du mekanismoa, berari ondoen dator-kiona; izan ere, herritar guztiek ez dituzte formatu berriekin bateragarriak diren ordenagailuak edo sistema digitalak. Agintari publikoak formatu digitalak bakarrik baldin baditu —esate baterako, dokumentuen kopia gordetzeko disko trinkoak—, herritarrek eskubidea dute betiko paper-formatuan jasotzeko kopia horiek.

Formatu digitalak ezartzeko mekanismoak ez dituzten agintari publikoek ahaleginak egin behar dituzte teknologia berrietara egokitzeko. Aurreko ataletan ere adierazi badugu ere, agintari publikoei dagokien betebeharrerako bat da hori guztia. Ildo beretik jarraituz, Internet eskura izatea da teknologia berrietara egokitzeko lehen urratsa, *prius*-a; izan ere, informazio-kopuru handia bil daiteke, eta, horrela, denbora errealean web horretara konektatzen den edozein erabiltzailearen esku jar daiteke.

Agintari publiko guztiak sarera konekta daitezten sustatzeko, azkenaldian, ekimen publikoak jarri dira abian, horrela, herritarren eta agintari publikoaren artean elkarrekintza sortzeko, Internet bidez. Horrelako ekimenen bidez, etorkizunean, ingurumenari buruzko informazioa herritarrek erraz eskuratzeko moduko formatuan emateko betebeharra gauzatu ahal izango da. Dena dela, onartu behar dugu Informazio Gizartearen zerbitzuak herritar guztiengana hedatzeko eginkizuna ez dela nahi genukeen erritmoan gauzatzen ari.

7.2. Informazioa denon eskura dagoenean

Informazioa eskatu eta informazio hori eskatutako modu edo formatuan emateko betebeharrak badu salbuespenik; hona hemen horietako bat: informazioa dagoeneko beste modu edo formatu batean eman denean, eta hori eskuratzea errazagoa denean. Informazio-mota hori denon eskura dagoenez —hedapenaren xedea hori bera denez—, logikoa dirudi tramite berak ez bikoiztea. Salbuespen horren helburua prozedurak arintzea da, eta, hala, agintari publikoaren lan-gainkarga eragozte, eskatutako informazioa zein agintaririk duen jakinaraziko baitio edo zuzenean beste helbide elektroniko batera bideratuko baitu eska-tzailea.

«Eskuratzea erraza den modu edo formatua» kontzeptua kasuz kasu interpretatu beharko litzateke; izan ere, zenbait egoera objektibok eskatutako datuak kontsultatu ahal izatea oztopa dezakete. Esate baterako, biztanle gutxiko udalerrri bateko herritarrei helbide elektroniko bat jakinaraziz gero eta herri horretan abiadura handiko Internet sarerik ez badago, ezin izango dituzte artxibo handiak, grafikodunak edo irudiak dituztenak eskuratu. Hortaz, kontua ez da, bakarrik, informazioa biltzen duen Internet ataria edukitzea. Halako kasuetan, nahitaezkoa da agintari publikoak informazioa zuzenean ematea edo sare-konexioa jartzea.

Heda daitekeen informazioaren definizioari buruz aritu garenean aipatu ditugun oztopoak adieraz daitezke, informazioa modu edo formatu jakin batean eskuratzeko eskubi-dearen salbuespen hori justifikatzeko. Bestalde, prozeduretan nahasketak edo akatsak ere gerta daitezke. Esaterako, funtzionario batek esan diezaioke herritar bati datu-base elektro-niko batera edo atari jakin batera konektatu behar duela, jendearen eskura jar dezakeen txostena delako. Eta informazio hori argitara emateko eskumena duen agintariak, ordea, pentsa dezake dokumentu hori ez dela denon eskura jartzeko modukoa; beraz, herritar horrek ezin izango du nahi duen formatuan eskuratu dokumentua. Horrenbestez, garbi dago nahi-taezkoa dela koordinatuta egotea agintari publikoak, bai prozedura arintzeko, bai eta herri-tarrak denbora ez galtzeko ere, informazioa eskuratzeko duen eskubidea erabiltzen.

Eskumena duen agintari publikoak eskatzaileari jakinarazi behar dio non eskura dezakeen informazio hori, edo zuzenean bidali behar dio eskura dagoen formatuan. Bestal-de, herritarrak ikus dezatan eskatzen duena betetzen dela, ingurumenari buruzko informazioa duten agintarien zerrendak egiten direnean, modu edota formatuari buruzko datua erantsi behar da —informazioa sailkatzerakoan—, eta horrek zerrenda osatzea nekezago egiten badu ere, guztiz gomendagarria da. Helbide elektronikora bideratzea ere ez litzateke baliagarria, ez bazaio herritarrari sarean erantsitako informazioa deskargatzeko aukera ematen. Datuak kokatuta dauden ataria, halaber, erraz erabiltzeko modukoa izango da, eta datuak eskura-tzeko prozedurak ere erraza izan behar du, eta ez informatikan aditu direnek bakarrik lor-tzeko modukoa. Beste modu batera esanda, zuzenean deskargatzeko modukoak izan behar dute, eta informazioa lortzeko behar diren programak eta aplikazioak ere erraz instalatzeko modukoak.

7.3. Eskatu ez den beste modu edo formatu batean erantzutea: justifikazioa

Agintari publikoak eskatu zaion formatua uka dezake, bidezkotzat hartzen badu eskatu ez den beste modu edo formatu batean bidaltzea informazioa eta, horrezaz gain, behar bezala justifikatzen badu. Barne-legediak ere jasotzen ditu nazioarteko eta Euro-pakoaren xedapenak. Bi baldintza bete behar dira: batetik, informazio hori eskatutako modu edo formatuan zergatik ez den bidali azaldu behar da; eta bestetik, zentzuzkotzat hartzen den beste formatu batean eskaini behar da, informazioa herritarren eskura jartzeko bete-beharra bete dadin.

Lehendabiziko premisari dagokionez, agintari publikoak erabil ditzakeen zenbait argudio aipa daitezke; besteak beste, eskaerari aurre egiteko nahikoa bitarteko teknikorik ez izatea. Adibidez, gerta daiteke udalerrri txiki bateko udalak ez izatea babestutako espezieak biltzen diren inguruneari buruzko argazkiak edo ikus-entzunezko dokumentuak. Edo badi-

Informazioa eskatu eta informazio hori eskatutako modu edo formatuan emateko betebeharrak badu salbuespenik; hona hemen horietako bat: informazioa dagoeneko beste modu edo formatu batean eman denean, eta hori eskuratzea errazagoa denean.

Agintari publikoek eskatu zaion formatua uka dezakete, bidezkotzat hartzen badute eskatu ez den beste modu edo formatu batean bidaltzea informazioa eta, horrezaz gain, behar bezala justifikatzen badute.

ra banda zabaleko sarea ez duten zenbait udalerrri; hortaz, udalerrri horri buruz sarean dauden datuak deskargatzea oso zaila izango da.

Horrenbestez, arrazoiak edo argudioak zentzuzkoak izango dira, eta, beraz, agintari publikoak nahikoa baliabide ekonomiko edo nahikoa ahalegin egin badezake eskaera-mota horri erantzuteko, ezin izango du salbuespen hori alegatu.

Bigarren premisari dagokionez, agintari publikoak eskainitako ordezkio formatu horrek aintzat hartu behar ditu 27/2006 Legeak ezarritako bermeak —eskuragarritasunaren arlokoak—. Hain zuzen ere, informazioak baldintza hauek bete behar ditu: erraz eskuratzeko modukoa, ulergarria eta kalitate onekoa. Beste mekanismo batzuk erabiltzen baditu, agintari publikoak kontuan hartu behar du dagokion betebeharra; hau da, ahalik eta eraginkortasun handienaz lagundu behar dio herritarrari, informazioa eskuratzeko dagokion eskubidea erabil dezan. Beraz, legeak horregatik gogorarazten du ahalik eta formaturik logikoena erabil behar duela agintari publikoak.

Zenbaitetan, ordezkio formatu horrekin ezin izango zaio herritarrak eskatutakoari aurre egin; izan ere, parte-hartzeko aldi egindako oharrek egiaztatzeke ezinbestekoak direlako. Esate baterako, argazkien edo grafiko bidez, objektibotasun eta zehaztasun handiagoz azter daiteke ingurune fisikoko elementu baten benetako egoera. Horrela bada, agerian geratu da informazioa eskatu ez den beste formatu batean bidaltzeak arazoak eragiten dituela. Beraz, argi dago salbuespen horien interpretazioak murriztaileak izan behar duela. Informazioa eskura izateko eskubidearen benetako mugak dira, eta eskubidearen eraginkortasuna oztopatzen dute.

Agintari publikoek —edo haien izenean beste subjektu batzuek— eskura duten ingurumenari buruzko informazioa erraz erreproduzitzeko eta eskuratzeko moduan edo formatuetan gorde behar dute, telekomunikazio informatikoak edo beste bitarteko elektronikoko batzuk erabilia.

7.4. Informazioa emateko modua edo formatua eta agintari publikoaren betebeharrak

Agintari publikoek —edo haien izenean beste subjektu batzuek— eskura duten ingurumenari buruzko informazioa erraz erreproduzitzeko eta eskuratzeko moduan edo formatuetan gorde behar dute, telekomunikazio informatikoak edo beste bitarteko elektronikoko batzuk erabilia. Betebehar hori beste bi betebehar espezifikogotan bana daiteke: telekomunikazioen bidez erraz eskura daitezkeen formatuetan artxibatzea, batetik; eta beste bitarteko elektronikoko batzuk erabiltzea, bestetik.

Orain, telekomunikazioen alorrean, erraz eskura daitezkeen bitartekoak zer diren interpretatu behar da. Kontuan izan behar da betebeharraren ezaugarrietako bat informazioa zertarako den zehaztea dela. Informazioa eskuratzeko erraza edo zaila izatea teknologiaren arabera baina gehiago, hura erabili behar duten pertsonen gaitasunaren arabera da. Hala, Interneten nabigatzeak ez dirudi arazo handiak eragiten dituenik. Dena dela, dokumentuak deskargatzeko edo informazio jakin bat aurkitzeko beharrezkoa izan daiteke nolabaiteko trebetasuna izatea, bai eta prestakuntza espezifikoa izatea ere zenbaitetan. Horrenbestez, erraz instalatzeko moduko aplikazio informatikoak erabiltzeaz gain, ahalegina egin behar da herritar guztiek tresna horiek erabiltzen ikas dezaten.

Aurreko atalean bezala, honetan ere soluzio bideragarriena izango litzateke kasu kasu aztertzea zein den bitarteko erabilerrazena, kontuan hartzen direla Informazio Gizartearen zerbitzuak ezartzeari buruz aipatu ditugun aldagaiak. Horren inguruan legeak zehaztasun handirik ematen ez duenez, teknologia berrien irtenbidea hutsean gera daiteke, formaturik egokiena zein den ez baita garbi definitzen.

Beste bitarteko elektronikoko batzuen erabilerari dagokionez, aplikazio informatikoetan biltzen diren datu-baseak oso baliagarriak dira, eskatutako informazioa nahiko erraz aurkitzen delako; izan ere, aurretik zehaztutako sistema baten arabera antolatzen eta ordenan jartzen dira. Ez dago zertan artxiboak dauden geletara joan, ordenagailuaren pantailan bertan ikus baitaitezke datuak. Disko trinkoek edo datuak biltzeko beste gailu batzuek informazio-kopuru handia gordetzeko aukera ematen dute, eta, gainera, zentimetro gutxi batzuk

baino ez dute hartzen espazio fisikoan. Esan daiteke, egun, ia agintari publiko guztiek erabiltzen dituztela horrelakoak, pixkanaka-pixkanaka informatizatu baitituzte egiturak.

7.5. Eskatutako modua edo formatua eta agintari publikoak hautatutako ordezkia

Agintari publikoak erabakitzen duenean informazioa, osorik edo zati bat, eskatutako moduan edo formatuan ez ematea, eskatzaileari jakinarazi behar dio zergatik erabaki duen uko egitea eskatutako moduari; jakinarazpena hilabeteko epean bidali behar dio —eskaera agintari publiko eskudunaren erregistroan jasotzen denetik hasiko da zenbatzen— eta eskatutako informazioa zein modu edo formatutan bidal diezaiokeen ere, horretarako aukera badago, adieraziko dio. Horrezaz gain, jakinarazpenean uko horren aurka errekursoak jartzeko prozedurei buruzko informazioa ere jaso behar da.

Atal honetan bi alderdi jasotzen dira: batetik, agintari publikoak informazioa formatu jakin batean bidaltzeari uko egiteak eragiten dituen berezko ondorioak; eta bestetik, ordezkio formatua zein den azaltzeko beharra, eta erabakiaren aurka —formatua ukatzearen ingurukoa— errekursoak jartzeko prozedurei buruzko informazioa azaltzeko betebeharra. Aldez aurretik eskaria eginda informazioa lortzeari dagokion prozedura orokorrean bezala, agintari publikoak ez du ezer erabaki behar, baizik eta eskatutako formatuan eman behar du informazioa.

Horrek guztiak esan nahi du agintari publikoak ez duela zertan ebazpenik eman, herritarrak egindako eskaera onartzen duenean. Eskaera ukatzeko epea besterik ez da xedatzen. Beste modu batera esanda, eskatutako formatua ukatzen duenean bakarrik bidaliko dio berariazko jakinarazpena. Eskatutako formatuan bidaliko bada informazioa, ez da beharrezkoa berariazko erabakirik hartzea, eta, hortaz, ezingo litzateke esan benetako administrazio-isiltasuna denik, agintari publikoak ez baitu halako kasuetan erabakia jakinarazteko betebeharririk.

Horrenbestez, agintari publikoaren jarduera-ezari dagokion araudia bakar-bakarrik aplikatuko da, legez, zerbitzu jakin eta zehatza bete behar duen kasuetan. Definitu dugun betebehar hori eska daiteke herritarrak duen eskubidea aurretiaz aitortzen delako, informazioa eskatutako formatuan jasotzeko duen eskubidea, alegia.

Agintari publikoak eskatutako formatuan bidal dezake informazioaren zati bat eta bestelako formatu batean beste zati bat; horrela eginez gero, herritarrak eskatutako formatuan osorik zergatik bidali ez duen adierazi behar du. Horrelako kasuetan, ez dirudi oso zentzuzkoa denik dokumentu bera modu desberdinetan zatituta ematea. Araua kontuan hartuta, badi-rudi dokumentu edo datu-mota desberdinak zenbait formatu edo modutan bidaltzea logikoa goa litzatekeela, baldin eta dokumentu bera formatu bakar batean ez emateko ezinbestek bultzatu badu. Esate baterako, sistema informatikoan matxuraren bat gertatuz gero, baliteke artxiboak osorik berreskuratu ezin izatea.

Eta azkenik, ukatu egin delako erabakiaren jakinarazpenean, haren aurka aurkez daitezkeen errekursoak jartzeko prozedurei buruzko informazioa jaso behar da, 30/1992 Legearen araberrako beste edozein jakinarazpenetan bezalaxe. Ordezko formatuei dagokienez, bitarteko elektronikoak edo beste mota bateko formatuak erabil daitezke, legeak ezarritako bermeak betetzen direla, betiere. Zehatz-mehatz, formatu eraginkorrenari eta egokienari buruzko aholkuak eman beharko litzuzke agintari publikoak. Ordezko formatuak erraz eskuratzeko modukoa eta ulerterraza izan behar du, eta, horrezaz gain, kalitateari dagozkion baldintzak bete behar ditu, haren edukiaren egiazkotasunaren ingurukoak, batik bat.

Agintari publikoek eskatutako formatua ukatzen dutenean baino ez dute bidaliko berariazko jakinarazpena.

Agintari publikoek eskatutako formatuan bidal dezakete informazioaren zati bat eta bestelako formatu batean beste zati bat; horrela eginez gero, herritarrak eskatutako formatuan osorik zergatik bidali ez duten adierazi behar dute.

Informazioa ez izateak ez du esan nahi eskaria jaso duen agintari publikoak informazio hori ez duela erantzute hutsarekin berari egokitutako beharrak beteko dituela.

Informazioa eskatzen denean, hura arrazoizkoa ez dela edo gehiegizkoa dela zehazteko, eskaera bakoitza kasuz kasu eta behar bezala justifikatu behar da.

8. ESKAERAK UKATZEA

Agintari publikoen aurrean aurkeztutako informazio-eskaerak ukatzeko arrazoiak indarrean dagoen araudiak zehazten ditu. Araututa egotea logikoa da; izan ere, ahalik eta gehien zehaztu nahi dira agintari publikoek ingurumenari buruz eskatutako informazioak ukatzen dituzten kasu guztiak. Zehaztuta badago ere, ezarrita dauden klausula asko oso orokorrak direnez, horien interpretazioak arazo ugari eragiten ditu. Hori hala dela egiaztatuko dugu aurrerago.

Eskaerak ukatzeko arrazoiak finkatuta, mugatuta daude, eta, hortaz, agintari publikoek ezin dituzte araudian ezarrita ez dauden arrazoiak eman.

8.1. Eskatutako informazioa ez badago agintari publikoaren esku

Informazioa ukatzeko arrazoi hori —informazioa eskatu zaion agintari publikoak ez izatea informazio hori, alegia— erabat logikoa eta egokia da. Beste kontu bat da, ordea, informazio hori ez edukitzeak ez duela esan nahi —dagozkion betebeharrak kontuan hartuta— informazio-eskaera egin zaion agintari publikoak esan dezakeenik, besterik gabe, ez duela informazio hori. Dagoeneko adierazi dugun bezala, eskatutako informazioa ez duen agintari publikoak nahitaez jakinarazi behar dio eskatzaileari —hori baita haren betebeharra— zein agintari publikok duen eskatutako informazioa. Horrenbestez, eskaera hori beste agintari publiko batengana —egokitzat hartutakora— bidali behar du. Hala ez bada, eta agintari publikoak ez badaki zein agintari publikok izan ditzakeen eskatutako datuak, egokiena litzateke, legearen arabera, eskatzaileari informazio hori lortzen laguntzea.

8.2. Eskaera arrazoizkoa ez bada

Estatuko araudian duela gutxi erantsi da arrazoizkoa ez den eskaeraren kontzeptua, eta, hala ere, haren definizioa konplexua da. Euskal Autonomia Erkidegoko araudiaren arabera, informatzeko betebeharra uka daiteke eskaera gehiegizkoa bada. Kasu horietan aipatzen diren kontzeptuak definitzea oso konplexua izan daiteke, informazio-eskaeraren bat gehiegizkoa den aztertu behar denean. Auzitegiaren jurisprudentzia lagungarria da alor horretan, baina mugatua; izan ere, horietan hartutako zenbait erabakik Aarhus-eko Hitzarmenaren espirituari eta hura garatzeko araudiari ez diotela erantzuten pentsa daiteke. Esate baterako, demagun, informazio-eskaera baten bidez, hiriko hondakin solidoak errausteko instalazio baten emisioei buruzko datuak eskatzen direla, eta eskaera horretan, hain zuzen, izandako emisioei buruzko datuak eskatzeaz gain, etorkizuneko emisioei buruzko datuak ere eskatzen dituela; arrazoizkotzat har daiteke eskaera? Mota horretako eskaera bat gehiegizkoa litzatekeela argudiatu da, eta haren edukia ikusita, ingurumenari buruzko informazioaren hedapena izango litzatekeela.

Ez gatoz bat argudio horrekin. Informazioa datu horien hedapen-politikaren zati bada, informazioa emanda balego, ez litzateke justifikatuta egongo informazio jakin hori eskatzea. Baina botere publikoek berek ez badute informazio horren berri ematen, interesa duten pertsonak informazioa eskuratzeko eskubidea dutenez, zergatik ukatu emisio horiei buruzko datuak? Beste modu batera esanda, agintari publikoak duen ingurumenari buruzko informazioa ez da jakitera ematen, agintari publikoak ez duelako hedatzeko funtzio publiko hori betetzen; hortaz, partikularrek ez dituzte datu horiek eskuragarri, horretarako eskubidea izatea arrazoizkotzat hartzen bada ere. Horren ondorioz, informazioa eskuratzeko eskubidea izan arren ezin dute eskuratu, alde batetik, agintari publikoek informazioa hedatzeko betebeharra ez dutelako betetzen eta, bestetik, ezin dutelako eskuratzeko eskubidea baliatu.

Horrenbestez, ingurumenari buruzko informazio hori jakitera emateko betebeharra izanda agintari publikoak horrela egingo ez balu, justifikatuta egongo litzateke edozein pertsonak informazioa eskuratzeko duen eskubidea baliatzea, eta, beraz, ez legoke inolako arrazoirik partikularren informazio-eskaerak ukatzeko.

Informazioa eskatzen denean, hura arrazoizkoa ez dela edo gehiegizkoa dela zehazteko, eskaera bakoitza kasuz kasu eta behar bezala justifikatu behar da. Arrazoizkoa ez dela esan daiteke, eskatutako informazioa hutsala bada; hau da, ingurumenaren ikuspegitik inolako ondoriorik edo garrantzirik ez badu. Baita elaborazio *ad hoc* exijitzen denean ere, adibidez, agintari publikoak dituen datuei funtzio estatistiko bat aplikatzea.

8.3. Eskaera orokorregia bada

Informazio-eskaera bat ukatzeko arrazoia orokorregia dela adierazten denean, zehaztu behar da orokorra izatea ez dela nahikoa argudio eskatutako informazioa berariaz ukatzeko. Lehen esan dugun bezala, eskatutako informazioa behar bezain zehatza ez bada, aurkeztutako eskaera hori zehazten laguntzeko betebeharra du agintari publikoak; izan ere, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko pertsona orok duen eskubidea operatibo eta aplikagarri egitea baita helburua. Zenbait kasutan, informazioa orokorregia dela esaten denean, informazioa arrazoizkoa ez dela pentsatzea eragin dezake, eskaera orokorregi bat ez bailitzateke arrazoizkoa izango. Hona hemen bi kasu horien arteko desberdintasuna: informazio-eskaera orokorregia bada, hura zehaztu egin daiteke eta eskaera egin duen pertsonak zer informazio eskura dezakeen jakin daiteke. Arrazoizkoa ez bada, ordea, eskatutako informazioa ezin dela eman pentsa daiteke, arrazoizkoa ez delako, hain zuen ere. Eskaera orokorregia dela esaten denean, ez du esan nahi informazio konplexua eskatu denik, eta datuen eta egintzen zerrendak edo beste mota bateko informazioa eskatzen denik. Ez dira nahastu behar, hortaz, eskaera orokorra eta informazio askoko eskaera.

Une honetan agintari publikoek eskura duten informazio asko inolako arazorik gabe jar daiteke herritarren eskura, informatika-sistemei esker. Udaletan jarduera-baimenei buruz egiten diren informazio-eskaerak erantzuteak, esate baterako, ez lieke inolako arazorik eragin behar agintari publikoei, informazio hori euskarri informatikoan baitago eta, hortaz, erraz eskura daiteke.

Bestalde, partikularrek informazioa eskuratzeko duten eskubideari erantzuteko moduko lan- eta funtzionamendu-sistemak aukeratu behar ditu agintari publikoak, eskatutako informazioa orokorregia dela argudiatu barik.

Informazio askoko eskaeraren bat egiten bada, agintari publikoak ezin dio informazioa emateko betebeharrari uko egin, informazio hori lortzeak lan handia ematen diola argudiatuta. Auzitegiek dagoeneko adierazi dute informazioa emateko betebeharra gauzatzeak, zenbaitetan, beste zerbitzu batzuk kontratatzea eragin dezakeela.

8.4. Prestatze-bidean dagoen materialari edota bukatu gabe dauden dokumentu eta datuei buruzkoa bada

Salbuespen hori ingurumenari buruzko araudi guztian antzeko edukiarekin ezarrita dago —aurretik indarrean zegoen araudian ere bai— eta hasieratik eragin ditu interpretazio-arazoak, eta, bestalde, badira horri buruz ere jurisprudenziatik sortutako zenbait erabaki. Estatuko araudiak fiabardura bat egin du salbuespen horren inguruan —jarraian aztertuko dugu— eta zehatz aztertuko dira erabiltzen diren terminoak.

Araudiaren arabera, informazioa uka daiteke «prestatze-bidean dagoen materiala» edo «bukatu gabe dauden dokumentuak edo datuak» badira. Bi kasu horiek esanahi desberdina dutela dirudi. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da araudiak ez diola espedienteari erreferentzia egiten.

Ez da, hortaz, espediente formal batez ari; halakoetan, hasi eta erabat amaitu arte ezin baita horiei buruzko informazioa eman. Ez da espediente bat, nahiz eta administrazio-espediente kontzeptua bera dirudiena baino arazotsuagoa izan.

Espediente kontzeptua material edo dokumentu kontzeptuak baino zabalagoa da. Hona hemen espedientetzat har daitekeena: administrazio-ebazpenak emateko, bai eta horiek betearazteko ere, oinarritzat eta aurrekaritzat erabiltzen diren dokumentu- eta ekintza-mul-

Orokorra izatea ez da nahikoa argudio eskatutako informazioa berariaz ukatzeko.

Eskatutako informazioa behar bezain zehatza ez bada, aurkeztutako eskaera hori zehazten laguntzeko betebeharra du agintari publikoak.

Prestatze-bidean edo amaitu gabe dauden materialak edo dokumentuak honakoak dira: agintari publikoak une horretan lanean aritzeko erabiltzen dituenak.

Ikuskapen-aktak, hortaz, berez dira dokumentuak, eta horiek eskuratu egin daitezke, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzen denean.

tzo bat, bata bestearen atzetik ordenan jarrita. Espediente horiei erantsiko zaizkie, hurrenkeran, dokumentuak, probak, irizpenak, dekretuak, akordioak, jakinarazpenak eta gainerako eginbideak; horiek guztiek osatzen dute espediente bat, eta horiek tramitatzeaz arduratzen diren funtzionarioek orri baliiodunak zenbatu eta sinatu egin behar dituzte. Definizio hori orientagarria da, ez baitago araurik behar adinako zehaztasunez adierazten duenik zer den espediente bat. Horrenbestez, eta hain zuzen ere, ingurumen alorreko adibideren bat hartuz gero, posible da espedienteren batek bere baitan hartzea ebazpenerako bide emango duen prozedura bat edo, besterik gabe, espediente informatiboak direnak. Halako kasuetan, agintari publikoak aztertutako kasuei edo gaiei buruzko dokumentuak eta informazioak artxiboan sailkatutako edo ordenan jarritako moduaren araberakoa izango litzateke espediente kontzeptua.

Aurreikusitako salbuespenak ez die eragiten, hortaz, espedientei, baizik eta garrantzi txikiagoa edo eduki txikiagoa duten dokumentuei edo materialei; bestalde, ez da kontuan hartzen dokumentu edo material horiek agintari publikoak abian jarriko duen prozedura osatuko duten elementu jakinak izango diren. Material, dokumentu edo datu kontzeptuak, zenbait kasutan, trukagarriak izan daitezke eta balio deskribatzailea dute. Kontua ez da zehaztea informazio jakin batek materiala, dokumentua edo datua osatzen duen, edo ez den hiru termino horietako bat ere.

Prestatze-bidean edota bukatu gabe dauden materialak edo dokumentuak aipatzen direnean eta horrek zer esan nahi duen zehaztu behar denean, legeak berak ezarritakoari jarraiki, agintari publikoa horiekin lan egiten ari dela ulertu behar da. Definizio horren bidez termino horien esanahia zehaztu nahi bada ere, arazoak eragiten ditu oraindik ere. Hori hala dela ohartzeko, auzitegietako jurisprudentziara jo besterik ez dago, prestatze-bidean dagoen materiala edota bukatu gabe dauden dokumentu edo datuak kontzeptua zehaztu behar izan baitute.

Definizio konplexuenetako bat, hain zuzen ere, honako hau izan da: erabakitzea ikuskapen-aktak bukatu gabe dauden dokumentu edo datuak edota prestatze-bidean dauden materialak diren. Batetik, nabarmena da ikuskapen-akta, prozeduraren baten barruan edo kanpo, administrazio-espediente baten zati izan daitekeela, eta, hortaz, pentsa daiteke agintari publikoa horretan ari dela lanean, eta horren inguruan ez duela behin betiko ebazpenik eman. Hala gertatzen da, esate baterako, ekologista-talderen batek zentral nuklear batean egindako ikuskapen-aktei buruzko informazioa eskatzen duenean. Ikuskapen horren emaitzak jakin nahi izaten dituzte ekologistek. Halako kasuak aztertu dituzte auzitegietan, eta adierazi dute zentral nuklear batean egiten diren ikuskapen-aktak ikuskapen-prozeduraren barruko elementutzat har daitezkeela, eta gerora, emaitzen arabera, ebazpen bat ematea edo tramite-egintza bat abiaraztea eragin dezaketela. Ikuspegi horretatik, zehapen-prozeduraren elementuak izango lirateke aktak, bukatu gabe daudenak, partzialak eta komunikatzeko asmoa baino ez dutenak; eta banaka-banaka hartuta garrantzirik ez dutenak.

Beste ikuspegi batetik, ordea, ikuskapen-akta bat, bera bakarrik, benetako informazioa, oso-osorik informazioa izan daiteke, berezko identitatea duena. Ikuskapen-aktak dokumentu publikoak dira, funtzionario espezializatuek egiten dituzte, eta, horrezaz gain, behar bezala eginez gero, bereziki hartzen dira aintzat, egintzak egiaztatu egiten dituzten aldetik. Ikuskapen-aktak mota askotakoak izan daitezke, beren baitan hartzen dituzten alorraren arabera; hortaz, ikuskapen-aktak zerga-alorrekoak, lan-alorrekoak eta beste alor askotakoak izan daitezke. Ikuspegi horretatik, aktak ezin dira bukatu gabeko dokumentutzat hartu, erabat bukatuta dauden dokumentuak baitira. Berariazko araudi batek ezarritakoari jarraiki egiten du akta ikuskatzaileak, eta akta horrek, gerora eragin ditzakeen ondorioak alde batera utzita, berak bakarrik du balioa. Alde horretatik, auzitegiek adierazi dute aktek berezko funts eta izaera dutela eta, hain zuzen, egintzak egiaztatzea dutela oinarri, alde batera utzita, hasiera batean, akta egiteak eragin ditzakeen ondorioak —herritarrek dituzten betebeharrak betetzeko eskatzea haiei; edo ahalmen publikoak erabiltzea, esate baterako, zehapen-espedientea abian jarrita—.

Ikuskapen-aktak, hortaz, berez dira dokumentuak, eta horiek eskura daitezke, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzen denean. Ondorio horretara iristea ez da izan, ordea, prozesu baketsua, beharrezkoa izan baita auzitegiek horri buruzko zenbait epai ematea, eta, azkenean, hemen azaldu den interpretazioa berretsi egin dela di-

rudi. Beste ondorio bat ere atera dugu: prestatze-bidean dauden materialei edota bukatu gabe dauden dokumentu edo datuei buruzko interpretazioak murriztailea izan behar du. Horrela, ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko herritar orok duen eskubidea gauzatzea errazagoa izango baita. Arauak ez du aipatzen amaitu gabeko espedienterik, amaitu gabeko dokumentuak edo datuak baizik. Espediente bateko dokumentu bat, amaituta egonez gero, eman egin behar zaio eskatzen duenari.

8.5. Eskaera barne-komunikazioei buruzkoa bada

Barne-komunikazioen eta aurreko atalean aztertutako salbuespenaren artean bereizketa egitea zaila izan daiteke zenbait kasutan. Barne-komunikazioak dokumentuak baino ez dira, eta, hortaz, horiei buruzko berariazko araudia erabiltzeak zalantza asko eragin ditzake. Dena dela, badirudi legegileak bereizteko moduko osagai edo aukeraren bat duten administrazio-egoera edo -jarduerak zehaztu nahi izan dituela, eta zehaztu egin du agintari publikoak noiz uka dezakeen informazioa. Ez dago zalantzarik agintari publikoek zenbait politika jar ditzaketela abian, besteak beste, jarduera baten jarraipena egiteko, ikuskapen-planak abian jartzeko eta ingurumenari kalteak eragiten dizkieten jarduerak murrizteko, eta, halakoetan, baliteke komenigarria izatea agintari publikoaren funtzionamendua erabat gardena ez izatea. Agintari publikoen esku-hartzei dagokienez, diskrezioa ere ezinbestekoa da, kaltetuak izan daitezkeen beste pertsona edo jarduera batzuekiko harremanak hobeak izan daitezkeen. Hori dela eta, herritarrek informazio-eskaera egiten dutenean, barne-komunikazioen berri ematea muga daiteke, eta bidezkoa izan daiteke. Alde horretatik, berariazko araudiak zenbait zehaztapen egiten ditu, agintari publikoek informazioa ukatzeko, barne-komunikazioa delako aitzakia erabil ez dezaten.

Agintari publikoek informazio bat ukatzen dutenean barne-komunikazioa delako, ezin dute barne-komunikazioa delako bakar-bakarrik ukatu, baizik eta zehatz-mehatz justifikatu behar dute informazioa ez ematearen arrazoia. Araudia, nolahi ere, korapilatsu samarra da, ez baitu zehazten ukatzeko arrazoiak zein izan daitezkeen. Ezagutaraziko den informazioaren interes publikoa kontuan hartu behar dela baino ez du ezartzen araudiak; horrek esan nahi du, informazioa emateko muga ez duela aztertzen agintari publikoaren barne-funtzionamenduaren arabera, baizik eta pertsona eskatzailearen ikuspuntutik informazio horrek duen garrantziaren arabera ezartzen dela muga. Horra hor, «ematen den informazioaren interes publikoa» espresiotik ateratako ondorioa. Dena dela, espresio hori egokia den ala ez alde batera utzita, argi eta garbi dago agintari publikoak nahitaez jakinarazi behar duela zergatik egin dion uko informazioa emateari.

8.6. Prozedurak konfidentzialak direla ezarri bada

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da ez direla gauza bera prozeduren konfidentzialtasuna eta eskatzen diren datuen konfidentzialtasuna; beraz, ez dira bi horiek nahasi behar. Geroago, informazioaren konfidentzialtasuna aztertuko dugu, baina orain, bakar-bakarrik, agintari publikoek abian jartzen dituzten edo jar ditzaketen prozeduren konfidentzialtasunaz arituko gara. Prozeduren konfidentzialtasun hori ez da prozedurak berak berezko duen izaeraren baitakoa. Prozedurak konfidentzialak direla esateko, konfidentzialtasun horrek Lege-mailako arau batean berariaz xedatuta egon behar du. Legeak ez badu konfidentzialtasun hori xedatzen, administrazioek ezin dute informazioa emateari uko egin.

Zenbait arauk ezar dezakete prozeduren konfidentzialtasuna; esate baterako, Gobernuen bileren konfidentzialtasuna ezartzen dute batzuek. Kasu horretan, adierazi behar da konfidentzialtasunak ez diola erreferentzia egiten prozedurari berari, baizik eta gobernu batek erabakia hartu aurretik egindako aztertze-lanen edukari. Alde horretatik, kontuan hartu behar da «prozedurak» esaten denean, zentzu zabalean ulertu behar dela, lege-mailako arau batean xedatuta badago, betiere. Kasu horretan, ingurumenari buruzko informazio jakina duten agintari publikoen funtzionamenduan gardentasunerako duten betebeharrak mugatzen da, legeak hala izan behar duela ezartzen duenean baino ez, betiere. Ildo beretik jarraituz, bitxia da ikustea aurretik izandako zenbait arauditan nola ezarrita zuten muga

Agintari publikoek informazio bat ukatzen dutenean barne-komunikazioa delako, zehatz-mehatz justifikatu behar dute informazioa ez emateko arrazoia.

Prozedurak konfidentzialak direla esateko, konfidentzialtasun horrek Lege-mailako arau batean berariaz xedatuta egon behar du.

hori; izan ere, konfidentziasunaren muga aztertze-lanetarako ezartzen zuten. Baina orain, ordea, prozeduren konfidentziasuna ezarrita dago, eta badirudi ahalik eta interpretazio zabalena eman nahi zaiola mugari, ingurumenari buruzko informazioaren baten eskaeraren aurrean.

8.7. Nazioarteko harremani, defentsa nazionalari edota segurtasun publikoari eragiten badiote

Salbuespen horrek, alde batetik, zentzuzkoa dirudi; eta, bestetik, botere publikoen funtzionamenduari dagokionez, opakotasunaren irizpideak ekartzen ditu gogora, defentsa nazionalari edo segurtasun publikoari edo, oro har, nazioarteko harremani buruzko gaiak direnean. Halako kasuetan, badirudi gainditu ezin den muga edo hesi bat duela demokraziak. Nazioarteko harremani, defentsari edo segurtasun publikoari buruzko muga horrek berekin dakar, nahitaez, horietako bakoitzaren norainokotasuna zehaztea. Nazioarteko harremani, defentsari edo segurtasun publikoari eragiten diotela esatea bakarrik ez da nahikoa arrazoi informazio bat emateari uko egiteko. Kontuan izan behar da zenbait informaziok —nuklear motakoak, esate baterako— defentsari eragiten diola, baina, batik bat, ingurumenari. Halako ezaugarriak dituen ingurumenari buruzko informazioa ukatzeak, defentsari eragiten diotela esanda, ez du justifikaziorik. Aurrerago aztertuko badugu ere, informazioa eskuratzeko eskubideari jar diezazkiokegun mugak beti irizpide murriztailea aintzat hartuta interpretatu behar dira. Horrezaz gain, nazioarteko harremanak, defentsa nazionala eta segurtasun publikoa zer diren definitzea, askotan, eztabaidagarria da. Segurtasun publikoari eragiten diotela esaten denean, ez du esan nahi gerrarekin zerikusia duten gertaerak izan behar dutenik beti, izan daitezke hondamendi naturalak, oinarritzko produktuen gabezia edo beste mota bateko egintzak edo gertaerak.

Justizia kaltetu daitekeen kasuetan bakarrik-bakarrik aplikatuko da salbuespena.

8.8. Prozedura judicial bati lotuta dauden auziei edo kausei, edota epaitegietan tramite-bidean daudenei ondorio negatiboa eragiten badie

27/2006 Legean xedatutako salbuespen horri buruz zenbait zehaztasun eman behar dira. Epaitegietan tramite bidean dauden auziei buruzko informazio guztiarentzat ez da baliaigarria informazioa ez emateko salbuespen hori. Justizia kaltetu daitekeen kasuetan bakarrik-bakarrik aplikatuko da salbuespena, eta ezin izango da zuzenean aplikatu. Justizia aplikatzen laguntzeko eta justiziaren funtzionamendua hala eskatzen duelako erabiliko da salbuespena, ez beste arrazoiren batengatik. Salbuespen honetan, gainerakoetan bezala, informazioaren eskuragarritasunarekin zerikusia duten kasuetarako, informazioa eskuratzeko eskubide horren norainokotasunaren ahalik eta interpretaziorik zabalena egin behar da.

Salbuespena orokorra denez, ezin da baieztatu *sub judice*, besterik gabe, dauden informazioak ezin direla herritarren eskura jarri. Kontua da informazio horrek eragin negatiboa ez izatea justiziaren funtzionamenduan. Horrexegatik, segidan, zehazten du edukia legezko manuak berak, eta, hala, bereziki bermatzen du babes judicial eraginkorra izateko eskubidea. Halako zehaztasuna egitea ez litzateke beharrezkoa izango, epaitegietako auzi guztiak informazioa eskuratzeko eskubidetik salbuetsita egongo balira.

Kasuaren arabera, uler daiteke datuak jakinarazteak justiziaren funtzionamenduari eragin diezaiokeela; nolahi ere, halako egoerari buruzko adibideak modu abstraktuan ematea ez da batere erraza. Horrezaz gain, agintari publikoak ukatzen du informazioa ematea, auzitegiek esku hartu gabe; horrek esan nahi du agintari publikoak berak erabakitzen duela Justiziaren funtzionamendua eragozten duen ala ez, eta hori oso konplexua da. Informazioa eskatu zaion administrazioak ez badu informazio hori eman nahi, askotan erabiltzen den formulara jo dezake; hau da, besterik gabe esan dezake gaia auzitegietan dagoela.

8.9. Babes judizial eraginkorra izateko eskubideari ondorio negatiboa eragiten badio

Babes judizial eraginkorra izateko eskubidea ezin da zalantzan jarri, ingurumenari buruzko informazioa emateagatik. Babes judiziala izateko eskubidea eta informazioa eskuratzeko eskubidea neurtuz gero, esango genuke lehendabiziko eskubideak duela lehen-tasuna; betiere, informazioa eskuratzeko babes judizial eraginkorrari eragingo balio edo hura baldintzatuko balu. Alor horretan gerta daitezkeen kasuistikak ere nabarmentzeko modukoak dira, lortutako informazioarekin babes judizialari eragiten bazaio, batik bat. Informazioa eskatzen duena prozesuko aldeetako bat bada, auzitegiek esku hartuko dute behar den informazioa lortzeko. Horrez gain, agintari publikoak ez badio informazioa ematen prozesuko parte den pertsona bati, auzitegiek esku hartu ahal izango dute informa-zio hori eskatzeko. Informazioa emateari uko egitea, badirudi, prozesuko parte ez diren pertsonen informazioa eskatzen dutenean aplika daitekeela; hortaz, babes judiziala izateko eskubidea, auzipetuta daudenenei edo prozesuko alde direnei aitortzen zaie. Babes judizia-la izateko eskubidea, bestalde, prozesu-motaren arabera da, eta hori ere baloratu beharko da. Babes judiziala izateko eskubideak esanahi desberdina du prozesuaren arabera; hau da, ez da babes berbera prozesua penala, zibila, laborala edo administrazioarekiko auzien ju-risdikziokoa bada. Prozesu penalak, beti, gainerako prozesuek baino berme gehiago ditu, haren xedeagatik.

8.10. Ikerketa penalari edo diziplinazkoari ondorio negatiboak eragiten badizkio

Abian dauden ikerketei ondorio negatiboak eragite hori sakon aztertzea merezi du. Ikerketa guztiek ez dute balio, edozein dela ikerketa-mota, ingurumenari buruzko informa-zioa eskuratzeko eskubidea eragotziko duen argudiotzat erabiltzeko. Auzitegiek mota horretako auzietan esku hartu dute, eta adierazi dute informazioa ez emateko arrazoia ikerketa izan dadin, ezinbestekoa dela prozedura judizial edo kuasi-judizial baten aurretikoa izatea eta, halaber, ikerketa hori beharrezkoa izatea probak biltzeko. Prozedura judizialei edo kuasi-judizialei egiten zaie erreferentzia, administrazioaren zehapen-prozedurak, zen-bait kasutan, prozedura penalen oso antzekoak direlako, nahiz eta horietan auzitegiek ez duten esku-hartzen eta zigorrak administrazio-organoei jartzen dituzten, eta ez organo judizialek. Hala adierazi zuen Europako Batasuneko Justizia Epaitegiak Mecklenburg kasuan (1998ko ekainaren 17ko epaia). «Diziplinako ikerketa» espresioa, orokorrean, ze-hapen modura ulertu behar da; ez da mugatu behar funtzionarioen kontrako diziplina prozeduretara soilik.

Prozesua amaitu bada herritarrek ingurumen-informazioa eskuratu ahal izango dute.

8.11. Agintari publikoen betebeharrak gatazka Auzitegietan badago

Salbuespen mota hau justiziaren independentzia eta funtzionamendu zuzenaren berme modura planteatzen da. Horrek esan nahi du prozesua amaitu bada herritarrek in-gurumen-informazioa eskuratu ahal izango dutela, are gehiago kontuan hartuta justizia-jardueren publikotasuna beharrezkoa dela. Beste aldetik, gainerako albuespenak bezala, modu murriztuan eta arrazoituan ulertu behar da, justiziaren funtzionamendu egokiaren berme gisa. Informazio mugatzeak zertan eragin diezaiokkeen independentziari justifikatu beharko da, beraz.

8.12. Merkataritzako eta industriako izaera duten datuak konfidentzialak badira eta legean hala xedatuta badago

Salbuespen hau, informazioaren eskuragarritasunari dagokionez, arrazoizkoa da, baina bada arazorik: merkataritzako eta industriako datu konfidentzialak zer diren zehaz-tea. Beste arau batzuek datuen konfidentzialtasunari buruzko zenbait esparru ezartzen

dituzte; gure kasuan konfidentziasunak merkataritzako eta industriako izaera duten datuen konfidentziasunari egiten dio erreferentzia. Hala ere, konfidentziasuna, lehen ere esan dugun bezala, kontzeptu juridiko zehaztugabea da, eta, gainera, merkataritzako eta industriako izaera duten datuei bakar-bakarrik aplikatzekoa da, ez beste mota batzuetakoei. Begi bistan da zergatik ezarri den halako araua. Nahitaezkoa da lehia askea bermatzea merkatu-ekonomia batean, eta enpresa-jarduerari ezin zaio kalterik eragin zenbait datu jakitera emateagatik; datu horiek, gainera, lehiaren izaera edo lehiaren osagai dira, hain zuzen ere.

Mota horretako kasu bat noiz gertatzen den zehaztean datza arazoa; izan ere, arrazoi horrengatik informazioa emateari uko egiten bazaio, berariazko justifikazioa izan behar du. Horretarako, nahiz eta oraingoz halakorik ez egon, prozedura azkarra eta eraginkorra ezarri beharko litzateke justifikazio hori eman ahal izateko. Hau da, aztertzen ari garen salbuespenari dagokion kasu baten aurrean dagoela ulertzen badu enpresaren batek eta informazioa ukatzen badu, uko egite hori behar bezala tramitzeko prozedura bat da hori, eta, hala, agintari publikoak erabaki ahal izango du uko egite hori justifikatuta dagoen ala ez, arrazoi horrengatik. Alor horretan, prozedura azkarra eta eraginkorra mugatzeko elementu justifikatzailea izango litzateke. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, enpresaren batek informazioa emateari uko egiten badio, agintari publikoak behartu egin dezakeela enpresa hori informazioa ematera, eta hala egin ezean, isuna jar diezaiokeela.

**Ingurumen-
informazioa
eskuratzeko
eskubideak ezin
die kalterik
eragin jabetza
intelektual eta
industrialeko
eskubideari,
merkataritzako
eta industriako
izaera duten
datuen
konfidentziasunari
edo datu
pertsonalen
konfidentziasunari.**

8.13. Jabetza intelektual eta industrialeko eskubidearekiko errespetua

Salbuespen logikoa da, eta berariaz arautzen du jabetza intelektualaren eta industriaren eskubideei buruzko araudiak. Eskubide horiek arautzen dituzten legeek sekretua bermatzen dute, eta eskubide subjektibo perfektuak dira; eskubide horien titular direnek beren burua defendatzeko ahalmena dute, eskubide horien bidez babesten diren ondasun juridikoei buruzko informazioa norbaitek jakin nahi izanez gero eta horiei eragin diezaizketela ulertzen bada.

Baina bada jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen inguruko salbuespenik ere, eta kontuan izan behar da jabetza intelektuala bera zehazten duen araudia dugula, baitetik, eta industriako izaera duten datuen inguruko eskubideak ditugula, bestetik, patentee-kin eta marka-izenekin zerikusia duten eskubideak, esate baterako. Muga horren norainokotasunari dagokionez, eskubide horiek duten esanahiaren araberkoa izango da, jakina. Eskubide horiek babesteak ez du inolako zentzurik, eskubide horien titular denak baimena ematen badu informazioa jakitera emateko.

8.14. Datu pertsonalen konfidentziasuna

Pertsonen intimitatea bermatzea da arauaren helburua. Eta ez du baieztapen orokorra bakarrik egiten, baizik eta eskubide hori zehazteko dugun berariazko araudiak ezarritakoa hartzen du kontuan intimitatearen edukia jakiteko; hau da, kontuan hartzen du 15/1999 Lege organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. Hortaz, lege horretan xedatutako intimitaterako eskubideari buruzko araudiak ezarritakoa hartu behar da aintzat alor horretan.

Herritarrek, oro har, 30/1992 Legearen arabera, zenbait eskubide dituzte administrazioen erregistroetan eta artxibategietan biltzen den informazioa eskura izateko. Lege-testu horren arabera: «Titularrez gain, bidezko eta zuzeneko interesa agertzen dutenek ere izan dezakete irispidea zuzenbidea aplikatzeko prozeduretarako agiri izendunetara, zehatzeko eta diziplinazko prozeduretaoetara izan ezik, pertsonen bizitza pribatuei buruzko daturik agertzen ez bada, eta, agiri horietako edukien arabera, herritarrak beren eskubideez baliatuzko erabil badaitezke» (30/1992 Legearen 37.3. art).

Pertsona juridikoei eta horientzat lan egiten dutenei buruzko datu pertsonalen tratamendua ez dago aipaturiko Lege Organikoaren eraginpean. Datu horiek pertsona juridikoen

edo horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen identitateari, helbideari edo egoitza sozialari buruzkoak dira. Baina, pertsonen informazioa duten datuek eta pertsona juridikoenak ez diren datuek legearen babesaren dute, datu pertsonalei buruzko araudiarena, hain zuzen ere. Pertsona juridikoek intimitaterako eskubidearen babespean egon litezke. Adibide modura egoitzaren bortxa-ezintasuna dugu. Hala ere, gainerako oinarrizko eskubideen antzera, bada muga bat: bestelako ondasun juridiko batzuekiko errespetua, bestea bezain duinak direnak eta babesaren behar dutenak⁸. Esate baterako, pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa arriskupean badaude intimitaterako eskubideak lehentasuna eman behar die.

8.15. Informazioa borondatez eman duten beste pertsona batzuen interesak babestea

Horrek esan nahi du agintari publikoak eskatutako informazioa borondatez eman duela beste pertsona batek, nahi eta informazioa emateko betebeharrak ez duen, indarrean dagoen araudiaren arabera. Kontuan izan behar da informazioa emateko betebeharrak ez duela; izan ere, bestela, arau horrek ez luke zentzurik izango. Informazioa emateko betebeharrak badago, ezin da borondatezkoa delako aitzakia izan informazioa eskuratzeari uko egiteko. Halako kasuetan informazioa ez bada eskuragarri jartzen, justifikazioa beste pertsona hori babestea izango da, esate baterako, bere identitatea jakitera ematea ez delako egokia. Edo beste pertsona horren interesak babestu nahi badira, adibidez, emandako informazioa bere aurka erabiltzea eragotzita. Muga horiek agintari publikoak berak adierazi behar ditu, eta behar bezala justifikatu behar du datu horiek borondatez eman direla, horretarako inolako betebeharrak juridikorik izan gabe, indarrean dagoen araudiaren arabera. Jakina, informazioa borondatez eman duen pertsona horrek baimena ematen badu datu horiek jakinarazteko, salbuespenak ez du zentzurik.

Ezin da ondoko informazioa eskuratu: mehatxupean dauden espezieen kokalekuari buruzkoa edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzkoa, horiek jakinarazteak haien existentzia arriskuan jar badezake.

8.16. Ingurumenaren babesa eta, bereziki, mehatxupean dauden espezieen kokalekuari edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzko informazioa

Legeak berak xedatzen du eta erabat logikoa da; izan ere, ingurumenari buruzko informazioa eskuragarri izateko eskubideak ezin du eragin, hain zuzen ere, ingurumenaren babesaren aurka erabiltzea informazioa. Horrenbestez, ingurumenaren babesa, informazioa eskuragarri izateko eskubidearen salbuespenatzat ezartzen du azken erregulazioak. Hona hemen eskuragarri ez dagoen informazio-mota: mehatxupean dauden espezieen kokalekuari buruzkoa edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzkoa, horiek jakinarazteak haien existentzia arriskuan jar badezake.

8.17. Uko egitea modu murriztailean interpretatu behar da beti

Interesa dutenek ingurumenari buruzko informazioa eskatu eta ez bazaie ematen, ez emate hori modu murriztailean interpretatu behar da beti. Horrek esan nahi du informazioa eskuragarri izateko eskubideak toki nagusia duela ordenamendu juridikoan, eta, halaber, hori hala izan dadin botere publikoen jarrerak eta eskubidearen norainokotasunari eta garrantziari buruz egiten den interpretazioak eskubide horren aldekoa izan behar duela.

Eskubideren baten edukia zertan datzan ezarri behar denean, beti izaten da arazoa hura justifikatzea edota haren norainokotasuna eta garrantzia neurtzea. Informazioa eskuragarri izateko eskubideari baldintzak edo mugak ezartzeko, lehenik eta behin, nahitaezkoa da arauen batek ezartzea zer muga aplikatuko zaion eskubideari. Eta bigarrenik, muga horrek egokia eta proportzionala izan behar du ondasun publiko hori babesteko, informazioa eskuragarri izateko eskubidea murrizten baitu.

⁸ Konstituzio Auzitegiaren 208/2007 Autoa, 3. OJ.

Agintari publikoak eskatutako informazioa, zati bat edo osorik, ematen ez badu, informazioa ez emateko zer arrazoi dituen adierazi behar dio eskatzaileari.

8.18. Ingurumenera egiten diren emisioei buruzko informazioa ezin izango da ukatu

Informazioa eskuragarri izateko eskubideari ezartzen zaizkion zenbait muga ez dira baliagarriak. Esate baterako, agintari publikoen prozeduren konfidentzialtasuna, merkataritzako eta industriako izaera duten datuen konfidentzialtasuna, datu pertsonalen konfidentzialtasuna, borondatez datuak eman dituen beste pertsona baten interesak edo haren babes, eta ingurumenaren babesa, ezin dira aplikatu ingurumenera egiten diren emisioei buruzko informazioa bada interesatuak jakin nahi duena. Halako kasuetarako, arauak argi eta garbi zehazten du ingurumenera egiten diren emisioei buruzko informazioa jakiteko eskubidea dutela eskatzaileek, eta aipatutako muga edo baldintza horiek ez direla muga izango herri-tarrek duten eskubide horretarako (27/2006 Legearen 13.5. artikulua).

8.19. Eskatutako informazioa ukatzen bada, erabakia hartu duen administrazioak berariaz adierazi behar du

Agintari publikoak eskatutako informazioa, zati bat edo osorik, ematen ez badu, informazioa ez emateko zer arrazoi dituen adierazi behar dio eskatzaileari, eta, gainera, arauak berak ezarritako epearen barruan jakinaraziko dio eskatzaileari; hau da, hilabeteko epean edo bi hileko epe bereziaren barruan, informazio-bolumenak eta informazioaren konplexutasunak hala eskatzen badu. Legeak argi eta garbi ezartzen dio betebeharrak agintari publikoari, eta, horrela, informazioa emateko duen betebeharrak betetzen ez duenean —informazioa ukatzen duenean—, zehatz-mehatz justifikatu beharko du zergatik ez duen informazio hori eman. Eta hala egin behar du, gainera, informazioaren zati bat ematen ez badu zein osorik ematen ez badu.

8.20. Kasu berezia: informazioaren zati bat jakinaraztea

Xedatuta dago, halaber, agintari publikoen esku dagoen edo haren izenean beste norbaitek duen ingurumenari buruzko informazioaren zati bat bakarrik jakinaraz diezaioke-ela eskatzaileari. Hau da, posible baldin bada informazioaren testua bereiztea prestatze bidean dauden dokumentuen edo bukatu gabe dauden materialen prozeduratik —agintari publikoak mota horretako informazioa emateari uko egin diezaioke— zati horren berri emango dio; modu berean aplikatuko da salbuespen hori, agintari publikoaren barne-komunikazioari buruzko informazioa denean —interes publikoagatik jakinaraztea komeni ez delako— eta konfidentzialtasun-arrazoi guztiengatik eta zortzigarren atalean aztertu ditugun gainerako guztiengatik uko egiten denean. Egoera horietan, agintari publikoak informazioa, zati bat edo osorik, bereizi badezake, bereizi egin behar du, informazioa eskatzen dutenek informazioa eskuragarri izateko duten eskubidea erabil dezaten.

HIRUGARREN KAPITULUA

PARTE-HARTZEA

AURKIBIDEA

1. PARTE-HARTZEAREN EZAUGARRIAK	75	4. PARTE-HARTZEA, INGURUMENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARAUAK EGITEKO PROZEDURETAN	91
1.1. Benetakoa eta eraginkorra	75	4.1. Izaera orokorreko xedapenak egiten, aldatzen eta berrikusten parte-hartzeko eskubidea	91
1.2. Publikoari buruz	76	4.2. Urak babesteko alorrean	92
1.3. Planak, programak eta xedapen orokorrak	77	4.3. Zarataren aurkako babesak	92
1.4. Egin, aldatu eta berrikusi	77	4.4. Lurzoruen babesak	93
1.5. Parte-hartzea beharrezkoa den plan eta programak, Legeak adierazita	78	4.5. Atmosferaren kutsadura	93
1.6. Parte-hartzea uraren arloko plan eta programetan, eta ingurumen-ebaluazioa behar dutenetan	78	4.6. Landa-eremuko eta hiri-eremuko lurraldearen antolamendua eta lurzoruen erabilera	93
1.7. Xedapen orokorrak	80	4.7. Naturaren eta biodibertsitate biologikoaren zaintza	94
1.8. Parte hartzeko eskubidearen salbuespenak defentsaren eta larrialdietako babes zibilaren esparruko xedapenak egiteko prozeduretan	80	4.8. Mendiak eta basoen ustiapena	95
1.9. Lan-arriskuen berezitasuna	81	4.9. Hondakinen kudeaketa	95
2. INFORMAZIOA BIDALTZEKO MODUA ETA BITARTE-KOAK	82	4.10. Produktu kimikoak, biozidak eta pestizidak barne	96
2.1. Plan-proposamenei eta bestelakoei buruzko jakinarazpenak eta beste bitarteko batzuk	82	4.11. Bioteknologia	96
2.2. Informazio egokia eta ulergarria	82	4.12. Beste emisio batzuk	97
2.3. Berezik, parte hartzeko eskubideari buruzko informazioa	83	4.13. Ingurumenean substantziak isuri eta aireeratzea	97
2.4. Zein administrazio publikotan aurkeztu behar diren iruzkinak eta alegazioak	83	4.14. Ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioa	97
2.5. Oharrak eta alegazioak aurkezteko unea: erabakia hartu aurretik, artean aukera guztiak zabalik daudenean	83	4.15. Informazioa eskuratzea, parte-hartze publikoa eta epaitzietara jotzea	98
2.6. Parte-hartzearen emaitza kontuan hartu behar da erabakia hartzeko	84	4.16. Autonomia-erkidegoetako araudietan ezarritako gainerako arloak	98
2.7. Hartutako erabakiak eta erabaki horiek hartzeko izan dituzten arrazoiak eta egindako gogoetak jakinarazi behar zaizkie herritarrei	84	4.17. Parte-hartzearen inguruko arau bereziak, lan-arriskuen prebentziorako planetan	98
2.8. Parte-hartze publikoari eta haren esanahiari buruz informatu herritarrek	85	4.18. Aplikazio-salbuespenak zenbait gaitan; esate baterako, defentsa, segurtasun publikoa, babes zibila eta larrialdiegoerak edo itsasoan diren pertsonen salbamendua	98
2.9. Herritarren artean interesdunak nortzuk diren zehaztea	85	4.19. Funtsezkoak ez diren xedapenen inguruko salbuespenak, izaera antolatzailea, prozedurazkoa edo antzekoa dutelako, baldin eta babes-neurriak murriztea eragiten ez badute, betiere	99
2.10. Estatuko 27/2006 Legeak parte-hartzerako dituen aurrerikuspenez ez diete eragiten parte-hartzeko tresnak eta eskubideak zabaltzen dituzten autonomia-erkidegoetako arauak	85	4.20. Helburu bakarra planak eta programak onartzea duten izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura	99
3. PARTE-HARTZEA BERE BAITAN HARTZEN DUTEN PLANAK ETA PROGRAMAK	87	5. KAUTELA-NEURRIAK HARTZEKO AUKERA	100
3.1. Hondakinak	87	5.1. Jardueren ingurumen-eraginaren ebaluazioa	100
3.2. Pilak eta metagailuak	87	5.2. Ingurumen-baimen bateratua	100
3.3. Nitratuak	87	5.3. Parte-hartzea bioteknologiaren alorrean	101
3.4. Ontziak eta ontzien hondakinak	88	5.4. Jarduera-lizentziak	102
3.5. Airearen kalitatea	88	5.5. Jabari hidrauliko publikoa ustiatzeko eta jabari horretan isurketak egiteko prozedurak	102
3.6. Autonomia-erkidegoetako araudiak ezarritako gainerako arloak	89	5.6. Hondakinak ekoitzei eta kudeatu	102
3.7. Uren alorreko berezitasunak	89	5.7. Itsasaldeko jabari publikoa	102
3.8. Planen eta programen ebaluazio-prozeduretan parte-hartzea	89		
3.9. Parte-hartzetik salbuetsita dauden planak	90		

1. PARTE-HARTZEAREN EZAUGARRIAK

Parte-hartzea, garrantzi eta eduki desberdinekin, hainbat arautan jasota dagoen kategoria juridikoa da, oinarri izaera dute batzuetan eta eskubide subjektiboarena besteetan. Sarri erabiltzeak ez du esan nahi normalean aplikatzen den kategoria juridikoa denik. Zenbaitetan estilo klausula besterik ez da, eta betetze ezak ez du inolako ondorio juridikorik izaten. Hori dela eta, Aarhus-eko Hitzarmenak zehatz adierazten du parte-hartzeak, horrelakotzat hartuko bada, zenbait baldintza edo betebeharrak eskatzen duela, erreal eta benetakoa izatetik hasita.

1.1. Benetakoa eta eraginkorra

2003/35 Zuzentarauaren «kontuan hartuz» izeneko 3. puntuaren arabera, herritarrek benetan parte hartzen dutenean erabakiak hartzen, baliagarriak izan daitezkeen iritzia eta zalantzak adierazteko aukera dute, horiek kontuan har ditzaten agintari erabakitzaileek; horrez gain, erabakiak hartzeko prozesuaren erantzukizuna eta gardentasuna bultzatzen da. Bestalde, lagungarria da herritarrek ingurumenaren alorreko arazoez kontzientzia izan dezaten, eta, gainera, hartutako erabakien inguruan jendearen oniritzia lortzen ere laguntzen du. Parte-hartze erreal ikuspegi desberdinetik analiza daiteke. Lehenik eta behin, ingurune fisikoko elementuei eragiten dieten prozedurei buruz egokiak iruditzen zaizkien alegazioak egiteko aukera eman behar zaie herritarrei; bigarrenik, parte hartzeko prozeduraren bat ezarriz gero, lagungarria izan daiteke gizakiaren esku-hartzeak ingurunean eragin ditzakeen arazoei buruz herritarrek kontzientzia har dezaten; eta azkenik, benetako parte-hartzeak berekin dakar behar adina informazio ematea herritarrei, beren eskubideak eta interesak defenda ditzaten.

Parte-hartze eraginkorrari dagokionez, nabarmentzeko modukoa da legegileak ez dituela bide formalak soilik ematen iritzia edo iradokizunak adierazteko; izan ere, ingurumenaren alorrean hartzen diren erabakiek, planek edo arauak kontuan hartu behar dituzte, ahal den neurrian, parte-hartzeko tramitean izandako emaitzak —azken alderdi hori, legeak berariaz ezarritakoa da—. Horrez gain, hartutako erabakiak eta erabaki horiek hartzeko izan dituzten arrazoiak eta egindako gogoetak jakinarazi behar zaizkie herritarrei, parte-hartze publikoaren prozesuari buruzko informazioa barne. Horrek esan nahi du Administrazioak alegazio batzuk ez baditu onartzen, plana edo programa onartzeaz arduratu den Administrazioak berariazko arrazoiak eman behar dituela hori justifikatzeko.

Parte-hartze eraginkorra da sistema demokratikoaren oinarritzko zutabeetako bat. Konstituzio Auzitegiak adierazitakoaren arabera, parte hartzeko tramiteen, informazio publikoaren eta herri-kontsulten helburua hau da: herritarrek legitimitatea ematea, nolabait, administrazio-jarduerari. Ingurumenaren alorrean hartzen diren erabaki publikoei nolabaiteko babesa eman behar diete herritarrek⁹.

Bestalde, parte-hartzearen berezko bi ezaugarri horiek ondoko prozedurentzako ere ezartzen ditu arauak: planak eta programak onartzea helburu duten prozedurentzat, eta ingurumen-baimenak ematea helburu duten prozedurentzat.

Honako hauek dira Administrazio publikoek prozedurak tramitzeko unean betearaziko dituzten gutxieneko betekizunak:

- **Erabaki behar den gaiari buruzko informazioa eman, baita parte hartzeko eskubideari zein hori baliatzeko moduari buruzkoa ere.**
- **Interesdunak entzun eta euren iritzia kontuan hartu prozeduraren hasiera-hasierako faseetan.**
- **Azkenean hartutako erabakia justifikatu eta parte hartzeko tramitea zelan burutu den informatu.**

⁹ Konstituzio Auzitegiaren 119/1995 epaia, 4. OJ

Edozein pertsonak du parte hartzeko eskubidea baldin eta erabakiak kalteak eragingo dizkien interes legitimoak baditu. Gainera interesdun pertsonaren estatusa du eta horrek, parte-hartzearen zenbait mailatan eskubide osagarriak ematen ditu.

Edonola ere, ingurumena babestea helburutzat duten irabazi asmorik gabeko erakundeak pertsona interesdunak dira.

Honako hauek hartzen dira interesduntzat: 30/1992 Legearen 31. artikuluan xedatutako egoeretan dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiak, eta 27/2006 Legearen 23. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko guztiak.

Parte-hartze erreal eta benetakoa praktikan jarriko da ondokoak onartzen diren administrazio-prozeduretan:

1. Planak eta programak.
2. Ingurumenari buruzko xedapen orokorrak.
3. Ingurumenarekin loturiko jarduera jakin batzuk, hala nola, proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioak, ingurumen-baimen bateratuak, jarduera-baimenak, eta abar.

Beraz, hiru arlotan zehatz daitezke parte-hartzearen ezaugarriak:

- a) Planak eta programak egin, aldatu eta berrikustea.
- b) Xedapen orokorrak egin, aldatu eta berrikustea.
- c) Administrazioaren betearazte-jardueretan parte hartzea.

Parte-hartzea erreala eta benetakoa izatea Plan eta Programen baterako ebaluazioaren Lege berrian islatzen da, izan ere, lege horretan kontsulta tramite bat aurreikusten da proiektua edo planaren aurrerapena idatzi baino lehenagoko ingurumen-ebaluazioaren prozeduran. Tramitazioaren hasiera-hasierako faseetan halako bide bat aurreikusteak herritarren estatusa hobetzea dakar, agintari publikoen nahia eta geroagoko erabaki baten ñabardurak aski lehenago jakingo baitituzte.

1.2. Publikoari buruz

Aarhus-eko Hitzarmenak publiko moten arteko bereizketa egiten du: publikoa, orokorrean, eta interesa duen publikoa. Lehendabizikoei dagokienez, pertsona fisiko edo juridiko bat edo batzuk izan daitezke, eta, herrialdearen legediaren edo ohituren arabera, pertsona horiek eraturako elkarteak, erakundeak edo taldeak ere izan daitezke. Bigarreni dagokienez, berriz, ingurumenaren alorrean hartutako erabakiek kaltea eragiten edo eragin diezaieketen pertsonak dira edo, halaber, interesen bat babestu nahi dutenak erabakiak hartzeko unean. Ingurumena babestearen alde lan egiten duten eta, aldi berean, barne-zuzenbideak ezarritako baldintzak betetzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeak lirateke, besteak beste, interesdunak (2.4. eta 5. artikulua).

27/2006 Legean pertsona fisiko edo juridiko oro hartzen da publikotzat, bai eta aplikagarri zaien araudiak ezarritakoari jarraiki haiek eraten dituzten elkarteak, erakundeak eta taldeak; hitzarmenak ere antzeko definizioa egiten du. Baina interesa duten pertsonen buruzko atalean, legeak xehetasun handiz ezartzen du kontzeptu horren baitan sartzen diren pertsonak eta erakundeak. Hain zuzen ere, hauek hartzen dira interesduntzat: 30/1992 Legearen 31. artikuluan xedatutako egoeretan dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiak, eta 27/2006 Legearen 23. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko guztiak.

Alde batetik, interesdunaren baldintzak ezartzen dituen araua administrazio-prozedura guztietan aplikatu behar da. Eta bestetik, hau da pertsona juridiko interesduna izateko baldintza: ingurumena orokorrean edo ingurumeneko elementuren bat babestea helburuetako bat dela egiaztatuta edukitzea estatutuetan. Azken horiei dagokienez, ekintza abian jarri baino bi urte lehenago, gutxienez, legeak ezarritakoaren arabera eraturakoak izan behar dute, eta, horrezaz gain, estatutuetan adierazitako helburuak lortze aldera beharrezkoak diren jarduerak modu aktiboan gauzatu behar dituzte. Halaber, estatutuetan ezarritakoaren arabera, hau ere ezinbestekoa da: administrazioaren ekintzak —edo administrazioaren ezegitea ere izan daiteke— ondorioak eragingo dituen lurralde-eremuan garatu behar dituzte jarduerak.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berariaz goraiatu zuen GKE-en lana, eta adierazi zuen horien eginkizuna funtsezkoa dela gizarte demokratikoetan¹⁰. Aarhus-eko Hitzarmena hitzez hitz aplikatuz gero, ez dirudi inolako arazorik egongo litzatekeenik

¹⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, 2004ko maiatzaren 27koa, *Aizsardzibas* v. Letonia, 42. paragrafoa.

GKE-ek prozeduretan parte hartzeko nahiz eta planak edo ekintzak eragiten duen lurralde-eremuan ez garatu jarduerak.

Euskal Herriaren kasuan azpimarratzekoa da parte-hartzea pertsona orori aitortzen zaiola, hortaz, Aarhus-eko Hitzarmenak ez du aurrerapenik ekartzen euskal antolamendu juridikora.

1.3. Planak, programak eta xedapen orokorrak

Jarduera publiko edo pribatu baten eredu sistematikoak dira planak, eta aurretik egiten dira, gerora, jarduera horiek zuzentzeko eta bideratzeko. Esku-hartze horiek ingurumenari eragiten dioten alderdiei buruzkoak izan behar dute —aurreragoko atal batean azalduko ditugu horiek—. Batzuetan, planek arauzko izaera juridikoa izaten dute, eta «xedapen orokorra» adieraren oso antzekoak dira. Esate baterako, hirigintzako planek lurralde eremu bateko lurzoruaren erabilerak arautzen dituzte, eta administrazioek eta jabeek nahitaez betebeharreko zenbait arau ezartzen dituzte. Beste batzuetan, ordea, zenbait gida eta jardunbide har ditzake bere baitan planak, eta horiek ez dira betebeharrekoak. Horren haritik, Hondakinei buruzko Plana Nazionalak —27/2006 Legeak ematen dituen parte-hartzeko eskubideak erabil daitezkeen ekintzat hartzen dira— ez ditu arau juridikotzat hartu Konstituzio Auzitegiak; beraz, baieztatu daiteke erakundeen arteko koordinazio-ereduak edo eremu autonomikoetan hondakinei buruzko planak egiteko argibideak ematen dituztela.

Proiektu bat abian jartzeko beharrezkoak diren jarduera-segida ordenatu bat dute oinarri programek. Horien adibide adierazgarri dira hidrologia-alorreko programak; agintari publikoek bultzatzen dituzte, eta ura eraginkortasunez aprobetxatzeko jarduerak sustatzen dituzte. Izaera malgua duen tresna da programa, eta pixkanaka-pixkanaka garatzen da; horrela, arrotan gerta daitezkeen aldaketa eta beharretara edukiak egokitzea errazagoa da. Badira beste adibide adierazgarri batzuk ere; esate baterako, kutsaduraren aurka borroka egiteko programak edo hondakinak kudeatzeko programak.

Planek, programek eta xedapenek ingurumenarekin zerikusia izan behar dute, baina horrek ez du esan nahi ingurumeneari eragina izan behar dutenik. Plan edo programa baten eta ingurumenaren arteko harremana, hortaz, ingurumenari buruzko definizioaren arabera ezarri behar da. Nolanahi ere, zalantza argitzen saiatzen da 27/2006 Legea bera gerorako arauetan; izan ere, arau horien bidez zehazten da, hain zuzen, zer plan- eta xedapen-mota egiteko prozedurek duten parte hartzeko eskubidearen betebeharra.

Plan eta programa hauek arautzen dituen araudia laburbilduta, honako kasuotan izango da parte-hartzea:

1. 27/2006 Legeak adierazitako prozedurari jarraituta, parte-hartzea ezinbestekoa den plan eta programetan (27/2006 Legea, 17.1 artikulua).
2. Uraren araudiko parte-hartzea arautzen duten berariazko aurreikuspenetara igortzen denetan, baita ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten plan eta programetan ere (27/2006 Legea, 17.2 artikulua).
3. Helburu bakarra defentsa nazionala edo larrialdietako babes zibila duten plan eta programak kanpo geratzen dira.

Plan eta programek parte-hartzeko baldintzak bete behar dituzte aurreikusi diren egite-, aldatze- eta berrikuste-faseetan.

1.4. Egin, aldatu eta berrikusi

27/2006 Legeak xedatutako parte-hartzeko eskubidea plan edo arau batek izaten dituen fase edo gorabehera guztietan erabil daiteke. Legeak egitea, aldatzea eta berrikustea aipatzen ditu, baina gero ez ditu termino horiek zehazten. Parte-hartzea arauak egiteko fase guztietan beharrezkoa dela gogoraraztea zen legelariaren asmoa, horrela fase edo egoera horien izenak ez dira aitzakiatzat hartuko parte-hartzea ukatzeko. Plan eta programen

Agintari publikoen betebeharrak honako hauek dira: zehaztu publikoko zein den interesduna; plan, programa edo arauen proposamenak jakinarazi behar dizkiote publikoari; eta proposamen horiei buruzko informazioa eskuragarri jarri behar dio publikoari, baita, parte-hartzeari buruzko informazioa eta alegazioak aurkezte aldera, administrazio publiko eskudunari buruzkoa ere.

Uraren arloko plan eta programetan publikoak parte hartzea, eta ingurumeneari izango duten eraginaren ebaluazioa behar duten parte hartzea horietako bakoitzaren berariazko araudian xedatutakora igortzen du 27/2006 Legeak

ekoizte-prozesuaren beste izen batera jotzea lege-iruzurra litzateke baldin eta, horren ondorioz, parte-hartzea ez dela beharrezkoa baieztatuko balitz.

1.5. Parte-hartzea beharrezkoa den plan eta programak, Legeak adierazita

27/2006 Legean adierazitako planetan eta programetan parte hartzeko bermeak zaintzen direla ziurtatuko dute Administrazio publikoek. Hain zuzen ere, arlo hauei buruzkoetan:

- a) Hondakinak.
- b) Pilak eta metagailuak.
- c) Nitratoak.
- d) Ontziak eta ontzien hondakinak.
- e) Airearen kalitatea.
- f) Autonomia-erkidegoetako araudiak ezarritako gainerako arloak.

Berariazko adierazpen honek zenbait ulertze-arazo sor ditzake. Adibidez, uraren arloan eta ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa behar duten plan eta programen kasuetan Legeak dio parte-hartzea horietako bakoitzaren berariazko araudian erregulatuko dela. Galdera bat sortzen da orduan: bada aipatu gabeko bestelako plan edo programarik, ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa behar ez duenik edo uraren arlokoa ez denik? Kasu horretan ez litzateke aplikatuko 27/2006 Legea, baina bai dena delako gaian parte-hartzea erregulatzen duen araua edo administrazio-araudi orokorra.

Uren inguruko gaian parte-hartzeari dagokionez, 62/2003 Legeak xedapen gehigarri bat erantsi dio Uren Legearen Testu Bateratuari,¹¹ eta, horren bidez, herritarrek parte hartzeko dituzten epeak zehazten dira. Plan hidrologikoren bat berrikusteko edo onartzeko prozedurari ekin baino hiru urte lehenago, plana egiteko lan-egutegi eta lan-programa bat aurkeztu behar da, eta kasuan-kasuan erabiliko diren kontsulta-moduak ere adierazi behar dira. Prozedurari ekin baino bi urte lehenago, uren kudeaketaren alorrean, arro hidrografiko horretarako proposatzen diren gai garrantzitsuenen behin-behineko eskema aurkeztu behar da. Plana berrikusi edo onartu baino urtebete lehenago, Arroko Plan Hidrologikoaren proiektua eskuragarri egongo da. Oharrak idatziz aurkezteko epea, gutxienez, sei hilabetekoa izango da.

Zenbait arau teknikoak direnez eta ulertzea zaila izan daitekeenez —bai eta proiektu teknikoak ere—, oso garrantzitsua da dibulgazio- eta informazio-lana egitea.

1.6. Parte-hartzea uraren arloko plan eta programetan, eta ingurumen-ebaluazioa behar dutenetan

Arroetako erakundeek edo eskumena duten administrazioek parte-hartze publiko eraginkorra sustatzeko antolaketa- eta prozedura-proiektua egingo dute¹². Plan hidrologikoak egiteko prozesuak bere gain hartuko ditu 27/2006 Legean ezarritako baldintzak; batez ere, plangintza-prozesuan funtsezko informazioaren emate aktiboari dagozkionak¹³. Bestalde, plan hidrologikoei ingurumenaren ebaluazio estrategikoa egin behar zaie; hortaz, lehen aipatutako informatzeko fase horiek erantsi direnez, parte-hartzea gehiago babesten da¹⁴. Horrenbestez, fase hauek bereizten dira egite-prozesuan: informazioa eskuragarri jartzekoa, herritarrei kontsulta egitekoa eta parte-hartze aktiboa.

Zenbait arau teknikoak direnez eta ulertzea zaila izan daitekeenez —bai eta proiektu teknikoak ere—, oso garrantzitsua da dibulgazio- eta informazio-lana egitea. Herritarrei egin beharreko kontsultari dagokionez, halaber, erregelamenduak dio informazioak eskura-

¹¹ Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua

¹² 907/2007 Errege Dekretuaren 72.2. artikulua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrologikoaren Araudia ezartzen duena. Aurrerantzean, PHA.

¹³ PHAren 73. artikulua.

¹⁴ PHAren 71.6. artikulua.

garri egon behar duela bai paperean, bai formatu digitalean. Parte-hartze aktiboari dagokionez, bestalde, Administrazioak aurretik zehaztu dituen herritarrez eta erakundeez gain, gizarte osoak parte hartzea da helburua. Hortaz, foroak eta lan-taldeak eratzeko aukera ematen da; horietan, alderdi interesdunetz gain, izen handiko pertsonak eta uren arloan esperientzia handia duten adituek ere parte hartu ahal izango dute, plan hidrologikoak egiteko prozesuari buruzko aholkuak eman ditzaten.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan 1/2006 Legea, urena, hartu behar da kontuan (Ikusi 4.2 atala).

Plan eta programen baterako ebaluazioari dagokionez, lehen aipatu dugun 9/2006 Legearen arabera, planak eta programak arautzen dituen legediak nahitaez ezarri behar du planak egiteko eta onartzeko aplikatzen den administrazio-prozeduran, ingurumen-ebaluazioerako prozesu bat, erakunde sustatzaileak ingurumenaren alorreko alderdiak erants ditzan. Xedatutako tramite horietako bat kontsultak egitea da; kontsulta horien emaitzak ebaluazio-espeditentean erantsiko dira. Horrezaz gain, plana edo programa onartzearen inguruko informazioa ere jakinarazi behar du (9/2006 Legea, 7.1. artikulua).

Planaren edo programaren aurre-bertsioari buruzko kontsulta-fasean, aurre-bertsio hori herritarren esku jarri behar da, eta, kalteak eragiten dieten agintari publikoei eta interesdun herritarrei kontsultatuko zaie; horiek, gutxienez, 45 eguneko epea izango dute aurre-bertsioa aztertu eta horren inguruan oharrak egiteko (9/2006 Legea, 10.1. artikulua). Ingurumenari buruzko memorian —ebaluazio-prozesua aztertzea du helburu memoriak—, egindako kontsulten emaitzen balorazioa jasoko da (9/2006 Legea, 12. artikulua). Lehen ere aipatu bada ere, 27/2006 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dauden planak baterako ebaluazioko prozeduran erantsiko dira, eta, zenbaitetan, bat etorriko dira. Ez ahaztu baterako ebaluazioaren kasuetan parte hartzeko aplikatu beharreko arauak 9/2006 Legea eta 183/2003 Dekretua direla.

Herritarrek informazioa eskuragarri izatea funtsezkoa da, parte-hartzea aktiboa izan dadin. Aarhus-eko Hitzarmenean aurretiazko faseetan parte hartzeko beharra kontuan hartzen ez bada ere, proiektuaren berri aurretiaz izanez gero, herritarrek informazio gehiago bildu ahal izango dute eta hobeto aholkatuta egongo dira. Horrezaz gain, ez dugu oso ondo ulertzen zergatik dauden planen araberrako araudiak, parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izan dadin Aarhus-eko Hitzarmenak ezarritako baldintzak zein diren ikusita.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan honako plan hauek behar dute ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa (Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretua, 3. artikulua):

- a) Lurraldeko Zati-planek.
- b) Lurraldeko Arlo-planek eta lurraldean eragina duten bestelako plan eta programek. Horien barruan lurralde historikoetako erakundeek beren eskumenekoak diren gaietan egindako lurralde-planak ere sar daitezke. Errepideak, adibidez.
- c) Hiri Antolamendurako Plan Nagusiek eta horien aldaketek lurzoru urbanizaezinei eragiten dietenean.
- d) Plangintzako arau subsidiarioek eta horien aldaketek lurzoru urbanizaezinei eragiten dietenean.
- e) Plan bereziak eta horien aldaketek lurzoru urbanizaezinei eragiten dietenean.

Ondoko gaietako buruzko planek ere eraginaren baterako ebaluazioa behar dute: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza, energia, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, telekomunikazioak, turismoa, edo lurzoruaren erabilera eta natura-baliabideak. Horrezaz gain, ingurumen-eraginaren ebaluazio prozeduraren bat beharko duten proiektuak baimentzeko markoa ezarri behar dute, indarrean dagoen legeriari jarraituta (Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretua, 4. artikulua). Geroago, baterako ebaluazioa behar duten planak aipatuko dira.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren 2/2006 Legeak, lurzoruarenak, horrelako planak onartzeko prozeduretan parte-hartzeari buruz ezartzen duena (95. artikulua eta hurrengoak). Hain zuen ere, udalak programa bat egin behar du publikoak parte har dezan. Programa hori ekimenarekin edo hasierako proiektuarekin aurkeztu behar da. Behar hori honako planen onartze-prozeduretarako aurreikusitako da: antola-

Proiektuaren berri aurretiaz izanez gero, herritarrek informazio gehiago bildu ahal izango dute eta hobeto aholkatuta egongo dira.

mendu plan nagusiak, zati-planak eta plan bereziak –hiri antolamendurako plan bereziak izan ezik-. Parte hartzeko mekanismo hau planen baterako ebaluazioetako jendaurrean jarzkeko epearekin batera antolatu behar da.

Ingurumenari buruzko parte-hartzea denean aplikatu beharreko araua 27/2006 Legea da, betiere.

Kontraesanik ez dagoen bitartean ingurumenari buruzko euskal Legean eta ingurumenari buruzko arlo-xedapenetan parte-hartzeari buruz araututakoa aplikatu behar da

Xedapen orokorrak egitea erregulatzen duen araudia horren aurreko araudiak erregulatzen ez dituen arloetan ere aplikatu behar da.

1.7. Xedapen orokorrak

Komeni da kontuan hartzea lege-mailakoak ez diren arauetan bermatzen dela herri-tarren parte-hartzea. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako ganbera legegileen erregelamenduek xedatzen dute zer tramite bete behar diren legeak egin eta onartzeko edo xedapen orokorrak egiteko prozeduren erregulazioan, euskal legea (8/2003 Legea), esate baterako.

Arau motaren arabera, xedapen orokorrak egiteko, aldatzeko edo berrikusteko parte-hartzea eduki desberdineko arauetan zehazten da. Horrela, bada, honakoak bereiz daitezke:

1. parte-hartze orokorra, mota guztietako xedapenetarako aurreikusia;
2. ingurumen gaietako berariazko parte-hartzea, horri buruzko xedapenak direnean eta 27/2006 Legean arautua;
3. autonomiatako arlo-xedapenetan edo ingurumenari buruzko euskal legean aurreikusitako parte-hartzea.

Xedapen hauek aplikatzen direnean, honakoa hartu behar da kontuan

1. ingurumenari buruzko parte-hartzea denean aplikatu beharreko araua 27/2006 Legea da, betiere;
2. Lege hori interpretatzeko unean Aarhus-eko Hitzarmenak eta berori garatze aldera emandako ingurumen-legeriak ezarritakoari jarraituta egin behar da;
3. kontraesanik ez dagoen bitartean ingurumenari buruzko euskal Legean eta ingurumenari buruzko arlo-xedapenetan parte-hartzeari buruz araututakoa aplikatu behar da; eta
4. xedapen orokorrak egitea erregulatzen duen araudia horren aurreko araudiak erregulatzen ez dituen arloetan ere aplikatu behar da.

1.8. Parte hartzeko eskubidearen salbuespenak defentsaren eta larrialdietako babes zibilaren esparruko xedapenak egiteko prozeduretan

Defentsa nazionala, segurtasun publikoa, larrialdietako babes zibila edo itsasoan egindako giza bizitzaren salbamenduarekin soilik erlazionaturiko gaiak arautzen dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan parte hartzeari buruzkoa da salbuespen mota hau. Azpimarratu behar da arauak gai horiek soil-soilik arautu behar dituela, bestela salbuespenak ez du balio.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Eusko Jaurlaritzak da babes zibila zuzentzeko eta koordinatzeko goi-organoa eta berari dagokio ondoko plan eta xedapenak onartzea (Eusko Legebiltzarraren 1/1996 Legea, 4. artikulua):

- a) Euskadiko Babes Zibilaren Plana eta plan bereziak.
- b) Babes zibilaren arloan egiten diren xedapen orokorrak.
- c) Prebentzio eta norbera babesteko politikaren ildoak finkatzea.

Lurralde historikoen, bakoitzaren eskumenen esparruan, babes zibila gauzatzean hartzen dute parte eta honakoak dagozkie (1/1996 Legea, 6. artikulua):

- a) Bakoitzaren lurralde historikoko Babes Zibileko Plana —Euskadiko Babes Zibilaren Planak ezarritakoarekin bat etorriko dena—egitea eta onartzea.
- b) Suteen aurkako defentsan erakunde erkideetatik eratorritako legeria bete eta araudia garatu.

Udalek ere babes zibileko berriazko planak onartu ahal dituzte edo prebentzio eta norbera babesteko udal-programak -bestelako administrazioetako programekin bat etorriko direnak- egin eta bete ahal dituzte (Eusko Legebiltzarraren 1/1996 Legea, 7. artikulua).

Kasu horietan guztietan ez dira aplikatuko 27/2006 Legean ezarritako bermeak xedapen orokorrak eta planak onartzeko prozeduretan.

1.9. Lan-arriskuen berezitasuna

Zenbait gaik, ingurumen-babesarekin lotura handia dutenak, berez eragiten dituzte jarduera arriskutsuak eremu jakinetan aritzen diren langileentzat. Esate baterako, substantzia kimikoek ondorio kaltegarriak eragin ditzakete langileen osasun eta osotasun fisikoan, horien emisioak ingurumenarentzat kaltegarriak izateaz gain. 27/2006 Legeak bi alderdi horiek bereizi nahi ditu, eta lan-arriskuen alorreko berriazko araudira jotzen du, eremu horretako arauak egiteko prozedura-tramiteak arautzeko.

Horrenbestez, lan-arriskuen prebentzioari buruzko 13/1995 Legeak, xedatutakoaren arabera, prebentzio-politikaren helburua lan-baldintzak hobe daitezen sustatzea izango da, lantokian langileen segurtasun- eta osasun-babesaren maila handiagoa izan dadin (5.1. artikulua). Erregelamenduzko arauen bidez eta dagokion administrazioaren egintzen bidez gauzatu da (6.1. artikulua). Prebentzio-politikak egiten direnean, enpresariak eta langileek parte hartzen dute, enpresa-erakunde eta sindikatu nagusien bidez.

Beraz, xedapen orokorrak egiteko prozedura horiek, langileen segurtasun- eta osasun-maila hobetze aldera bideratuak, ez dira 27/2006 Legearen aplikazio-eremu objektibokoak. Horrek esan nahi du, eta demagun substantzia kimikoen erabilera eta produkzioa zehazteko araudia onartu nahi dela, lege horretan ezarritako parte-hartzeari buruzko bermeei jarraiki tramitatuko dela onespren-prozedura, baldin eta substantzia kimikoak manipulatzeko edo erabiltzeko dituzten langileen segurtasun eta osasunarekin zerikusia ez duten alderdiak bada, betiere.

Defentsa nazionala, segurtasun publikoa, larrialdietako babes zibila edo itsasoan egindako giza bizitzaren salbamenduarekin soilik erlasionaturiko gaiak arautzen dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan ez dira aplikatuko 27/2006 Legean ezarritako bermeak.

Bitarteko egokiak eskaini behar dira herritarrek baldintza bikainak izan ditzaten parte hartzeko unean.

Proposamenek izango dituzten eraginak ulertzeko moduko informazioa eskaini behar zaie herritarrei.

2. INFORMAZIOA BIDALTZEKO MODUA ETA BITARTEKOAK

2.1. Plan-proposamenei eta bestelakoei buruzko jakinarazpenak eta beste bitarteko batzuk

Parte-hartzea aktiboa izan dadin, gauzatzeko asmoa duten egintza publikoari buruzko informazio zehatza herritarren eskura jarri behar da, eta, horretarako, plangintza bat egin. Hori dela eta, eskumena duen administrazioak jakinarazpenak ezartzeko betebeharra du. Baina esaldi hori orokorregia da, eta horren bidez ez da adierazten zer bitarteko erabili behar den proposamenaren berri emateko. 27/2006 Legeak, halaber, ohartarazten du beste bitarteko egoki batzuk —edukiz gero— erabili behar direla; elektronikoak, esaterako.

«Egoki» adjektiboak esan nahi du herritarrek proposamenen berri izateko bezain aproposa izan behar duela bitartekoak. Horrenbestez, aldizkari ofizialetan edo gehien irakurtzen diren egunkarietan ohiko iragarkiak jartzeaz gain, Internet ere erabili behar da, eta, gainera, Administrazioak berak herritarrentzako jardunaldi irekiak ere antolatu behar lituzke, arau horrek benetako zentzua izan dezan. Azken batean, helburua hau da: bitarteko egokiak eskaintzea herritarrek informatzeko eta, hala, parte hartzeko baldintza ezin hobekak izan ditzaten. Aarhus-eko Hitzarmenak (5.2. artikulua) defendatzen duen informazioaren gardentasun- eta eskuragarritasun-printzipioak berekin dakartzan betebeharrak dira.

Dokumentazioa eta espedienteak eskuragarriago egongo dira, Administrazioak berak ja-kinarazten badu zer formatutan dauden horiek, zer bitarteko dauden horiek lortzeko eta, azkenik, zein den informazioa lortzeko dauden tramiteen prozedura. Gaur egun, euskarri elektronikoak herritarrentzat erabilerrazak dira, eta, bestalde, horiek eskura ditzute. Hona hemen Legeak erantsitako salbuespena: «edukiz gero»; horrek esan nahi du agintari publikoak ahalegina egin behar duela Informazio Gizartetik kanpo gera ez dadin.

2.2. Informazio egokia eta ulergarria

Herritarren esku jarri behar den informazioak egokia izan behar du; hau da, ingurumenean eragina duten planen eta programen alderdiei buruzkoa izan behar du informazioak. Horren inguruan bada arazorik, argitu egin behar baita zer den 27/2006 Legeak xedatzen duen informazioaren edukia. Plana, programa edo xedapen orokorra jasotzen duen idatziaz gain, horiek ingurumenean izango duten eraginaren ondorioen berri izan behar dute herritarrek eta ondorioen esanahia ere ulertu behar dute. Esate baterako, ez litzateke informazio egokia izango, hondakin-planaren proiektua herritarren eskura jarriko balitz, baina horrek eragingo dituen ondorioei buruzko berariazko informazioa jakitera ematen ez bada. Esate baterako, erraustegiak erabiltzea, eragiten dituen gas-emisioak direla eta, edo birziklatze-entresa gehiago instalatzeak eragiten dituen ondorioak, e.a.

Bestalde, lege-testuek eta planek, askotan, herritarrentzat ulergaitzak izan daitezkeen termino eta hitzak —juridikoak zein teknikoak— erabiltzen dituzte. Informazioa denok ulertzeko modukoa izan dadin, Administrazioak zenbait kontsulta-bitarteko eskaini beharko litzokie herritarrei; izan ere, horrela, termino nahasgarrien inguruan —herritarren arabera, desberdinak izango baitira— dituzten kezkak galdetzeko aukera izango lukete. Horrenbestez, komenigarria izan daiteke herritarrentzat erakusketa-jardunaldiak antolatzeko, horietan lurraldearen kudeaketan lanean aritzen diren hainbat diziplinakoek parte har dezaten; esate baterako, arkitektoek, ekonomialariek, geografoek, biologoek eta legelariak.

2.3. Bereziki, parte hartzeko eskubideari buruzko informazioa

Eskubidea legez emanda ere, kontuan hartu behar da subjektuak berak jakin behar duela zer bide edo mekanismo dituen eskubide hori erabiltzeko. Alde horretatik, testua bere horretan, hitzez hitz, herritarren esku jartzea ez litzateke legeak ezarritakoaren arabera

izango; izan ere, normala litzateke herritarren batek zailtasunak izatea zenbait alderdi juridiko ulertzeko.

Nabarmentzeko modukoa da informazioaren eta parte hartzearen artean dagoen lotura estua. Horren haritik, lege-testuan gabezia hori hautematen da, ez baitu —parte-hartzeari dagokionez— haren 5. artikulura igortzen; izan ere, artikulua horretan, informazioa ematearen inguruan agintari publikoak dituen betebeharrak xedatzen dira. Agintari publikoek ez dute parte-hartzea arazotzat hartu behar. Alderantziz, agintari publikoek arreta jarri behar dute herritarrek hezten, parte-hartzearen garrantziari eta beharri buruzko informazioa eta prestakuntza emanaz. Agintari publikoek ez dute rol pasiborik jokatu behar parte-hartzearen arloan. Aitzitik, eskubidea erraztu ez ezik, sustatu ere egin behar dute parte-hartzearen esanahiari eta horretarako bitartekoei buruzko informazioa helaraziz.

Jarduera honen baitako betebeharrak azpimarragarriak dira hiritarrari laguntza ematea eta dagokion eskubidea baliatzeko moduz informatzea. Parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea onartzeak, eskubide horren nondik norakoak zehaztu barik, agintari publikoa salbuetsi lezake laguntzeko eta aholkatzeko betebeharretatik; informazioa eskuratzeko eskubidean, ordea, bermatu egiten dira.

2.4. Zein administrazio publikotan aurkeztu behar diren iruzkinak eta alegazioak

Eman beharreko informazioari dagokionez, oharrak zein agintari publikotan edo tokitan aurkeztu behar diren ere jakinarazi behar da. Atal honetan, bi hipotesi gerta daitezke. Batetik, herritarren argi eta garbi adierazi zein agintari publikotan parte har dezakeen, eta hark beste agintari publikoren batean aurkeztea, arrazoi pertsonalengatik edo beste arrazoiren batengatik adierazitako agintari publiko horrekin harremanetan jartzetik izan ez duelako. Halakorik gertatuz gero, administrazioen arteko lankidetzaren eta elkarlanaren mesedetan, 30/1992 Legearen 38.4. artikulua aplikatu beharko litzateke; artikulua horri jarraiki, herritarren idatziak, komunikazioak eta eskaerak edozein administrazio-organoren erregistroan aurkeztu ahal izango dira; hau da, estatuko administrazio orokorrekoan, autonomia-erkidegoetako administrazioetakoan edo tokiko administrazioetako erakunderen batekoan, baldin eta dagokion hitzarmena izenpetu bada.

2.5 Oharrak eta alegazioak aurkezteko unea: erabakia hartu aurretik, artean aukera guztiak zabalik daudenean

Atal honetan, 27/2006 Legeak ez du zehaztasun handiegiarekin adierazten herritarrek prozeduraren zein fasetan har dezaketean parte. 9/2006 Legeak kontsulta-epari noiz ekin behar zaion ezartzen du, eta, bestalde, ondoren ingurumen-txostenean erantsi behar dela ere bai. Lege-testuak denborari buruzko erreferentzia lausoa egiten du, baina oso garrantzitsua; hau da, erabakiak hartu aurretik.

Denborari buruz egiten den beste aipamen bat ere bada, eta parte hartzeko uneari buruzko argibideren bat ematen du; hau da, artean aukera guztiak zabalik daudenean. Horretarako, legegileak, Aarhus-eko Hitzarmeneko terminoei jarraiki, hitz lausoegiak erabiltzen ditu, planak eta programak onartzeko prozedura batzuk aztertuz gero. Izan ere, azken batean, planen bat behin betiko onartzen ez den bitartean, eta legearen bidez ezarritako administrazioen baten txostena izan ezean, aurrerakin-proiektuan aldaketak egin daitezke; hortaz, legeak dioenaren arabera, artean aukerak zabalik leudeke. 27/2006 Legeak azaltzen dituen arrazoiek adierazten duten bezala, autonomia-erkidegoek arautu beharreko alderdi bat izan daiteke.

Arauk onartzeari dagokionez, parte hartzeko eskubidea dagokion Administrazioetako teknikariek proiektua idatzi ondoren erabil daiteke. Legeak salbuespenak ezar ditzake; hain zuzen ere, proiektua idatzi aurreko faseetan espedienteak herritarren eskura dagoenean. Baina ez da halakorik berariaz ezartzen, eta proiektua idatzi ondoren zabal daitezke kontsulta-fasea eta parte hartzeko fasea.

Agintari publikoek parte-hartzeko eskubidea erraztu ez ezik, sustatu ere egin behar dute parte-hartzearen esanahiari eta horretarako bitartekoei buruzko informazioa helaraziz.

Publikoak oharrak eta iritziak emateko duen eskubidea bermatu behar da artean aukera guztiak zabalik daudenean eta plan, programa edo arauari buruzko erabakiak hartu aurretik.

Parte-hartzearen emaitza kontuan hartu behar izatea honela ulertu beharko litzateke: interes batzuk zergatik hartu diren aintzat azaltzea —beste interes batzuen kaltetan— irizpide koherenteak eta arrazoizkoak erabilia.

Aarhus-eko Hitzarmenaren azken interpretazioaren arabera, prozeduraren hasierako faseetan alegazioak aurkez daitezke; hau da, proposamena idazten ari direnean eta ordeko aukerak aztertzen ari direnean. Proiektuak idazten eta zehazten ari diren unera aurreratuz gero alegazioak aurkezteko eskubidea, herritarrek lasaiago azter eta balora ditzakete proiektuak; horrezaz gain, bestalde, adituen iritzia eta elkarte pribatuen laguntza jaso dezakete, beharrezkotzat jotzen badute. Hori izango litzateke Aarhus-eko Hitzarmenak bultzatzen duen benetako aldaketa kualitatiboa; horrela, informazio publikoko epe labur horiek alde batera utziko liriateke, proiektuen ildo nagusiak ordurako ia erabat erabakita baitaude.

2.6. Parte-hartzearen emaitza kontuan hartu behar da erabakia hartzeko

Aarhus-eko Hitzarmenak duen xedapen nagusietako bat, zalantzarik gabe, ingurumenaren alorrean erabaki publikoei legitimitatea emateko beharra da; izan ere, ingurune fisikoko elementuen aurka abian jartzen diren neurri bortitzek atzetik datozen belausaldirakoen ongizatean, osasunean eta etorkizunean ondorioak eragin ditzakete. Horrenbestez, egokitzen hartu da herritarren kezka eta oharrak jasotzea Planean. Baina bada arazorik: interes asko eta asko dakartza berarekin plan bateko jarduerak. Nekazariak, sindikatuek, enpresaburuek, elkarte ekologistek, alderdi politikoek, jabeek, beste erakunde batzuek... horiek guztiek proiektu desberdinak proposatzen dituzte, eta eredu ekonomiko, sozial eta kultural desberdinak dituzte oinarrian.

Sektore horien guztien artean gutxieneko adostasuna lortzea plangintza- edo arautresnaren baten bidez, ia-ia ezinezko eginkizuna da. Beraz, «parte-hartzearen emaitza kontuan hartu behar da» esaldia ez litzateke zentzu absolutuan interpretatu behar, eta, ondorioz, tartean dauden guztien interesak erabat asebetetzeko planak edo xedapenak direla ulertu. Komenigarria izango litzateke arrazoiak azaltzeko beharrari erantzuteko tresna gisa interpretatzea; hau da, interes batzuk zergatik hartu diren aintzat —beste interes batzuen kaltetan— azaldu behar da, irizpide koherenteak eta arrazoizkoak erabilia.

Kontuan hartu behar da Administrazioak horretarako duen zeregina; izan ere, administrazioak diskrezio-ahalmen batzuk izan eta politika publikoak abiarazten ditu. Erakunde publikoak, zenbait berezko jarraibide edo ildo politikori jarraiki, tartean dauden ondasunak eta interesak neurtu eta aztertu behar ditu. Baina dagokion eginkizuna betetzen ari direla, ezin dute herritarren nahia alde batera utzi; izan ere, azken finean, herritarren borondatea bera ere tresna da. Legean jasotako esaldiaren zentzuari erreparatuta, botere publikoei muga jartzen diela adierazten du, muga pasaezina. Esate baterako, alegazioen dokumenturen bat aurkezten bada, eta lurralde-eremu jakin bateko biztanle-kopuruarekiko proportzioan pertsona askok babestua bada dokumentua, Administrazioak, plan edo arau horren bidez, modu eraginkorrean egin behar dio aurre.

2.7. Hartutako erabakiak eta erabaki horiek hartzeko izan dituzten arrazoiak eta egindako gogoetak jakinarazi behar zaizkie herritarrei

Erabakia hartu ondoren, plana edo araua sustatu duen organoak erabaki hori hartzeko izan dituen arrazoiak azaldu behar ditu. Beraz, badirudi agintari publikoak arrazoiak eman behar dituela, baina aurkeztutako oharrak banan-banan aztertu gabe. Legea, hartara, informazio publikoko betiko tramitetik aldentzeko litzateke; Legearen arabera, alegazioak edo oharrak aurkezten dituztenek agintari publikoaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute. Horrelakoetan, erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei (30/1992 Legearen 86.3. artikulua).

Desberdina da erabaki bat arrazoitzea eta parte-hartzaitako bakoitzak egindako alegazioa aintzat ez hartzeko arrazoiak zehatz-mehatz adieraztea.

Informazioa aurkezteko formatuei dagokienez, berriz, proposamena jakitera emateko erabili behar direnen antzekoak izan behar dute —lehen aipatutakoak—. Agerian utzi

behar da, ordea, datu-baseetan informazio-kopuru handia biltzeko aukera ematen duten tresna informatikoak erabili behar direla. Nolanahi ere, hartutako erabakia edo xedapena luzeegia bada —prozeduran parte hartu dutenei banan-banan jakinarazteko modukoa ez bada, alegia—, gutxienez adierazi egin behar zaie informazio hori zein tokitan dagoen edo informazioa eskuratzeko dauden moduak, edo zein helbide elektronikotan eskura dezaketen.

2.8. Parte-hartze publikoari eta haren esanahiari buruz informatu herritarrek

Ez dirudi argi dagoenik atal honen zentzua. Ikuspegi formala aintzat hartuz gero, hona hemen izan dezakeen esanahia: agintari publikoak dokumentu bat egin behar du prozesuak izandako urrats guztiak azaltzeko eta, horrezaz gain, horietako bakoitzean izandako gorabeherak ere azaltzeko. Ikuspegi materialagoa aintzat hartuz gero, hau izan daiteke esanahia: agintari publikoak txosten bat egin behar du, eta horretan azaldu parte-hartzea zenbatekoa izan den, parte hartu duten eragile nagusiak zein izan diren, azaldu dituzten kezka eta ohar ohikoenak zein izan diren, eta faktore soziopolitikoek izan duten eragina.

Parte-hartze horren esanahia zein den nahasgarriagoa da. Izan daiteke parte hartzeko tramitean azaleratutako gai materialei buruzko eta gertatuko gorabeherari buruzko ondorio nagusiei aipamena egin nahi izatea. Azterketa horrek kutsu soziologikoa hartuko luke, eta horretan adierazitako oinarritzko alderdiak ere ulergarriak izan behar dute herritarrentzat. Azkenean, hartutako erabakiak jaso duen babesa zenbatekoa izan den erakustea izango litzateke helburua, tartean dauden interesak kontuan hartzen direla. Horrenbestez, espediente horretan hiru dokumentazio-mota jaso beharko lirateke: batean, erabakiaren edukia oso-osorik; bestean, berariazko arrazoiak zein diren; eta, hirugarrenean, prozesuaren alderdi formalei eta materialei buruzko txostena eta azken horretan erants daiteke atala.

2.9. Herritarren artean interesdunak nortzuk diren zehaztea

Lehenik eta behin, 30/1992 Legearen 31. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak dira interesdunak. Hortaz, horien barruan eskubide subjektiboen titularrak direnak ere sartzen dira —esaterako, jabeak edo eskubide errealen titularrak— eta eskubide legitimoak dituztenak ere bai. Hari beretik jarraituz, nabarmentzeko modukoa da Konstituzio Auzitegiaren 219/2005 epaia; izan ere, interesdun izatearen interpretazio zabala egiten du, babes judizial eraginkorra izateko eskubidea gauzatu ahal izateko. Eta bigarrenik, 2007/2006 Legeak interesduntzat hartzen ditu 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki, irabazteko asmorik gabeko pertsona fisikoak eta juridikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan gogoratu behar da badela ekintza publikorako aukera ingurumen, lurralde antolamendu eta hirigintza gaietan. Horrek esan nahi du edonori aitortzen zaiola legitimazioa ingurumenaren arloko edozein prozesutan horretarako interes jakin bat edo hiritartasuna exijitu gabe. Alde horretatik, 27/2006 Legeak ez du garrantzi handirik euskal ordenamendu juridikoan, baina bada funtsezko elementu edo osagarria parte-hartzeak, gardentasunak eta epaitegietara jotzeko eskubideak egin duten aurrerakadan, hori guztia Europako erkidegoko zuzenbideak bultzatuta.

**Euskal
Autonomia
Erkidegoaren
kasuan bada
ekintza
publikorako
aukera
ingurumen,
lurralde
antolamendu eta
hirigintza
gaietan.**

2.10. Estatuko 27/2006 Legeak parte-hartzerako dituen aurreikuspenek ez diete eragiten parte-hartzeko tresnak eta eskubideak zabaltzen dituzten autonomia-erkidegoetako araei

Arlo-arauek, orokorrean, 27/2006 Legeak baino gutxiago garatzen dute parte-hartzea. Beste batzuetan, ordea, tresna berritzaileak jaso dira, hirigintzaren arloan, adibidez.

Parte hartzeko eskubidea duen subjektuari buruzko kontzeptua zabaldu edo murriztu egin daiteke zenbait faktoreren arabera; esate baterako, faktore hauen arabera: planaren edo arauaren edukia, horrek ingurumenean duen eragina eta pertsonen bizitzan eta osasunean duen eragina.

Toki mailako hirigintzaren esparruan, hirigintzako plana edo tresna egiteko akordioan, edo, hala badagokio, eskumena duen administrazioan izapideak egiteko aurkeztutakoa onartzeko izapidean, berariaz zehaztuko da, batetik, zein neurri eta jarduketa abiarazi behar diren administrazioen arteko koordinazioa sustatzeko eta, bestetik, zein den plana edo tresna egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan herritarrek parte hartzeko izango duten programa (Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legea, 84.4. artikulua). Programa horretan herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko dira (2/2006 Legea, 108.1. artikulua). 27/2006 Legean aurreikusten ez diren parte hartzeko tresnak erabil daitezke, hala nola, herri-kontsultak; horiek gauzatzeko toki-araubidean erregulatzen da berariazko erregimen juridikoa.

Aurreko ataletan aipatu bezala, autonomia-erkidegoko legediak aipatu berri ditugun muga horiek guztiak alda ditzake, eta interesdun kontzeptua zabaldu. Azken klausula horrek agerian uzten du parte-hartzeko prozesuak, gaiaren arabera, oso desberdinak izan daitezkeela, eta, beraz, parte hartzeko eskubidea duen subjektua zorrotzegi definituz gero, Aarhuseko Hitzarmenak defendatzen dituen legitimitate-baldintzetara egokitzea zaila izango litzateke. Esate baterako, hondakin erradiaktiboekin zerikusia duten planak eta ontzien hondakinekin zerikusia duten planak ezin dira maila berean jarri. Lehendabiziko motako planek, izan ere, hondakin horiek uzten diren lurralde-eremutik hurbil bizi diren pertsonen osasunari eta osotasun fisikoari kalteak eragin diezazkiekete; bigarren motakoek, berriz, hain funtsezkoak ez diren ondasun juridikoei eragiten diete.

Parte hartzeko eskubidea duen subjektuari buruzko kontzeptua zabaldu edo murriztu egin daiteke zenbait faktoreren arabera; esate baterako, faktore hauen arabera: planaren edo arauaren edukia, horrek ingurumenean duen eragina eta pertsonen bizitzan eta osasunean duen eragina. Ingurumenaren ikuspegitik, funtsezko betebeharrak dira, eta horiek lehentasuna izango dute prozesua bizkortzeko edo, haren ezaugarriak direla eta, teknikarien esku uzteko. Parte-hartzea handia edo txikia izatea, azken batean, plan edo arau horrek arautuko dituen alderdien garrantziak baldintzatuko du.

Irizpide hori bera beste parte hartzeko eskubideetarako ere —legearen testuan adierazitakoak— erabil daiteke. Beste arau batzuek erabil ditzaketen irizpideen gutxieneko zerrrenda bat ezartzea erabaki du legegileak, plan edo arau batzuen eta beste mota bateko jardueren artean sor daitezkeen aldeak direla-eta.

3. PARTE-HARTZEA BERE BAITAN HARTZEN DUTEN PLANAK ETA PROGRAMAK

27/2006 Legeak berariaz aipatzen ditu zein plan eta programatan gauzatzen den parte-hartzea. Aipamena zehatza da, hots, Legeak soilik exijitzen du parte-hartzea aipaturiko gaietan. Beste era batera esanda, aipamena ez da adibideak ematearren egiten. Horrek ez du eragozten euskal erkidegoko araudiak erregulazio hori aplikatzeko esparrua zabaltzea. Aitzitik, logikoa da zabaltzea, izan ere, printzipio nagusia parte-hartzea ahalik eta gehien erraztea izan beharko litzateke. Orduan, legegileak zer dela eta zerrendatu ote ditu gaiak?

27/2006 Legean berariaz aipatzen dira zein plan eta programatan gauzatzen den parte-hartzea.

Erkidegoetako araudiak erregulazio hori aplikatu beharreko esparrua zabal dezake.

3.1. Hondakinak

Estatuko 10/1998 Legeak hondakinen planak taxutzeko ezartzen dituen prozedurek 27/2006 Legeak xedatzen duen parte-hartzea bermatu behar dute. Lau urterik behin berrikusten dira eta Autonomia Erkidegoetik hitzarmenen bidez gara daitezke. Horiek gai honen esparruko plan autonomikoak gauza ditzakete.

Euskal Autonomia Erkidegoan 3/1998 Legeak, ingurumenarenak, honela dio: administrazio publikoek hondakin-planak egingo dituzte, eta bertan, besteak beste, lortu beharreko helburuen, garatu beharreko estrategien, azpiegiturak sortzearen eta finantzaketa-sistemen zehaztasunak azalduko dira (70. artikulua). Planifikatze hau 27/2006 Legeak, parte-hartzearen arloan, aurreikusten dituen bermeei jarraituta onartu behar da. Esparru honetan planifikatze desberdinak bereiz daitezke: hiri hondakin solidoen eta hondakin arriskutsuena, eta bestelako hondakinena. Arlo horietan guztietan ingurumen organoak plan desberdinak onartu ahal ditu parte-hartzea —27/2006 Legean aurreikusita dagoen bezala— bermatuta, betiere ahaztu gabe horietako plan batzuk ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa behar dutela.

Hiri hondakin arloan lurralde historikoetako foru-organoei dagokie Lurralde Historiko bakoitzeko hiri hondakin solidoen kudeaketaren esparru-plangintza egitea dena delako foru-planaren bidez (3/1998 Legea, 74. artikulua). Udalek eskumena dute hiri hondakin solidoen arloan berariazko plangintza egitea, beren udal-ordenantzen bidez. Azken horiek, Autonomia Erkidegoek eta lurralde historikoetako foru-organoei ezarritako aurreikuspenak bete behar dituzte. Plan mota bi horiek (foru- eta udal-planak) taxutzeko prozeduretan 27/2006 Legean xedatutakoa aplikatu behar da.

3.2. Pilak eta metagailuak

Estatuak bestelako hondakinak ere erregulatu ditu, pilak eta metagailuak, adibidez. Arauan ezartzen da Administrazio autonomikoek hondakin horiek erabiltzeari buruzko kontzientziatze-programak onartu ahal dituztela prebentzio-neurri bezala (106/2008 Errege Dekretua, 13. artikulua). Bestelako programak ere onar daitezke, esate baterako, gaikako biltetarako sistema eraginkorrak antolatzeak. Mota horretako programak taxutzea 27/2006 Legeak ezartzen dituen bermeekin egin beharko litzateke.

3.3. Nitratoak

Nitratoek ingurune fisikoko bestelako elementuetan —urak eta arriskuko eremuak— duten eraginarekin loturiko aurreikuspenak ezarri dituzte erregulazioak. 261/1996 Errege Dekretuak, nitratoek eragindako kutsadurari buruzkoak, ezartzen du arriskuko eremuak direlakoetan, Autonomia Erkidegoetako organo eskudunek ekintza-programak ezarriko dituztela nekazaritza-jatorriko nitratoek eragindako kutsadura saihesteko eta murrizteko. Gai honen garrantzia laborantzarako ongariak sortutako kutsadura saihestea da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren 390/1998 Dekretua aplikatzen da, nekazaritza eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskutan dauden inguruak izendatzeko arauak finkatzen dituena. Ingurumen organoak ekintza planak eman ahal ditu substan-

Parte-hartzeko eskubidea gauzatzeko modua prozeduraren arabera izateaz gain, 27/2006 Legeak ezarritako baldintzak hartu beharko ditu kontuan, baita aplikatu beharreko arloko araudian exijitutakoak ere. Saiatu behar da, betiere, arau desberdinak bateragarriak izatea; bikoiztasunak saihestea; eta informazio teknologik erabiltzea.

Atmosfera babesteko eta aire-kutsadurak sortutako eragin txarrak minimizatzeke plan eta programak egin eta aldatzeko parte-hartze publikoa bermatu behar da 27/2006 Legean aurreikusitakoari jarraituta.

tzia horien balizko isurketetatik babesteko. Plan horiek taxutzean eskudun foru-organoen parte-hartzea bermatuko da (1.2. artikulua). Zehatzago esanda, indarrean dagoen plana 2008ko urriaren 15eko aginduaren bidez onartu zen. Plan horiek berrikusteko prozeduran 27/2006 Legea aplikatu behar da hiritarrek parte hartzeari dagokionez.

3.4. Ontziak eta ontzien hondakinak

Gobernuak, Ingurumeneko Ministerioak proposatuta, Ontzien Hondakinak eta Erabilitako Ontzien Programa Nazionala onartu edo berrikusi ahal du; programa horrek autonomia erkidegoek egindako programak integratuko ditu. Programa Nazionala Hiri Hondakinaren Kudeaketako Plan Nazionalaren barruan sartuko da eta estatuko esparru osoan izango du indarra (11/1997 Lege, 17. artikulua). Planak aldatu, berrikusi edo gauzatzeko 27/2006 Legeak ezarritako aurreikuspenak hartu behar ditu kontuan parte-hartzeari dagokionez.

Autonomia Erkidegoen eta, bakoitzaren araudian ezarritakoari jarraituta hala denean, Toki Erakundeek hondakin-kudeaketarako planek ontzien eta ontzi-hondakinaren kudeaketari buruzko berariazko zehaztapenak izan behar dituzte (11/1997 Legea, 17. artikulua). Plangintza hau 27/2006 Legean parte-hartzeari dagokionez ezarritakoari jarraituta egin behar da. Gogoratu behar da plan horietako batzuk ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa izan behar dutela.

782/1998 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, autonomia-erkidegoek zehaztuko dute norberaren erkidegoan abian jarritako programaren jarraipenean nola hartuko duten parte tokiko erakundeek, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek; programa horiek guztiek Erabilitako Ontzien eta Ontzi-hondakinaren Programa Nazionala osatzen dute (17.3. artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik ez du inongo araudian jaso mota horretako planak onartzeko prozedura, eta, beraz, kontuan hartu beharko da 27/2006 Legeak parte-hartzearen alorrean ezarritako bermeak gerora egingo diren erregulazioetan erantsi behar direla.

3.5. Airearen kalitatea

Estatuko 34/2007 Legeak dioenari jarraituta, Gobernuak, berari dagozkion eskumenen artean, beharrezkoak diren estatu mailako plan eta programak onartu ahal ditu airearen kutsadura eta horrek mugaz haraindi dituen eraginak aurreikusi eta murrizte aldera, baita eragin negatiboak minimizatze aldera ere. Modu horretan Erkidegoetako araudia eta Espainiak sinatutako nazioarteko akordioetatik eratorritako konpromisoak beteko dira. Plan eta programa horiek berariazko helburuak finkatzen dituzte, baita horiek lortzeko neurriak eta berrikusteko prozedura ere; eta Autonomia Erkidegoekin batera egin eta eguneratuko dira (6.1. artikulua).

Autonomia Erkidegoek aire-kalitatearen helburuak betetzeko asmoa duten bestelako planak onartu ahal dituzte beren esparruetan (34/2007 Legea, 16.2 artikulua). Honakoak dira helburu horiek: aire-kalitatea hobetzea finkatutako epean aire-kalitatearen helburua lortzeko erregulaziopeko kutsatzailearen baten edo gehiagoren mailak helburu horiek gainditzeko zonaldeetan; eta epe laburreko ekintzak berehalako neurriak zehazteko aire-kalitatea eta alerta-atalaseak gainditzeko arriskua dagoen zona eta kasuetan.

Toki erakundeek, dagozkien eskumenen barruan, beren planak eta programak egin ahal dituzte. Plan eta programa horiek egiteko autonomia erkidego bakoitzeko atmosfera babesteko planak hartu behar dira kontuan. Udalerriek, 100.000 biztanle baino gehiago edukiz gero, eta aglomerazioek aire-kalitatearen helburuak bete eta hobetzeko plan eta programak izan behar dituzte bide segurtasunaren legeriaren eta plangintza autonomikoaren baitan. Plan horiek hiri-plangintzako tresnak baldintzatzen dituzte eta, areago, hiritarrek bete beharreko aginduak aurreikus ditzakete (34/2007 Legea, 16.2. artikulua).

Euskal Herriko ingurumenari buruzko Legeak aire-kalitatearen helburuak definitu eta ezartzeko ekintzak onartu beharra aurreikusten du, horrela giza osasunean, herri-lasaitasunean eta ingurumenean sortutako eragin txarrak saihestu, aurreikusi edo murriztu egingo dira. Halaber, lehenago aipaturiko neurriek ebaluaziorako eta kalitate mailari buruzko informazioa lortzeko irizpideak ezarri behar dituzte (Euskal Parlamentuaren 3/1998 Legea,

31. artikulua). Euskal Herriko ingurumenari buruzko Legearen arabera emisio-iturriak kontrolatzeko programak gauzatu ahal izango dira honako helburuekin: aplika daitezkeen emisio-mugak betetzen direla jagon eta bermatu; mugako balioak edo alerta-atalasea gainditzeko arriskua dagoenean, aireko noizbehinkako edo larrialdietako poluzio egoerak konpontzeko jarduera programak ezarri (3/1998 Legea, 33.1 artikulua).

Plan hauek egiteko estatuko Legeak, parte-hartzeari dagokionez, 27/2006 Legea igortzen du orokorrean. Beraz, Autonomia Erkidegoak izan, zein udalerrriak edo Estatua, denek segitu behar dute aipatutako Lege horretan xedatutakoari jendeak parte har dezan bermatzeko.

3.6. Autonomia-erkidegoetako araudiak ezarritako gainerako arloak

Autonomia Erkidegoek zenbait arlo gara litzakete; horrela gertatu da lurzoruaren euskal Legean eta hasierako proiektuetan jaso beharreko parte hartzeko programen kasuan. Herri-kontsultak planteatu litezke halakoetan. Hiri-plangintzak horrelako kontsultak aplikatu behar dutenen artean ez badaude ere, Euskal Autonomia Erkidegoak zabaldu egin du gaisorta, Legeak xedatzen duena beteaz.

3.7. Uren alorreko berezitasunak

Lehen ere esan duguna gogora ekarriz, plan hidrológicoak onartzeko prozedurei ez zaie legea aplikatuko. Hortaz, dagokion Plangintza Hidrológicoaren Araudira jo behar dugu. Prozedurari ekin baino bi urte lehenago, uren kudeaketaren alorrean, arro hidrografiko horretarako proposatzen diren gai garrantzitsuenen behin-behineko eskema aurkeztu behar da. Plana berrikusi edo onartu baino urtebete lehenago, Arroko Plan Hidrológicoaren proiektua eskuragarri egongo da. Oharrak idatziz aurkezteko epea sei hilekoa izango da gutxienez.

Arroetako erakundeei edo administrazio eskudunei dagokie parte-hartze publiko eraginkorra sustatzeko antolaketa-proiektua eta prozedura egitea¹⁵.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan 1/2006 Legeak Euskadiko mugape hidrografikoari dagokion plangintza aurreikusten du, baita urak babesteko neurri-programa batzuk ere. 33/2003 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko arroen Plan Hidrológicoa egin eta berrikusteko prozedura arautzen du (4. artikulua).

Nahiz eta Legea baino lehenagoko erregelamendua izan, haren kontrakoa ez den guztian aplikagarria da. Besteak beste, bi hilabeteko epea aurreikusten da informazio publikoaren izapiderako. Neurri-programak eta plan hidrológico zehatzak egiteko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoan xedapenak egiteko prozedurari buruzko arau nagusien arabera egin behar dira (Eusko Legebiltzarreko 8/2003 Legea). Duela gutxi, 2006ko Legeak, urarenak, azken tresna horiek erantsi ditu eta taxutzeko prozedura oraindik onartu ez den garapen-erregelamendu batean jasoko da geroago.

Eusko Legebiltzarreko 4/1990 Legeak, Lurraldearen antolamenduarenak, uren arloko Lurraldeko Arlo-planak —ibaiak eta errekek babesteari buruzkoak, adibidez— egiteko prozedura aurreikusten du (17. artikulua). Prozedura horretan ez da informazio publikoaren inolako izapiderik, nahiz eta ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko araudia aplika daitezkeen.

3.8. Planen eta programen ebaluazio-prozeduretan parte-hartzea

Plan eta programen baterako ebaluazioari buruzko araudiak herri-kontsultarako izapide bat ezartzen du, ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena idatzi ostean egingo

¹⁵ 907/2007 Errege Dekretuaren 72.2. artikulua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrológicoaren Araudia ezartzen duena. Aurrerantzean, PHA.

Plan hidrológicoak egiteko prozedurak 27/2006 Legeko betebeharrak jaso behar ditu, bereziki plangintza-prozesuko funtsezko informazioa emate aktiboari dagokionez.

Plan eta programen baterako ebaluazioan interesdunei eginiko kontsulta plan edo programa sustatu duenak egin behar du.

dena. Izapide honen helburua da txosten hori eraginpeko agintari publikoen eta interesdunen esku jartzea, modu horretan, aztertu eta oharrak egin ditzaten, nahi izanez gero, gutxieneko 45 eguneko epean.

Organo sustatzaileak plan edo programaren proposamena egiteko, kontuan hartuko ditu ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena, kontsultetan egindako alegazioak —mugaz haraindiko kontsultetan egindako alegazioak barne, halakorik egin bada— eta ingurumen-memoria (13. artikulua). Beste modu batean esanda, plana edo programa gauzatzeak eta abian jartzeak herritarrei eragiten dizkien kezka adierazi behar dira proposamenean.

Ondoren aipatzen diren gaiei buruzko plan eta programek ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioa behar dute: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza, energia, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, telekomunikazioak, turismoa, edo lurzorua erabilera eta natura-baliabideak. Horrezaz gain, ingurumen-eraginaren ebaluazio prozeduraren bat beharko duten proiektuak baimentzeko markoa ezarri behar dute, indarrean dagoen legeriari jarraituta (Eusko Jaurlaritzaren 183/2003 Dekretua, 4. artikulua).

3.9. Parte-hartzetik salbuetsita dauden planak

Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude defentsa nazionala eta larrialdi-egoeretan babes zibila helburu bakartzat dituzten planak eta programak. Legegileak kontuan hartu du defentsa nazionalarekin zerikusirik ez duten zenbait gai ere har ditzakeela bere baitan plan bakar batek. Horregatik zehaztu du, beraz, salbuespena aplikatzeko nahitaezkoa dela hura izatea helburu bakarra.

Babes zibilari dagokionez, herritarren segurtasunerako larrialdi eta arrisku handiko egoerak izan behar dutela dio legeak; hortaz, ez dira nahastu behar gizarte-egoera arruntetan pertsonak eta ondasunak babeste aldera administrazioak abian jartzen dituen ohiko jardurekin¹⁶.

Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurlaritzak zein lurralde historikoetako foru-organoek, bakoitza bere eskumenen esparruan, gai honi buruzko planak onartu ahal dituzte (Eusko Legebiltzarreko 1/1996 Legea, 4. eta 6. artikulua). Plangintza hori 27/2006 Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da eta babes zibilari buruzko berariazko araudiaren mendekoa da. Eta horren orde zedapen orokorrak onartzeko prozedura erregulatzen duten arauak aplika daitezke. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan 8/2003 Legea eta Bizkaiko Lurralde Historikorenean 3/1987 Foru-araua.

¹⁶ Konstituzio Auzitegiaren 130/1990 epaia, 7. OJ

4. PARTE-HARTZEA, INGURUMENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARAUAK EGITEKO PROZEDURETAN

4.1. Izaera orokorreko xedapenak egiten, aldatzen eta berrikusten parte-hartzeko eskubidea

Xedapen orokorrak onartzea administrazio publiko bakoitzaren araudian aurreikusitako prozeduraren arabera izapidetuko da. Araudi horretan herritarrek parte hartzeko zenbait modu onartzen dira, esaterako, interesdunak entzutea. Entzunaldiko izapide horietan 27/2006 Legeak ingurumen gaitan aipatzen dituen bermeak onartu behar dira.

Estatuko Administrazioaren esparruan 50/1997 Legea, Gobernuarena, aplikatzen da. Behin erregelamendu-proiektua onartuz gero, interesdunentzako entzunaldia irekitzen da, egoki iruditzen zaizkien alegazioak egin ditzaten (24. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoan 8/2003 Legea onartu zen; interesdunentzako eta horiek ordezkatzeko dituzten elkarreentzako entzunaldiko izapidea irekitzeko baimena ematen du horrek. Halaber, xedapenen izaerak hala gomendatzen duenean, informazio publikoko izapidea irekitzea erabaki dezake (8. artikulua).

Honakoa da egoera Foru Aldundietan: Bizkaiko lurralde historikoan antolamendu eta funtzionamendu arauak ez dute entzunaldiko inolako izapiderik aurreikusten (3/1987 Foru Araua, 53. artikulua); Gipuzkoako lurraldean legegintzako herri-ekimena gauzatzeko mekanismoak ezarri dira, alegia, 6/2005 Foru Arauan onartzen da xedapenak egiteko prozesuan parte hartzeko aukera, entzunaldiko izapidearen bidez, behin organo desberdinek proiektua onartu eta gero [70 d) artikulua]; Arabako lurraldean ere ez zaie inolako parte-hartzerik onartzen interesdunei entzunaldiaren bidez (52/1992 Foru Araua, 68. artikulua). Kasu horietan kontuan hartu behar da prozedurak Batzar Nagusietan gauzatzen direla.

Toki erakundeek 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, aurreikusten duen prozeduraren arabera onartu behar dituzte xedapenak. Herritarrek tokiko bizitza publikoko arazoetan —udalerrikoetan, orokorrean, zein barrutietakoetan, halakorik egonez gero— benetan parte har dezaten udalek prozedura eta organo egokiak ezarri eta arautu behar dituzte arau organikoetan (7/1985 Legea, 70 bis artikulua). Gainera, 7/1985 Legean (70 bis 2. artikulua) ezarritako prozedurari jarraituz, aukera ematen zaie herritarrei udal ordenantzen ekimenak aurkezteko.

Orokorrean, udalak informazio publikoko izapidea abiatu behar du herritarrek egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten (7/1985 Legea, 47. artikulua). Prozedura horiei dagokienez, ezin dira alboratu toki erakunde bakoitzeko berariazko funtzionamendu-erregelamendua eta toki erakundeen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua.

Prozedura horiek guztiak, parte-hartzeari dagokionez, 27/2006 Legean jasotzen diren berme eta eskubideen mendeak dira xedapen orokorrak egiten direnean. Berme horiek lau eskakizunetan zehazten dira:

- a) Xedapen- edo arau-proiektuari buruzko informazioa publikoaren esku uztea.
- b) Xedapenak onartzeko prozeduraren izapidean hasiera-hasierako parte-hartzea ahalbidetu behar da, aukera guztiak zabalik daudenean. Horrek esan nahi du proiektua aldatzen utzi beharko litzatekeela behin betiko onartu baino lehen.
- c) Xedapen edo aruari buruzko behin betiko erabakia hartu baino lehen, oharrak eta alegazioak egiteko epea ireki behar da.
- d) Behin araua behin betiko onartu eta gero, Administrazioak memoria edo eranskin bat gehitu behar du non azalduko den zergatik hautatu diren aukera edo ohar batzuk eta zergatik baztertu diren besteak.

Ingurumenarekin loturiko xedapen orokorrak onartzeko prozedura bakoitzean ares-tian aipaturiko eskakizunak beteko dituzten izapideak aurreikusi behar dira. Horretarako ingurumenarekin loturiko xedapen orokorrak egiteko arauak onartu litezke; edo, bestela, arlo bakoitzean berariazko prozedurak aurreikusi litezke parte-hartzeari dagozkion bermeak aitortzeko. Organo substantiboak, arau-proposamena behin betiko onartzen duten horiek,

Xedapen orokorrak onartzea administrazio publiko bakoitzaren araudian aurreikusitako prozeduraren arabera izapidetuko da. Prozedura horretan 27/2006 Legeak ingurumen gaitan aipatzen dituen bermeak onartu behar dira.

Organo substantiboak, arau-proposamena behin betiko onartzen duten horiek, dira parte-hartzearen arloan ezartzen diren berme eta eskubideak betearazteaz arduratzen direnak.

dira parte-hartzearen arloan ezartzen diren berme eta eskubideak betearazteaz arduratzen direnak.

Urari buruzko euskal Legearen printzipioetako bat honakoa da: pertsona eta erakunde erabiltzaileek parte hartu ahal dute ur-politikaren elaborazioan.

4.2. Urak babesteko alorrean

Gai honetako erkidegoko legeria garatuta edo erregelamenduen zuzeneko aplikazioaren bidez Aarhus-eko Hitzarmena, parte-hartzeari dagokionez, zuzenean aplikatu behar da urari buruzko erkidegoko arauak egiteko. Baldin eta Erkidegoko Zuzenbideak urari buruzko gai jakin batzuetako funtsezko alderdiak arautu baditu, parte-hartzea Zuzentaraua garatzen duten eta barne araudian erantsi diren alderdietara mugatu behar da.

Indarrean dagoen araudian plangintza hidrologikoari buruzko gaietan baino ez dira jaso parte-hartzeari buruzko arauak. Dena den, aipatu dugu dagoeneko gai hori 3 atalean, uraren arauketari buruzko planak landu direnean. Jarraian aipatuko direnak 27/2006 Legeak parte-hartzeari dagokionez arautzen dituen manuen mende dauden erregelamenduetako gaiak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan 1/2006 Legeak bakarrik aurreikusten ditu euskal Administrazioak uren arloan eman beharreko planak. Lege hori 33/2003 Dekretuaren bidez garatzen dela ulertu behar da. Ez zaio inolako aipamenik egiten gaiari buruzko xedapenak onartzeko berariazko prozedurari. Aipatzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek arautu ahal dituzten gaiak, hala nola: hornidura, saneamendua, hondakin-urak araztea eta ureztatzea (1/2006 Legea, 33. artikulua eta hurrengoak). Arau horiek guztiak onartzeko administrazio publiko bakoitzean xedapen orokorrak onartzeko prozedura segitu behar da.

Gai horien artean honakoak:

- Jabari hidrauliko publikoa.
- Ur-erregistroen funtzionamendua.
- Uren kalitatea, bainatzekoak zein edatekoak.
- Uren arazketa eta saneamendua.
- Horniketa eta ureztatzea.
- Nekazaritza jatorriko nitratoen kutsaduratik urak babestea.

Xedapenak egiteko berariazko prozedura aurreikusi ez den gaietan xedapen orokorrak onartzeko prozedurak erregulatzen dituzten arauak aplikatu behar dira.

4.3. Zarataren aurkako babesa

Zarataki babesteko araudian ez da gai horretako xedapenak egiteko berariazko prozedurarik aurreikusi. Hori dela eta, administrazio publiko bakoitzeko xedapen orokorrak onartzeko prozedurak arautzen dituzten arau erregulatuak aplikatu behar dira. Arau horiek honako gaien gaineko erregelamenduak eman ahal dituzte:

- Inguruko zarataren ebaluazioa eta kudeaketa.
- Zonifikazio akustikoa, kalitate helburuak eta emisio akustikoak.
- Makina jakin batzuek aire zabalean sortutako emisio akustikoak.
- Atalaseak eta eraikinek zarataki babesteko behar dituzten baldintzak.
- Aireportuen instalazioek sortutako zaratak.
- Zarataren eraginpean jartzearekin loturiko arriskuetatik langileak babestea.
- Makina eta gailu jakin batzuen potentzia akustiko onargarria.

Udalei dagokie gairekin loturiko ordenantzak onartzea. Beste aldetik, udalbatzek dauden ordenantzak eta hiri-plangintza egokitu beharko dituzte Legeak eta berori garatzen duten arauak xedatzen dutenera. Beraz, udalek ere 27/2006 Legean jasotako parte-hartzeko eskubideak errespetatu behar dituzte atalase jakin batzuk jasotzen dituzten ordenantzak egin eta onartzeko.

4.4. Lurzoruen babesa

Gai honen barruan kutsatutako lurzoruak prebenitu eta zuzentzeko xedapenak sartzen dira. Horren haritik, erregelamenduaren bidetik zehaztu dira zeintzuk diren lurzorua kutsatu ahal duten jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak. Hala ere, ez da berariazko prozedurarik onartu, ez estatuko araudian, ezta Euskal Herrikoan, gaiarekin loturiko xedapen orokorrak onartzeko prozesuan parte hartzeko iza-pidea jasotzen duenik.

Kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak erregulatzen dituen Estatuko erregelamenduaz aparte, aipatzekoak dira erregelamenduaren bidez gara daitezkeen bestelako gaiak, honakoak:

- Garbiketa-jardueren kudeaketa.
- Lurzoruaren kalitatearen ikerketa eta berreskuratzeko entitateen akreditazio-sistema.
- Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen edukia eta garrantzia.
- Lurzoruaren babeserako legediaren garapen-arauak, esaterako: eraikigarritasunari eta xehetasun-azterlanei —eraikinen bolumetria aipatzen dutenak— buruzko udal ordenantzak.

4.5. Atmosferaren kutsadura

Kontu erabakigarriena Zuzentarauen edo, hala denean, Legeren baten bidez arautu dira, 27/2006 Legearen aplikazio eremutik kanpo dauden arauen bidez, alegia. Erregelamenduak egiteko, zenbaitetan erkidegoko testuen transkripzio literalak direnak, parte-hartzeko bermeak har daitezke, baina dagokion plana idazteko eskumen edo prozeduretan baino ez, izan ere, gainerako gaiak Erkidegoko Zuzenbidean aurreikusi dira. Hala eta guztiz, erkidegoko arauak Aarhus-eko Hitzarmenean parte-hartzearen esparruan aurreikusten diren bermeen mende daude.

32/2007 Legeak ez du aurreikusten atmosferaren babesaren arloan berariazko prozedurarik arauak onartzeko. Hori dela eta, dena delako araua onartzeko eskumena duen Administrazio publikoaren prozedura aplikatu behar da. Ondoko gaietan eman ahal dira erregelamenduak eta xedapen orokorrak:

- Inguruko airearen kalitatearen ebaluazioa eta kudeaketa substantzia jakin batzuei dagokienez.
- Inguruko aireko ozonoaren ebaluazioa.
- Hondakinak erraustea.
- Produktu kimiko jakin batzuek eragindako kutsadura.

4.6. Landa-eremuko eta hiri-eremuko lurraldearen antolamendua eta lurzoruen erabilera

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak eta lurzoruari buruzko 2/2006 euskal Legeak lurralde antolakuntzari eta lurzoruen erabilerari buruzko ildo nagusiak ezartzen dituzte. Halere, horietako batek ere ez du gaiari buruzko xedapen orokorrak egiteko berariazko prozedurarik erantsi. Hortaz, 8/2003 Legean ezarritako prozedura orokorra segitu beharko da, Eusko Jaurlaritzak arauak egiteko segitu beharrekoa, hain zuzen ere. Ondorengo gaietan onar daitezke erregelamendu-arauak:

- Hiri-inguruneetara sartzeko bideen egoera, guneko publikoak, eraikinak eta informazio- eta komunikazio-sistemak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hiriak berpizteko ekintza integralak sustatzea.
- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen eta Lurzoruari buruzko Legearen garapena.
- Lurralde Antolamenduaren gidalerroak.

8/2003 Legeak herritarrei entzun egingo zaiela bermatzen du beren eskubide eta interesei eragiten dieten xedapen orokorrak egiteko prozesuan.

**Entzunaldiko
izapidea
beharrezkoa
izateak
berarekin dakar
dena delako
xedapena
deusez izatea
behar hori bete
ezean.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Dekretu bidez onartu ziren lurralde antolamenduaren gidalerroen baitan lurzoruaren erabilera-matrizea sortu zen eta agintari publikoek udal eremuko zein udalaz gaineko eremuko plangintza lanetan bete beharreko agindu lotesleak ditu. Dekretu bidez onartzen direnez arazorik gabe aplikatu daitezke 27/2006 Legeak parte-hartzearen esparruan ematen dituen bermeak.

Udalek plangintza nagusian xedatutakoa osatzera datozen ordenantzak onar dituzakete:

- Plan nagusia garatzeko hirigintza arauak (2/2006 Legea, 66. artikulua).
- Xehetasun azterlanen helburua edozein lurzoru motaren antolamendu doia zehaztasunak osatzea edo egokitzea da. Osatzea edo egokitzea xehetasun azterlanetan justifikatu behar da haiek idaztea ez bada plangintzan aurreikusten (2/2006 Legea, 73. artikulua). Arau horiek onartzeko ondoko izapideak bete behar dira: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean ezarritakoak eta toki erakunde bakoitzeko berariazko antolamendu-erregelamenduetan ezarritakoak —lehen-ago aipatu da entzunaldi publikoko epea behar dutela—.

**Erregelamenduek
erkidegoko edo
nazioarteko
testuak ia
literalki
transkribatzen
dituztenean,
parte hartzeko
bermeak
eskumenaren
edo
prozeduraren
arloetan bakarrik
aplikatuko dira.**

4.7. Naturaren eta biodibertsitate biologikoaren zaintza

Natura-ondarea eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak ez du jaso inolako berariazko prozedurarik gai honi buruzko xedapen orokorrak egiteko. 16/1994 euskal Legeak ere ez du berariazko prozedurarik edo izapide jakinik jaso herritarrei parte hartzeko eskubidea onartzeko. Horrela, bada, gai honetako arauak emateko administrazio eskudun bakoitzak arauak egin eta onartzeko prozedura erregulatzen duen araudia bete behar da. Prozedura hauetan 27/2006 Legeak parte-hartzearen esparruan aurreikusten dituen bermeak betearazi behar dira.

Honako gaiak erregulatu litezke arauotan:

- Natura-habitatak eta Basa-fauna eta -flora kontserbatzea.
- Espezie jakin batzuk babestea.
- Espezie mehatxatuen katalogoak onartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Natur Gune Babestuen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua.
- Natur guneen leheneratzea.
- Biosferaren erreserbako guneak erregulatzeko legeak garatzea, Urdaibairen kasuan gertatzen den bezala.
- Biotopo babestuak. Horiei buruzko arauak egin eta aldatzeko 27/2006 Legeak parte-hartzearen esparruan aurreikusten dituen bermeak aplikatu behar dira.
- Natur parkeak izendatzea.

Natur gune babestu batzuk nazioarteko tresnen mendekoak dira eta tresna horiek estatuentzat lotesleak diren aginduak duten arren, nolabaiteko malgutasuna dute. Esaterako, nazioarteko hezeguneetan edo biosferaren erreserbetan area babestuak desklasifikatzeko debekua. Kasu horietan, tresna horiek egiteko prozesuetan parte hartzeari dagokionez, badi irudi Legearen indarra nahiko mugatua dela.

Europako Batzordeak Batasunaren garrantzizko lekuak izendatzen ditu. Behin zerrendatuz gero, Autonomia Erkidegoek babes bereziko eremu izendatzen dituzte gune horiek. Onartzeko prozedura edozein erregelamendu izapidetzeko prozeduraren antzekoa izan behar harko litzateke. Hori gorabehera, ez da aipamen zehatzik egin ezelango arautan eta, beraz, izendapenaren benetako izaera juridikoari buruzko zalantzak sor daitezke.

Aipatu dugun horren osteko plangintza —gune horiek erabili eta kudeatzea edo natur baliabideak ordenatzea— 9/2006 Legearen aplikaziopekoa da Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, eta 183/2003 euskal Dekretuaren aplikaziopekoa Euskal Autonomia Erkidegokoa bada.

4.8. Mendiak eta basoen ustiapena

Mendiei buruzko legeriak ez du jasotzen berariazko prozedurarik publikoak gai honetan parte har dezan. Gauzak horrela, administrazio bakoitzeko arauak onartzeko prozedura orokorrek 27/2006 Legeak parte-hartzearen esparruan ematen dituen bermeak onartu behar dituzte. Gai honetako xedapen orokorrak mendiei buruzko 43/2003 Legearen garapenaren gainekoak izan daitezke.

Foru-organoen eskumenekoak izanik, xedapenak ez dira lege mailakoak. Halere, planteatzen liteke arazorik 27/2006 Legean aurreikusten diren bermeak eta foru-eremuko arauak onartzeko prozedurak batzeko. Kontuan izan asko eta asko Batzar Nagusietan izapidetzen direla eta horiek zail izango dutela Legeak, informazioa zabaltzeari dagokionez, ematen dituen beharrak betetzea. Parte-hartzea hasiera-hasierako uneetan gauzatzeko agindua ere ez da erraza izango, izan ere, arauen aurreproiektuak ez dira zertan argitaratu eta ez da alegazioak aurkezteko izapidetik irekitzen. Dena den, gai honetan parte hartzeko eskubidea jaso beharko litzateke. Foru-instituzio bakoitzak bere foru-araua dauka mendi-gaietan, eta, horren ondorioz, aldaketa eta berrikusketa orok 27/2006 Legearen bermeak izan behar ditu.

4.9. Hondakinen kudeaketa

Estatuko 10/1998 Legean ez da parte hartzeko prozedurarik ezartzen hondakinen kudeaketari buruzko arauak egin eta onartzeko. Gainerako kasuetan bezala, araua onartzen duen Administrazioaren –estatukoa, autonomia erkidegokoa edo tokikoa- antolamendua eta funtzionamendua erregulatzen duen araudia aplikatu behar da. Prozedura hori 27/2006 Legeak aurreikusten dituen bermeekin eta eskubideekin etorri behar da bat. Erregelamendu horiek hondakinen araberako kudeaketa-mekanismo desberdinak aurreikusi dituzte. Honako gaiak erregula daitezke erregelamenduen bidez:

- Hondakinak balorizatu eta baztertze lanak eta Europako hondakinen zerrenda.
- Hondakinak baztertzea zabortegean utzita.
- Hondakinak erraustea.
- Ontziak eta ontzien hondakinak.
- 1416/2001 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, produktu fitosanitarioen ontzietan buruzkoa.
- Hondakin toxiko eta arriskutsuak.
- Industria-olio erabiliak.
- Substantzia eta produktu jakin batzuk baztertzea eta kudeatzea.
- Makinen eta motordun ibilgailuen hondakinak kudeatzea.
- Hondakin sanitarioak kudeatzea.
- Hondakin inerteak kudeatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenari buruzko Legeak ahalmena ematen die agintari publikoei, monopolio-erregimenean, zenbait hondakin kudeatzeko zerbitzu publikoak eratzeko. Beraz, udalerriren batek jarduera hori sektore publikoarentzat eskusiban emateko asmoa badu, toki-titulartasuneko zerbitzu publikoaren izendapena izan behar du, dagokion autonomia-erkidegoak udalerrinari emana (10/1998 Legearen 12. artikulua).

Horrez gain, udalak zerbitzu hori emateko baldintzak onartu behar ditu: kudeaketa-mota (zuzena edo zeharkakoa), toki-titulartasuneko enpresa baten sorrera, ekonomia mistoko erregimena, etab. Hondakinak batzeari buruzko ordenantzak ere onartu ahal izan go dituzte, zabor-bilketa, esaterako. Bestalde, jarduera-erreserba, Toki Jardunbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legearen 86.3. artikuluan ezarria, bateragarria da merkatuan egon daitezkeen beste enpresa batzuekin; horrela, lehia askeari buruzko Erkidegoko araudia betetzen da. Arau horiek onartzeko prozedurak 27/2006 Legearen aplikazio-eremukoak izan beharko luke, eta, aldi berean, Toki Jardunbidearen Oinarri buruzko Legean, toki-erakun-

Mendi gaietako Foru Arau baten aldaketa eta berrikusketa orok 27/2006 Legearen bermeak izan behar ditu parte-hartzeari dagokionez.

Toki Jardunbidearen Oinarri buruzko Legeak dioenari jarraituz, toki-ordenantzak onartzeko prozeduran beharrezkoak dira jendaurrean jartzeko izapidea eta interesdunei entzutea, gutxienez hogeita hamar eguneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzaten.

dearen berariazko antolaketa-erregelamenduan eta toki-erakundeen antolamendu eta funtzionamenduaren erregelamenduan ezarritako prozedurak ere bete behar dira.

Substantziak eta horiek nola erabili araututa daudenez Europako esparruan, parte hartzeko prozedura Aarhus-eko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera izan behar da.

4.10. Produktu kimikoak, biozidak eta pestizidak barne

Gai horri dagokionez, nabarmena da Erkidegoko araudiak duen eragina; ez bakarrik ingurumen-politikak bultzatzen direlako, baizik eta salgaien joan-etorria askea delako Europar Batasunaren eremuan. Produktuei buruzko oinarrizko araudia REACHen (1907/2006 Erregelamendua) jasotzen da. Europar Batasuneko esparruan erregelamendu honek produktu kimikoen erregimen juridikoa zehazki arautzen du mota askotako bete-beharrak ezarriaz, horien artean informazioari, gardentasunari eta parte-hartzeari buruzkoak. Arauaren izaera dela eta, zuzenean aplikatu daitezke. Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentziak, substantzia kimikoak erabiltzeko mugak ezarri aurretik, interesdun alderdi guztiei eskatuko die oharra egin ditzatela, argitaratze datatik hasita hiru hilabeteko epean, derrigorrezko baimenetik salbuetsi beharko liratekeen erabilerei dagozkienak batez ere.

Substantziak eta horiek nola erabili araututa daudenez Europako esparruan, parte hartzeko prozedura Aarhus-eko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera izan beharko litzateke. 26/1984 Legeak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa, eta 14/1986 Legeak, Osasunari buruzko Orokorra, barne araudiari osatzen dute. Horietako ezein arau nagusitan edo erregelamenduzkotan ez da berariazko prozedurarik jasotzen gai horretako araudia onartzeko edo, hala dagokionean, araua egiteko prozeduran parte hartzeko izapiderik. Halakoetan administrazio publiko bakoitzeko xedapenak onartzeko prozedurari dagokion araudia aplikatzen da. Horiek guztiek 27/2006 Legearen parte-hartzeari buruzko bermeak jaso behar dituzte.

Estatu mailan onartu dira jada erregelamendu bidez erregula daitezkeen zenbait arau. Honako gaiak buruzkoak izan daitezke:

- Substantzia berriak agintari eskudunari jakinarazteko prozedurak eta substantziak sailkatu eta merkaturatzeko beste baldintza batzuk.
- Prestakin arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatu.
- Substantzia eta prestakin jakin batzuk merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak.
- Biozidei eta pestizidei buruzko erregulazioa.

Herritarrek bioteknologiaren gaian parte hartzeko bideak nahiko mugatuak dira, izan ere araudia Europar Batasunetik dator.

4.11. Bioteknologia

Nazioarteko zenbait tresnez gain, genetikoki eraldatutako produktuei buruzko araudia Europar Batasunetik dator. Hala, 1830/2003 Erregelamendua genetikoki eraldatutako produktuen trazabilitatea eta etiketatzea arautzen du. Genetikoki eraldatutako organismoentzat identifikatzaile bakarrak sortzeko eta horiek emateko sistema 65/2004 Erregelamendua arautzen du. Horietan ez da inolako prozedurarik zehazten arauak onartzeko, ezta jendeak parte hartzeko izapiderik ere. Lehenengo erregelamenduan, dena den, bada publikoari informatzeko mekanismorik.

9/2003 Legeak jendeari informatzeko izapidea aurreikusten du produktuak merkaturatzeko baimen-prozeduretan —geroago aztertuko da hori—. Hala ere, ez zaio aipamenik egiten gaiari buruzko xedapen orokorrak onartzeari. Hortaz, gaian eskumena duten administrazioen antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak aplikatzen dira. Horiek izapidetzeko kontuan hartuko dira 27/2006 Legeak parte-hartzeari dagokionez ematen dituen bermeak.

Herritarrek gai horietan duten parte-hartzea, beraz, nahiko mugatua da, baimen-prozedurek izan baitezakete eragina ingurumenaren alorrean. Alor horri dagokionez, bereziki erreparatu behar zaie tartean dauden sektoreetako; esate baterako, nekazariei, abeltzainei, nekazaritza-enpresariei, ekologistei eta zientifikoei, genetikoki eraldatutako produktuei buruzko araudiak diziplina asko hartzen baititu bere baitan.

4.12. Beste emisio batzuk

Atmosferaren kutsaduraz aritu garenean aipatu ez ditugun gainerako gas-emisioak erants daitezke atal honetan. Gaia oso zabala denez, 27/2006 Legeak ezarritako parte-hartzearen inguruko baldintzak egoera askotan aplika daitezke, baldin eta legegileak substantzia horiek atmosferarako edo pertsonen osasunerako bereziki kaltegarritzat hartzen baditu, betiere. Ezein arauk jaso du parte hartzeko izapiderik emisio mota honetarako. Administrazio publiko bakoitzean dagokion prozedura segitu behar da xedapena onartzeko, betiere 27/2006 Legearen bermeak errespetatuta.

Honako gaiak erregula daitezke, besteak beste:

- Emisio irrati-elektrikoak murriztea eta osasun-babeserako neurriak.
- Hondakinak erraustea.
- Amiantoak ingurumenean sorturiko kutsadura prebenitzea eta murriztea.
- Jarduera jakinetan disolbatzaileak erabiltzeagatik sorturiko konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzea.

Araudi hori onartzeko prozedurari dagokionez, 27/2006 Legeak parte-hartzearen inguruan ezarritako bermeak hartu beharko lituzke bere gain. Horrezaz gain, onartu beharreko arau-proiektuari buruzko informazioa herritarren esku jartzen denean, kontuan hartu behar da erradiazioen ondorioei buruzko desadostasun zientifikoak daudela.

4.13. Ingurumenean substantziak isuri eta aineratzea

Jarduera horiek erregulatzeko arauak ez dute parte hartzeko izapiderik aurreikusten xedapen orokorrak onartzeko prozeduretan. Beraz, 27/2006 Legean aurreikusitako bermeak aplikatu behar dira administrazio eskudunek izapidetutako prozeduretan. Substantziak isurtzearen edo aineratzearen kasuetan Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoari edo Gobernu Batzari berari dagokie xedapena behin betiko onartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan 196/1997 Dekretua onartu zen, itsaso-lehorreko herri erabilera babes-zorpeko aldean erabilpenetarako eta lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimenak emateko jardunbidea ezartzeko dena.

Autonomietako erregulazioek estatuko oinarrizko legeriak parte-hartzeari dagokionez ematen dituen bermeak zabaldu ahal dituzte.

4.14. Ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioa

1/2008 Legegintzako Errege Dekretua xedapen orokorren bidez garatu behar da. Aitaturiko Legegintzako Errege Dekretuak ez du aurreikusten, parte-hartzeari dagokionez, inolako berezitasunik, ezta gai honen inguruan emango diren Lege mailako arauak garatzeko xedapenak egiteko prozedura klaserik ere. Orduan, Estatuaren 50/1997 Legea aplikatuko da, izan ere, xedapen orokorrak egin eta onartzeko Administrazio horrek duen funtzionamendua erregulatu du.

Euskal legeri autonomikoan ere ez da aurreikusi gai honetako xedapenak onartzeko prozeduretan parte hartzeko izapiderik. Euskal Autonomia Erkidegoak bere arauak eman litzake Estatu oinarrizko legeria -1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan jasotakoa- garatzeko. Hala, bada, 8/2003 Legea aplikatuko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Zehatzago, 3/1998 Legea, ingurumenarena, garatzeko aukera aztertu behar litzateke.

3/1998 Legeak, ingurumenarenak, hiru eraginaren ebaluazio mota ezartzen ditu (43. artikulua):

- a) Ingurugiro-eraginaren baterako ebaluazioa, plan bat aplikatuta ingurugiroan sortaraziko diren eraginak baloratzeko, geroago araudi bidez garatuko den prozeduraren arabera.
- b) Ingurugiro-eraginaren banakako ebaluazioa. Helburua proiektu bat burututakoan ingurugiroarekiko eraginak 1.302/1986 Legegintzako Errege Dekretuan, ekaina-

**Euskal
Autonomia
Erkidegoak,
ingurumenaren
arloan, bere
araudia eman
dezake Estatuko
oinarrizko
araudia
garatzeko eta,
hori gertatuz
gero, 27/2006
Legeak parte-
hartzeari
dagokionez
ematen dituen
bermeak jaso
beharko lirateke
izapidetzean.**

**27/2006 Legeak
parte-hartzearen
inguruan
xedatutako
bermeak aplika-
tzeko
salbuespenak
honako arauetan
gauzatuko dira:
helburu bakar-
bakarra defen-
tsa, segurtasun
publikoa, babes
zibila eta
larrialdi
egoeretakoa
denetan; edo
agintari
publikoek beren
burua antola-
tzeko ahalari
dagozkion gaien
marko juridikoa
erregulatzen
dutenetan.**

ren 28koan, eta hori garatzen duen araudian jasotako prozeduraren arabera baloratzea da.

- c) Ingurugiro-eraginaren ebaluazio sinplifikatua. Helburua ingurunean eragin txikia duen proiektua burututakoan edo ingurugiroaren gaineko eraginak detektatzea edo zuzentzea erraza denean ingurugiroaren gaineko eraginak baloratzea da.

4.15. Informazioa eskuratzea, parte-hartze publikoa eta epaitegietara jotzea

Alor horretan erregelamendurik garatu ez bada ere, kontuan izan behar dira beti autonomia-erkidegoetako erregulazioak, lehendik ezarrita dauden parte-hartzearen inguruko bermeak gehi ditzakete-eta. Esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Legea garatzeko asmoa dago, planak onartzeko prozedurari buruzko alderdiak, hain zuzen. Plan orokorren bat edo arloko planen bat egiteko Administrazioak abian jarri behar dituen parte hartzeko programen eta informazioa eskuragarri jartzeko mekanismoen edukiei buruzko xehetasun gehiago jasoko dira horietan.

4.16. Autonomia-erkidegoetako araudietan ezarritako gainerako arloak

Parte-hartzearen eskubideen inguruan, 27/2006 Legeak bere baitan hartzen dituen gutxienekoen erregulazioa ezagutarazten da atal honetan. Kontuan hartu behar da ingurumenaren alorrean autonomia-erkidegoek duten eskumena legeak garatzeko eta exekutatzeko. Halaber, kontuan hartu beharrekoa—izaera orokorreko xedapenak egiteko eta onartzeko bideratutako administrazio-prozedurak baitira—, nork bere burua antolatzeko eskumenak ere sartzen direla tartean, eta, beraz, prozedurari buruzko urratsak eta horretarako dauden bideak xehetasun handiagoarekin xedatu behar dira. Nolanahi ere, Estatuaren legediaren izaera oinarrizkoa denez, aurkako egoera ezinezkoa da; hau da, 27/2006 Legeak bere baitan hartzen dituen parte hartzeko eskubideak errespetatu beharko lirateke, lege-testu horretan adierazten diren arloen inguruko xedapen orokorrak onartzeko prozeduretan.

4.17. Parte-hartzearen inguruko arau bereziak, lan-arriskuen prebentziorako planetan

Lehen ere esan dugu 37/1995 Legea aplikatuko dela, gai horren inguruko planak eta programak onartzea xede duten prozedurak arautzeko. Horrenbestez, 27/2006 Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude, halaber, gai horren inguruko arauak onartzeko prozedurak.

Izaera orokorreko xedapen baten helburua lan-baldintzak hobera egitea sustatzea bada, langileen segurtasunaren babes-mailak eta osasun-mailak gora egin dezaten bideratuta, ingurumenaren alorreko parte-hartzeari buruzko bermeak ezin izango dira erabili. Gai desberdinek bat egitea uste duguna baino ohikoagoa da. Esate baterako, demagun langileek emisio erradiaktiboen eraginpean dauden eremuren batean egiten dutela lan edo osasunerako kaltegarriak diren substantzia kimikoak manipulatzeko dituztela.

4.18. Aplikazio-salbuespenak zenbait gaitan; esate baterako, defentsa, segurtasun publikoa, babes zibila eta larrialdi-egoerak edo itsasoan diren pertsonen salbamendua

Atal honetan, nahitaezkoa da 1.8. atalera jotzea eta babes zibilaren eta defentsa nazionalaren alorrean legediak dituen arazoak gogora ekartzea; azken horri dagokionez, Konstituzio Auzitegiak gaiak zehaztu ditu. Ingurumenari buruzko araudiaren gainetik dauden interesak direnez —segurtasun publikoko edo larrialdiko egoerak direlako—, legegileari ez zaio egokia iruditu parte-hartzearen inguruko bermeak eranstea.

Hala ere, oso agerikoa izan behar du arauak bakar-bakarrik defentsa nazionalerako edo larrialdiko egoerarako eta babes zibilerako direla. Arau horietakoren batean, aipatutako gairen batekin zerikusia duen aginduren bat jasotzen bada, zalantza sor daiteke parte-hartzearen inguruko bermeak aplikatu behar diren edo ez erabakitzeke. Halakoetan, eta ez da oso ohikoa halakorik gertatzea, erregelamendua onartzeko ardura duen organoari dagokio gai horietakoren bat arautzen duen egiaztatzea.

4.19. Funtsezkoak ez diren xedapenen inguruko salbuespenak, izaera antolatzailea, prozedurazkoa edo antzekoa dutelako, baldin eta babes-neurriak murriztea eragiten ez badute, betiere

Hona hemen, besteak beste, 27/2006 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dauden arauak: Ingurumen Ministerioaren mendeko edo ingurumenaren alorreko autonomia-erki-degoetako sailen mendeko organoen berregituraketa. Badira funtsezkotzat har ez daitezkeen beste gai batzuk ere, nahiz eta berariazko arauen bidez erregulatu horiek; esate baterako, administrazio-organoren bati eskumen jakin batzuk ematea, Administrazioaren zerbitzura aritzen diren langileentzako jarduera-protokoloak ezartzera bideratzen diren zirkularrak, bai eta langile publikoen barne-prestakuntzarekin zerikusia duten alderdiak ere.

Horrenbestez, Administrazio Publikoak bere burua antolatzeko duen ahalari dagoz-kion gaien esparru juridikoa arautzen duten arauak onartzeko prozeduretan ez dira 27/2006 Legean parte-hartzearen inguruan xedatutako bermeak aplikatuko. Baina ingurumenaren babeserako neurriak murriztea eragiten badute arau horiek, berehala jarri behar dira abian legeak xedatzen dituen mekanismoak. Adibidez, ingurumenarekin zerikusia duen alderdiren bati eragiten dion prozedura jakin bat erregulatu behar izanez gero —esate baterako, ingurumen-baimena edo ingurumen-eragina—, nahitaez egin beharreko txosten teknikoa alde batera utz daiteke, eta, horrek, ebaluazioari buruzko azken ebazpenari eragingo lioke.

4.20. Helburu bakarra planak eta programak onartzea duten izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura

Gai jakin batzuen inguruko plangintza arau zehatz baten bidez egin daiteke, erregelamenduen bidez esaterako. Hala gertatzen da hirigintza-planetan edo natura-baliabideen antolamendurako planetan. Kasu horietarako guztietarako, legegileak parte-hartzearen inguruko eskubideak kanpo uzten ditu; hau da, plan horiek onartzeko prozeduretatik kanpo uzten ditu. Horrek erabateko zentzua du, baterako ebaluazioari buruzko 9/2006 Legeak aurretiaz kontsultak egiteko tramitea xedatzen duelako eta, horrezaz gain, plan-proposamenari buruzko informazioa herritarren esku jartzeko betebeharra ezartzen duelako lege horrek. Hala ere, aurreko ataletan aztertu ahal izan dugun bezala, zenbait gairen inguruko plangintza-prozesuetarako 27/2006 Legeak xedatutako parte-hartzearen inguruko bermeak aplikatu behar dira.

Erregelamenduak direnez, xedapen orokorrak, beraz, esan daiteke beti aplika daitekeela 27/2006 Legea, planak egiteko berariazko arauak xedatzen dutena gorabehera. Horretarako arrazoia da 27/2006 Legea aplikatzeko zalantzarik egonez gero, beti ebatzi behar dela herritarrentzat onuragarriagoa den araua aplikatuta.

27/2006 Legea aplikatzeko zalantzarik egonez gero, beti ebatzi behar da herritarrentzat onuragarriagoa den araua aplikatuta.

Proiektuari baimena eman behar dion organo eskudunak jendaurrean jartzeko izapidea abiatu ezean, ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozedura berriro hasi behar da, izan ere, ebaluazioa dela-eta egindako jardunak artxibatatu egingo dira.

5. PARTE HARTZEA ADMINISTRAZIO-JARDUERA BETEARAZLEETAN

Atal honetan aztertuko da herritarrek ingurumenean eragina duten jarduerak gauzatzeko dituztenerako Legeak nolako bermeak aurreikusten dituen parte-hartzearen inguruan. Administrazioak, aldez aurreko ingurumen-eraginaren ebaluazioaren bidez, proiektu batzuen gauzatea ikuskatzen du. Halaber, herritarrak instalazio jakin batzuk jartzeko edo isurketak egiteko baimena eskatzen duenean, Administrazioak ziurtatu egiten du jarduera horri baimena emateak ez diola kalte larrikeria eragingo inguruari. Beste aldetik, udalek jarduera-lizentziak emateko prozedurak sustatzen dituzte eta horien baldintzapean instalazioak irekitzeko baimena emango da eta bestelako jarduerak gauzatzeko aukera ere bai. Prozedura horietan guztietan jaso daitezke publikoak parte hartzeko izapideak.

Zazpi motako prozedurak bereizten dira:

- a) Ingurumen-eraginaren ebaluazioko prozedurak.
- b) Ingurumen-baimen bateratua lortzeko prozedurak.
- c) Bioteknologiaren alorreko prozedurak.
- d) Jarduera-lizentzia emateko toki-mailako prozedurak.
- e) Uretan isurketak egiteko baimena lortzeko prozedurak.
- f) Hondakinak ekoitzi eta kudeatzeko baimena lortzeko prozedurak.
- g) Kostaldean alorreko prozedurak.

5.1. Jardueren ingurumen-eraginaren ebaluazioa.

Prozedura ebatzi behar duen Administrazio eskudunak ingurumen-eraginaren azterketa egin behar du. Proiektua baimentzeko eta egiteko aplikatu beharreko prozeduraren barnean, eta horrekin batera, azterketa horrek informazio publikoko izapidetik pasatu behar du, baita prozeduran ezartzen diren gainerako txostenetatik ere. Aitaturiko izapidea prozeduraren hasiera-hasierako faseetan gauzatu da, artean aukera guztiak irekita daudenean, modu horretara baimena eta ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar dituen proiektuaren edukia, tamaina eta definizioa zehazteko. Gutxienez 30 egunetz luzatuko da izapidea (1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, 9.1. artikulua).

Legegintzako Errege Dekretuak Aarhus-eko Hitzarmenaren bermeetako bat jaso du: hasiera-hasierako parte-hartzearena, hain zuzen. Arau berean aipatzen denez, proiektuari buruzko erabakia eman behar duen organo eskudunak, jendaurrean jartzeko izapidean, publikoari honako puntuak buruzko informazioa eman behar dio: zelako proiektu motari emango zaion baimena, aldez aurreko eragin azterketa, non aurki daitezkeen informazioa edo parte hartzeko moduei buruzkoa (1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, 9.3. artikulua). Jendaurrean jartzeko izapidea aurreikusten denez, ez da mugatzen interesdun pertsonetara edo Legeak zehazten dituenetara.

Proiektuari baimena eman behar dion organo eskudunak jendaurrean jartzeko izapidea abiatu ezean, ingurumen-eraginaren ebaluazioaren prozedura berriro hasi behar da, izan ere, ebaluazioa dela-eta egindako jardunak artxibatatu egingo dira (1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, 10. artikulua).

5.2. Ingurumen-baimen bateratua

Kutsatzeko ahalmen handia duten jarduerak berriazko legeriaren eraginpean daude —*kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuarenaren (IPPC) pean*—. Horren funtsa kutsadura saihestea da iturriaren eraginda, eta asmoak jarduerak zuzur kudeatzea errekursoak eta ahalik eta gehienez murriztu hondakinak eta atmosferara, uretara eta lurzoruetara egindako emisioak.

Ingurumen-baimen bateratuaren helburua ingurumena oro har babestea da, horretarako prebentzio eta kontrolko printzipioak modu bateratuan aplikatuz, ingurune batetik

Ingurumen-organoko pertsona interesdunen parte-hartze erreala eta benetako sustatu behar du ingurumen-baimen bateratua ematen badu instalazio berria jartzen denean, horrek aldaketa handia duenean, edo ingurumen-baimen bateratua berriro edo aldatzen duenean.

besteko kutsadura-transferentzia eragozteko. Hori lortze aldera, instalazio bakoitzeko muga-baloreak ezartzen ditu ingurumeneko agente guztietan (atmosfera, urak, zaratak, hondakinak, lurzorua...), baita hartarako zaintza-planak ere. Bateratu izena du administrazio-ekintza bakar batean hondakinak ekoitzi eta kudeatzearen arloan diren ingurumen-baimen guztiak dituelako —hiri-hondakinak eta arriskutsuak erraustea, hondakinak isurtzea, ur kontinentaletara egindako isurketak (ur zikinen sistema bateratuan egindakoak barne) eta lehorretik itsasora egindako isurketak— eta atmosferaren kutsaduraren arloko ingurumen-zehaztapenak ere bai.

16/2002 Legearen I. eranskinean aipatzen diren jardueretan gauzatzen diren instalazioak eraikitzeak, muntatzeak, ustiatzeak, lekuz mugitzeak eta aldaketa handiek ingurumen-baimen bateratua behar dute, halaber.

Baimena emateko prozeduran, ebazpena emateko ardura duen ingurumen-organoak publikoari informatzeko epea zabaldu behar du. Edozein pertsonak kontsultatu ahal du espedientea eta alegazioak aurkeztu, izapide berean, inolako interesik izan barik ere. Horren helburua prozedura bat ireki dela herritarrei jakinaraztea da. Prozedura horren arabera pertsona fisiko edo juridikoren batek honakoak egin ahal izango ditu: emisioak atmosferara, isurketak uretara eta lurzoruetara egin eta instalazioak ezarri edo aldatu.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko 16/2002 Legearen 5. eranskinak jendaurrean jartzeko izapidean publikoaren esku jarri beharreko elementuak zehazten ditu:

- Eskaria eta edukia.
- Eskariak proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duenentz.
- Ebazpena emateko organo eskuduna zehaztu.
- Ebazpenaren izaera juridikoa.
- Baimena aldatzeari buruzko ñabardurak.
- Informazioa noiz, non eta nola emango den.
- Interesdun pertsonen parte hartzeko moduak, erkidegoko organo eskudunak zehaztuak.

Gardentasun handiagoa sustatze aldera, ingurumen-organoak baimena emateko ebazpena argitaratu behar du, baita horren edukia ere. Hain zuzen ere, memoria batean jasoko dira administrazio-ebazpena emateko kontuan hartu diren arrazoi eta gogoeta nagusiak, parte-hartze prozesuari buruzko informazioa barne (16/2002 Legea, 23.4 artikulua). Ildo beretik, ingurumen-organoak antzeko edukia duten alegazioak pilatu egin ditzake denak batera erantzute aldera, 30/1992 Legearen 86. artikulua xedatzen duenari jarraituz.

5.3. Parte-hartzea bioteknologiaren alorrean.

Genetikoki eraldatutako organismoak borondatez askatzeko asmoa duten pertsonen baimena eskatu behar diote Administrazio eskudunari (9/2003 Legea, 12.1. artikulua). Behin eskaria eta legeak exijitutako bestelako dokumentuak (azterketa tekniko eta arrisku-ebaluazioa) aurkeztuta, ingurumen-organoak jendaurrean jartzeko epea irekiko du, hartara eraldatutako organismoak askatzeari buruzko iritzia jasotzeko (12.2. artikulua). Jendaurrean jartzeko izapidea 30 egunez luzatuko da (178/2004 Errege Dekretua, 25.4. artikulua).

Parte hartzeko bermeei dagokienez, Legeak ez ditu isilpekotzat jotzen ondoko informazioei buruzkoak: egin diren borondatezko askapenak, emandako merkaturatze-baimenak, merkaturatzeko baimena jaso duten eraldatutako organismoen zerrenda, ebaluazio-txostenak, egindako kontrolen emaitzak eta adituen txostenak. Dokumentu horiek guztiak publikoaren esku jarriko dira, baita genetikoki eraldatutako organismoen deskribapena ere (20.2. eta 20.3. artikulua). Auzi horiek guztiak jendaurrean jartzeko izapidean jakinarazi behar dira (178/2004 Errege Dekretua, 25.4. artikulua).

Baimenak emateko administrazio-prozeduran parte hartzeko arlo bakoitzeko —urak, hondakinak, ingurumen-baimen bateratua, aire-kalitatea, etab.— araudian jasotako prozeduren arabera egin behar da.

Prozedura horietako gehienek erabiltzen dituzten bideak baimenak emateko prozeduretako informazio publikoko izapideak dira.

5.4. Jarduera-lizentziak

Jarduera sailkatu bat ezarri, handiagotu edo berriztatzeko udal-lizentziari jarduera-lizentzia deritzo eta hori gauzatzeko *ondorengo azpiataletan zein garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da* (Eusko Legebiltzarreko 3/1998 Legea, 56. artikulua).

Jarduera-lizentzia ez emateko arrazoiak, udal eskumenak direla-eta, hiri-plangintzan edo udal-ordenantzetan oinarritzen direnetan salbu, Alkateak jendaurrean jarriko du jarduera ezartzeko eskabidearen espedientea Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta jarduera ezarriko den lekuaren ondo-ondoko auzokoei zuzenean jakinaraziko die. Jendaurrean jartzeko epea 15 egunekoa da, kaltetuek alegazioak aurkez ditzaten (58.1 eta 58.2. artikulua).

Beraz, jendaurrean jartzeko izapide honetan kaltetuek soilik har dezakete parte. Auzi honetan, kontuan hartu behar da 30/1992 Legearen 86. artikulua, zeinek dioen Administrazioak, kasu honetan Alkateak, kaltetuek aurkeztutako alegazioei erantzun behar diela. Hori dela eta, eskatzen dutenen eskura jarri behar da jarduera-lizentzia ematen duen ebazpena.

5.5. Jabari hidrauliko publikoa ustiatzeko eta jabari horretan isurketak egiteko prozedurak

Behin hartzeko eskaria aurkeztuz gero ustiapena egingo den probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da iragarkia. Iragarki horretan publikoari jakinaraziko zaio hartzeko edo ustiatzeko proiektua jendaurrean jartzeko izapidean aztertu ahal izango dela. Epea ez da inoiz izango 20 egunekoa baino laburragoa. Kaltetuek Arroko Erakundearen esku dauden espediente eta dokumentuak aztertu ahal izango dituzte eta alegazioak egin (849/1986 Errege Dekretuaren, Jabari Hidrauliko Publikoaren Erregelamendua onartzen duenaren, 109. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Uraren Euskal Agentzia da jabari hidrauliko publikoaren babesaz arduratzen dena, bereziki administrazio-emakidak eta -baimenak ematea, baita zaintza, ikuskapena eta gaia erregulatzen duen araudia urratzeagatiko zehapenak ere (240/2007 Dekretua, 4. artikulua).

Isurketa-baimenen eskariak izapidetzeko 30 eguneko epea eskatzen da —jendaurrean jartzeko izapidea— probintziako aldizkari ofizialean jarriko den iragarkiaren bidez, alegia (849/1986 Errege Dekretua, 247. artikulua).

5.6. Hondakinak ekoitzi eta kudeatu.

Hondakinei buruzko oinarrizko legeriak ez du jendaurrean jartzeko izapiderik aurreikusten hondakinak ekoitzi eta kudeatzeko baimen-prozeduretan. Alta, horrek ez du esan nahi ez direla parte hartzeko mekanismorik jaso behar horren garrantzi handiko gaian.

Ingurumenari buruzko euskal Legeak ez du garatzen baimena emateko prozedura ekoizpena eta kudeaketari dagokionez. Hala ere, gogoratu behar da horietako jarduera gehienek baimena behar dutela edo, hala denean, ingurumen-baimen bateratua eta, gainera, kasu askotan, ingurumen-eraginaren ebaluazioa. Lehenago esan dugunez, prozedura horietan guztietan jendaurrean jartzeko izapideak aurreikusten dira.

5.7. Itsasaldeko jabari publikoa.

Bada jendaurrean jartzeko izapiderik honako kasurako: Administrazioak, bere ahalak beteaz, jabari publikoa eta jabego pribatuaren artean mugarritu behar duenean. Mugarritze-proiektuaren ondorioz alde aurretik egindako mugatzea asko aldatzen denean jendaurrean jartzeko izapidea irekiko da, baita alboko jabe kaltetuei entzuteko izapidea ere (1471/1989 Errege Dekretua, 25. artikulua).

Hondakinei buruzko oinarrizko legeriak ez du jendaurrean jartzeko izapiderik aurreikusten hondakinak ekoitzi eta kudeatzeko baimen-prozeduretan.

Hala ere, horietako jarduera gehienek baimena behar dute edo, hala denean, ingurumen-baimen bateratua eta, gainera, kasu askotan, ingurumen-eraginaren ebaluazioa. Prozedura horietan badira parte-hartzeari buruzko betebeharrak.

Sarbide publikoak eta aparkalekuak egin edo aldatzeko Kostaldean Aldiriko Zerbitzuak proiektua egingo du eta jendaurrean jarriko du hogeita hamar egunez eta Autonomia Erkidegoaren eta Udalaren txostenak beharko ditu. Proiektua onartzeak berarekin dakar okupatzeko beharra adieraztea eta, ondoren, nahitaez desjabetzeko legerian aurreikusitakoa beteko da (1471/1989 Errege Dekretua, 53.2. artikulua).

Itsasaldeko jabari publikoa okupatzeko lanen proiektua ere jendaurrean jartzen da, defentsa edo segurtasunerako instalazioak direnean izan ezik (1471/1989 Errege Dekretua, 86. artikulua). Itsasaldeko jabari publikoa okupatzeko emakiden esleipenen kasuan, proiektuak jendaurrean jarriko dira (1471/1989 Errege Dekretua, 154.3. artikulua).

Jendaurrean jartzeko izapidearen iragarpena aldizkari ofizialetan eta egunkarietan jartzeaz gain, informazio-teknologiaren eta telematikaren erabilera sustatu behar da.

LAUGARREN KAPITULUA

EPAITEGIETARA JOTZEARI BURUZKOA

AURKIBIDEA

1. EPAITEGIETARA JOTZEKO ESKUBIDEAREN ARAUTZE JURIDIKOA	107	4.2. Erakunde pribatuen esku dagoen informazioa	111
2. EPAITEGIETARA JOTZEKO ESKUBIDEA, ESKUBIDE OROKORRA NAZIOARTEKO ARAUETAN ETA INGURUMEN-ARAUETAN.	108	4.3. Parte hartzeko eskubidea exijitzea	112
2.1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena	108	5. KAUTELA-NEURRIAK HARTZEKO AUKERA	114
2.2. Nazioarteko tresnak eta erkidegoko zuzenbidea ingurumen gaietan	108	6. INGURUMEN-PROZESUAK ETA HORIEN KOSTUA FINANTZATU	116
3. EGUNGO ARAUBIDE JURIDIKOA ETA MUGAK	110	7. INGURUMENAREKIN LOTURIKO ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO BIDE EZ-JURISDIKZIONALAK	117
4. ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ERREKLAMAZIOA INGURUMEN GAIETAN INFORMAZIOA ESKURATZEKO EDO PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ERRAZTEN EZ DIRENEAN	111		
4.1. Administrazioen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa eskatzen direneko prozedurak	111		

1. EPAITEGIETARA JOTZEKO ESKUBIDEAREN ARAUTZE JURIDIKOA

Ingurumenarekin loturiko administrazio-jardueraren aurka egiteak honakoetan du bere funtsa: Konstituzioan, babes judizial eragingarria izateko oinarrizko eskubidearen bidez; eta giza eskubideen Europako Hitzarmenean, epaiketa zuzena izateko eskubidearen bidez. Arazoa, dena den, ingurumen-arauak urratzen direnean eskubide hori nork erabil dezakeen zehaztean datza.

Konstituzioak babes judiziala onartzen die herritarrei gai betean eskubideak edo interes legitimoak dituztenean. Horrek esan nahi du interes zehaztugabea duten herritarrek alde batera utzi beharko lirakeela. Alabaina, ingurumena babestea planeta osoan bizi diren pertsona ororen arazotzat hartzen da edo, behintzat, ingurumen-araua urratu den lekutik hurbil bizi direnena. Ez da harritzekoa, beraz, ingurune fisikoaren elementuak babeste aldera, araudiak pertsona multzoa zabaltzea justiziari laguntza eskatu diezaioten.

Ingurumenari buruzko euskal Legeak berariaz ezarri du bertan xedatzen dena bete dadin, bai administrazio-bidetik, bai auzi-bidetik, eskatzeko ekintzaren izaera publikoa.¹⁷

27/2006 Legeak, aldiz, lege autonomikoetako ekintza publikoaren kontzeptuaren ñabardura sartzen du «herri-ekintza» espresioaren bidez. Euskal Legeak onartzen du herritar guztiek Administrazioaren aurka egitea, estatukoan, ostera, zehaztu egiten da nork jo dezakeen justiziara agintari publikoek ingurumen-araudian xedatutakoa urratzen dutenean.

Planteatu liteke ea bi arau horiek, estatukoa eta autonomikoa, aplika daitezkeen euren arteko kontraesanik sortu barik. Horri dagokionez, ezin da ahaztu legeri autonomikoak ingurumenari buruzko oinarrizkoa garatzen duela, Konstituzioaren 149.1.23. artikulua esaten duenari jarraituz.

Eskumenez haratago, garrantzitsua da esatea, apurka-apurka, ingurumen-tutoretza gero eta herritar gehiagori onartu zaiola. Herritarrek administrazio-ekintzen aurka egindako akzioen funtsa ez datza ingurumenerako eskubidean, baizik eta Administrazioari gai horretako araudia bete eta betearazi dezala eskatzeko eskubidean. Adibide gisa, pentsatu dezagun zenbait jardueraren inpaktuak prozesuan inolako interes legitimorik ere ez duten pertsonen eragin diezaikeela.

Lurzoruari buruzko euskal Legeak ekintza publikoa aurreikusten du administrazio publikoari eta pertsona pribatuei hirigintzari buruzko legeria eta ordenamendua bete dezaten eskatzeko. Berariaz azpimarratzen du legitimazioa ez dela beharrezkoa auzitegien tutoretza izateko¹⁸. Halaber, bestelako arauak aipatu litezke, kostaldea babesteari buruzkoa, adibidez¹⁹. Esparru horietan guztietan ezin liteke murriztu ekintza publikoaren bitartez auzitegietara jotzeko eskubidea, izan ere, esparru horiek herritarren bermeak zabaltzeko egiten dituzte ingurumen-tutoretza eskatzeko unean. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak badira auzian direnak, ingurumeneko euskal Legeak onartzen duen herri-ekintza gauzatu liteke, 27/2006 Legeak zehazten dituen mugak eta baldintzak jarraitu barik.

¹⁷ 3/1998 Legea Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa, 3.4 artikulua.

¹⁸ 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurzoruarena, 8. artikulua.

¹⁹ 25/1988 Legea, Kostaldearena, 109.1 artikulua.

Ingurumenari buruzko euskal Legeak berariaz ezarri du bertan xedatzen dena bete dadin, bai administrazio-bidetik, bai auzi-bidetik, eskatzeko ekintzaren izaera publikoa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ingurumenarekin erlazionaturiko zenbait erabakitan adierazi duenez ingurumen-araudia urratzea baliteke oinarritzko eskubide batzuk kaltetzearekin lotzea.

Aarhus-eko Hitzarmenak Auzitegietara edo bestelako erakunde independente batera jotzeko aukera ematen die pertsonen, baldin eta, ingurumen-gaietan, informazioa eskuratzeko edo parte hartzeko eskubideak urratu egin direla uste badute.

2. EPAITEGIETARA JOTZEKO ESKUBIDEA, ESKUBIDE OROKORRA NAZIOARTEKO ARAUETAN ETA INGURUMEN-ARAUETAN

2.1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

Oro har, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren ikuspuntutik justizia eskuratzeko eskubidea epaiketa zuzena izateko eskubidetzat hartzen da. Horrek esan nahi du pertsona ororen eskubidea dela Legeak ezarritako auzitegi independente eta inpartzial batek bere auzia entzutea, modu zuen eta publikoan, eta arrazoizko epean ebaztea²⁰. Auzitegiak pertsonen eskubide eta betebeharrak zibilei buruzko auziak ebartziko ditu, bai eta zigor-arloan haren aurka aurkeztutako edozein akusazioren oinarriari buruzkoak ere. Eskubide honen bi aldeak honakoak dira: alde batetik, pertsona entzun dezatelako eskubidea, hau da, auzitegietara jotzekoa; eta, bestetik, auzitegiek, bermedun epaiketa baten bidez, auzia argituko duen ebazpen arrazoitua eman beharreko eskubidea.

Agerian da, Europako Hitzarmenak eskubideak eta betebeharrak dituzten herritarrei mugatzen diela epaiketa zuzena izateko eskubidea, beste kontzeptu batzuk alde batera utzita, adibidez, Konstituzioaren 24.1. artikuluan aipatzen den interes legitimoa. Hitzarmen horretan ez denez ingurumenerako eskubiderik xedatzen, pentsatu liteke Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ez duela babesten ingurumen-konturik.

Baina, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ingurumenarekin erlazionaturiko zenbait erabakitan adierazi duenez ingurumen-araudia urratzea baliteke oinarritzko eskubide batzuk kaltetzearekin lotzea. Adibidez, zaratak eta usain txarrak isurtzen dituen hondakin-planta bat jarriaz, familia askoren ongizate orokorrari eragin diezaiokete eta, ondorioz, bizitza pribatua eta familiako bizitza izateko eskubidea zapal dezake. Are gehiago, horrelako kasuetan Auzitegiaren ustez urratu egiten da eskubidea, nahiz eta udalak barne Zuzenbideari jarraituaz jokatu²¹.

2.2. Nazioarteko tresnak eta erkidegoko zuzenbidea ingurumen gaietan

Aarhus-eko Hitzarmenak, bestalde, Auzitegietara edo bestelako erakunde independente batera jotzeko aukera ematen die pertsonen, baldin eta, ingurumen-gaietan, informazioa eskuratzeko edo parte hartzeko eskubideak urratu egin direla uste badute²². Horrek ez du esan nahi ingurumenari buruzko administrazio-erabakien kontra ekintza publikoa onartzen denik.

Aarhus-eko Hitzarmenak dioenaren arabera, barne araudiari jarraituz, interes nahikoa izatea edo eskubideren bat urratu izana egiaztatu behar da epaitegietara jotzeko. Hala ere, legitimazioa modu zabalean ulertu behar dela dio, baita GKEek interesdun publikoaren izaera izan behar dutela ere. Zehatzago esanda, bai parte hartzeko eskubideari loturiko arazoei aurka egiteko, bai Administrazioak ingurumen-araudia bete ez izanaren ondorioz sortutakoei kontra egiteko, beharrezkoa da interesduna izatea eta, azkenik, Estatu sinatzaileen barne araudira igortzen du espresuki.

Erkidegoko araudiak ere epaitegietara jotzeari buruzko erregulazioa ezarri du, baina ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduretan eta ingurumen-baimenak ematekoetan²³. Erkidegoko araudiari jarraituz informazioa eskatu duten guztiei onartzen die eskubide hori. Parte hartzeko eskubidea exijitzeko, aldi berean, Estatuei exijitzen zaie aukera eman diezaietela interesdunei errekurtsio jartzeko jurisdikzio organoen aurrean. Ingurumen gaietan harturiko administrazio-erabakiei dagokienez ere, beharrezkoa da interesduna izatea.

²⁰ Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Erroman sinatua 1950eko azaroaren 4an, 6.1. artikulua.

²¹ GEEA 2004-12-9, *López Ostra eta beste batzuk Espainiaren aurka*.

²² Aarhus-eko Hitzarmena, 9. artikulua.

²³ 2003/35 Zuzentaraua, 4. artikulua.

Gobernuz kanpoko erakundeek interesa aitortuta eduki behar dute parte hartzeko eskubidea urratu izanari aurka egiteko, izan ere, Estatu kideek zehaztuko dute zer den interes nahikoa eta zer eskubidea urratzea, betiere publiko interesdunari epaitegietara erraz jotzeko helburuarekin koherente izanik²⁴.

²⁴ 96/19 Zuzentaraua, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa, 15 bis artikulua aldaketa

27/2006 Legeak murriztu egin du, auzitegien aurrean, administrazioaren erabakiei aurka egin diezaieken pertsona multzoa. Euskal Legeak ekintza publikoa ezartzen du eta, ondorioz, ez dira aplikatzen
27/2007 Legeko xedapenak, mugatuagoak baitira.

3. EGUNGO ARAUBIDE JURIDIKOA ETA MUGAK

Herritarrak interes legitimoa edo eskubide baten titularra izan behar du auzitegien aurrean errekurso bat jartzeko. Beste aldetik, pertsona zehatz baten interes edo eskubideei loturik ez dauden interesak, interes zehaztugabeak dira, herritar edo erakunde batek lortu nahi dituen helburu solidario edo kolektiboak lotuak, alegia. Ingurumen-tutoretzaren kasuan herritarrek duten arazorik latzena fenomeno askok –itsaso, lurzoru edo atmosferarekin lotuak- duten zailtasun tekniko eta zientifikoa da. Hori dela eta, gai horretan adituak diren pertsonen lankidetzeta eta laguntza beharrezkoa da une oro. Hori guztia, GKEen bidez lor daiteke.

27/2006 Legeak dioenari jarraituz, irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoek herri-ekintza gauzatu ahal izango dute, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- a) Bere estatutuetan bermaturiko helburuetako bat izatea ingurumena orokorrean edo ingurumenaren elementuetako baten bat babestea.
- b) Gutxienez, ekintza burutu baino bi urte lehenago eratu izana eta estatutuetan aurreikusitako helburuak lortze aldera modu aktiboan jardun izana.
- c) Estatutuetan xedatutakoari jarraituta, beren jardueren lurralde-esparrua administrazioaren egite edo ez-egiteak eragindakoa izan behar da.

27/2006 Legeak murriztu egin du, auzitegien aurrean, administrazioaren erabakiei aurka egin diezaieken pertsona multzoa. Horixe da Lege horrek duen mugarik nagusia. Argi zehazten du errekursoak jarri eta babes judiziala eskatzeko pertsona juridikoen izazera. Izan ere, administrazio-prozeduretan 30/1992 Legean xedatutakoa garatzen da interes kolektiboak ordezkatzeko elkarteek duten interesdun izaerari dagokiona. Lege berak argi uzten du zein elkarteek har dezakeen parte prozeduran interesdun pertsona modura. Gogoan izan, euskal Legeak ekintza publikoa ezartzen duela eta, ondorioz, ez dira aplikatzen 27/2007 Legeko xedapenak, mugatuagoak baitira.

4. ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ERREKLAMAZIOA INGURUMEN GAIETAN INFORMAZIOA ESKURATZEKO EDO PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK ERRAZTEN EZ DIRENEAN

Legegileak aukera ematen die herritarrei administrazio bidezko errekurtsuak erabiltzeko, hala ingurumen informazioa eskuratzeko eskubideari dagokionez, nola gai bereko arazoetan parte hartzeko eskubideari dagokionez²⁵. Halaber, Legeak berariaz igortzen gaitu 30/1992 Legea, administrazio-prozedura erkideari buruzkoa dena.

4.1. Administrazioen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa eskatzen direneko prozedurak

Edozein pertsonak eskatu ahal dio Administrazioari ingurumenari buruzko edozein datu edo agiri. Hori dela eta, informazioa eskatu duen herritar orok eskatu lezake auzitegien babesa. Gogoan izan eskarian zehatz adierazi behar dela zein datu edo agiri eskatzen zaion Administrazioari. Ezin dira ahaztu datu garrantzitsuak: jakinarazpenetarako helbidea, adibidez.

Eskatzaileak sarri aldeztu aurretik normalizatua den agiri bat bete behar du. Espedienteaz arduratuko den Administrazio publikoaren aurrean aurkeztu behar du.

Arazoa honetan datza: zehaztu egin behar da zer prozedura mota izapidetu behar den auzitegien bidez Administrazioari zerbait exijitu gura izanez gero. Informazioa eskuratzeko eskubidea da eta 27/2006 Legean zehazten da horren nondik norakoa. Gainera, informazioa ukatzea Legean aurreikusitako arrazoi objektiboengatik bakarrik justifika daiteke. Hortaz, Administrazioa behartuta dago informazioa ematera, aipatutako arrazoietako baten kasuan izan ezik. Horietako batzuk honakoak dira: datu pertsonalen babesa, intimitaterako eskubidea edo merkataritza- edo industria-sekretua.

Erregistroan eskariari sarrera eman eta gero, hipotesi bi planteatzen dira: bata, Administrazioak ez du informazioa ematen Legeak xedatutako epean (hilabete bat edo bi, kasuaren arabera) eskaria hartu denetik zenbatuta. Ez dagoenez erantzutera behartuta ez da aplikatzen administrazio-isiltasunaren erregimena, baizik eta dokumentazioa eman behar du. Behar hori Legearen bidez xedatzen denez, administrazioarekiko auzi-bidera jo beharko litzateke Administrazioari exijitu diezaioten zerbitzua eman dezala. Zehatzago esanda, eskatzaileak erreklamazioa aurkeztu behar du informazioa eman behar duen organoaren aurrean. Horrek ez badu erantzunik ematen hiru hilabeteko epean, herritarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango du²⁶.

Bigarren hipotesia da Administrazioak, ebazpen baten bidez, espresuki ukatzen diola informazioa eskuratzeko. Ebazpenean informazioa ez jasotzeko arrazoi legalak emango dizkio, esaterako, eskatutako dokumentuan identifikatu ahal diren beste pertsona batzuen intimitatea babestea. Kasu honetan administrazio-errekurtsuaren erregimena aplikatu liteke. Egintzak ez badu administrazio-bidea agortzen gora jotzeko errekurtsua jarri lezake hierarkiako nagusi hurrenaren aurrean. Bidea agortzen badu, administrazioarekiko auzi-bidean egin liezaioke kontra ebazpenari, zuzenean, edo aukerako berraztertze-errekurtsua jarri lezake egintza eman zuen organo beraren aurrean²⁷. Kasu horietan guztietan 30/1992²⁸ Legeak (107. eta hurrengo artikulua) xedatutako errekurtsu eta administrazio-isiltasunaren erregimena aplikatuko da.

4.2. Erakunde pribatuen esku dagoen informazioa

27/2006 Legean aurreikusitakoari jarraituz, pertsona fisiko edo juridikoak agintari publikoak dira baldin eta ingurumenarekin loturiko erantzukizun publikoak bere gain har-

²⁵ 27/2006 Legea, 20. artikulua.

²⁶ 29/1998 Legea, 29. artikulua.

²⁷ 30/1992 Legeko 109. eta hurrengo artikulua.

²⁸ 107. eta hurrengo artikulua.

Administrazioak ez badu informazioa ematen Legeak xedatutako epean, eskatzaileak erreklamazioa aurkeztu behar du informazioa eman behar duen organoaren aurrean. Horrek ez badu erantzunik ematen hiru hilabeteko epean, herritarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango du.

Administrazioak, ebazpen baten bidez, espresuki ukatzen badu informazioa eskuratzeko, egintzak ez badu administrazio-bidea agortzen gora jotzeko errekurtsua jarri lezake hierarkiako nagusi hurrenaren aurrean. Bidea agortzen badu, administrazioarekiko auzi-bidean egin liezaioke kontra ebazpenari, zuzenean, edo aukerako berraztertze-errekurtsua jarri lezake egintza eman zuen organo beraren aurrean.

Parte hartzeko eskubidea gauzatzeko, 27/2006 Legeak, araututako prozeduretan esku hartzeko, pertsonak bete behar dituzten baldintzak zehazten ditu. Horrek esan nahi du edozein pertsonak ezin duela administrazio-errekurtsu edo auzi-bideko errekurtsu bat jarri.

tzen badituzte, eginkizun publikoak betetzen badituzte edo zerbitzu publikoak ematen badituzte, betiere edozein erakunde, organo edo instituzioen agintepean²⁹. Horrek esan nahi du eskuratzeko eskubidea izaera pribatudun erakundeen aurrean ere gauza daitekeela, baldin eta eginkizun publikoak betetzen badituzte.

Adibide adierazgarria da bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa ematen duen enpresarena. Horren eta Administrazioaren artean bada kontratu-lotura bat: zerbitzu publikoaren emakida. Agintari publikoak enpresaren gaineko ahalak erabil ditzake, administrazio-kontratuen legerian ezarritakoari jarraituz. Beste modu batera esanda, haren aginte eta ikuskapenaren pean dago.

Gertatu liteke informazioa erakunde pribatuen esku egotea. Herritarrak erakunde-ari eskatu beharko lioke informazioa, lehenengo eta behin. Geroago, horrek erabakiko du emango duen ala ez, osorik edo zati bat, Legeak aurreikusten dituen salbuespen-arrazoiak alegatuta. Eskatzaileak ez badu jasotzen eskatutako informazioa bi hilabeteko epean (gehienekoa, orokorrean hilabetekoa da), edo dokumentazio faltsua jasotzen badu, adibidez, erreklamazio zuzena aurkeztu ahal du enpresaren gainean agintzen duen Administrazioaren aurrean³⁰.

Administrazioak erantzuna eman behar die honako arazoei: eskaria bidezkoa den ala ez eta enpresak informazioa emateko beharra bete duen ala ez.

Hipotesi bi gertatu ahal dira:

- a) Eskariari buruzko ebazpena ematen du eta herritarra ez dago ados: administrazio-bidea agortuta dago eta pertsonak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango du bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b) Erreklamazioa ebazten du eta informazioa eskatu duen herritarrak uste du ebazpena zuzena dela eta ados dagoela. Prozedurako administrazio-egintza hau be-tearazlea da zuzenean, autonomia erkidegoko legeriak aurreikusitako epean, eskumena duen prozeduretarako. Estatuko Administrazioaren aurrean izapidetzen direnetarako epea sei hilabetekoa izango da, eskatzaileari egindako jakinarazpenetik zenbatzen hasita³¹.

Enpresak ez badu ematen informazioa epe horretan, Legeak Administrazioa gaitzen du isun hertsagarriak ipintzeko, administrazio-ebazpena betearazte aldera³². Isunaren zenbatekoa autonomia erkidegoko edo estatuko araudian zehazten da. Azken horren kasuan, Legearen Hamargarren Xedapen Gehigarriak gehieneko zenbatekoa jartzen du: 6.000 € ez-betetze egun bakoitzeko. Prozeduraren arabera estatuko edo autonomiako araudia hartu behar da kontuan. Administrazioak zenbateko finkatzeko tarte zabala du. Alabaina, kontuan izan behar du, kasuz kasu, Administrazioak agindutako egintzak bete ez izanak duen eraginpeko interes publikoa.

4.3. Parte hartzeko eskubidea exijitzea

Prozedura hau eta aurrekoa desberdinak dira prozedura hasi ahal duen subjektuaren ikuspuntutik. Informazio eskuratzeko prozeduran ez bezala, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko, 27/2006 Legeak, araututako prozeduretan esku hartzeko, pertsonak bete behar dituzten baldintzak zehazten ditu. Horrek esan nahi du edozein pertsonak ezin duela administrazio-errekurtsu edo auzi-bideko errekurtsu bat jarri. Xedapen, plan eta programak egiteko prozeduretan bakarrik hartu ahal dute parte eskubide eta interes legitimoak dituztenak eta baita, «herri-ekintza» izeneko burutzeko, arestian aipatutako baldintzak betetzen dituzten elkarteak ere. Horrela, bada, lurralde esparru berean bi urtez edo luzaroago jardun eta irabazi asmorik ez duten elkarte ekologistek bakarrik dute parte hartzeko eskubidea.

²⁹ 27/2006 Legea, 2.4.2. artikulua.

³⁰ 27/2006 Legea, 21.1. artikulua.

³¹ 27/2006 Legea, 10. Xedapen Gehigarria.

³² 27/2006 Legea, 21.2. artikulua.

Administrazioak zenbait eskubide urratu litzake parte hartzeko eskubideari dagokionez: planteatutako alegazioei erantzunik edo arrazoirik eman ez izana, edota eragozpenak ipintzea alegazioak aurkezteko. Parte hartzen duen pertsonak horretarako eskubidea du eta ez du itxaron behar Administrazioaren baimen edo ebazpenik. Agintari publikoak soilik eragotzi lezake parte-hartzea prozeduretan esku hartzeko baldintza legalak betetzen ez direla egiaztatuz gero. Parte-hartzearen kasuan desberdintasuna da edozein herritarrek aurkeztu ahal dituela alegazioak, Administrazioak eragozpenak jartzen ez dizkion bitartean, edo azkeneko ebazpenean ez badu arrazoirik ematen aurkeztutako alegazioak zergatik baztertu dituen. Informatzean, aldiz, Administrazioari dagokio herritarraren esku jartzea eskatu duen guztia

Administrazioak eragozpenak jartzen badizkio pertsona bati ingurumenarekin loturiko planak egin edo arauak onartzeko prozeduretan parte hartzeko, herritarrak administrazio-errekurtsoa edo auzi-errekurtsoa izango ditu eskubidea ukatu dion administrazio-ekintzari kontra egiteko.

Administrazio-ekintzak ez badu administrazio-bidea agortzen, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal zango du.

Ekintzak administrazio-bidea agortzen badu, aukerako berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri litzake 30/1992 Legeak, errekurtsoei dagokienez, ezarritako aginduei jarraituz. Araua eman bada eta horrek ez baditu herritarrak egindako alegazioak jasotzen edo ez badu hori ez egiteko dituen arrazoiak ematen, auzi-bidera jo daiteke kontra egiteko. Hori geroago ikusiko dugu. Arau juridikoa denez administrazioarekiko auzi jurisdikzioari dagokio horren kontrola.

Administrazioak eragozpenak jartzen badizkio pertsona bati ingurumenarekin loturiko planak egin edo arauak onartzeko prozeduretan parte hartzeko, herritarrak administrazio-errekurtsoa edo auzi-bideko errekurtsua izango ditu eskubidea ukatu dion administrazio-ekintzari kontra egiteko.

Kautela-neurriak hartzearen helburua da prozeduraren ebazpenaren eraginkortasuna bermatzea. Benetako babes judiziala izateko eskubidea da kautela-neurriak hartzeko funtsa; modu horretan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoak ez luke eragotziko auzi-bideko epaiak eman litzakeen eskubideak onartzea eta leheneratzea.

5. KAUTELA-NEURRIAK HARTZEKO AUKERA

Kautela-neurriak hartzearen helburua da prozeduraren ebazpenaren eraginkortasuna bermatzea. Benetako babes judiziala izateko eskubidea da kautela-neurriak hartzeko funtsa; modu horretan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoak ez luke eragotziko auzi-bideko epaiak eman litzakeen eskubideak onartzea eta leheneratzea.

Ingurumen gaitetan oso garrantzitsuak dira, izan ere, ingurune fisikoko elementuetan eragin duten jardueren ondorio atzerazinak sortu litzakete gelditu edo eten ezean. Auzitegiek ahalik eta azkarren esku hartzea ezinbestekoa da. Adibide baterako, gogoan izan azpiegiturak egiteko baso-mozketak edo lur-erazketak. Jarduera hauek berehalakoan betetzeak konpondu ezinezko kaltea sortu lezake baldin eta, geroago, ingurumena babeste aldera, auzitegiaren ebazpena azpiegitura egitearen kontrakoa balitz edo proiektua aldatzeko proposamena egingo balu.

Agintari judizialak jokoan diren interesak haztatu behar ditu. Alde batetik, jardueratik beratik eratortzen den interes publikoa. Adibidez, azpiegitura bat egitea sustapeneko jarduera administratiboa da, gizartearen jarduera ekonomikoa eta soziala bultzatzeko helburua duena. Beste aldetik, aztertu beharko litzateke jarduera horrek zelako eragina duen inguru fisikoaren elementuetan, lurzoruan, itsasoan, uretan edo atmosferan. Horiek babestea interes publikokoa da, duda barik. Jurisdikzio-organoak interes horietatik, sortu litezkeen kalteen arabera, zeinek duen garrantzi handien aztertu beharko litzuzke, kasuz kasu.

Epaileek eta auzitegiek ezin dute gaiaren mamiari buruzko aurre epairik eman. Hori egia bada ere, jurisprudentiak esan du benetako eskubidearen itxura izateak ingurumenean eragina duen jarduera bati baimena emateko administrazio-ekintza etetea ekar lezakeela. Arazoaren azterketa arina denez, agintari judizialak erabaki lezake Administrazioak ez duela jokatu zuzenbideari jarraituz, lehen begiratuan edo nabarmena izanda. Horrela, bada, ekintzaren eraginkortasuna eten egin behar dela erabaki lezake, bestela azpiegitura egiteak konpondu ezinezko kaltea eragin liezaioke pertsonari³³.

Neurri horiek alde biak entzun eta gero hartu behar dira. Hala ere, larrialdia denean «oso behin-behinekoak» izeneko neurriak har daitezke. Azken horiek 3 eguneko epean berretsi edo ezeztatu behar dira³⁴. Kautela-neurriak hartu behar diren baloratzeko ukan, jurisdikzio-organoak kontuan hartu behar du prebentzio-oinarria, modu horretan lurraldean eginiko jarduera batek sortutako kaltea ahal den neurrian ekiditeko.

Dena den, eteteak interes publikoan duen eraginak arazoaren azterketa sakonagoa egitera behartzen du. Horregatik, irizpide batzuk proposatu zaizkio organo judizialari eteteari ekin diezaion:

- a) Etetearen xedea prozesuaren helburua lortzea da.
- b) Neurria gauzatzeak ekarri litzakeen kalteak zalantza barik egiaztatu behar dira.
- c) Proiektuak ekarriko dituen konpondu ezinezko kalteak identifikatu.
- d) Administrazio-egintzak erabateko deuseztasun-akats nabarmena duenentz argitu.

Dudarik gabe jokoan da interes publikoa, horregatik defendatu da etetea eskaria automatikoki ematea harik eta jarri den errekurtsoa ebatzi arte. Konstituzioan agertzen den ingurumen egokia gozatzeko eskubidea ez da zuzenean aplikatu daitekeen eskubidea. Hala eta guzti zere, epaileen jarduera informatzeko printzipio arautzailatzat hartzen da, hortaz, epaileek eta auzitegiek emandako ebazpenak Konstituzioan aitortzen den printzipio hone-tara egokitu beharko lirateke.

Orain arte esandakotik ondorioztatzen da ingurumenean eragina duen jarduera bat baimentzen duen administrazio-egintzaren betetzea etetea lehen mailako kautela-neurria da. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenean, etetea administrazioarekiko auzi-bidean luza daiteke, baldin eta, aldez aurretik, kautela-neurriren bat bazegoen eta horren

³³ Besteak beste: 1990-12-20 AGE, BE, 10412, 8. ZO.

³⁴ 29/1998 Legea, 135. artikulua..

eragina auzi-bidera heltzen badira. Etetea errekurtsioan eskatzen bada, epaia eman arte mantenduko da³⁵.

Ingurumenean eragin handia duten azpiegitura erraldoiak egiteak dakarren arazoa sortzen da. Politikaren ikuspuntutik oso zaila egiten da lanak etetea, izan ere, itxaropena sortzen da gizartearen, batez ere, hornikuntzak ekarriko dituen onurak baliatuko dituzten esparruetan. Adibidez, garraioaren esparruan, errepide batek zerbitzuak hobetuko lituzke bide arinagoa eta trafiko gutxiago eskainita. Gauzak horrela, ingurumenaren onerako den berehalako etetea lortzeko araudia eta doktrina-saiakerak gorabehera, egia da, praktikan, oso zaila izango dela proiektua etetea.

Kontuan hartu da bestelako kautela-neurriak hartzea, ingurumenean eragina izango duen jarduketa batek ekarriko lituzkeen kalteak zeharka aseguratzeko. «Kontraneurriak» deitu izan dira eta euren helburua da proiektu bat betetzea etetetik eratorriko liratekeen kalteak konpontzeko ordaina bermatzea. Zehatzago esanda, eragindako kalteak konpontzeko beharrezkoa den diru kopurua ordainduko dela bermatzeko besteko kauzio edo fidantza eskatuko da³⁶. Kalte horien artean sortutako kaltea dugu, hots, eteteak zuzenean sortutako kalteak, kontratistak epea atzeratzeagatik jasan behar duena, batez ere. Halaber, baloratu behar da azpiegitura behar duten pertsonen —euren jardunetan aritzeko— galduko duten guztia (eskuratu gabeko irabazia).

Tamaina handiko proiektuen kasuan, agintari judizialak eskatzen dituen fidantzak proiektua betetzeagatik eragina jasango duten hainbat pertsona eta erakunderen ahalbide ekonomikoa gainditzen du. Horra hor nekazari txikiak, partikularrak, abeltzainak edo elkarte ekologistak, horren lan erraldoiak eteteko besteko diru kopuru itzelak ez dituztenak. Beraz, neurrigabeko fidantzak ezartzeak eteteko eskaria eragozten du eta, zeharka bada ere, benetako babes judiziala ere bai.

Agintari judizialak jokoan diren interesak haztatu behar ditu. Alde batetik, jardueratik beratik eratorzen den interes publikoa. Beste aldetik, aztertu beharko litzateke jarduera horrek zelako eragina duen inguru fisikoaren elementuetan, lurzoruan, itsasoan, uretan edo atmosferan. Horiek babestea interes publikokoa da, duda barik. Jurisdikzio-organismoak interes horietatik, sortu litezkeen kalteen arabera, zeinek duen garrantzi handien aztertu beharko lituzke, kasuz kasu.

³⁵ 30/1992 Legea, 111.4. artikulua.

³⁶ 29/1998 Legea, 133. artikulua.

Elkarte ekologistak doako laguntza juridikoaren onuradunak dira.

6. INGURUMEN-PROZESUAK ETA HORIEN KOSTUA FINANTZATU

Ingurumenaren gaineko epaitegietara jotzeko eragozpen nagusietako bat Administrazioaren aurka auzitan aritzeak dakarren kostu itzela da. Gainera, gogoan izan behar dugu, jabeak eta nekazarien eta abeltzainen sektoreak salbuetsita, partikularrek ez dituztela ingurumena babesteak dakartzan gastuak euren gain hartzen. Elkarte ekologista gehienek ere ez dituzte Administrazioari auzitegietan aurre egiteko beharrezkoak diren pertsonak eta materialak. Horrek guztiak ingurumen interesak babesteko asmoa kentzen die.

Arazo hau 27/2007 Legearen bidez konpondu nahi izan da, 23. artikuluan —herri-egintzari buruzkoa— xedatzen diren baldintzak betetzen dituzten elkarte ekologistei doako laguntza juridikoa emanaz, Legeak ezartzen duen moduan³⁷. Aarhus-eko Hitzarmenari jarraituta herritarrek laguntza behar lezakete ingurumenari buruzko arazoetan parte hartzeko eskubidea baliatzeko. Parte-hartzeari eta ingurumenaren arloko zuzenbidea urratzeari buruzko prozedurek behar besteko eta eraginkorrak diren baliabideak eskaini behar dituzte³⁸. Horrek elkarteei eta herritarrei laguntza ekonomikoa ematea kontuan hartzera bultzatzen du, modu horretan auzitegien aurreko babesa lortuz.

Aarhus-eko Hitzarmenean esaten da ingurumenaren arloan eskubideak baliatzen dituzten pertsonak ezin direla zigortu, jazarri edo neurri iraingarrien eraginpean eduki euren egintzengatik. Baina, barne auzitegiek arrazoizko kopurua duten kostuak ezarri ahal dituzte prozedura judiziala amaitzen denean. Administrazio-prozedura, adibidez, doakoa da. Hala ere, interesdunek eurek ordaindu beharko dituzte proposaturiko frogak³⁹. Administrazioarekiko auzi-prozesuan, ordea, abokatuaren laguntza eta prokuradorearen ordezkartza beharrezkoa da. Horrezaz gain, prozesu batean beharrezkoak eta berezkoak diren ekintzak daude, hala nola frogak aurkeztea. Horrek guztiak gastuak -txikiak ez direnak- nork bere gain hartzea exijitzen du.

Legegilearen erabakia da elkarte ekologistak doako laguntzaren onuradunak egitea eta hori ulergarria da kontuan hartuta GKEek ezin dutela irabazi asmorik eduki. Alabaina, arau horretan ez zaie aipamenik egiten defentsa egokia egiteko prozesu-gastuei. Fidantzen kasua da. Garrantzitsu samarrak dira horiek, batez ere herritarrek administrazio-egintza eten nahi duenean. Horregatik, fidantzen zenbatekoa auzian aritu nahi duen pertsonaren ahalbide ekonomikoaren arabera izan beharko litzateke, doako justiziaren onuradunei exijitu gabe.

³⁷ 27/2006 Legea, 23.2 artikulua..

³⁸ Aarhus-eko Hitzarmena, 9.4. artikulua.

³⁹ 30/1992 Legea, 81.3. artikulua.

7. INGURUMENAREKIN LOTURIKO ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO BIDE EZ-JURISDIKZIONALAK

Administrazio edo agintari publikoak zuzen jokatzan ez duten kasu guztietan bezala, herritarrek Herriaren Defentsariari zuzendu ahal dizkiote euren keak. Hori gauzatzeko ez da eskatzen baldintza legal edo formal berezirik. Instituzio horrek urtero Gorte Nagusiei jakinarazi behar dio nolakoa izan den bere kudeaketa. Txosten bat erredaktatu behar du Gorteei aurkezteko bilkura-aldi arruntean zehar bilduta daudenean⁴⁰.

Babes-errekurtsoa ebazteko asmoaz Konstituzio Auzitegira jotzeko aukerari dago-kionez, auzitegi nagusi horrek behin eta berriro ukatu du ingurumen egokirako eskubidea oinarrizkoa izatea eta, beraz, eskubide hori urratu izanean funtsatutako demandak ez ditu ontzat hartu. Horrek ez du esan nahi Konstituzio Auzitegiak ez duela ingurumenarekin loturiko auzirik erabaki. Horrelako kasuetan bizitzeko, osotasun fisikorako edo egoitzaren bortxa-ezintasunerako eskubideak alegatu dira.

Arau horren jatorria Erkidegoko zuzentarauetan egonda, Europako herritarrak edo Estatu kideren batean bizi diren pertsonak Erkidegoko Zuzenbidea betetze-kontrolerako bideetara jo ahal dute: Europako Parlamentuaren aurreko eskaria eta Europako Batzordearen aurreko kexa.

Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrek eta bertan bizi direnek eskariak eta keak aurkeztu ahal dizkiote Europako Parlamentuari, erkidegoko araudia urratzen duten Estatu kideen ekintza edo ez-egiteengatik. Ingurumenarekin loturiko arazoak ere izan daitezke⁴¹.

Europako Batzordea, itunak zaintzeko erakundea den aldetik, Batasuneko herritarren keak, baita Europan bizi direnenak ere, aztertzeko eskumena du. Batasuneko Itunak ahalmena ematen dio Batzordeari itunak ez betetzeagatik errekurtsioak jartzeko Justizia Auzitegiaren aurrean. Errekurtsoetan adierazi ahal du Estatuak ez duela jokatu Erkidegoko Zuzenbideari jarraituta. Batzordeak Justizia Auzitegiaren aurrean beharrezkoak diren ekintzak eskatu ahal ditu Batasuneko herritarrek adierazitako kexen ondorioz.

Izan ere, kexa horiek eragin dute Batzordeak salatutako Estatuari eskatzea bere jarduketara erkidegoko araudira egokitzeko. Ikusapena ere sustatu lezake eta, ondorioz, irizpen arrazoitua egin, ingurumenari buruzko legeria ez betetzeagatik errekurtsioa jarri aurretik.

Herritarren salaketaren ostean Europako Batzordeak egindako ikerketak Estatu ustetzeko erantzulearen kontrako zehapen-prozedura batera bideratu lezake, erkidegoko ingurumen-araudia urratzeagatik. Esan liteke, beraz, herritarrek eta elkarte ekologistek Europako erakundeetan egindako jarduketak disuasio-tresnatzat har daitezkeela, Estatuaren administrazio-jarduera araudiaren kontrakoa denean ingurumen-eragina duten partikularren jarduketei dagokionez.

Zehapen-espedita bat zabaltzeak ez dakar, automatikoki, herritarrek izapidetzean parte hartzeko aukera interesdun modura. Salatzaileak izateak ez lieke utziko prozeduran interesa duen pertsonari dagozkion eskubideak baliatzen: alegazioak edo frogak aurkeztu, espedita kontsultatu, Batzordeak ebatzitakoaren aurkako errekurtsioak jarri edo erakunde horrek Estatuari jarritako zehapen-ebazpenei jarri liezazkieketen errekurtsioei erantzutea.

Administrazioaren aurrean erreklamazioa aurkeztu eta erantzun edo irtenbiderik ez jaso ondoren, Arartekoarenera jo daiteke. Instituzio independente eta doako horren egitekoa pertsonen laguntza ematea da, erakunde publikoen kontra aritzen direnean.

Estatuko legeriak zein autonomikoak Europako Zuzentarauak iraultzen dituzte ingurumenari buruzko gaietan informazioa eskuratzea eta parte-hartze publikoari dagokionez. Beraz, Europako herritarrek eta Estatu kideren batean bizi direnek Erkidegoko Zuzenbidea betetze-kontrolerako bideetara jo ahal dute: Europako Parlamentuaren aurreko eskaria eta Europako Batzordearen aurreko kexa edo salaketa.

⁴⁰ 3/1981 Lege Organikoa, Herriaren Defentsariarena, 32.1.artikulua.

⁴¹ Europar Batasunaren Ituna, 194. artikulua.

ERANSKINA

LEGE ERREFERENTZIAK

AURKIBIDEA

1. MARKO OROKORRA	121	3. PARTE HARTZE PUBLIKOA INGURUMENEN GAIETAN .	124
2. INGURUMEN-INFORMAZIOA	122	3.1. 27/2006 Legeko 17. artikuluan aipaturiko gaietan lotura duten plan eta programen gauzatzea eta ebaluazioa xe- datzen duten arloko arauak	124
2.1. 27/2006 Legean eta arloko bestelako arauetan xedatu- tako betebeharrak ingurumen-informazioa zabaltzeari dagokionez.....	122	3.2. Publikoaren parte-hartzea erregulatzen duten arauak uraren gaietako plan eta programetan, eta plan eta programek ingurumenean duten eragin-ebaluazioari buruzkoetan.....	125

1. MARKO OROKORRA

Aarhus-en (Danimarka) 1998ko ekainaren 25ean egindako Hitzarmena Berresteko TRESNA, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeari, erabakietan publikoak parte hartzeari eta epaitegietara jotzeari buruzkoa dena. [BOE 16.02.2005](#).

2003/4 Zuzentaraua, publikoak ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeari buruzkoa dena eta Kontseiluaren 90/313/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena. EEAO L 41, [14.02.2003](#).

2003/35/EE Zuzentaraua, ingurumenarekin loturiko zenbait plan eta egitasmo egitean publikoak parte hartzeko neurriak ezartzen dituena eta Kontseiluaren 85/337/EEE eta 96/61/EE Zuzentarauak aldatzen dituena, publikoaren parte-hartzeari eta epaitegietara jotzeari dagokionez. EEAO L 156, [25.06.2003](#).

27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena (2003/4/EE eta 2003/35/EE Zuzentarauak hartzen ditu bere baitan). [BOE 19.07.2006](#).

1/2008 Legegintzako Errege-dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuen Ingurumen-inpaktuaren Ebaluaketari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. [BOE 26.01.2008](#).

30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. [BOE 27.11.1992](#).

3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. EHAA [27.03.1998](#).

8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. EHAA [30.12.2003](#).

2. INGURUMEN-INFORMAZIOA

2.1. 27/2006 Legean eta arloko bestelako arauetan xedatutako betebeharrak ingurumen-informazioa zabaltzeari dagokionez

Gaiak	Araudiak
Ingurumenari buruzko legeria edo gaiarekin loturikoa	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.1. artikulua)
Ingurumenari buruzko politika, plan eta egitasmoak eta horien ingurumen ebaluazioak	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.2. artikulua)
Ingurumen-legeria edo -politika aplikatzeari buruzko txostenak	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.3. artikulua)
Ingurumenaren egoerari buruzko txostenak	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.4. eta 8. artikulua)
Ingurumenari eragiten dioten edo eragin liezaioketen jardueren segimendutik hartutako datuak edo horien laburpenak	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.5. artikulua)
Ingurumenean eragin nabarmena duten baimenak (edo eskatu zein aurkitu daitezkeen lekuari buruzko erreferentzia)	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.6. artikulua)
Ingurumenari buruzko akordioak (edo eskatu zein aurkitu daitezkeen lekuari buruzko erreferentzia)	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.6. artikulua)
Ingurumen-inpaktuari buruzko azterketak eta ingurumeneko elementuen gaineko arrisku-ebaluazioak (edo eskatu zein aurkitu daitezkeen lekuari buruzko erreferentzia)	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (7.7. artikulua)
Berehalako mehatxua gizakien osasunarentzat edo ingurumenarentzat	27/2007 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta epaitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituena BOE 2006.07.19 (9. artikulua) 1254/1999 Errege Dekretua, uztailaren 16koa, substantzia arriskutsuekin gertaturiko istripu larriek berez dakartzaten galzoriak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena. BOE 1999.07.20 (13. artikulua)

Gaiak	Araudiak
Airearen kalitatea	34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa BOE 2007.11.16 (8. artikulua)
	1796/2003 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, inguruko airearen ozonoari buruzkoa. BOE 2004.01.13 (6. artikulua)
	1073/2002 Errege Dekretua, sufre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari, nitrogeno oxidoei, partikulei, berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari dagokienez, airearen kalitatearen ebaluazioa eta kudeaketa arautzen dituena. BOE 2002.10.30 (11. artikulua)
Bainatzeko uren kalitatea	1341/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, bainatzeko uren kalitatea kudeatzeari buruzkoa. BOE 2007.10.26 (13. artikulua)
Genetikoki eraldatutako organismoak	178/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, 9/2003 Legea garatu eta beteazteko Erregelamendua onartzen duena. Legea apirilaren 25ekoa da eta genetikoki eraldatutako organismoak modu mugatuan erabili, borondatez askatu eta merkaturatzeari buruzkoa da. BOE 2004.01.31 (49. artikulua)
Hondakinak	782/1998 Errege Dekretua apirilaren 30ekoa, apirilaren 24ko bilgarri eta bilgarrien hondakinei buruzko 11/1997 Legea garatzeko eta ezartzeko Erregelamendua onartzen duena. BOE 1998.05.01 (16. artikulua)
	653/2003 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, hondakinak errausteari buruzkoa. BOE 2003.06.14 (19. artikulua)
	106/2008 errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa. BOE 2008.02.12 (19. artikulua)
Zarata	37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa. BOE 2003.11.18 (5. artikulua)
	1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, zaratari buruzko 37/2003 Legea garatzen duena, ingurumenaren zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez. BOE 2005.12.17 (4. artikulua)
Kutsatzaile-isurtzeak eta -transferentziak	Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 166/2006 Erregelamendua (EE), 2006ko urtarrilaren 18koa, emisioen eta kutsatzaileen transferentzien Europako erregistroa ezartzeko dena eta Kontseiluaren 91/689/CEE eta 96/61/CE Zuzentarauak aldatzen dituena EEAO L 33 2006.02.04 (10. artikulua)
	508/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, E-PRTR Erregelamenduak zehazten dituen emisioei eta ingurumen-baimen bateratuari buruzko informazioa ematea arautzen duena. BOE 2007.04.21
Ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioa (EMAS)	Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 761/2001 Erregelamendua (EE), 2001eko martxoaren 19koa, erakundeei ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioaren (EMAS) kide bere borondatez izateko baimena ematen diena. EEAO L 114 2001.04.24 (12. artikulua)

3. PARTE HARTZE PUBLIKOA INGURUMENEN GAIETAN

3.1. 27/2006 Legeko 17. artikuluan aipaturiko gaiekin lotura duten plan eta programen gauzatzea eta ebaluazioa xedatzen duten arloko arauak

Gaiak	Arauak	
	Estatua	Euskal Autonomia Erkidegoa
Hondakinak	<p>9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29</p> <p>10/1998 Legea, apirilaren 21koa, hondakinei buruzkoa. BOE 1998.04.22 (5. artikulua)</p> <p>REAL DECRETO 105/2008, otsailaren 1ekoa, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duena. BOE 2008.02.13 (14. artikulua)</p>	<p>183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4.</p> <p>3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. EHAA 1998.03.27 (70. eta 77. artikulua)</p>
Pilak eta metagailuak	<p>9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29</p>	<p>183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4.</p>
Nitratoak	<p>9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29</p>	<p>183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4.</p>
Bilgarriak eta bilgarrien hondakinak	<p>9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29</p> <p>11/1997 Legea, apirilaren 24koa, bilgarri eta bilgarrien hondakinei buruzkoa. BOE 1997.04.25 (17. artikulua)</p> <p>782/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, apirilaren 24ko bilgarri eta bilgarrien hondakinei buruzko 11/1997 Legea garatzeko eta ezartzeko Erregelamendua onartzen duena. BOE 1998.05.01 (3. artikulua)</p>	<p>183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4.</p> <p>3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. EHAA 1998.03.27 (70. eta 77. artikulua)</p>
Airearen kalitatea	<p>9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29</p> <p>34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa BOE 2007.11.16 (12. eta 16. artikulua).</p>	<p>183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4.</p> <p>3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. EHAA 1998.03.27 (31. eta 33. artikulua)</p>

3.2. Publikoaren parte-hartzea erregulatzen duten arauak uraren gaitako plan eta programetan, eta plan eta programek ingurumenean duten eragin-ebaluazioari buruzkoetan

Gaiak	Arauak	
	Estatua	Euskal Autonomia Erkidegoa
Urak	907/2007 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, Plangintza Hidrologikoari buruzko Erregelamendua onartzen duena. BOE 2007.07.7 (72.etik 75.erainoko artikulua)	1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena., EHAO 2006.07.19 . 33/2003 Dekretua, otsailaren 18koa; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua sortu, eta EAEko barneko arroen Plan Hidrologikoa izapidetzeko prozedura arautzen da. EHAO 2003.03.05
Baterako ebaluazioa	9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eraginari buruzkoa. BOE 2006.04.29	183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio- prozedura arautzen duena. EHAO 2003.09.4 .

Ondoko web-gunean kontsulta daitezke ingurumenari buruzko lege erreferentzia eguneratuak: 

